

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gernika-Lumo

Aurkibidea

Udalerria: Gernika-Lumo

Sarrera



Gernika-Lumo Bizkaiko Busturialdea eskualdean kokatua dago, Gernikako Itsasadarraren hasieran. 1882. urtean, ondoan zuen Lumoko elizatearekin batu eta Gernika-Lumo sortu zuten. 60ko hamarkadan, biztanleriak gorakada handia izan zuen, %57koa hain zuzen, udalerraren industrializazioarekin batera. Gernika mundu osoan da ezaguna, han gertatu baitzen zibilen aurkako lehen aietiko bonbardaketa, 1937an pairatutakoa. Mendebaldeko euskararen barruan tarteko hizkeraren barruan kokatzen da gernikarren eta lumotarren hizkera. *Argazkia: Wikipedia*

- **Biztanleak:** 15.547
- **Euskaldunak:** %72,68

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **84**
- Zintak: **123**
- Pasarteak: **1.316**
- Transkribatutakoak: **108**
- Audioak: **181**
- Bideoak: **1.135**

Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- 101L - Herriz herri
- Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Gernika-Lumoko ahotsak
- Gernikar emakumeak XX. mendean: Ahotsak eta Bizipenak
- Lumoko historia
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Arantza Agirre Uribe (1932)



[Santa Luzia](#)ko Jauregi etxean (gaur egun desagertuta) jaio zen. Aita Elorrikoa zuen, arotza, eta ama Muxikako Zubietako jostuna. Hiru neba-arrebatan gazteena izan zen. Bonbardaketa ostean Muxikako [Obar](#)ren egon ziren etxea okupatu baitzien, baina gero berriro bueltatu ziren bertara. Santa Luziako auzotarren bizipenak eta okerkeriak, Pasealekuko eskolako kontuak, bederatzi urtegaz merienda truke umezain egindako lanak, etxeko erremedioak... izan ditu berbagai elkarrizketan. [Deunoro Sardui](#) muxikarragaz ezkondu eta seme bat izan zuen.

Jesus Mari Agirre-Amalloa Ozamiz (1931-2018)



[Saraspe](#) plazan jaio 1931. urtean. Aita Kortezubikoa zuen, errementaria, eta ama Ibarrangeluko Merru auzokoa, jostuna. Bere ume garaia gerrak eta bere jaioterriko bonbardaketak erdibitu zuen eta Frantzian pasa zituen hiru urte errefuxiatu bere hiru neba-arrebekin. Bertan jaso zituen lehen eskolak Gernikako Pasealekuko eskolara joan arte. Bonbardaketan beraien etxe atzeko babeslekuan babestu zen, baina amaren aldeko amama, ezin irtenda, etxean bertan hil zen erreta. Gurasoak Arana kondearen lagunak zirenez, haien Nere Kabia jauregiko garajea jarri zuen bere aitak errementari-tailerra [Torrezuri](#) jauregian bizi ziren bitartean. 14 urte zituela, aitarekin hasi zen beharrean tailer horretan. Zazpi urtez [Torrezuri](#) egon ostean, [Saraspe](#) bueltatu ziren lehengo etxea zegoen leku berera eta plazan bertan tailer berri bat zabaldu zuten. 17 urterekin Marijesietan abesten hasi zen eta soldadutzara joan arte aritu zen horretan. Ezkondu ostean, Venezuelara joan zen eta bertan hazi ziren bere lau alabetatik hiru. Mendigoizale ausarta, Euskal Herriko mendi guztiak, 700dik gora hankapean izan ditu.

Presen Alberdi Zubiaurre (1920-2013)



1920. urtean sortu zen Eriabarrenan, gaur egungo Pablo Picasso kalean. Ama gernikarra zuen, "Café el Norte" ezaguneko alaba; aita, ostera, Soralezetik (Gipuzkoa) Alkartasuna arma-fabrikara etorritako behargina, bertako sortzaileetarikoa bat izan baitzen. Txikitan karmeldarren ikastetxera joan zen. Zortzi urterekin Zallo-Barri jatetxea dagoen tokian zegoen etxe batera joan ziren bizitzera. Bonbardaketan etxe barik gelditu zirenez, Bilbora eta Gordexuelara joan ziren. Handik beste hainbat herrikiderekin batera, Elai-Alai dantza taldeko kideekin, Segundo Olaetaren gidaritzapean Frantziara egin zuten alde. Guztira hiru urte luzez egon zen Parisen. Agirre lehendakariaren lehenengo umea jaio zenean, beraiek kantatu zieten haurtxoari. Zartzuela eta antzerki ezberdinetan parte hartu zuen gaztetan herrian.

Jose Albizu Basterretxea *Pastorie* (1930-2016)



1930ean jaio zen Ibarruriko (gaur egun Muxika) Mauma auzoko Irudietza "Aixenbeko" baserrian, baina 19 urte gaz Gernika-Lumoko [Arana](#) auzoko Etxeandira joan zen eta bertan bizi izan zen ordudanik. Bost anai-arrebatatik hirugarrena. Aita Maumakoa bertakoa zuen eta ama Ibarruriko Trupittekkoa. 12 urtera arte Maumako eskolara joan zen; Lekeitio artzain zebilela ere klase partikularretara joaten zen bertan. Beti aritu izan zen artzain beharretan bere familiako tradizioari jarraituz. 1960tik 1968ra arte Kalifornian ibili zen artzain. 1969an [Dalia](#) hasi zen lanean eta 24 urte egin zituen bertan, erretiroa hartu arte. Jubilatu arte Etxeandibarrin ganadua izan zutenek, beti egon izan zen baserriko beharrei lotuta. Kortezubiko Parlamente baserriko [Pakita Goitia](#) gaz ezkondu ostean bi seme-alaba izan zituzten.

Enrike Aranzabal Olaeta Iturri (1924-2019)

1924an jaio zen [Barrenkale](#) kaleko 24. zenbakian, Boliña hotela dagoen tokian. Aita Elorriokoa zuen, Elgetako Iturri baserritik bertara joandakoen semea, eta ama gernikarra. Bere aita Astra arma-lantegira etorri zen lanera. Aitona San Juan elizako sakristaua zen, 'Jose Martillo'. Barrenkaletik [Erreterria](#) auzora joan ziren, baina sei urterekin-edo Portu kalera joan ziren, eta bertan egon ziren bonbardaketara arte. Umetan [San Juan Ibarra](#) inguruan aritzen zen kaleko beste ume askorekin batera. Bonbardaketan etxe barik geratu zirenez, Forura joan ziren eta bertako harrobiko kobazulo batean pasatu zuten lehenengo gaua.



Gernikarako bidea zarratuta zegoen eta hurrengo gaua Tiloetako etxe batean pasatu zuten, eta ostean anbulatorio ondoko jesuiten etxe batean bi gau. Azkenik Urremendi baserrira joan ziren, eta bertan egon ziren zortzi urtez, sindikatuetako etxeetako bat eman arte. Umetan Pasealekuko eskoletan ibili zen 14 urtera arte, eta dotrinara [Andra Mariara](#) joaten zen nahiz eta beraien eliza San Juan izan. Ikasketak bukatu ostean, Jipsan (geroko [Dalia](#)) hasi zen lanean eta hiru urtez egon zen bertan. Gero, aroztegian hasi zen beharrean eta horretan ibili da beti, eraikuntza alorrean arotz lanetan. Ezkondu aurreko bost urteak itsasoan igaro zituen zerbitzari legez. Gernika-Lumoren berreraikitzean ere lanean aritu zen "Banco de Vizcaya" eta [merkatu-plaza](#) eraikitzen, besteak beste. 29 urterekin ezkondu zen Gernikan, Sukarrietan jaiotako, baina Gernika-Lumon hazitako emaztearekin. Gerra aurreko kontuak oso ondo gogoratzen ditu.

Rafa Armendariz Gainza (1926-2018)

1926an jaio zen [Artekale](#)n. Aita Elorriokoa zuen eta ama gernikarra. Bere ama esne-saltzailea zen, eta hasieran zaldi-gurdiaz eta gero alokairuzko autoan ibiltzen zen abarketak eta baserriko gauzak saltzen. Sei urtetatik zortzi urtera arte karmeldarren ikastetxean ibili zen, eta orduetik bonbardaketara arte [Pasealeku](#)n. Bonbardaketak Forun harrapatu zuen. Etxea erre eta ezer barik geratu ziren. Hurrengo sei urteak Forun pasatu zituzten; ostean, Tiloetan Martin Berasaluzek egindako etxean egon ziren sindikatuetoako etxeak egin arte. Gerraostean ez zen eskolara bueltatu eta 12 urterekin abarketak egiten hasi zen lanean, egunean 3.5 pezeta irabaziz. Ostean, gasoginoa egiten ibili zen metalurgia-industrian. Lantegian zebilen bitartean, asteburuetan ere lan egiten zuen; 14 urterekin Argatxburuko garajea zegoen zineman hasi zen filmak ematen; 18rekin hasita 15 urtez "Sociedad de Gernika"n ibili zen zerbitzari; eta, beranduago, Bermeoko kasinoan ibili zen 15 urtez. Rafa Gernikako orfeoiko kidea izan zen urte luzez. Athletic zalea eta pilotazalea da. 40 urterekin ezkondu zen gernikar batekin. 2004tik Kaltzada egoitzan bizi da.



Kontxi Arrien Monasterio (1929-2018)

Goienkalen jaio zen, bere gurasoek Taberna Vasca jatetxe ezaguna izan zuten lekuan. Ama Kanpantxukoa (Ajangiz) zuen eta aita Bizkaiganekoa (Errigoiti). Sei neba-arreba izan ziren, baina horietako bat 16 urterekin Gernikako bonbardaketan hil zuten osaba bategaz batera. Gerra aurretik, gaur egun epaitegia dagoen lekuan zegoen jauregi bateko ikastolan ikasi zuen andereño gipuzkoar batzuekin, betiere euskaraz. Gerraostean, hainbat partikularretan (Otazua, Pepita Goiria, Txapiñonekoenean), karmeldarren ikastetxean eta Durangoko San Antonion ibili zen. Bonbardaketan, Andra Mari elizako kanpandorrean babestu zen. Taberna vascan zerbitzatzan aritu zen ezkondu arte. 17 urtez senarrarekin eta bi alabekin Madrilen bizi izan zen. Madrileko beste euskaldun batzuekin batera sortu zuten bertako lehenengo Euskal Etxea, eta bere senarra izan zen bertako lehenengo presidentea eta alabak lehenengo euskara-irakaslea. 1983. urte inguruan bueltatu ziren berriro ere Gernikara.



Luzina Arriola Zabalía (1925-2014)



Ondarroan jaio zen, bere aitaren jaioterrian, baina laster etorri ziren amaren herrira bizitzera, Gernikako Goienkalera. Bost neba-arreba izan ziren. Karmeldarren ikastetxean ibili zen bonbardaketara arte. Bonbardaketa eguneko eraso hasi aurretik babeslekuan egon ziren eta gauean bertan Bilbo aldera joan ziren. Handik Gordexuelara joan ziren Elai-Alaiko kideekin batzeko eta Frantzia aldera joan ziren: lehenengo, Donibane-Garazira eta gero, Parisera, 3 urtez egon zen bertan Segundo Olaetak gidatutako taldean. Gernikara bueltatu zirenean, Olaetatarren eta Seber Altuberen txaletetan egon ziren bizitzen. Gernikako hainbat zarzuelatan parte hartu zuen gaztetan eta orfeoiko meso sopranoa izan zen. Donostian Arévalo del Rey dukesaren etxean dontzeila lanetan aritu ostean, 1952an Ingalaterrara joan zen. Bertan hasi zuen bizimodu berria, bertako batekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan ostean. Hori dela-eta, euskaraz aritzerakoan ere ingeleserako joera nabaritzen zaio.

Itziar Arzanegi Uribe Erretxin (1924-2016)



[Frantseskale](#)n (gaur egungo Azokakale) jaio zen 10 neba-arrebako familia batean. Ama gernikarra zuen eta aita Erreziletik (Gipuzkoa) etorritakoa, hortik datorkie "Erretxin" ezizena eta izen horretako okindegia izan zuten urte askoan. Umetan, euskarazko ikastolan ibili zen: lehenengo, [Industria](#) kaleko lokal batean; eta, gero, anbulatorio ondoan jesuitekin. Bere aita Gernikako Batzokiko nagusia izan zen eta urte askoan izan zuten preso Bilbon eta Espainian. Frantseskale izan zuten okindegia, baina bonbardaketan dena galdu zuten etxeko giroa apurtuz: aita preso, bi neba gudari, etxe eta okindegi barik... Mendan babestu zen lehengusina batekin eta hiru urtez Sukarrietan egon zen izeko batenean, Azokakalera bueltatu arte. Beranduago, [Artelake](#)n zabaldu zuten okindegia atzera ere. Bilbora ezkondu zen eta bertan bizi izan zen urte askoan jaioterrira bueltatu arte.

Eskolastiko Asla Asla (1929-2023)

Lumoko Bengoetxea baserrikoa. Emazteak ere parte hartzen du elkarrizketan.

Benigna Asla Ortuzar (1935-2002)

1935ena jaio zen Mendatan, baina Lumoko [Mendiola](#) baserrian bizitakoa da. Bere senerragaz, [Luis Olaeta Erezuma](#)gaz batera, egin zitzaion elkarriketa. Grabazioa egin zenean 58 urte zituen.

Maria Teresa Azkarai Kareaga (1939)

1939an jaio zen Ajangizen eta gerora Lumoko [Olazarraga](#) "Olazarre" baserrira joan zen bizitzera.

Daniel Barandika Gardoki (1922-2005)

1922an jaio zen. Lumoko [Abaliz](#) baserrikoa zen.

Maria Dolores Basterretxea Santiago (1933-2025)

1933an jaio zen [Adolfo Urioste](#) kalean (gaur egungo Boyra botikaren gainean, lehenengo solairuan). Gurasoak Lumokoak zituen: aita [Amona](#) baserrikoa eta ama [Aranako Arana](#) baserrikoa. Lau ahizpetatik gazteena izan zen bera, baina hiru ahizpa eta aita bera jaio aurretik hil ziren; amarekin eta izekorekin hazi zen. Gernikako bonbardaketa ostean, bost urterekin hasi zen Otazuako eskolan bederatzi urtera arte. Bederatzi urterekin Karmelitetara joan zen 15 urtera arte. Ostean Makalagaz kontabilitatea, mekanografia... ikasi zituen. Bere amak [San Juan Ibarra](#) denda bat izan zuen, eta berak 21 urte zituela zarratu zuten. 1959an Andra Mariko parrokiari hasi zen lanean Gizarte Etxea eraikitzen zeudela, bertako kontuak-eta eramaten. 1961ean Gizarte Etxeko zinema zabaldu zutenetik bertan aritu zen lanean jubilatuta arte, hasieran txartel-saltzaile eta gero zuzendari. GER-112 kodetun grabazioa [Gernikar emakumeak XX. mendean: Ahotsak eta Bizipenak](#) lanerako egindako grabazioa da.



Edurne Bengoa Clemencot (1931-2015)



[Erdikokale](#)an jaio zen, Boyra botika dagoen lekuan bertan. Ama gernikarra zuen eta aita Otxandiokoa; zazpi neba-arreba izan ziren. Umetan karmeldarren ikastetxean ibili zen, baina lehenengo jaunartzea egin aurretik utzi zuen eskola eta etxe ezberdinetan hasi zen lanean gazte-gaztetatik. Bonbardaketan [Andra Mari](#)ko elizan babestu zen. Etxe barik gelditu zirenez, alde batetik bestera ibili ziren [Goienkale](#)ra joan arte bizitzera: Santander, Kortezubi, [Txorraburu](#) auzoan... Tarte horretan aita kartzelan izan zuen. Andaluziako senarra izan zuen hiru seme-alabaren ama honek.

Juanita Bergara Mintegia (1917-2013)



1917an jaio zen Arratzuko Telletxe baserrian. Aita araoztarra (Oñati) zuen eta ama arratzuarra. Hiru neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Umetan Loiolako eskolan ibili zen. Baserriko beharretan ibilitakoa da, Gernika-Lumoko plazan askotan egondakoa. Bonbardaketako lekuko, [San Juan Ibarra](#) harrapatu zuen erasoak. Bere neba zaharrena nazionalisten idazkaria izan zen gerra garaian. Gerra sasoiko hainbat kontu kontatzen ditu. 27 urte zituenean, Kortezubiko Barrutibasoko Secun Mendiolaegaz ezkondu ostean, Gernikako [Erreteriar](#)a (sasoi hartan Ajangiz) etorri zen bizitzera, eta ordudanik bertan bizi izan zen. Bi seme-alaben ama da. Elkarrizketatzailea bere senitartekoa da.

Andone Bidaguren Bilbao (1927-2024)



Ajangizen jaio arren, [Erreteriatik](#) joanda lehenengo etxean, hiru urterekin Barrutiko (Kortezubi) Musoerdira joan ziren. Hala ere, beti ibili izan da Gernika-Lumon; 22 urterekin bertako Gotzon Bareñorekin ezkondu ostean bertara joan zen bizitzera eta bertan bizi izan da ordudanik. Gerra sasoiaren gudariak eta militarrek izan zituzten Musoerdin; bere aita preso hartu zuten eta hiru urte eta erdiz egon zen Lekeition, Bilbon eta Pontevedrako San Simón irlako espetxean. Umetan, Gernikako karmeldarren ikastetxean ibili zen, baina bonbardaketa ostean, Kortezubira joan behar izan zuten. Ezkondu aurretik, Bodegoian ibili zen lanean, eta ezkondu ostean, merkatu-plazako bi harategitan eta Aterpe tabernan. Seme bakarra izan zuen.

Kontxa Bikandi Basterretxea (1927-2021)



1927an jaio zen Gernika-Lumoko [Erreterria](#) auzoan (sasoi hartan Ajangiz). Ama Lumoko [Asketa](#)koa zuen eta aita Erreterriakoa bertakoa. 7 neba-arrebatatik laugarrena da. Karmeldarren eskolara joan zen umetan; bonbardaketa ostean gutxi joan zen laster hasi baitzen umeak jagoten. Bonbardaketan etxe barik gelditzerakoan alde egin zuten, eta alde batetik bestera ibili ziren Kaltzada egoitza aurreko etxeetako bat egokitu arte: Deustutik Santanderrera; handik, itsasontziz Frantziara; bueltan amaren gurasoengana, Asketara... 17 urte gaz [Dalia](#)n hasi zen lanean eta bertan aritu zen zortzi urtez Kortezubiko [Anastasio Gondragaz](#) ezkondu arte.

Juanito Candina Elgezabal (1930-2024)



1930. urteko San Juan egunean jaio zen Geltoki plazan. Aita gernikarra zuen eta ama Olabarrikoa. Bonbardaketan, etxe ondoan zuten Astra arma-lantegiko bunkerrean babestu zen. Handik, gauean, Olabarrira joan ziren Santanderrera eta Frantziara errefuxiatuta joan aurretik. Herrira bueltatzerakoan, Landaberdeko etxe batean egon ziren Geltoki plazara bueltatu arte. Pasealekuko eskolan zebilela, letra ona zuela-eta herriko jabetza erregistroan hasi zen lanean 12 urte gaz. 6 urteren ostean, aitagaz batera bere tailerrean hasi zen pintore lanetan eta bertan aritu zen erretiratu arte; Gernika-Lumoko berreraikitze lanetan parte hartu zuen. Hala ere, bere zaletasunik handiena beste pintura mota bat da; izan ere, margolari trebea da Juanito eta Juntetxeko areto nagusiko margo-lanak ere berak egindakoak dira.

Pilar Candina Elgezabal (1918-2010)

1918ko Pilarreko Ama Birjinaren egunean jaio zen Gernikako [Frantseskale](#)n, bere aititak estankoa zuen bertan (gaur egun Faisan kafetegia dago). Aita gernikarra zuen eta ama Olabarrikoa. Bi urte zituela geltokiko plazara joan ziren bizitzera. Umetan [Pasealeku](#)ko eskoletan ibili zen, josten ere bertan ikasi zuten; ostean arratsaldetan Emiliarengana joaten zen josten ikastera. Bonbardaketa egunean, arratsaldeko lauretan irten zen etxetik eta segidan hasi ziren kanpai-hotsak entzuten. Lau orduz Andra Mari inguruan ezkutatuta egon ostean, Kanpantxuko Sebera esne-saltzailearen etxean igaro zuen gaua. 36 senitarteko egon ziren egun hartan Gernikan, eta guztiak atera ziren onik. Etxe barik gelditu zirenez, ebakuatuta alde egin zuten: Olabarrira, Bilbora, Santanderrera, Frantziara itsasontziz... guztira hiru hilabetez egon ziren kanpoan. Handik bueltan, 13 urte igaro zituzten Landaberden. Gernika berreraiki zenean bueltatu ziren geltokiko plazara atzera ere, Santander Central Hispano bankua dagoen lekura. Senar amerikarrarekin ezkondu ostean, Brooklyn-era joan ziren bizitzera eta bertan egon ziren sei urtez. Euskal Herrira bueltatu eta Ibarrangelun egon ziren 19 urtez. Gernikako [Industria](#) kalean bizi ostean, 2007. urtetik Kaltzada egoitzan egon zen.



Sara Casado Mansilla (1981)

Sara Talavera de la Reina hirian jaio zen. Euskalduntzeko bere lehen urratsa Iruñean eman zuen, bertan bizi izan baitzen 8 urtez. Ondoren, lan eskaintza interesgarri bat egin zioten Gernikatik. Euskal Herrira heldu zenetik euskara ikasten aritu da etengabe. Ingurumen Zientziak ikasi zituen, eta elkarrizketa egin genionean begirale bezala lan egiten zuen animalientzako aterpetxe baten. [101 L proiekturako](#) ere elkarrizketatu genuen.



Mari Carmen Egurrola Albizu Totorika (1932)



Gernikan jaioa, bost senidetan zaharrena. Ama Albizkoa zuen (Mendata), baserritarra, eta aita gernikarra, postaria; inprenta-enkoadernazio denda bat ere bazeukan. Bost urte zituenean, Gernika bonbardatu zuten eta etxerik gabe geratu ziren. Orduan Bilbora joan ziren lehenengo, gero Balmasedara, handik Gasteizera, eta azkenik Gernika aldera bueltatu ziren, aitik bere postari lana berreskuratu zuelako. Kortezubin egon ziren bizitzen, gero Foruan... Gernikan etxea aurkitu zuten arte. Mari Carmen gutxi joan zen eskolara, etxean laguntzea egokitu zitzaiolako; partikularrean joaten zen, egunean bi orduz. Gaztetxoa zela, Donostian egon zen neskame eta gero Gernikako hotel batean hasi zen lanean. Teodoro Totorikaguena ezagutu zuen bertan, jatorriz gernikarra baina Ameriketara bizitara eta bisitan etorrita zegoena. Ezkondu, eta Estatu Batuetara joan ziren, 1951n (Mari Carmen Totorikaguena ipini zioten pasaportearekin eta han "Totorika" bezala da ezaguna). Orduan Boisen bizitara izan da. Euskal kultura zabaltzen ibili da han: euskara klaseak ematen, euskal kantuak eta errezetak erakusten... Euskal Etxeko presidentea ere izan zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten.

Kruzita Etxabe Garro (1930)

[Ocho de enero](#) kalean jaio zen 1930. urtean. Ama Aulestikoa zuen eta aita Zumaiako Oikiakoa. Etxean, 8 neba-arrebatatik seik egin zuten aurrera eta beraiekin hazi zuten beste lehengusu bat ere. Bere aitak tailer bat izan zuen Gernikan bonbardaketara arte. Umetan, Otazuaneko eskola partikularrean ibili zen Bareñorenera joan arte kontabilitatea ikastera. Bonbardaketak "Cuatro bancos"en harrapatu zuen lagun batzuekin; gauez [Landaberdera](#) joan ziren eta handik Bilbora. Bilbon zeudela, beste hainbat gernikar bezala Gordexuelara joan ziren handik Santanderrera joan eta Frantziarako bidea hartzeko. Segundo Olaetaren gidaritzapean Elai-Alaiko kide bezala Parisera joan zen eta 27 hilabetez egon zen kanpoan; Kruzita izan zen joan zirenetatik bigarren gazteena, zazpi urte baino ez zituen-eta. Bonbardaketa ostean, bere gurasoek bere senarra izango zenaren jaiotetxean bertan txabola bat eraiki zuten etxebizitza eta denda bertan ezarriz. Gerora, [Erdikokale](#)ra joan ziren eta bertan zabaltzen zuten Peio Etxabe denda ezaguna: baserriko produktuak saltzen zituzten gehienbat. Bere senar [Jesus Kortabitarte](#) gaz batera egin zitzaion elkarriketa.



Hirune Etxebarria Bastegieta (1923-2020)

[Foru Plaza](#)n jaio zen, [Andra Maria](#) kaleko seigarren zenbakia zenean, [Frantseskale](#)era ematen zuen eraikinean. Ama [Erdikokale](#)koa zuen eta aita Foruko Jauregizarrekoa "Jauzar". Amaren aldeko aitita, [Bastegieta](#) baserrikoa, bertsolaria zen. Oinarrizko ikasketak karmeldarren ikastetxean eta solfeoa Segundo Olaetaz ikasi zituen. Umetatik irakurri zuen euskaraz etxean zituzten liburuei esker. Gerora ere, berak dioen moduan, amaren altzoan aitagandik ikasitako hizkuntzaren irakasle izan zen gizarte etxean zein bere etxean antolatutako gau-eskoletan. Bonbardaketako bizipenak bizi-bizi mantendu ditu: aurretik [Sigertatxu](#)ko ur-depositoan ezkutatu zirenekoa, Forura joan eta handik ikusitakoak... Foruan hiru lekutan bizi ostean, herrira bueltatu eta aitak lan egiten zuen abarketa-lantegira joan ziren bizitzera estatuko etxeak egin arte. Sabino Arana aitaren laguna zen eta haren txartel pertsonalak ere beraien etxean erre ziren bonbaketan. GER-037 zinta HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako 1985eko uztailean egin zitzaion elkarriketa da.



Jose Ramon Etxebarria Bilbao (1948)

Ingeniaria, fisikan doktorea, irakaslea eta UEUko bazkidea da.



Andoni Foruria Zabala (1921-1998)

1921ean jaioa, [Tramagoikoa](#) baserrikoa. Grabaketa egin zitzaionean 73 urte zituen.

Bittori Foruria Zabala (1933-2019)

1933an jaio zen [Trama](#) baserrian. Ama ondoko etxekoa zuen, [Zabala](#)koa, eta aita Trama bertakoa. Ama ez zuen ezagutu, eta umetan izeko baten etxean egon zen, [San Juan Ibarra](#)ko Ezenaroren txaletean, handik karmeldarren ikastetxera joan zedin. 12-13 urte gaz Gasteizeko ikastetxe batera joan zen ikastera. 17 urte gaz-edo, etxera bueltatu eta lanean hasi zen. Leku ezberdinetan aritu da lanean: Telefonican, Portuondon... Bere ahizpa Sabiñe jostuna zen, eta hark egiten zizkion arropak; prakak ere gazterik hasi zen erabiltzen Bittori, hori egiten zuen lehenengotariko emakumea izan zela dio.



Rosarito Gabiola Arbulu (1931-2011)

[San Juan](#) kalean jaio zen 1931. urtean. Ama Gernika bertakoa zuen eta aita Amorotokoa. Alaba bakar bezala hazi zen, umetan hil baitzen bere neba bakarra.



Karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Bonbardaketan beste herritar asko bezala, etxe barik gelditu ziren eta batetik bestera ibili ziren herrira bueltatu arte: hasieran, amamaren jaiotetxera joan ziren Ajangizko Mimentza baserrira; ostean, Nabarnizera osaba bat bertako abadea baitzen; eta, azkenik, Gernikako [Erreterria](#) auzora bueltatu ziren urte bereko urrian. Bere senarrarekin batera, [Iñaki Solaguren](#)ekin, egin genion grabazioa.

Jose Gandarias Monasterio (1910-2002)

1910ean [Benturena](#) baserrian jaio eta bertan bizitakoa. Elkarrizketa egin zitzaionean 84 urte zituen.

Juanita Gangoiti Etxebarria (1923-2023)

1923. urtean sortu zen Fikako (Gamiz-Fika) Botiola auzoko Errotan, burdin-hesiaren azpian. Ama bertakoa zuen eta aita Mungiako Atxurikoa. Beraien etxea errota izan arren Juanita ez zen bertan lanean aritu, baina bai bere gurasoak eta aitona-amonak. Zortzi neba-arrebatatik zaharrena da bera. Neskatotan Botiolako eskolara joan zen. 13 urterekin, gerrak irtendakoan, muga bestaldera joan zen Santurtzitik Baionara Habana itsasontzian; antza, Agirre Lehendakaria beraiekin batera joan zen. Paris ondora joan ziren, Tolosatik 20 kilometrotara, eta bertan egon ziren urrira arte, etxera bueltatu arte. Errigoitiko senarra izan zuen eta 24 urterekin ezkontzerakoan Gernika-Lumora joan zen bizitzera, lehenengo urteetan Erreterria auzora. Fikakoa izan arren eta bertako kontuak kontatzen baditu ere, Gernika-Lumoko herrian kokatu dugu bertako hizkera darabilelako.



Rufino Garai Azkarai Mili (1904)

Lumoko [Larrondo](#) baserrian jaioa. Lumoko aurrekularia izandakoa. Grabazioa egin zenean 89 urte zituen.

Rikarda Gastelua Ispizua (1918-2015)

1918. urtean jaio zen [Urdaibai](#) gazteluan, "Castillo Perejil" izenez ezaguna denean. Gaur egun, gaztelu hori Foruko herrian egon arren, lehen Gernikakoa zen; beraz, Rikarda bera gernikarra da. Andra Mari elizako lehen sepultura ere beraiena ei zen. Gurasoak ere gernikarrak zituen: aita [Txorraburu](#)koa eta ama [Erreterria](#) auzokoa. Zazpi neba-arrebatan gazteena izan zen; berak urtebete zuela hil zitzaenez aita, umetatik hasi behar izan zuen neskame lanetan; ondorioz, bizimodu gogorra izan zuten etxeok. Urdaibai gazteluak hiru etxebizitza zituen eta, horietako batean, ezkontza egun batez, koltxoi baten hasitako suak etxe guztia erre zuen. Rikarda leihotik bota zuten mahasti batera eta horrela egin zien ihesugarrei. Denak onik atera ziren, baina zuten guztia bertan galdu zuten. Horren ostean, etxe ugarian bizi izan ziren [Urdaibai](#) baserria eraiki arte, gazteluaren azpiko aldean, Forurako bide izkinan. Muxikan, Gernikan, Bilbon... neskame lanetan aritu zen ezkondu arte. Bonbardaketan bertan, [Erdikokale](#)ko zapata-denda batean ibili zen lanean. Bilbon zegoela, salaketa bat tarteko, Larrinagako kartzelan sartu zuten amarekin eta nebarekin batera; baina egun gutxi egin zituen bertan. Foruko [Pedro Agustin Agirre](#)gaz ezkondu zen; berak ere lantzean behin parte hartzen du grabaketan.



Piedad Gerrickaetxebarria Lekunberri (1913-1999)

1913an Ajangizen jaioa. Neskame egon zen baserri batean eta handik Lumoko Etxebarri baserrira ezkondu zen. Grabazioa egin zenean 80 urte zituen.

Anastasio Gondra Goikolea (1923-2016)

1923an jaio zen Gernika-Lumon, Etxebarria medikuarenean, baina izatez [Kortezubiko](#) Enderika auzoko Gaztaitzi baserrikoa da. Ama muxikarra zuen, Ariatzakoa; aita Fruizekoa. Hiru neba-arrebatatik gazteena da bera. Umetan meza-laguntzaile aritzen zen Kortezubiko elizan. 13 urtera arte Kortezubiko eskolan ibili zen. Soldadutza garaian Ferrolen egon zen marinako "Almirante Cervera" itsasontzian. 14 urtegaz [Dalia](#)n hasi zen lanean 28 urtera arte. Ostean Iberdueron hasi zen beharrean eta bertan aritu zen erretiratu arte. 28 urtegaz Gernikako [Kontxa Bikandigaz](#) ezkondu eta bertara etorri zen bizitzera.



Mertxe Hidalgo Rekondo (1928)



Busturiko San Krsitobal auzoko tren-geltokian jaio zen, aita bertako behargina zen-eta. Hala ere, 3-4 urte zituela, Gernika-Lumora etorri zen bere familia: Asilo Kalzada kalean hazi zen, gaur egun Bengoetxe taberna dagoen tokian zegoen eraikinean. Ama gernikarra zuen eta aita bilbotarra, Gernika-Lumoko alderdi sozialistaren sortzailea eta mitinlaria. Aitaren ideologiari jarraituta, sekula ez zuten dotrinik ikasi eta elizagaz harremanik izan, lehen jaunartzea ere berandu egin baitzuen Bilbon. Bonbardaketan etxea erre zitzaien eta herritik alde egin zuten: Bilbon, Santanderren, Frantzian (Bordele eta Britainia) eta Valentzian egon ziren; Valentzian aitak trenbidean lortu zuen lanpostua. Nazionalak bertara heltzerakoan, bueltatu egin ziren; aita atxilotu eta heriotza-zigorrrera kondenatu zuten. Askatasuna lortu ostean, Bilboko Euskaldunan hasi zen lanean aita eta Deustura joan ziren bizitzera. Bertan ezkondu zen Mertxe eta 50 urte gaz bueltatu zen bere herrira. GER-107/108 zintetan bere auzoak ziren [Xexili Mintegia](#) eta [Kontxi "Piñu"](#) gaz batera eman zigun antzinako bizipenen berri.

Miren Ibarguengoitia Larruzea (1920-2012)

1920an Lumoko [Izagirre](#) baserrian jaioa. Bere ahizpa [Paulina](#) gaz batera egin zitzaion elkarrizketa.

Paulina Ibarguengoitia Larruzea (1925)

1925ean Lumoko [Izagirre](#) baserrian jaioa. Bera ahizpa [Miren](#) egaz batera egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Antonia Ikazuriaga Ugalde (1930-2024)



Beraien gurasoak geltoki plazan zuten Julian hotelean jaio zen 1930. urtean. Aita, Julian, Gautegiz-Arteagako Zendokiz auzokoa zen eta ama Errigoitikoa. Lau neba-arrebatan zaharrena izan zen. Bonbardaketan, hoteleko neskameekin ete bere ahizparekin batera alde egin zuten eta Ibarruriko Txakille baserrian egon ziren hamabosta inguruan. Handik Artegako eta Errigoitiko aiton-amonen etxera joan ziren etxea erre zieten-eta. Beraien gurasoek berriro zabaldu zuten taberna geltoki plazan, gaur egun zabalik dagoen "Julian" taberna zabaldu aurretik. 1963.ra arte taberna jatetxea ere bazen eta bertan lan egindakoa da. Umetan [Pasealeku](#)ko eskolan ikasi zuen. Bere ahizpa [Pili](#) rekin batera egin genion elkarrizketa. Argazkiko ezkerrekoa da Maria Antonia.

Pili Ikazuriaga Ugalde (1934-2012)

Beraien gurasoak geltoki plazan zuten Julian hotelean jaio zen 1934. urtean. Aita, Julian, Gautegiz-Arteagako Zendokiz auzokoa zen eta ama Errigoitikoa. Lau neba-arrebatan zaharrena izan zen. Bonbardaketan, hoteleko neskameekin ete bere ahizparekin batera alde egin zuten eta Ibarruriko Txakille baserrian egon ziren hamabosta inguruan. Handik Artégako eta Errigoitiko aiton-amonen etxera joan ziren etxea erre zieten-eta. Beraien gurasoek berriro zabaldu zuten taberna geltoki plazan, gaur egun zabalik dagoen "Julian" taberna zabaldu aurretik. 1963.ra arte taberna jatetxea ere bazen eta bertan lan egindakoa da. Umetan karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Bere ahizpa [Maria Antonia](#)rekin batera egin genion elkarrizketa. Argazkiko eskumakoa da Pili.



Santi Intxausti Gerrikagoitia (1931-2025)

1931. urtean jaio zen Nabarnizko Intxaurreaga auzoko "Goikesta" baserrian. Gurasoak ere bertakoak zituen, baina sei hilabete zituela ama hil eta aiton-amonekin hasi zen. Berak lau urte zituela, aita berriro ezkondu zen Ereñoko emakume batekin eta orduan etorri ziren Gernikara, gaur egungo [merkatu-plaza](#) ondora; beste hiru anaia jaio ziren gerora. Umetan, karmeldarren ikastetxera joan zen eta gerora hainbat partikularretan ere ibili zen: Otazuanekoan, Bareñorenean kontabilitatea ikasten eta Luisita Escuderorenean takigrafia lantzen. Bonbardaketa ostean, [Errenteria](#) auzora joan ziren bizitzera etxe barik gelditu baitziren; azkenean, aitak Gernikako Ibarran egindako etxera joan ziren. Bere aitak arotzeria izan zuen eta aitari laguntzen hasi zen kamioi-gidari lanetan; guztira 60 urtez ibili zen lanbide horretan. Tartean hiru urtez Idahon (AEB) egon zen. Ereñoko emaztearekin ezkondu eta sei seme-alaba izan zituzten.



Inazio Intxausti Ormaetxea (1935-2021)

1935ean jaio zen gaur egun [merkatu-plaza](#)ko arrandegia dagoen tokian. Aita nabarniztarra zuen eta ama Ereñokoa. Sei anaietatik bigarrena da bera, aitaren bigarren ezkontzako. Bonbardaketa ostean, etxe barik gelditu zirenez, Ereñora joan ziren eta handik [Erreñteria](#) auzora. Sei urte zituenean bere aitak Bekoibarran eraikitako etxera etorri ziren eta ordudanik bertan bizi izan da. Umetan, karmeldarren eskolan, Otazuaren eskolan eta Makalaren klase partikularretan kontabilitatea ikasten ibili zen. [Andra Mari](#)ko elizan meza-laguntzaile bezala aritu zen urte askoan. Aitak zerrategia zuen [Bekoibarra](#)ko etxe ondoan eta 16 urterekin bertan hasi zen lanean etxeko gainerakoekin. Urte askoan kamioi-gidari legez ibili zen lanean zerrategirako eta baita hortik kanpo ere. 1960. urtean, aitak zerra alokatu zuen eta beranduago Marcos Ormaetxeari saldu zion, gaur egun Losal lantegia dagoen tokian. Gaztetatik lanean ibili arren, ezkondu ostera arte ez zuen jornalik izan. Orduan obretarako kamioia erosi zuen eta 1983ko uholdeen ostean lan egiteko eraikuntza-enpresa moduan hasi ziren lanean. Ordudanik herriko hainbat lanetan parte hartu du: kaleak konpontzen, polikiroldegian, futbol-zelaian...



Juanita Irigoras Zabala (1917-2017)

1917an jaio zen Kortezubiko Elorriaga auzoko Lapikote baserrian. Ama Kortezubikoa zuen eta aita mendatarra. Umetan Belendizeko (Arratzu) eskolara joan zen, baina dotrina ikastera Kortezubira. 10 urterekin Ajangizeko Goitti baserrira joan ziren bizitzera eta bertatik Gernika-Lumoko karmeldarren ikastetxera joaten zen; Belendizeko eskolak euskaraz izaten ziren, Gernikakoak, ostera, gaztelaniaz. Gerra aurretik "Taberna Vasca"n ibili zen beharrean sukaldari-laguntzaile. Gernikako bonbardaketak kalean harrapatu zuen eta [Erreñteria](#) auzotik Oleskoko baso batera joan ziren ezkutatzera etxera bueltatu aurretik. Handik zortzi egunera Frantziara joan ziren ebakuatuta, eta bertan egon ziren irailera arte; bere osaba bat Rotaetxe ministroaren gidaria zen eta hark lagundu zien ebakuazioan, Bermeotik Algortaraino helduz Bordelerainoko itsasontzia hartzeko. Bere neba bat frontean ibili zen eta Valentziako kartzelan egon zen preso denbora askoan. Beti aritu izan da baserriko lanetan. 32 urtegez Ispazterreko [Juan Okamika](#)gaz ezkondu ostean [Txaporta](#) auzoko [Txaportaerdikoa](#) baserrira joan zen bizitzera. Lehen elkarrizketa (GER-022) bere senarrarekin batera egin zitzaion.



Maria Iturbe

1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaia. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Kristina Iturrioz Burgoa (1934-2023)



Bilbon jaio arren, bi hilabete zituela Gernikako Zabalgojeaskoa-Badiola familiak hartu zuen eta bertan hazi eta bizi izan zen, Txikarrarenean. Gurasoak gernikarrak ziren. Bere eskolako lagun eta auzokide izandako [Esther Moriones](#)egaz batera kontatu zizkigun umetako zein gaztetako bizipenak eta kontuak. Muxikako Jesus Uriarte "Ponpon"egaz ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen.

Pablo Izagirre Hormaetxea (1927-2011)



1927. urtean jaio zen [Asilo Kaltzada](#) kalean, [Saraspén](#). Bere aita Elorriotik etorritako armagina zen eta ama mendatarra, Taverna Vascako behargina 40 urtez. Aita gazterik hil zitzaion; hori dela-eta ez zuen neba-arrebarik izan. Umetan [Andra Mari](#)ko meza-laguntzailea izan zen. 14 urteaz Astra arma-lantegian hasi zen beharrean eta bertan aritu zen erretiratu artean, 1941-1992 tartean. Hainbat postutan egin zuen lan, baina beti bulegoko lanetan, ez tailerlean.

Tina Jaio (1949)

Grabazioa egin zitzaionean, 1990. urtean, 41 urte zituen Tinak.

Jabi Kortabitarte Madariaga Korta (1925-2021)



1925. urtean jaio zen "Fernando el Católico" kalean, gaur egungo [Adolfo Uriosten](#), Boliña zaharra dagoen leku berean. Ama Ajangizkoa zuen eta aita gernikarra. Aita notariako behargina zen, gerora bere bi anai izan ziren moduan. Lau neba-arreba izan ziren familian. Umetan [Pasealeku](#)ko eskolara joan zen. Bonbardaketan, Burgoan (Ajangiz) egon zen eta handik Kortezubiko Lendarra joan ziren bizi izatera etxea suntsitu zieten-eta. Zazpi urteren ostean bueltatu ziren herrira eta bertan bizi izan da ordudanik. Arotz lanetan hasi zen gaztetan: lehenengo, Gonzalezen tailerlean, eta gero, bere kontura "Obieta y compañía"n. Emaztea ere gernikarra du.

Jesus Kortabitarte Madariaga Korta (1927-2016)



Tren-geltokiko plazan jaio zen, banketxearen gainean. Ama Ajangizkoa zuen eta aita gernikarra, notariako langilea. Umetan, karmeldarren ikastetxean eta Pasealekuko eskoletan ibili zen Bareñorenean kontabilitatea ikasi arte. Bonbardaketa bezperatik Burgoan egon zen, eta han harrapatu zuen erasoak itaurrean zebilela. Etxe barik gelditu zirenez, 3 urtez Kortezubiko Lendaganen egon ziren. Gernikara bueltatu zirenean, San Juan kalera joan ziren bizitzen. 16 urterekin, aitarekin eta anaiarekin notariotzan hasi zen lanean eta bertan egon zen 77 urtera arte; gerora, bere semeak ere ogibide bera jarraitu zuen. Gaztetan futboleko jokatu zuen Gernikako taldean eta Alavesen. Bere emazte [Kruzita Etxabegaz](#) batera egin genion elkarrizketa.

Carmen Larruskain Madariaga (1926-2023)



1926. urtean sortu zen Ziortza-Bolibarren, baina hiru aste zituela Lumoko [Arana](#) auzoko [Arana](#) baserrira etorri ziren etxekoak. Ama markinarra zuen eta aita ziortzarra; 10 neba-arrebatatik seigarrena izan zen. Umetan, [Pasealekuko](#) eskolan ibili zen bonbardaketara arte, eta, gero, karmeldarretan. Aita gerra ostean hil zitzaion tifusak jota eta ama gazterik alargundu zitzaionez, 13 urterekin neskame lanetan joan zen, lehenengo Eibarrera eta gero Zornotzara. Ezkondu arte beti ibili izan zen baserriko lanetan eta esne-banaketan. 1959an Santa Luzia auzoko senarrarekin [Industria](#) kalera joan zen eta gerotik bertan bizi izan da.

Beatriz Lejarraga Kalzakorta Txardelo (1932)



Frantseskale kalean jaio zen (gaur egungo Azokakale). Zortzi neba-arreba izan ziren eta gazteena kanposantuko etxean jaio zen, bonbardaketa ostean beraien aita herriko lurperatzailea eta postaria izan baitzen, eta urtez luzez kanposantuan bizi ziren. Bonbardaketan etxe barik gelditu zirenez, izeko baten eta Gonzaleztarren baserrian egon ziren bizitzen. Tarte horretan aitak Santander aldera egin zuen ihes eta bi ahizpa Frantziara joan ziren. Eskola utzi eta lanean hasi zen gazterik: 19 urtez Industriasen ibili zen eta beste 15 urte Baneston.

Lumoko auzotarrak I

Lumoko hainbat auzotarrekin egindako grabazioa

Lumoko auzotarrak II

Lumoko hainbat auzotarrekin egindako grabazioa, hauek dira parte hartzen dutenak: -Jose Luis Larruzea, Lumogoiti baserrikoa -Luis Azpitarte, Zelaieta baserrikoa -Pablo Omaetxebarria, Oskotzekoa -Dabid Baraiazarra Arrien, Bollegikoa -Daniel Barandika, Abalizkoa (1922-2005)

Mateo Malaxetxebarria Lauzirika (1926-2015)

1926an jaio zen Kortezubiko Barrutia auzoko Anbekonean. Ama marmiztarra (Mendata) zuen, 12 urtegan Anbekora joandakoa; aita ostera, Foruko San Kristobalگو Garai baserrikoa. Bost neba-arrebatatik hirugarrena da bera. 6 urtegan Kortezubiko eskolan hasi zen. Gernikako bonbardaketa ostean Fruiz, Mungia, Derio, Portugalete, Ortuella, Santurtzi, Asua... aldean egon ziren ebakutatuta bi hilabetez. Gerra ostean, 11 urtegan herriko eskolara bueltatu zen, baina denbora gutxirako. 15 urtegan, 1942an, Astra arma-lantegian hasi zen beharrean 1946ra arte. Igeltsero lanari ekin zion orduan. 1952an utzi zuen bere jaioterria eta Ameriketara joan zen artzain lanetan; 18 hilabete pasatu zituen Idahon eta 1954an New Yorkera joan zen igeltsero legez eraikuntza lanetan. 1958an Gernika-Lumora bueltatu zen eta etxea erosi zuen bertan. 1960an Ameriketara bueltatu zen, eta joan-etorri asko egin ostean 1969an etorri zen betiko eta Gernikan bizi da ordudanik. Bi semeren aita da. Gerra garaiko kontu ugari gogoratzen ditu.



Jose Angel Mendia Dilla (1926-2012)

1926. urtean jaio zen elizaz Bilbo baina udaletxez Arrigorriaga zen Abusu auzoan, baina segidan joan ziren Zornotzara bizitzera bere ama hango maistra baitzen. 14 urte zituela etorri ziren Gernikara eta bertan bizi izan da ordudanik. Ama ere Abusukoa zuen eta aita Zeanuriko Alzuste auzokoa, albarria. Umetan bere amagandik jaso zituen eskolak neska artean. 1937. urtean, bere ama, beste maisu-maistra asko bezala, atxilotu eta Bilboko Larrinaga eta Orue txaletean egon zen, Mutrikuko Saturrarango espetxera eraman aurretik; 1940ra arte egon zen Saturraranen. Oso ondo gogoratzen zituen garai hartako kontuak. Otxandiora joan zen bere osaba batengana eta handik La Guardia-Biasteriko seminariara joan zen, baina pare bat urtetara utzi zuen. Ama Saturrarango kartzelatik irteterakoan etorri ziren Gernika-Lumora. Iberdueroko langilea izan zen. [Emaztea](#) ere gernikarra du, Zallobieta zapata-dendakoa. Hizkeran Arratiako euskararen ukitua du, bere aitaren eraginez.



Iñaki Mendiola Ordorika (1942)



Lumon jaioa, Balatika auzoan. Aita bertakoa zuen eta ama Lumoko beste baserri batekoa. Bost senidetan hirugarrena, Balatikan bertan ibili zen eskolan eta ondoren Lumon. 10 urterekin Gernikako okindegi batean ibili zen lanean, bizikletarekin ogia partitzen. 11 urterekin Bilbora joan zen Somera auzoko Moirgan taberna-jatetxean zerbitzari lana egitera (bere emaztea izango zena ezagutuko zuen bertan: Josefina Astondoa). 18 urterekin soldadutza egin zuen eta 22rekin AEBetara joan zen, artzain (izeba bat zuen bertan: Emeteri Jaio). Grand View herrira (Idaho) joan zen, Wood Creek konpañiara. Urtebete "campero" eta urtebete "artzain". Lau urteren ostean Euskal Herrira bueltatu eta ezkondu egin zen. Basilio Aldekoaren arrantxora joan ziren bizitzera. Hiru seme-alaba izan zituzten eta hirurek ikasi zuten euskaraz. Erretiroa hartu zutenean Boisera joan ziren bizitzera (han eskola bat harbitzen egin zuen lana). Harri jasotzen eta pilotan ibili izan da.

Flora Merikaetxebarria

Panderojolea.

Xexili Mintegia Zabalgojeaskoa (1927)



1927. urtean munduratu zen aldundiarena zen [Asilo Kalzada](#) kaleko "Kamiñeruen" etxean, Gurutze Gorri ondoko "Lertxun" taberna zegoen tokian. Gurasoak ere gernikarrak zituen, kaletarrak hain zuzen ere. Bere aitak diputaziorako egiten zuen lan errepideetako delineatzaile legez. Lau neba-arrebatatik hirugarrena izan zen. Xexili Gernikako historiarekin zerikusia izan duen gertakari bateko protagonista izan zen: Segundo Olaetaren gidaritzapean zegoen Elai-Alai dantza taldeko kidea zen horietako askok Frantziara alde egin zutenean. Gordexolan hasita Santanderrera joan zen bere ahizparekin eta beste kide batzuekin batera; handik, Donibane Garazira joan ziren eta bertan egon ziren lau hilabetez elkarrekin 2.000 ume euskaldun Parisera heldu aurretik, bi urte luzez egon ziren Parisen. Herrira bueltatzerakoan, jostun lanak ikasi eta bi ahizpekin batera denda eta tailerra zabaldu zuen [San Juan](#) kalean zuten etxearen aurrean, "Hermanas Mintegia". Bizi osoa aritu izan da batik bat izarak eta txapelak egiten; 80 urterekin egin zuen azken txapela. Nabarnizko Pedro Ondarzarekin ezkondu ostean, [Industria](#) kalera joan ziren bizitzera; bi alaba izan zituzten. Grabazio hauetan, joskintzaren inguruko eta Elai-Alai taldearen gerra garaiko zirrikitu guztiak kontatu ditu. GER-107/108 zintetan bere auzoak ziren [Kontxi "Piñu"](#) eta [Mertxe Hidalgo](#)gaz batera eman zigun antzinako bizipenen berri.

Esther Moriones Aurre (1936-2015)



[Goienkale](#) jaio zen, Taberna Vasca gainean. Ama Morgakoa zuen eta aita Nafarroako Zangoza ondoko Sadakoa. Aulestiko aña (inude) batekin hazi zen eta 13 hilabete bertan egin ostean, Donostiara joan ziren etxeokak. Sei urtegaz herrira bueltatu ziren, [Malostera](#). Handik [Pasealeku](#)ko eskoletara joan zen. 14 urtegaz [Dalia](#) lantegian hasi zen beharrean ezkondu arte. 20 urtegaz Txikerranera ezkondu zen bertako "Bake"rekin eta hantxe egon zen beste 20 urtez [Lorategietara](#) joan arte. Bere eskolako lagun eta auzokide izandako [Kristina Iturriozekin](#) kontatu zizkigun umetako zein gaztetako bizipenak eta kontuak.

Angel Nabea Arriola (1930-2019)



Arratzuko Loiola auzoko Iberran jaio eta laster etorri ziren Gernikara, [Juan Kaltzada](#) kalera, [Saraspera](#). Aita arratzuarra zuen eta ama Ondarroakoa. Bere aita errepublika garaian Arratzuko alkatea izan zen. Bonbardaketaren bezperan Arratzura joan ziren etxeokak eta onik irten ziren denak. Karmeldarren ikastetxean eta Arratzuko eskolan ibili ostean, 1939. urtean, Bilboko Santiago Apostol ikastetxera joan zen 13 urtera arte. Segituan hasi zen Bilboko moilan aitaren zerrategirako lanean. 1946. urtean, zerrategiko kamio-gidari lanetan hasi zen eta estraperlo garaia ezagutu eta bizi izan zuen. Azken urteetan bere emaztearen familiako Lizeo tabernan aritu zen. Gernika-Lumon oso ezaguna da Angel, 40. hamarkadatik herriko hainbat ekitaldi, jai zein ospakizun iruditan baititu eta ohikoa da non-nahi bideo-kamera aldean duela aurkitzea.

Felix Odriozola Bidaguren (1921-2000)

1921ean Lumoko Loiene baserrian jaioa eta bizitakoa. Bere aita Ajangizkoa zen eta ama Baldatikakoa (Foru).

Juan Okamika Aboitiz (1917-2009)

1917an [Ispasterren](#) jaio zen, baina [Txaportan](#) bizi izan zen. Ispasterren ibili zen eskolan. Bere emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa, [Juanita Irigorasekin](#).

Tomasa Olaeta Arispe (1912-2009)

1912an [Mendiolaondo](#) "Mendilondo" baserrian jaioa eta [Madurazar](#) baserrira ezkondua. Grabazioa egin zenean 80 urte zituen.

Maria Luisa Olaeta Berrojaetxebarria (1926-2011)



1926. urtean jaio zen Don Tello kaleko Argintxonaren etxean. Gurasoak arratzuarrak zituen: aita Arratzuerrotakoa eta ama Belendizko Mintegibeazkoakoa "Minttei". Bere aita itsasgizona zen, makinista. Umetan karmeldarren ikastetxean ibili zen. 1937ko bonbardaketan beraiek bizi ziren etxea erre zen eta amaren aldeko amamaren etxera joan ziren Belendizera. Handik gutxira, 12-13 urterekin, Bilboko Deustura joan ziren etxeok eta bertan hasi zuen bizi berri bat, ordudanik bertan bizi izan baitzen. Hala ere, sekula ez zuen ahaztu bere jaioterria eta bertako euskara.

Luis Olaeta Erezuma (1926-2000)

1926an Lumoko [Mendiola](#) baserrian jaioa. Bere emazte [Benigna Asla Ortuzar](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Elkarrizketa egin zitzaionean 67 urte zituen.

Miren Terese Olaeta Torrezuri (1939)

Bidarten (Lapurdi) jaio zen, gerraren ondorioz gurasoak (Segundo Olaeta eta Rosario Torrezuri) bertara joanak zirelako. Aitak Olaeta dantza-taldea sortu zuen eta Miren Teresek bertan dantza egin zuen ume-umetatik. Horrez gain, piano ikasketak egin zituen Bilbon eta Parisen. 1988. urteaz geroztik Ballets Olaeta dantza-taldeko irakasle eta Bilboko Olaeta Akademiako zuzendari. Lumoko kontuak jasotzeko [Juan Cruz Torrezuri](#) osabari egin zioten elkarrizketan parte hartu zuen.

Aitor Omaetxebarria Villa Oma (1991)



Bilbon jaio zen Aitor, 1991ko apirilaren 8an, baina gernikarra da bera. Azken 5 urteak Donostian bizitzen eman ditu, astean zehar, behintzat, arkitektura ikasketak bukatzen ari baita EHUKo Donostiako Arkitektura fakultatean. Elkarrizketa bera ere fakultateko gela batean egin genuen. Aitorrek oso gustuko du bidaiatzea eta Perun barrena eginiko azken bidaiaren berri ematen digu. Izan ere, Cuscon boluntario ibilia baita, hango haur eta familiekin lanean. Itsasne Zarrabeitia ikaskidearekin elkarrizketatu genuen, eta hainbat konturi buruz hitz egin genuen berarekin: tabernari lanari, Gernikako gazte mugimenduari, musika mugimenduari, arkitektura kontuei, ikasle bizitzari zein parrandari buruz.

Julio Onaindia Landeta (1924-2018)



Asilo Calzada kaleko (gaur egungo [Juan Kaltzada](#)) [Saraspe](#) izeneko etxean jaio zen. Gerora ere, leku berean egindako etxe berrietako batean bizi zen. Beraien jaiotetxean okindegia, biltegia, irin-fabrika (herrian egon den bakarra) eta zerrategia zuten. Bere aita lurretako Arandia errotan jaioa zen, gerora Arratzuko Nabeatarren errotara etorritakoa; ama, ostera, nabarniztarra zuen. 11 neba-arrebatatik zortzigarrena izan zen. Horietako hainbat anai kirolariak izan ziren: [Seberino](#) borroka-libreko borrokalaria, Dioni bere sasoiko pilotari onenatarikoa, eta Julio bera ere, garaiko pilotari onenekin lehiatu zen lesioengatik pilota utzi zuen arte. Aita Gernika-Lumoko EAE-ANVko lehen presidentea izan zen; ondorioz, kartzelan izan zuten urtebetez. Bonbardaketan Nabarnizera joan ziren eta bidean bere anaia nagusia preso hartu zuten. Erasoen ostean, herriko hainbat familia hartu zituzten beraienean, etxea zutik mantendu baitzitzairen. Etxe horretan bertan piano-eskolak ere ematen zituen bere arrebak, Javier Agirre Onaindia futbol-entrenatzaile mexikar-euskaldunaren amak. Zazpi urtetatik 11 urtera arte baino ez zen ibili Pasealekuko eskoletan; Segundo Olaetaz ere solfoa ikasi zuen gerra aurretik. Negozioak zirela-eta, herriko lehenengoetariko autoak eta telefonoa beraien etxean izan zuten. 1951. urtean, Geltoki plazan autoentzako ordezkotza piezak eta bestelakoak zituen denda hartu zuen. Gernika-Lumoko hainbat ezizenen bilduma du eginda, eta horietako asko aipatu eta azaldu dizkigu.

Seberino Onaindia Landeta (1920-2012)

1920an jaio zen Asilo Kalzada kalean, gaur egungo Juan Kaltzada, Irlandia arrandegia dagoen lekuan. Bere aita Ibarruritik (gaur egun Muxika) lurretara joandakoa zen eta ama nabarniztarra. 11 senidetatik 5. da bera. Bere anaia bat, Dioni Onaindia, pilotari profesionala izan zen, orduko onenatarikoa. Bere aitak etxean okindegia eta biltegia zituen (zahi, baba, garagarra, ereiteko patata...). Bere neba-arreba zaharragoak Arratzun jaio ziren, bere aitak Nabearen errota alokatu baitzuen bertan okindegia jartzeko. Bere aita Gernika-Lumoko ANV-EAeko presidente izan zen; 13 hilabete igaro zituen preso. Bere osaba betek ere okindegia zuen: Aulestin, Eibarren, Gizaburuagan... Bonbardaketak kalean harrapatu zuen, eta babeslekuan lekurik ez zegoela-eta, alde egin zuen solorik solo. Horrek salbatu zuen, babesleku hartakoak hil egin ziren-eta. Beraien etxea zutunik gelditu zen bakarrenetarikoa izan zen. Ostein, bera eta aita Gatikara eta handik Barakaldora joan ziren, han ere okin lanetan ibili ziren; Bilbo hartu zutenean Gernikara bueltatu ziren. Baldatikako Luis Gomezak Gernikan zuen okindegian hasi zen lanean. Beranduago, Eibarreko osaba etorri eta Gizaburuagako Laizoleta errota-okindegira joan zen lanera. Bere arrebaren semea da Javier Agirre Onaindia, "el vasco" edo "mexikarra" ezizenez ezaguna den futbol-entrenatzaile mexikarra. Azken urteotan Kaltzada egoitzan bizi da.



Serafin Ruiz Sagasti (1923-2011)

1923an jaio zen Gernikako Frantseskalen (gaur egun Azokakale). Ama Ibarruriko (Muxika) Etxandikoa zuen eta aita Getxotik Gernikara gaztetan etorritakoa. Bere aitak denda zuen Frantseskalen, "Pepena" izenez ezaguna, eta Serafin 8 urte gaz hasi zen egunkariak saltzen kalerik kale eta etxerik etxe aitari laguntzen. Bonbardaketan etxe barik gelditu ziren eta Bilbora eta handik Arboledara joan zen Ibarruriko izekoarengana joan arte; bere etxeokak Gernikan geratu ziren. Ibarrurin bertan egon zen nazionalak sartu zirenean. Bertako osaba bat militarrek hartu eta Oizpen fusilatu zuten. Bideak zabaldu zituztenean herrira bueltatu zen eta sindikatuetakoko etxe bat egokitu arte, beste familia batzuen etxeetan bizi izan ziren; kalean bizi izanda gosea pasatu zutela dio. Umetan goizez Pasealekuko eskoletan eta gauzez don Juan Ansotegiren klase partikularretara joan zen. Gerra ostean, mutil batzuk karmeldarren ikastetxera joan ziren. 14 urterekin lanean hasi zen. Ezkondu ostean Alhondiga kalera joan zen bizitzera. Ibarruriko zein Gernikako kontu asko gogoratzen ditu.



Alex Sardui Agirre (1966)



Alex Sardui 1966an jaio zen Gernikan eta 16 bat urte zituela, Muxikara bizitzera joan zen familiarekin. Etxean beti izan dute musikarako eta bertsoaritzarako zaletasuna. Aitak abesbatzan abesten zuen ere. Txistua ikasten jo zuen 5 urtetik 15 urtera arte, eta solfeoa ere ikasi zuen, nahiz eta gaur egun ia ez erabili. Hamasei urterekin Gernikako abesbatzan abesten ibili zen, lagunekin batera, hiru urtez. Exkixu taldeko abeslaria izan zen 90. hamarkadan eta 2002an, Gatibu musika-taldea sortu zuen. EITBko *Bi errepidetan* saioan aurkezle bezala ibili zen eta 2013an, *Esan eta egin* eleberria kaeratu zuen.

Fariba Sheikhan Uriarte (1988)



Gernika-Lumon jaioa, ama bertakoa du eta aita Irangoa. Magisteritza ikasi zuen, eta ondoren aktore ikasketak egin zituen Sevillan. Euskal Telebistako *Goenkale* eta *Bi eta bat* telesailetan ibili zen lanean, eta gero baita Antena 3eko *El secreto de Puente Viejo* telesaillean ere, Madrilen. Musikaria ere bada: Leila TheNuit taldea osatzen du Iker Laurobarekin. Antzerkia eta musika, biak ditu afizio Faribak, eta ogibide bihurtu nahiko lituzke. 101 L proiekturako ere elkarrizketatu genuen.

Iñaki Solaguren Basabe (1930-2015)



Gernikako [juntetxe](#) eta arbola ondoan jaio zen bere aita bertako kontserjea izan baitzen bonbardaketara arte; hori dela-eta, bertako etxean bizi ziren. Aita zornotzarra zuen eta lanpostua kendu zioten bonbardaketa ostean eta zortzi hilabetez preso hartu zuten; ama, ostera gernikarra izan zuen. Bost neba-arrebatatik gazteena da Iñaki. Umetan, [Pasealeku](#)ko eskolan ibili zen eta [Andra Maria](#) zein [Santa Klara](#) elizetan monagilo lanetan aritzen zen. Bareñorenean kontabilitatea ikasi ondoren, [Talleres Gernika](#)n hasi zen lanean 15 urterekin erretiratu arte. Beraien etxea ez zuten ikutu ere egin bonbardaketan eta etxekoak juntetxe azpiko babeslekuan ezkutatu ziren. Beranduago [Erdikokale](#)ra joan ziren bizitzera. Bere emazte [Rosarito Gabiola](#)rekin batera egin genion elkarrizketa.

Jose Antonio Torreal dai Bilbao Torre (1931)

1931n jaio zen [Erreterria](#) auzoan (sasoi hartan Ajangiz zen) fielatoa zegoen etxean. Ama Erreterriakoa zuen eta aita Errigoitiko Urikoa, Kale baserrikoa. Hiru neba-arrebatatik erdikoa zen bera. Bonbardaketa ostean hainbat herritatik ibili ziren: Mendata, Basauri, Zamudio, Errigoiti, Markina... Azkenean Markinan zehaztu zuten beraien bizitokia "La esperanza" lantegiak gernikar asko eraman baitzituen bertara, bere aita tartean; 22 urtez bizi izan zen bertan. Markinako eskola publikoan hasi zituen bere ikasketak, baina 10 urte gaz Bilboko Deustuko salesterren ikastetxera joan zen; bertan egondako zazpi urteetan industri maisutza ikasi zuen. 17 urte gaz "La esperanza"n hasi zen lanean bulegoko lan teknikoak burutzen (planoak...) eta armadarako materiala egiten. Bederatzi urtetara, Bilbora joan ziren bizitzera. 15-20 urtez Bilboko San Anton orfeoian abestu zuen. EGIren hasierak ere ezagutu zituen bertan. Bilbotik Zornotzako Aikoa enpresara joan zen eta bertan aritu zen 35 urtez jubilatuta arte. 36 urte gaz bere jaioterrira bueltatu zen alabarekin. Karrantzako Maite Otegi gaz ezkondu zen, baina gazterik alargundu zen. 49 urte gaz Munitibarreko Elvira Lejarzegi gaz ezkondu zen.



Juan Cruz Torrezuri Larruzea (1908-2000)

1908an jaioa. [Arana](#) auzoko [Aranbarrena](#) baserrikoa. Elkarrizketan [Miren Terese Olaeta](#) lobak eta haren senar Koldo Maguregi ere parte hartu zuten.

Pilar Txopitea Uribarri (1924-2013)

1924.anean sortu zen [Erreterria](#) auzoan (elizaz Gernika-Lumo zen, baina Udalez Ajangiz). Ama mendatarra zuen eta aita Muxikan jaioa, baina Erreterrian hazia. Karmeldarren ikastetxean ikasi zuen, bonbardaketak dena aldatu zuen arte. Etxea galdu eta ezagun batzuen baserrian egon ziren Arratzun bi hilabetez. Beraien etxea zena bizitzeko lez jarri zuen bere aitak, igeltseroa zen-eta, eta Erreterriara bueltatu ziren. Erreterriako auzoa Ajangizko herriarena zen arren, sekula ez zein zuten hartu-emon onik izan. Horrelako datuekin batera beraien ume eta gaztetako Erreterriaren berri eman zigun Pilarrek.



Serapio Undabarrena Meabe (1930-2023)



1930ean jaio zen Mendatako Elizalde auzoko Mantxuene baserrian. Aita Ibarruriko (gaur egun Muxika) Ajuria auzoko Etxebarrieta baserrikoa zen eta ama Munitibarreko Burukukoa. 4 neba-arrebatatik hirugarrena da bera. Bizi guztian harakin lanetan aritu da. 1948an, 18 urte gaz, Gernika-Lumoko Luis harakinagaz hasi zen lanbidea ikasten. 1951n Melillako Dardrius herrira joan zen soldaduskara 16 hilabetez, horietatik 15 harakin beharretan pasa zituen. 1960an emaztearekin batera zabaldu zuen Gernika-Lumon harategia, eta bertan jardun zuten 1997ra arte. Albiz auzoko Intxurreta baserriko Pantxike Legarrarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten. Ezkontzerakoan, harategia eta etxea Gernikan erosi eta bertan bizi dira ordudanik.

Urionabarrenetxeatarrak

Arribalzaga baserrikoak.

Josefina Usatorre Lejarzegi (1933-2025)



1933. urtean jaio zen Gernikako udaletxean bertan, bere aita bertako ordenantza (bulegaria) baitzen, eta azkenengo pisuko etxebizitzan bizi ziren. Aita Markinako Basibar baserrikoa zuen eta ama [Santa Luzia](#)ko [Zallobieta](#)koa. Bonbardaketan dena galdu zuten eta 4 urtetatik 7ra arte Eibarren egon zen bizitzen. Herrira bueltatzerakoan, alde batetik bestera ibili ziren: "Barrio Chino"n ([Saraspe](#) ingurua), [Industria](#) kaleko Kaixaoren etxean eta Estatuko etxeetan. Aita gerran desagertu zen eta ez zuten gehiago bere berririk izan. Bere ama, ostera, beti izan zen dendaria: lehenengo [Andra Maria](#) kalean eta gero [Ocho de Eneron](#) izan zuen tela-denda, eta beranduago, "Zallobieta" izeneko oinetako-denda. Zazpi urterekin karmeldarren ikastetxean hasi zen eta Mari Carmen Onaindiaren solfeo eta piano eskolak jaso zituen. Beste hainbat gazte bezala "Acción Católica"ko kidea izan zen. 15 urterekin familiako oinetako-dendan hasi zen beharrez; hori dela-eta oso pertsona ezaguna da Gernika-Lumon. [Jose Angel Mendiarekin](#) ezkondu zen.

Claudio Zabala Kaltzada (1922-2013)

1922an jaio zen Lurgorriko Sagastietxebarri baserrian, "Alargunena" bezala ezaguna dena, errepidearen eta trenbidearen artekoa. Ama Muruetan jaioa izan arren, Lurgorri hazia zen; eta, aita Kortezubin jaioa baina Malosten hazia. Zortzi neba-arreba izan ziren. Eskolara karmeldarretara joan zen eta gero, "Kojo"aren klase partikularretara joan zen.



Bonbardaketaren ostean gurasoekin eta anaiarekin etxean geratu zen, eta etxeko gainerakoak Basaurira joan ziren. 14 urte egin aurretik, Talleres Gernika"n hasi zen beharrean bonben piezak kargatzen; gerra ostean, berriro bertara bueltatu zen lanera. Lan hori utzi eta gero, kamioi-gidari legez hasi zen jubilatutako arte: Pako Gomezekin hasi zen gerrako kamioi italiarrekin Pegasoarekin baino lehenago; gero, "Aprovechamientos siderúrgicos"en; eta, azkenik, bere kabuz. Gaztetan sasoi batean, Gernikako bandako kide izan zen, tronpeta-jotzailea hain zuzen ere. Segunda Olaetaren antzerkiren batean ere parte hartu zuen tarteka. 32 urte gaz Muxikako Okako Pagoeta baserriko alabarekin ezkondu eta bertara joan zen bizitzera.

Pilar Zabala Larrinaga (1922-2016)

1922an jaioa, Arana auzoko Zabala baserrikoa.

Itsasne Zarrabeitia Zabala Itsas (1991)

Gernikan jaio zen 1991ko irailaren 8an eta Gernikan bizi izan da arkitektura ikasketak hasi zituen arte. Ordutik, Ikasketak EHUko Donostiako fakultatean egin ditu eta bertan bizi izan da, ikasle egoitza batean lehenik eta alokatutako ikasle pisu batean gero, gradua amaitu bitartean. Aitor Omaetxebarria ikaskidearekin batera elkarrizketatu genuenean azken ikasturtea egiten ari ziren. Musika ikasketak ere eginak ditu Itsasnek. Gernikako gazte mugimenduari, musika mugimenduari, arkitektura kontuei, ikasle bizitzari zein parrandari buruz hainbat berba egin genuen.



Kontxi Zorrozua Zabaleta *Piñu* (1926-2017)



"Piñu" ezizenez ezaguna zen Buztargina izeneko baserrian jaio zen, gurutze gorriaren aurrean, iturriaren atzealdean (gaur egun desagertua). Ama bertakoa zuen eta aita Errigoitikoa. Umetan Pasealekuko eskolan eta Segundo Olaetaren musika-eskolan aritu zen. Bonbardaketan, beraien auzoko Agirre "Agarre" baserriaren sagardian babestu eta hantxe egon zen hiru ordu eta erdiz mobidu barik etzunduta. Beraien etxea osorik gelditu arren, gau hartan Errigoitira joan ziren aitaren jaiotetxera.

Gerraostean erizain lanetan aritu zen Alegria medikuagaz, baina behar horiek alde batera utzi behar izan zituen penaz. 12 urtez AEBko Idahon bizi izan zen bere senarrak taberna-jatetxea izan zuen han-eta. GER-107/108 zintetan bere auzoak ziren [Xexili Mintegia](#) eta [Mertxe Hildalgogaz](#) batera eman zigun antzinako bizipenen berri.

Jose Zubizarreta Agirre (1946)



Aita markinarra zuen eta ama Ereñokoa, baina Gernikan bizi ziren. Aita Ameriketara joan zen artzain, Mountain Homera (Idaho), 18 urterekin (1921 inguruan). 1941ean Gernikara bueltatu zen, eta bertako emakume batekin ezkondu zen; zapata-denda ipini zuten; emaztea dendan egoten zen eta bera kamioiarekin Valladolidera joaten zen erremolatza eramatera. Hamar urtean ibili zen lan horretan eta ondoren Ameriketara bueltatzea erabaki zuen. Jose umea zen aita joan zenean (hiru senidetan txikiena, une hartan; gero beste hiru jaioko ziren: guztira sei izan ziren). Aita hiru urtean behin joaten zen Gernikara eta hilabete batzuk igarotzen zituen bertan, gero berriro itzultzeko. Jose Artzain joan zen Ameriketara, aitarekin, 18 urterekin, 1964an (gero Luis anaia ere Ameriketara joan zen, 1967an). Joseri ez zitzaion artzain lana gustatu eta Boiseko uniberstitatera joan zen maisu ikasketak egitera. San Franciscora joan zen master bat egitera eta bertan bere emaztea izango zena ezagutu zuen, Boisekoa. 1970ean ezkondu ziren eta Gernikara joan ziren urtebeterako. San Franciscon bizi ziren. 1975etik Boisen bizi dira. Gaztelaniako irakaslea izan da Jose eta autoeskola batean ere egin du lana. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Ramon Zugazaga Agirreazpeiti Akerra (1946)



Guraso biak Lumokoak zituen. Amillaga baserrian bizi ziren (aita Ameriketara ibilia zen zortzi urtean eta bueltan erosi zuen; 1919an joan zen). Hamaika senidetan hamargarrena zen Ramon. 14 urterarte eskolan ibili zen, Lumon eta Gernikan. Amak eta arrebek Madariaga jatetxea ipini zuten eta bera ere bertan ibili zen lanean, 1965ean Ameriketara joan zen arte. Elkora joan zen, Nevadara, artzain. Handik bost urtera bisitan joan zen, baina berriro itzultzeko. Hamar urte egin zituen Star hotelean sukaldari. 1981ean Biltoki jatetxea ireki zuen Goodingen (Idaho) eta 1983ean hura saldu eta Elkon ipini zuen Biltoki jatetxea (1993an erretiroa hartu zuen arte). 1985ean amerikar batekin ezkondu zen: Jane Last, eskola-maistra amerikarra; bi seme-alaba izan zituzten. Elkoko euskal etxean oso aktiboa izan da Ramon (klubeko presidente ere izan zen). Elkoko Inadar Football Clubeko entrenatzailea izan da 32 urtean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Jon Arrospide medikua

- **Hizlaria(k):** Basterretxea Santiago, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-001/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Jon Arrospide medikuak, Muxikako medikuaren semeak, Mirandan tuberkulosi-erietxea zuen, gernikar batzuk egon ziren bertan; bihotzetako eta birikietako espezialista famatua zela dio.

Transkripzioa

- Eta hori Arrospide medikue esan dozuna...
- Hori zan Jon Arrospide famosoa, euki bana, horrek euki ban Mirandan be "sanatorio antituberculoso" karue izen zan ta edonor ezin joan izete zan baia Gerniketiek egon zien hiru edo lau han; Erretxiñeneko panaderixekoa esan dotsuten Iziarren nebarik gaztiena be, Jabier, hantxe hil zen e, bularretiek geixotute hantxe hil zen. Bai, ta bera izen zan "especialista de pulmón y corazón". Ta euki ban, horrixen konsulten geratu zen gero entzutie eukozu, ba? Babío, Bilbon Babío, famosoa izen da, igez, igez, ointxe urte bi jubile zan, Doctor Babío han San Francisco Javierren eurrez eurre euki deu konsultie.
- Ez.
- Bueno ba hori Babío, horrexek ein zittun praktikek-eta Arrospidegaz ta gero bera geratu zen beren konsultiegaz , beren konsultiegaz. Ha izen zan famosoa, bixotxekoa eta birikixetako espezialistie, bai. Ta haren aitte izen zan Muxikeko medikue.

1.2. Konfesioan ezin dena kontatu

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Mutilak joaten ziren neskei dantzan eskatzera. Ostein konfesatu egin behar izaten zuten; hala ere, ez zuten dena kontatzen

Transkripzioa

- Ta zelan izeten zan? zu joaten ziñen mutilleri jantzan eskatzen eitteko edo bera etorten zan edo zelan izeten zan hori?
- Eurek etorten ziren. Nobera joan?
- Baiña beti gustokoa ez zan izengo.
- Soltien batien soltien jotzen eben musikie ta beste batzuten agarrauen ta.
- Ta gero, konfeseu biherra? gero konfesetan?
- Bai. Baia guk be danak konfesiñoak be ez genduzen esango. Oin konfesionaridxoak be kendute dauz ta oin dana libre.
- Lehen dana esaten zan, ezta?
- Lehen dana esan biher. Oin fazilidade handidex dauz, antziñe ez.

1.3. Bordelera iristerakoan

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/045
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:05:27. **Bukatu:** 01:09:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Itsasontziz Bordelera heldu ostean, tren hartu zuten; eta, euria hasi zuenez, gaua trenean igaro behar izan zuten. Hurrengo goizean, jendea leku ugariara banatzen hasi ziren. Bidaia horretan gizon batekin izandako anekdota kontatzen du. Daux-eko hotel dotore batera eraman zituzten. Hotelak denetarik zuen: zinema, autoentzako tailerra... baina komunik ez.

Transkripzioa

Ta gero joan gintzezan hara trenien sartunde. Ta emoten deu euridxe eta trenetik ezin bajatu, euridxe ta euridxe ta euridxe ta euridxe ta euridxe ta esan doskun baze bertan trenien egon biherko dogule /bikogule/ gabaz ba gaba hantxe pase biherko dogule /bikogule/, ta hantxe. Ta bidxamon goizien errepartetan hasi zien batzuk hara herrire ta bestiek bestera ta leku diferentietara. Ta sartu gintzezan kotxietan ta ni txoferran ondoan, ta bestiek atzien eta horko Renterriako mutil zahar bat joan zan, ez dakitz zer euki eban ziriñetan egon bazan ez dakitz, esan doste baze: "¿oiga joven! ¿dile a ese chófer que se pare!", ta neuk esaten notson baze harek atzekoak diñola gelditzeko, señie eitten notson txoferrari, ta txoferrak barre eitten eustan /eittestan/. Ta oso zarata harek atzekoak, ta ostabe esaten notson ta ezebez. Ta halakoan baten geldittu zen, ta etxe baten andra bat eta neska bat egozan atien, ra! euren bittartetik sartu zan barrure gizonari, ta etor zan gero ta ostabe eurrera. Ta allege gintzezan geu egon giñen lekure ta esan zotson /esantson/ patronieri ia komune nun dauen ta "lalalalalala" esan otson /esantson/ ta neuk esan notsan: "¿oiga dónde esta el retrete?", eta: "que coño me estás diciendo si no he visto retrete?", "y dónde has hecho pues?", "ahí en el jardín debajo de un árbol" esan dosten. Ai, halakorik! Ta hotel elegantie izen zan e, elagantie, ziñie be bertan emoten eben eta dana e, behien kotxiek-eta arregletako zerak egon ziren, ta ziñie be bertan ta dana bertan emoten eben. Ta hotela elegantie izen zan e, elegantie hotela, baiña komunik ez, komune jardiñien. Kuboak kuartuetan tapietegaz ta jardiñien zera, kasetie, alderdi bikoia: henbrana eta gizonana.

1.4. Etxean egindako xaboa; sutako hautsa

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/060
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:31:18. **Bukatu:** 01:33:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Ajangizien etxean egiten zuten xaboa. Bere amamak izarentzat-eta sutarako hautsa erabiltzen zuen, baina amak ez. Arropei xaboa eman eta erre kara eramaten zuten garbitzera. Bere etxean ur asko egoten zen, Errenteriako auzora ere handik eraman zuten ura.

Transkripzioa

- Zelan garbitzen zenduezan erropak, labadorarik-eta ez zanielen egon?
- Jagoi, jagoiek etzien eitten genduzen guk Ajangizen.
- Eta, zelan eitten zirenen?
- Ez dakitz nik zegaz eitten genduzen baia.
- Txarridxen koipiegaz-edo...
- Baten Rotaetxen, Rotaetxen señoerie eta kridxerie etor jakuzen inddabatan, inddabak gure dittuela /guttuela/-eta, ta jagoien trukien gure dittuzela /guttuzela/. "Jagoiek han dekuz guk, zerien, armaridxoan ganielen zera etzien eindde". Ikusi zittuzen eurek be beittu zotsien /beittutsien/ harexen trukien, eurek etzien ein jagoiek eta inddabie emoteko harexen trukien. Eta guk etzien eindde dekoguzela jagoiek, etzien eitten genduzen-ta.
- Eta zelan ez dakizu?
- Ez. Ahaztu dxate niri.
- Eta heutse ibiltzen zan, surteko heutse?
- Surteko heutse? zetako?
- Garbitzeko erropak.
- Ez. Antziñe gure amumak eukitten eban hori, surteko heutse. Botaten otson ganetik, ipini lelengo izera zahar bat-edo eta gero ganetik ha botaten eutson zuritteko amumak. Baia amak iñoz bez.
- Zuek ez? ta zer eitten zenduen, jaboneu eta gero, erre kara edo nora joaten ziñien?
- Erre kara.
- Ze euki zenduen etze alboan erre kie edo...
- Bertan. Gure etzien ur askok urteten eban, Erre nteridxera be geuretik eroan ben ure. Ta bertan be depositue han egoan ta behien labadorea eta txorroa daridxola beti. On be halantxik egongo dire han.

1.5. Arropentzako ereinotza

- **Hizlaria(k)**: Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-027/063
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 01:34:32. **Bukatu**: 01:35:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Bere amamak arropen ereinotza botatzen zien sutarako hutsarekin batera usain ona izateko.

Transkripzioa

- Eta etzie garbitzeko, etzie zelan garbitzen zan lehen? ze eskobarik eta fragonarik-eta ez zan egon.
- Fregonarik eta holakorik ez baia eskobie bai, baia fregonie ta holakorik ez.
- Ta belauniko?
- Gurien ezkatzien egon zan ha baldosie beste lekuten ez, ta baia han beleuniko pareta eitten naben nik.
- Eta bedarrik-edo ez zenduen ibiltzen, ereiñotza-edo usin gozoa eukitzeko edo holako ezer?

- Ez. Hori gure amumak Lapikoten bizi giñenien eitten ban ereinotza ta bota ta zer zesto baten ipini danak eta izera guztidzek eta surteko heutse eta ereinotza eta horrek botaten zotsozen /botatetsozen/ usiñe eukitzeko, usin gozoa.

1.6. Prozesioak eta letania

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/070
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:42:19. **Bukatu:** 01:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Ajangizen ez zen prozesiorik egiten; baina Gernikan eta Mendatan bai. Mendatakoak beraien etxe ondotik pasatzen ziren abarketa gorriekin. Letania Santiago aurreko hiru egunetan egoten zen. Bere aita ere sarritan joaten zen aurretik gurutzea eramaten.

Transkripzioa

- Prozesiñoak? Zerenak?
- Santuenak.
- Ez. Ajangizen ez, Gernikera. Gernikera baitte Mendatatik be geure etze ondotik behera bajatzen ziren abarketa gorridxekaz-ta mutillek apostoluk-eta ikusten.
- Eta letaiñie-eta egoten zan?
- Letaiñie egoten zan ha Santixau eurreko hiru egunetan. Hamen be hona Kanpantxuko erminttera hona bestera ta Errenteridxera joaten ziren, hiru lekutera.
- Horrek danak akabe die ya.
- Akabe die horrek.
- Eta zelan izeten zien? zelan izeten ziren horrek, prozesiñoak eta letaiñie-eta?
- Gure aitte be sarriten joaten zan ha kurtziaz eurretik eta abadie ta. Gero mezie emon han ermintten ta etzera.

1.7. Soroak bedeinkatzen

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/072
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:43:57. **Bukatu:** 01:44:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Erramu egunez gurutzeak bedeinkatzen ziren ereinotzarekin; ostean, soroan jartzen ziren hiru palo ereinotzarekin ur bedeinkatua botata.

Transkripzioa

Soloak Erramu egunez eroaten zien horrek kurtziek dozena bat edo holako bat ereiñotzakaz-ta ipinitte lotunde bedeinketuten elizara. Ta gero harek elizan edo soloan ipintten zien hiru palutxu ereiñotzagaz ur bedeinketue botata, halantxik.

1.8. Osaba soroak bedeinkatzen etxerik etxe

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/075
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:48:17. **Bukatu:** 01:49:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Zaratamon bizi zen bere osabak etxean atarterik ez zuela-eta elizpean jotzen zuen garia abadearen baimenaz, baina hurrengoko abadeak ez zion utzi. Etxerik etxe soroak bedeinkatzen ibiltzen zen eta bere etxera heldu zenean ezetza eman zion.

Transkripzioa

- (Alaba): Garidxegaz-eta zer pasetan jakon horrerri?

- Garidxekaz ezebez. Etarterik ez dekolez berak zerien e, elizpeko useten ez danan zerien jotzen zittuzen zerak, garidxek. Eurrerauko abadiak esan zotson /esantson/ hantxe joteko ta jotzen zittuzen. Ta gero hurrungo etor zan abadiak ez zotson izten. Ta gero bera etzerik etze ibiltzen zan zera soloak bedeinketuten, ta kridxedie atzetik ta soloa bedeinketuten beneko etzien, edo koneju pare bat edo oillo pare bat emon biher. Ta eurenera joan zanien esan zotson baze euren soloak ez bedeinketuteko berak bedeinketuko dittule-ta, esan zotson gure tiok. Ta gero bestiek be, handik gora ez euren soloak zertuteko, zera Pedron soloatako laboriek eta eurenak bardiñek izen diela-eta, eurek bedeinketuko dittuela, eta bedeinketutie be akabeu eurenien be.

1.9. "Txikitxuten aittek eta amak..." abestia

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/077
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 01:50:36. **Bukatu:** 01:51:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Txikitxuten aittek eta amak fraile ninduen..." abestia kantatzen du.

Transkripzioa

Txikitxuten aittek eta amak
fraille ninduan ondratu

estudidxoia ikasitera
Salamancara bialdu.
Salamancatik datorrenian
bidien etorren pentsatzen:
estudiante tunante baiño
hoba dabela ezkondu.
Ezkondu nitzan ezkondu, baiña
bai milla biderrez damutu,
praka baltzetan hari zuria
sekula etxaden faltatu.

1.10. "Doniene bezpera gabien..." abestia

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/079
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 01:51:26. **Bukatu:** 01:51:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** San Juanetan abesten zutena kantatzen du: "Doniene bezpera gabien, abadiak hasarratu zirien ..."

Transkripzioa

Doniene bezpera gabien,
abadiak hasarratu zirien,
ez zebeu besterik egiten,
alkarrerri musturrek heusitten,
San Juan dabil soloetan:
artoetan eta garidxetan.
Artoak eta garidxek
Kaidxan gordetan,
sorgiñek eta lapurrek
surten erretan.

1.11. "Gabian farrandan ta goizian logure..." abestia

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/081
- **Iraupena:** 0:00:11. **Hasi:** 01:52:23. **Bukatu:** 01:52:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Parranda osteko "Gabian farrandan ta goizian logure..." abestia kantatzen du.

Transkripzioa

Gabian farrandan ta goizian logure

ai ena maitia ez zara osasunen gure.

1.12. Bainujantziak erosi beharrean, ostu

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Olaeta, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-030/011
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:26:02. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Bainujantziari "taparraboa" deitzen zioten eta bederatzitik txakur balio zuen; zelakoak ziren deskribatzen du. Baina ez zituzten erosten, ostu egiten zituzten; eskolara bidean denda kanpoetan eskegita zeudenak osten zituzten.

Transkripzioa

- Zuek trajedebañue-edo eukitzen zenduen?

- Bai! trajedebañue eukitzen zan "noventa y seis"ekoa. Beatzi txakur kobretan eben, taparraboa [esatetsagun] esaten zotsagun. Ta "noventa y cinco"koa. Izen zien baltza ta zuridxe, ta azule ta baltza, ta ralledune, preso moduko trejedebañuek izeten zien. Ta horrek, horrek eukitten eben Piok-eta han, ta dendatan-ta egoten zien. Baiña guk erosi ez gendun eitten trajedebaiñurik e, dendatan eskeitte egoten zien kanpoan, ta eskolara joaten giñenien, falta zaniien, tiretu ta boltsillora!

- Ostu?

- Ostu! Bai, ha Pionien eta beste bat esaten zotsiena askok eukitten eben eskeitte, ta joan, eskolara goazenien, faltetan deuenien tiretu eta gorde. Karo, gu paretan giñen, esaten eben: "horrek ein dabe zapokeridxen bat". Ta: "Zuk zemat hartu dozuz", "nik bi", "nik bat". Asike kuadrilla guztidzek beti trejedebaiñue gratis.

- Eta etzien ze esaten otsuen amak-eta?

- Etzera kejetan zaniien, palizie. Baia ostantzien, ez. Ez zebe denuntzidxe edo kejeu, dendakoa ez bazan kejetan, ba geur arte. Eta egoten zien ba eskeitte geuze asko egoten zien, kaltzetiñek-eta eskeitte. Dendak bakizu, lehen dana eskeitte eukitten eben kanpoan. Ta lelengo bat paseten zan, mutiltxu bet, gero bestie, ta gero: "Zuk zemat hartu dozuz?", "nik bat", "nik bi", ta holantxik. Karo, tiretukeran, batzuten etorten zan bat eta beste batzuten bi.

- Zantarrak.

- Beti trajedebaiñu barridxeekin. Horixe izten zan zapokeridxe, ez zan, baiña nok eukiotten ban pezeta bat ba? nun emon, ademas trajedebaiñuentzat etzien dirue emon? ariñau eskobie. Keba, ta holantxik izeten zan.

1.13. Aterkiarekin leihotik salto

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Olaeta, Enrike

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GER-030/014
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:35:46. **Bukatu**: 00:37:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Beraien baino nagusiago batek, Elio Sierrak, behin aterkia hartuta paraxutearena (paracaidas) egin nahi izan zuen eskolako leihotik salto eginda; ipurdiko itzela hartu zuen. Elio Sierraren familiak Industria kalean limonada egiteko lantegia zuen.

Transkripzioa

- Beste baten be holantxik, ta baserritar joan ta astoak joaten zien ta baten aterkidxe ostu, aterki handi bet, ta handik oin be terrazie dau han, ta behien harie-eta egoten zan, ta: "¡Oye! ¿a que con el paragua hago lo de, lo de esto lo del paracaidas?, ¿a que salto de la terraza esa hasta el suelo?", "¡Que vas a saltar!". Elio Sierra: "Que si salto", "que no", "que si". Joan ta aterkidxe ostu, ta hara joan eskolara errekreue, han goidxen eitten gendun astelehenetan, Santa Klaran han goidxen, ta behien harie apur bet egon zan orduen obran ibil zien-eta. "¡Que salto!", "¡Que no saltas!", "¡Que si!", ta jentie danak begire, ta aterkidxe, ta ein eban, lelengo bai aterkidxek bai ein otson aguante apurtxu bet, baia gero "blast" gorantza ein otsonien /eintsonien/, harek harek hartu eban eperdikoa, bueno! ta salto harek, baia eperdidxe errementue ez, ta aurrera. Horrek zien ya mutil handitxuauek, Elio Sierra ta horrek bai. Horrek kalle Industriasen limonadak-eta eitteko fabrikie euki eben euren aittek. Bai, fabrike euki eben. Ta Elio izena, horren ya izen zien hamabi urte. Hamabi-hamalau hamahiru urtekoak ya mutil handidxek izen zien horrek, horrek izen zien ya mutil, baia zapokeridxek. Lelengotaz ein otson aterkidxek ondo, ta "buf" aguanteu, lelengo golpie, baia barilliek ein otsonien /eintsonien/ gora koño, harek hartu eban eperdikoa, bueno bai.

1.14. "Pirineos" esnetegia

- **Hizlaria(k)**: Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GER-034/013
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:22:14. **Bukatu**: 00:24:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak
- **Laburpena**: Bonbardaketa aurrean, "Pirineos" esnetegia zegoen Gernikan. Bertako iragarki batek horrela zioen: "Yo cansada doña Juana, de ver enfermo a su niño, y ver c´mo adelgazaba en su cunita de aluminio, llego al médico asustada y éste dijo sin rodeos: 'darle leche condensada la marca los Pirineos´'. Doña Juana agreedecida hasta el médico ha besado al ver que su niño sano y fuerte, ya no padece mareos

y le salvó; de la muerte la leche Los Pirineos". Txokolatea ere egiten zuten.

Transkripzioa

- Además zan lelengo, nik ez naben ezetu, baia esto Pirineos, "fábrica de leche condensada y". Hondiño bertan, bertan eukin gendun guk fabrikie, ta ariñau izen zan hori. Ta propagandien papela kamaran tope genduzen, ipintten eban: "Yo cansada doña Juana, de ver enfermo a su niño, y ver como adelgazaba en su cunita de aluminio, llego al médico asustada y éste dijo sin rodeos : 'darle leche condensada la marca los Pirineos'. Doña Juana agradecida hasta el médico a besado al ver que su niño sano y fuerte, ya no parece mareos y le salvo dela muerte la leche Los Pirineos". Propagandie. Ta gero txokolatie eitten bien, errazionamentureko txokolatie, txarra, txokolate zantarra, baia bueno.

- Orduen... nik ez dot jakin sekule Gerniken txokolatie ein danik, han eitten zan?

- Txokolatie errazionamenduen emoten otsien jeneroa, kakaguetak eta zerak, ta han txokolatie eitten eban. Ya karameloak eta kondensadie ta horrek ya joan zien, eitten bien txokolatie bakarrik.

- Zelako txokolatie zan?

- Ha txokotalie, ganera hara dana arratoiek ta dana... ta txarra ta emoten oskuen errazionamentue baia...

- Gitxi.

1.15. San Juaneko Dibina Pastora bederatziurrena

- **Hizlaria(k):** Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-034/040
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:07:08. **Bukatu:** 01:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Elizaren eragina handia zen. San Juaneko elizako erlojuarekin ikasi zituen orduak, etxetik aurrez aurre ikusten zuten-eta. Dibina Pastoraren bederatziurreneko abestia kantatzen du. Beraien eliza San Juan izan arren Andra Marian egin zuen lehenengo jaunartzea. San Juaneko parrokoa don Eusebio zen.

Transkripzioa

- Eliziek indder asko euki eban, ezta soziedadien?

- Honbre, itzela! Soziedadien, guk dotrinie hamen [...] esto "Yo no voy a la doctrina, yo doctrina ya he aprendido cuando tenía diez años". Zerien, elizan, gaztetxuek zera, katezismo, ta oin larogeta lau urtegaz emon gure doskue katezismoa hamen.

- Baia elizaz zein zan zurie, Andra Mari ala San Juan?

- Guk nik San Juaneko erlojuen ikes naben ikesten erlojue, San Juan. Ze guk "rast" bertan eukin gendun San Juan, ze urten apurtxu bet kaletik ta San Juan elizie. Ta eitten bien Dibina Pastoran zera, nobenie: "Piedad, piedad

Divina Pastora, piedad, piedad, que tu eres la oveja perdida, eres la oveja perdida". Ez jatez ahaztuten horrek. Ta gu Andra Marikoak San Juanera.

- Bertan ein zendun komuniñoa, San Juanen?
- Ez, Andra Maridxen.
- Ta hori zelan ba, San Juan bazan zuen elizie?
- Ez dakitz, elagantiaua izengo zan.
- San Juan zer zan txikidxaua-edo?
- Bai txikidxaua, txikidxaua. Don Eusebio egon zan abadie, majoa, ta don Roberto. Baia San Juan txikidxe.

1.16. Konfesatzeko hobeto Santa Klarara

- **Hizlaria(k):** Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-034/042
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:10:00. **Bukatu:** 01:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Aste Santuan, denak joaten ziren konfesatzera; Santa Klarako bikarioak dena "pasatzen" zuela dio. Andra Mariako don Pedro gogorra zen.

Transkripzioa

- Zuek derrigortute egoten ziñien joaten, ezta, konfesetan-eta?
- Bai. Aste Santuen madre mia! ta joaten giñezan danok Gerniken dauzen mutil guztidkek, bikaridxea Santa Klarakoa, ze harek dana pasetan ei zeban.
- A bai? ta Andra Marikoak ez?
- Buf! egon zan bat don Pedro, oin Durengon dau, txarra, mortala. Baia Santa Klarako bikaridxea ez dakitz entzun ta ezer ez zeban entzuten, ta danak paso: "hala, ein, erreze padre nuestro bat".

1.17. Santa Ageda

- **Hizlaria(k):** Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-034/055
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:26:48. **Bukatu:** 01:27:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena:** Santa Agedetako koplak bat kantatzen du.

Transkripzioa

- Ta Santa Agedan esan dozu kantetan zendule.
- Bai.

- Zer kantetan zenduen?
- Edozer.
- Zein da Santa Agedatan kantetan zenduen kantie?
- Bedeinkatua izan ditela
etxe honetako jentia
pobre ta umilde dabilzanentzat
badauke borondatea.

1.18. Euskarazko lehenengo eskolak I

- **Hizlaria(k)**: Arzanegi Uribe, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-052/017
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:33:46. **Bukatu**: 00:36:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Industria kalearen bukaeran zegoen plaza batean egon zen "ikastola", euskaraz ikasi ahal izateko eskola; hain zuzen ere, gerraostean, anbulatorio ondoan bi jesuitek zuten etxean. Industria kaleko maistrak ez ziren gernikarrak, gipuzkoarrak ziren.

Transkripzioa

- Lehen esan dozu ba lelengo ikastolie egon zani en zure aittek han sartun otsuela /sartuntsuela/.

- Eske ya hondiño ni berba eitten nauen lekuen oin, orduen hondiño ez zan egon ikastolarik ezpabe kolejidxoa, monjana. Gerniken ez zan egon, "el publico" bai, "el eso", baia horrek orduen neskak-eta leku onauak hartun biher izen dabe. Bueno, ta gero ipiñi zen ikastolie ta segidxen.

- Nun egon zan hori ikastolie ba?

- Nun egon zan? oin, aber, kalie, lekue galdu de, ez dakitz zegaittik ein daben nik be [...]. Baia lehen frontoie nun egon zan? frontoie, ha kalie izen zan.

- Industria kalie.

- Bai, haxe! hantxe azkenekoa egon zan plazatxu bet, ez zan izen plazie, baia lekue egon zan holako sakona, ta hantxe egon zan, ba zelan esaten da?

- Lokala-edo.

- Lokal handi bet, eta hantxe ein zabaldu eben. Ta gero gerra denporan, hantxe goidxen, hamen zelan. Baia oin ez dau, baia orduen egon zan palazidxo bat, ta ezeunek izen zien palazidxokoak jentien ezeunek, baia ez zien bizi izeten orduen danak eta itzi eben lekue. A bai, izen zien behien beheko partien, abadiak ez.

- Jesuittak.

- Jesuittak. Ta gero gorau guretzako, gorau ez, behegau izen zan, baia leku baten guretzako euskeldun geuzek emoteko, euskeldun geuzek, baia danetariko emoten zan.

- Ta nortzuk zien ba hor maisu-maistra edo nortzuk ibil zien hor ikastolan?

- Kanpotarrak, gernikarrak ez. Señora onak, harek onak izen zien, euskaldunek, giputxe bat ta gero beste bat.

- Giputxek zien.

- Giputxek. Ta zelan izen da giputxek?

- Maistrak esan dozu, señora onak ziela.
- Ta oso oso onak eta ganera ondo hartzen doskuenak esateko geuzek eta, eta hantxe ikasi gendun idazten eta dana euskeraz.
- Ta ze liburu edo ze euki zenduen euskeraz?
- Ba ni ume-umie izen nintzen ta liburuek ez, ezpabe dotriñe izengo zan ta izengo zien holako geuzek, ez e geuze... Uste dot bonbardeoa pasa ta gero ze horrek ariñau izen zien.

1.19. "Maite beti izan zaitez, nere bihotza zabaltzeko..."

- **Hizlaria(k)**: Usatorre Lejarzegi, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GER-054/010
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:18:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Mari Karmen Onaindiaren solfeo-eskoletara oso gustura joaten ziren, asko gustatzen zitzairen. Abesti asko irakatsi zizkieten, tartean Josefinak kantatzen duen "Maite beti izan zaitez, nere bihotza zabaltzeko...". Hainbat neskatila joaten ziren bertara.

Transkripzioa

- Joaten giñen, pozik joaten giñen, asko gusteten jakun. Bai, asko.
- Baia zer ikesten zenduen ba?
- Ba Mari Karmenegaz ba "solfeo do los solfeos" egoten zan orduen. Ta zelan parte batien, bai. Ta gero zerak, Mari Karmenek, holan kantziñoak eta beren letrigaz ta holan, beren pentsamentuaz eitten oskun eta baten ein oskun:
"Maite beti izan zaitez neure bixotza zabaltzeko,
Maite beti izan zaitez neure poza siñesteko.
Zuk badakizu neure bihotza antziñetik zuria dana,
zu ikusixegaz alaituten naz biok batera alkartzeko.
Agur maite, agur agur, agur Maite gomutatzen zaitut".

Holantxik holako kantziñoak eitten oskuzen eta gu pozik beti beregaz, beragaz kantetako eta holan.

- Ta kantziño gehixau dekozuz akorduen holakoak?
- Ba ez dait ba! Ez jatez /etxatez/ akordeko igoal. Badakitzez e!
- Euskeraz kantetan zenduen beti edo erderaz be bai?
- Berari asko gustetan jakon euskerie eta asko jakin eban harek euskeraz e!
Gero ingles ikesten be hasi zen joateko gero hara Mejikora. Aunke Mejikon be erderaz be eitten dabe, baia inglesien be hasi zen ikesten, holan akademixe batera-edo, bertan Gerniken. Ta pozik ibiltzen giñen.
- Ta nortzuk joaten ziñien, nungo jentie-edo ,hara?
- Mari Karmenegañe? Ba Uguzne ta ni ta gero Pili Kalzada, Erdiko kalien euki eben dendie, ultramariñodune. Zelan esaten otsien hari, Jose Angel, izena? "Surtidor", "Surtidor" esaten otsien, "Surtido bilbaíno", bai.

1.20. Gurasoen ezkutuan makillatzen ziren

- **Hizlaria(k):** Usatorre Lejarzegi, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-054/029
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:39:27. **Bukatu:** 00:41:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- **Laburpena:** Gehienetan eziren makillatzen, baina ezpainak bai margotzen zituzten. Betiere gurasoen ezkutuan egiten zuten, etxeko portalean bertan. Ohikoak ez ziren gauzei "Salido sel cascarón;" esaten ei zitzaaien. Atzokolak portalean kuadrilla batuta pintatzen zituzten.

Transkripzioa

- Makilleu-eta hori eitten ziñien?
- Keba!
- Ezpanak bez?
- Ezpanak bai. Baia aman eurrien ta holan ez. Ezkututuen, ezkutuen, ba ezkutuen ze gure ez amak-eta ikusterik. Urteten gendunien kalera eta holan, portalan atzien edo atien atzien edo holantxik eitten gendun.
- Baia txarto ikusitte egon zan?
- Bai, ez jaken /etxaken/ gustetan amari-ta pinttetie eta holan. Keba! Batzuk eitten zien bai.
- Baia ze fama txarra emoten otson neskieri edo ze?
- Bai, baia. Zelan esaten da? "De salido del" erderaz. Oin ez jat /etxat/ akordeko, "salido de lo normal" beste berba bat esaten zan lehen. "Salido del cascarón, salido del cascaron" bai , bai esaten zan erderaz. Igual.
- Eta atzokolak-eta be margoztuko zenduezan.
- Bai, baia. Jesarri eitten giñen portalien igual koadrilletxue, Blanca Salegi be izena zan koadrillakoa, hil zana Blanca Salegi, Maite bat egon zan hor, izena Jesus! Ointxe esan dotsut izena ta, dependienta egon zan Erdiko Kalien, ez jan /etxat/ akordetan oin. Portalien konponduten ta imintten politto ta pinttetan gero, danak batera bai.

1.21. "Jesukristori kendu ezker" abestia

- **Hizlaria(k):** Usatorre Lejarzegi, Josefina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-054/042
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:54:55. **Bukatu:** 00:55:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena:** "Jesukristori kendu ezker" abestia kantatzen du bere senarragaz batera.

Transkripzioa

"Jesukristori kendu ezker
pekatuagaz bizitza,

bardin ez badot negar egiten
harrizkua da bihotza.
Guztiok lagun abestu daigu
beren penazko heriotza
beren penazko heriotza".

1.22. Umetan karmeldarren ikastetxean

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/006
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:10:34. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Bonbardaketa bezperan Arratzura joan arte karmeldarren ikastetxean egon zen 1934. urtetik. Karmeldarren ikastetxean alde zaharra baino ez zegoen eta atzealdean jolasteko leku handiak zituen. Garaioaren alabarekin joaten zen eskolara.

Transkripzioa

- Jesus, bakizu zemat urte dan? Gero eskolara zerera eroan ostien / eroastien/, hona Karmelittetara, "en el año cuarenta y cuatro" edo holan. Gero, haraxe Arratzun jun arte, hantxe eskolan euki osten /eukisten/. Ta ze esango dotsut? Hortik, gehixau...

- Karmelitxetan, mutillek be, egon ziñien?

- Bai. Orduen, ez zan egon parte zaharra baiño eindde. Beste guztixe, ein barik egon zan. Ta, han atzien ipelako bedartzak-ta, egon zien; umiek-eta olgetako leku espeziala, ordun sasoi. Ta ni joaten nitten, bi joaten giñen, neska bat eta neu eskolara alkarregaz; neskie zan, Garaioan alabie, zuk ez zendun ezetuko. Caja Ahorros-en eon zan, ha, direttore. Garaioa, bueno urtiek die asko, harexen alabiaz joan nitzen. Oin, Donostin-eta hortik bizi da, alargundu zen bera. Ta haregaz baiña bakizu zemat urte? Zemat...
Jesus!

1.23. Maisu finkorik gabe edo maisu barik

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/009
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Umetan tiragomarekin eta habailarekin ibiltzen ziren mutikoak. Lehengo maisuak zorrotzak izaten ziren eta eskolara mihimenak eraman behar izaten zituzten maisuek horiekin jotzeko.

Maisuak behin eta berriro aldatzen zituzten; maistrak, osterak, ez. Sasoi batean, ez zuten izan maisurik eta Toribio tabernariak zabaltzen zien eskolako atea. Angel gero ikastetxean sartu zuten zer edo zer ikas zezan.

Transkripzioa

- Orduen guk bakizu zer eukitten gendun umetan? Zure aittek be, zure aittittek be Florenziok be jakingo deu. Eukitten gendun tiragomie ta abille. Abille, bakizu zer dan, ezta? Bueno, guk harekek bixek geunkezan umetan. Tiragomie ta abille, beti boltsilloan. Ta gero, orduen maixuek egon zien gogorrak. Etorten zan, Arratzure etorten zan maixue, esate baterako ta gero kintalak-ta altxaten eben ta maixu barik, hainbeste denpora egoten giñen han. Ta harek ordun sasoi, eroan ein biher genduzen mimenak, eurekin emoteko geuri. Etzuten gaittuen han, mahaixen gaiñin eperdiz gora, ta mimenagaz "leña"! Ta geldi egon erain danori. Orduen, ta zer "vamos a ver". Karo harek be faltau eitten zien asko. Neskana en kanbio, maistrak, kontinuo eon zan han, donostiar bat. Gerrie baiño ariño, gerrie akabau te gero be, hantxe eon zan. Bai. Ya apellidue ez dait. Paulita euki eban izena. Horren izena akorduen dekot, baia mutillek, ez. Mutillek honek maixuek joan-etorri, "quintadas esto, aquello lo otro", orduen sasoi geuzie Arratzun. Atara kontuk, epoka baten eskolie edeitzen oskuen, ordun ikesi genduzen eitten abioiek, pajarittek, honek geuze guztixek. Ez gendun euki maixurik eta horrek, tabernak, "esto" eskolie edeitten oskun taberneruek. Toribiok. Etorten zan giltzeaz ta: "ia mutillek, barrure!". Berak be seme bi, e! "Barrure!". Ta ze ingo gendun be? Hantxe, aintziño harek, dizionarioak... Bakizu ha pale fiñe euki ebenak fin-fiñe, abioiek-eta eitteko, [...] ta guk harek danak. "Jode, fuego a la barraca".
-Ta denpora asko maixu barik?
-Bai, igual hille bitten ta hiruen iñor bez. Ta iguel, lauen be ez.

1.24. Santiago Apostol ikastetxean ezin euskaraz egin

- **Hizlaria(k)**: Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-059/010
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:17:59. **Bukatu**: 00:21:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Arratzuko eskolatik Bilboko Santiago Apostol ikastetxera joan zen, 9 urte zituela. Ez zieten uzten euskaraz egiten, baina gura barik irteten zitzaien, noizean behin kokoteko bat hartu eta kito. Luis Haya fraidea aipatzen du. Fraideen zigorrak gehienetan, "no hablaras en vasco y hablaras el idioma español" idaztea zen.

Transkripzioa

- Ta ni horregaittik handik gero, kolegjora sartu ostien. Apur bet zeozer ikesteko be; ze ostantzien ez zan egon moduik ezer ikesteko.

- Nora?

- Bilbora, "a Santiago Apóstol en el año treinta y nueve". Bederatzi urteaz,

“interno”.

- Ba, han sasoi, edonor ez zan joango Bilboraiño ikesten?

- Bai. Gu ordun egon giñen, ni baiño bat, egon zan gaztiaue zerien, Vicente Barbés. Sekulo ez jate ahaztuko. Hor Calahorrakoa “Conservas Barbés”, haren aitte ta ama azidente baten hil zien. Aittiteaz geratu zan, aittittek sartu eban interno. Zan, gu baiño, ni baiño urtebete-edo gaztiao zan han, Santiago Apostolen. Bueno, Santiago Apostolen “abria igual mil cuatrocientos o”. Interno egongo zien ehun ta, ze esango dotsut ba? Berrogei-edo; ehun ta berrogeta hamar ehun ta berrogei. Ta gero “medio-pensionistas”-ta. Egoten zana zan orduen, fraille artien ribalidadie itzela; ze, fraille batzuk zien hamengoak, eta beste batzuk zien kanpokoak. Ta “por política”, gerrie amaittu barri, ba atara kontuek zelako lioak egoten zien. Frailliek eurek be, alkar ez zien konpontzen beti. Ta gero ez doskuen ixten euskeraz eitten. Ze guk hamen ba, hamengo bueltakoak euskeraz eitten gendun. Fraillie etorten zan ta: “esto, tenéis que hablar en esto, en cristiano”, esaten oskun. Bueno hasten zien, gu bestela ba “ra” hasten ziñen ostabe euskeraz, kokoteko bat-eta bakizu “cosas de la época”. Bai, hombre! Gero han eon zan sudiretore fraille bat, gogorra zana. Zan Francon aldetik eon zan zer bat, militar abiadore bat, militarra, “un tal Carlos Aia”. Iñoiz periodikuek be, ekarri dau haren zera. Ta haren aneixe bat eon zan, han, fraille: Luis Aia. Harek Luis Aiak-eta emoten otsien euskerieri. Victor Galdiz bakizu nor dan? Analisisiek zelan eitten ebazen hor zerien? Barberixe bat eon zan, ba, “Ubarrena”? Camberren hantxe eon zan. Horrek analisisiek eitten eban. Egon zien Victor Gandiz ta lobie, Juan Ignacio Onaindia. Ez dakit horren akordurik ez dozu eukiko. Horrexei, Victor Gandizi-ta harek emoten otsien eskolie. Gogorra zan, e! Baiña eitten zendun euskeraz ta “un capón, seguido, taca. Sí, joder. Sin querer”. Ze ingo dotsezu ba? Danak harek be pasa zien-ta.

- Kapoie, euskeraz eittiarren edo beste gauza...?

- Euskeraz eittiarren.

- Aparte be ingo otsuezan kastigiek eta...?

- Ordun, frailliek eitten ebezan kastigiek, gehixenak zerak: “no hablarás en vasco”, hainbeste bider. Ta “no hablarás en vasco, habla el idioma español y, hablas el idioma español”. Igual ba hori berrogei bider edo bostehun. Nik ez dait, memorixen ez dekot, ezta? baiña horrek? Buf! gu danori.

1.25. "De Madrid ha venido mierda en bote para untar a los Guardia civiles en el bigote"

- **Hizlaria(k)**: Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-059/016
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:31:43. **Bukatu**: 00:32:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Umetan "De Madrid ha venido mierda en bote para untar a los Guardia civiles en el bigote" abestia abesten zuten, baina guardia zibilak agertzerakoan arin isiltzen ziren.

Transkripzioa

- Orduen, honek Pako Buruk-eta telebisiñoen atatan dabezan honek [...] kanziñoak. "Jugábamos a esto", ez dakit zer. Orduen kanziño bat, egon zan esaten ebana: "Si supieran los...¡No!"

"De Madrid ha venido mierda en pote,
para untar a los guardia civiles el bigote".

Ze, orduen guardia zibilek asko, holako bigotiaz ibiltten zien. Umiek, hori, zabaldu zen danien ta danak. Pakok ez zeban esan ta esan netsen lehengoan: "se te olvidó la canción del bigote, hombre. Mecauen, ¿cómo no se te acordó aquello?" Memore etorri bez. Ba, esan osten: pues, orduen hori kanteten zan. Eskolako umiek ba, bat hasten zan ta ume guztixek hau te bestie. Ta guardia zibilek handik-eta "chavales..." Guk be, guardia zibilek ikusten genduzenien, danak "ni palabra". Ixilik danok, joder!

1.26. San Raketako abestia

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/026
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:44:35. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: San Raketan abesten zen abestia "Libranos de pestes y males", kantatzen du. Abestia gaztelaniaz da.

Transkripzioa

- Bai izeten zan, baia "de aquello no me acuerdo:

"Libranos de de pestes y males, Roque Santo Peregrino". Hori izeten zan.

Líbranos de pestes y males/ Roque Santo Peregrino". San Roke izen zan

"de pestes" ta geixo, zertuteko geixoak. Ta hori izeten zan kantie.

"Líbranos de pestes y males, Roque santo peregrino". Horixe izeten zan.

1.27. Prozesioak

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/027
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:47:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Erligioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- **Laburpena**: Aste Santuetan kaleetan aldareak zeuden. San Juan elizak erre aurretik izan zuen kokalekua zein den zehazten du. Divina Pastoraren prozesioa ospatzen zen bertan. Prozesioa asko zeuden:

Sagrado Corazón, Corpus Christi... Ibilbidearen berri ematen digu.

Transkripzioa

- Baiña lehen, osea Sagrado Corazón, kalietan altarak, kalietan ipintten eben. Ta gero ba jentie prozeziñoan kantetan. Ta gero hemen elixa bi egon zien. Oin Etxarte dauen lekuen, kafeterixe? Han egon zan, ha etxe barrixe dau han ba, Etxartien ondoan dau, "en frente" ha izen zan elixie: San Juan. "La iglesia de San Juan" ta parrokixe. Harek bixek egon zien hemen. Ta han parrokixen zerien, San Juanien, eitten zan prozesiñoa "de la Divina Pastora". Ta kale guztixek bedarrakaz ta osea, planteute danak elegante Ama Birjiñie pasetako. Ta aintziñe prozesiñoak beti eoten zien: "Sagrado Corazón, Corpus Christi". Altarak ipiñi kalietan, etxietan holan atara izerak eta geuzek balkoien ta herri guztixe engalaneta eta asko izeten zan. Oin erlijioa-ta ez dau ezebe. Prozesiñoak be egon zien Gerniken ta kendu ein eben. Ta Bermion badauz, e! Bermion badauz, baia Gerniken ez. Kendu ein dabe dana. Asike...

- Ze rekorridu eitten eban prozesiñoak?

- Prozesiñoa ba, urten Andra Marixen, bajatu hori aldatza, Faisaneko aldatza ta gero. Ez, ez, holan ez zen izen. Bajatu, osea sartu Andra Marittik "donde está esto, el...", Jesus! medikuen gauzie zelan da?

- Anbulatorixoa?

- "Donde está el ambulatorio", handik, aldatzetik bajatu ta gero herrixen erdiko kaletik, "Ocho de Enero" ta handik ein ta gero atzera, igon hortik aldatzetik elixara. Hori izen zan prozesiñoa. Ta jente asko joaten zan ta prozesiño elegantie egon zan Gerniken. Elegantie. Baia, oin ez dau ezebe. Kendu eben ta santuek be asko egon zien. Asko.

1.28. Elizaren eta familiaren indarra

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/028
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:47:30. **Bukatu**: 00:50:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzina elizak eta erlijioak garrantzi handia zuen, dena hartzen zen bekatutzat. Mutil-lagunari ez zioten musurik ere ematen. Seme-alabaren bat gurasoekin gelditzen zen etxean. Bere ustez lehen familia batuagoa zegoen. Presen alaba bakarra izan zen, baina hori ez zen ohikoa.

Transkripzioa

- Aintziñe horixe izen zan; elixie ta bestie ta zera, ezebez gehixau. Ezebez. Guk, dana pekatue izen zan, dana pekatue. Ene! Nobixoagaz-ta, nobixoa be upelako ileran neskakaz ta nobixie hemen ezkiñetxuen ta nobixoa, ondoan, baia ileran neskakaz. Bakarrik-eta keba! Oin zelan kanbixau den!

- Ikuturik be, ez?

- Keba! Dana pekatue. Dana pekatue izeten zan, lehen ta oin ezebe ez da pekatue. Bueno ba! Kasurik be ez. Oin ezkondu barik bizi die danak. Nik be

lobak dekotez ta harek be ezkondu barik bizi die Madrilen. Asike, oin danana da. Nik ez dot ernegetan horregaitxik. Batzuk: "ai, zelako disgustoa-ta. Ai bakarrik hantxe bizi izen da ezkondu barik-eta". Nik, ezebeaz, dauela! Hor konpon!

- Ta lehen zuek nobixoagaz musuren bat-edo?

- Keba! Lehen? Hombre! Ziñera joaten bazara, nehikoa nobixoagaz, nehikoa, beti lagunekaz. Bueno oin diferente da, baia kanbixau ein da total-total-total-total bizimodue. Total! Ta gero aitxeaz ta amagaz be, beti geldittu zien bat, osea seme asko badekozu, bat beti etxien, ama ta aitxe jaboten. Beti. Aitxe ta ama bakarrik, iñoz bez aintziñe. Nire lehengusiñe batek esaten eban: "en nuestra generación se ha acabado eso". Ta egixe da. Gure aitxe ta ama danak hil die hemen, noberagaz. Ta nire lagunek danak, aitxe ta ama etxien. Ta oin danak erresidentzixera edo danak botaten dabe. Oin diferente da. Egixe. Tristie da e! Lehen pobriauk izen giñen ta zerau, batuau; familixe gehixau batzen garien. "Osea, no sé cómo explicar".

- Batute egoten ziñiela?

- Asko, danak. Danak. Eske nire lagunek-eta danak, danak egon die euren aitxegaz ta amagaz hil die eurekaz. Ta hori badekogu sikan barruen sartunde. Baia oin danak "a la residencia de viejos". Ala!

- Zu be alaba bakarra izen ziñen ta zeuk?

- Neuk baiña asko direnien be, aitxegaz ta amagaz, bat beti geldittuten da aintziñe. Beste batzuk ba kanpora edo bertara edo zerien, baia bat beti aitxegaz ta amagaz. Bakarrik aitxe ta ama, lehen ez zien egon. Iñor bez.

- Zure sasoi ez zan egongo jente asko alaba bakarra zanik? Famili handixe izeten zan.

- Jeneralmentien bost-edo izeten zien jeneralien. Ba, ni bakarrik izen naz. Ta bueno ba...

- Dana zeuretzat?

- Baia mimosa ez naz izen, e! Mimosa-koplerie, bapez. Esaten eben: "las hijas solas son mimosas". "Yo no". Ni, ez naz izen. Normala.

1.29. San Juan suetako "Txomin eta Bartolo" abestia

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/008
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juan suaren inguruan abesten zuten kanta, "Txomin eta Bartolo", kantatzen du Kruzitak.

Transkripzioa

"Nik ikusi nituan
San Juan gabian,
Txomin eta Bartolo
tabernako atian.

Hormia zalakuan,

batak bestiari,
txiza eitten eutsen
zart-zart praketan alkarri".

Hori kantetan gendun /kantetangun/ San Juan, San Juan sueri bordeetan.

1.30. Eskolako "kalbak" eta maisuak

- **Hizlaria(k):** Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/014
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Karmeldarretan 7-8 urtera arte egon ziren mutilak, gero pasealekuko eskolara joaten ziren. "Kalbak" egiten zituzten noizean behin. Behin futbolearen jolasten joan ziren eta maisuak harrapatu egin zituen. Don Manuel Alonso, don Mauro Garan eta don Feliciano aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Karmelittetan mutillek be egon ziñien?
- Bai, mutillek be bai.
- Askorik ez, ezta? edo
- Gaztiek. Ba umiek; Ba zazpi-zortzi urtera artien. Gero handik, eskolara pasetan giñen. Bai.
- Eta gusture eskolara?
- Keba! Hoba kalien. Kalbak-eta eitten gendun baia, nozipeñien. Nozipeñien bai. Eta gero aittek: ñoooo!
- Kalba asko?
- Ez, asko ez. Keba! Nozipeñien.
- Kruzita: Lehen kalbak-eta eitten zien e!
- Oin, eitteko moduen?
- Jo baten hara, oin Idiga dauen lekure, hara fubolera atsalde guztixen joan giñen. Ta bagatoz etxerantz ta maixue. "Mekauen!" Geixorik gauzela errekadue bieldu te gero Ba bueno, beragaz- ta: "hombre, los enfermos aquí vienen".
- Nor zan hori maixue?
- Alonso. Manuel Alonso, don Manuel Alonso. Ona, bueno ta gero, don Mauro be bai, don Feliciano. Bueno, Don Feliciano gerrie pase ta gero eon da. Alabie, hor bizi de. Don Felicianon alabie, hor bizi de. Don feliciano be maixue izen zan gerra sasoien.
- Kruzita: Ta Mauro be bai.
- Don Mauro.
- Mauro Galán?
- Mauro Galán, "sí". Bai. Ta hantxe.

1.31. Eskolak Ajangizen eta karmeldarretan

- **Hizlaria(k):** Txopitea Uribarri, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-104/008
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:14:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena:** Ajangizera joaten ziren eskolara lehenik, eta gero karmeldarretara, ordainduta.

Transkripzioa

- Ezin joan eskolara be, ba ze eskolara joan bai, baie bakizu nora joan behar izaten gendun? Ajangizko puntera arte. Eta Ajangizko puntera arte, kamiñondoan, baserriko [...] bakarrik, arbolarik be ez, arbolarik be ez, dana soloa, dana soloa edo dana basoa, besterik ez. Eta gero Karmelittetara joaten giñen, pagaute, ez dozu entzuten. Oin ez, oin... oin... oin [merzedeen] be eskolie badauen lez, neuk dakotez alabie han ezkontute, edo, ezkondu zanién, 30 urte baiño gehidxau dau andereño.
- Orduen, zu karmelittetan?
- E?
- Pagokoan? Karmelittetan pagokora?

2. Politika

2.1. Gernikako bonbardaketa

- **Hizlaria(k):** Basterretxea Santiago, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-001/006
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:13:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernikako bonbardaketa izan zenean, umea zen, baina gogoan du bere aitabitxiak babeslekura zelan eraman zuen. Bere ama Abaituatarren oso laguna zen, eta haien etxean zeudela hasi zen bonbardaketa. Beraien alaba Nekanerekin batera soroan etzanda egon zen. Bonbardaketako gauean, Errenteriako zubiraino joan eta soldaduek ez zieten pasatzen utzi. Errenterian pasa behar izan zuten gaua, Gomezanean etxean.

Transkripzioa

- Umetakorik ez jata /etxata/ gogoratuten ezer haixe bonbardeo bueltara arte, ez ordura arte ez dekot gogoan ezer. Ez.
- Ta hori bonbardeoa...
- Hori dekot gogoan ba neure egunien, neuk lau urte ein nittuzen egunien, horixe da dekotena gogoan neure aittebitxi, neure lehengusu bet, etor zala zorixonak emoten, ta ez dekot gogoak kanpak jo bazittuezan edo ez, baia antza kanpak jo zittuezan badatozela abioiek-edo, ta dekotena gogoan da

trikotien ipiñitte eroan nendula aittebitxik errefujidxora; horixe dekot gogoan bakarrik. Ta gero hortik eta gora ba gero ba gero bonbardeoko egune ba, nire ama izen zan lagun handi-handixe zerena Abaituanekoan amana, horrek Dunixi Abaitua ta horren amana.

- Dunixi Abaituan amana?

- Amana. Dunixi alkatie izen zana lelengoko alkatie gero Franco hil eta gero. Horren aman lagun handixe izen zan nire ama ta horrek bizi izen zien Mertzedean, Larruzeaneko txaletien; Larruzeanekoa behien eta eurek goiko pisuen. Ta orduen arratsaldien joan giñen nire ama eta ni ba haraixe, beren lagunen etzera. Ta bera, euren seme-alabatik gaztiena, bueno gaztiaue gero Joseba eduki ben mutille, baia neskie gaztiena neure edadekoa zan Nekane. Ta hantxe gauzela hasi zen bonbardeoa. Ta orduen dekotena gogoan da zelan han erreka hegalién, arbola azpixedan pare zien eurek persona edadekoak ya danak ta Nekane eta ni ipiñi genduezela itxunde soloan, bardatxu batzugin tapeute, erraman arbolan bardatxu batzugin tapeute, ta bixok eskutxutik ebatute hantxe tapeta. Ta handik arbola azpittik esate oskuen: “umiek ez eñ zirkiñik, egon geldi, egon geldi!”. Ta gu hantxe bixok geldi-geldi bardatxuen azpixedan, horixe dekot gogoan. Ta gero hurrungo gogoan dekotena bonbardeokoa da, ba ni hain izen nitzen, gero be beragaz geratzeko izen nitzen baia, tia estimedue, nik izekoa izen naben estimedue txiki-tikittetik, ta ni gabaz hasi nittela negarrez izekoañe gure dotela /gudotela/ ta izekoañe gure dotela /gudotela/ eta zelan etor giñen Erreterixeko zubira arte, ta ikusten zan dana sue, ta han soldadu batzuk ba ez oskuen itzi pasetan honantz, ta orduen paseu gendun guk gaba Erreterixen. Pase gendun gaba beste lagun bat eukin ban nire aman han Erreterixen beragaz batera Nueva Yorren egonikoa ya alargundute ta familixe barik, ta ha izen zan lehen kontzejala izen dana? Zubizarreta, udaletxien? Bai, dekiena etze bat Ajengizera goazela, alemanan txaleta paseu ta gero. Bueno ba, harexen izeko bat, ta harek bizi izen zien, ha bizi izen zan Erreterixen Gomezanekoan etzien, Gomezanekoan etzie bakizu zein dan? horixe Dunixi Abaituan ama andriena-ta. Han etze pisu askokoa, Maurizio Bilbaok-eta ein bena, han errebueltan Arratzure bidien hartzen dauen, akaburengo iledan Erreterixen, akaburengo ezkerretara, ha izen zan Gomezanekoan etzie. Ta orduen harexen lagun etzien paseu gendun gaba, baia etxat gogoratuten hor gabaz ez ze ikusi naben ez, hantxe egon giñena bai, baia besterik ez.

2.2. Gernikako bonbardaketa ostean, Olaetatarren etxean

- **Hizlaria(k):** Basterretxea Santiago, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-001/007
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:13:12. **Bukatu:** 00:17:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Karakuel, Kepa
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Gernikako bonbardaketa izan eta hurrungo egunean, ama eta biak Belendizera joan ziren, Leginetxekoen txaletera; jende asko zegoela dio. Bonbardaketa ostean, amamaren etxean, aitaren etxean eta Olaetatarren txaletean ere egon ziren. Olaetatarrak Frantziaren zeudenez, beraien familiakoak egon ziren bertan, izeko-osabak... Bost urtean lau familia ezberdineko 22 lagun egon ziren. Zabalekoak ere egon ziren bertan. Etxean bizi zirenen izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Baia gero, hurrongo egunien, joan giñen ama ta ni Belendixera, ta Belendixen, ba nik ez dot jakin nun egon giñen. Egon giñela han txalet baten bai, baia ez, baia antza izen zan Leginetxenekoan txaleta. Hor dekot gogoan egon giñela jende pilloa gabaz. Bueno, ume batentzako ba pilloa ez dakizt, izan littekez igual zortzi, hamar edo, edo hoge, baia neuretzako pilloa egon giñen. Ogera barik, e? Jesarritte. Jesarritte. Ni aman altzoan. Horixe dekot gogoan ta argirik ez gendula euki. Ta mahai baten ganiien kandela bat ipiñitte. Horixe. Ta gero dekotena gogoan da beste gauze bat da handik egun bigarrenera, edo -beittu zelako detallie jun behar geratzen jakiezan buruen sartunde- egon nittela ni txaletan aurrien jolastuten, horrek frantses bedar gorritxuek. Frantses bedarra. Beren lorie da hala luzetxue, gorriketxue. E? Holan, ta harixekin olgetan, halakoxe bedartxuekin egon nittela olgetan hantxe txaletan aurrien ta agertu zen izekoa. Ta nik ikusi nabienien joan nitten arrapaladan beragañe. Ya gero, hortik eta gora, ya, ez nora joan ginen, ez giñen, ez... Hori etxat gogoratuten. E? Gero bai, gero eurrerau badekot gogoan ba nire aman etzien, ba klaro, bestiek danak egon ziren lez Gerniken ezkonduete bizitzen, ba danak, amumanera. Ta danak jaten. Ta orduen, ba, han jende askoak egon giñen ze lau etzetakoak, seme-alabanak eta danak amumanien. Ta orduen nire ama ta ni joan giñen neure aitten etsera, Amunara, e? ta nire ama eta ni egon giñen Amunan ba hainbeste hillebetien, hainbeste hillebetien. Gero, ba Olaetanekoan txaleta, ez oin dekien txaletxue ez bare ze lehen egon zan hor behie ta gorantz pisu biko. Baia, klaro, gero hasi zienien konpontzen, ba kamiñotik hurrie dauela, ta bota erain etsien ta atzerau erain. Baia klaro, nire ama euzoa izan zalez eta beti hartu-emon handikoa, eurek Frantzidxen egon ziren ta hor egon zien aittitte Tomas, ta osaba Juan Cruz, ta izeko Bernardiña. ta kridxedu bet euki eben, Pedro izena euki ebana. Ta harek. Ta orduen ba, joan giñen bizitten horraixe. Ta horraixe etor ziren be bai biziten Zabalianekoak. Zabalianekoak badakixu nortzuk diren? Hamen, zerien, Seber ikastolan egon dana kontserje urte askoan, Joseba, haren andrie Garbiñe, bueno, haxe, Garbiñen familidxe. Hárek etor ziren be bai hara. Ta han egon giñen gu bost urtien, bost urtien, e? Ez die bost egun, bost urtien hogeta bi lagun, lau familidxe desbardiñetakoak. Zabalianekoak izan zien aitte ta ama, Ziriako ta Juli, ta gero eurek, bost neba-arreba, Luzina, Luzina Gerniken bizi da oin, Jon, hil zen, Itziar, oin Inglaterran dau, Garbiñe, hori horregaz ezkonduko, ta Joseba, hil zala oiñtxe urte bi-edo, izen zana udaletxeko enplidue, ta izan zana uneda baten lbarrangeluko alkatie; Joseba. Ta euki zittuezan hiru izeko eurekin, aman izekoak: izeko Rosario, izeko Raimunda ta izeko Satur. E? Horrek danak. Gero nire izekoa, neure ama ta neu. Ta gero beste izeko bat geurie, gixona ixen zan neure aman nebie baiña ya alargundute egon zan geure ixeko Petra; geure ixeko Petra beren lau seme-alabakin. Ta gero aittitte Tomas ta ixeko Bernardiña ta osaba Juan Cruz ta kridxedue Pedro, eurek, Olaetaneak. Danok, hogeta bi lagun, hogeta bi lagun egon giñen.

2.3. Emakumeak garbitzera behartuta

- **Hizlaria(k):** Basterretxea Santiago, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-001/010
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Karakuel, Kepa
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
 - Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena:** Santa Klarako komentuan erreketek eta Andra Mariako elizan mairuak egon ziren. Santa Klarako komentua, Andra Mariako eliza, Guardia Zibilen kuartela, Elvira Iturriren txaleta... zikin-zikin utzi zuten eta hura garbitzeko herriko emakumeak hartu eta garbitzera behartu zituzten; EAJko emakumeen zerrendatik izendatu zituzten garbiketetan ibili beharrekoak. Beraien etxera izekoren bila-eta joan zirela gogoan du. Santa Klarako mojek ez zuten jakin emakume haiek behartuta eta musu-truk joan zirela.

Transkripzioa

- Falangistak zenbat denpora egon ziren ba?

- Ba bai, urte batzuetan bai. Urte batzuetan bai, egon zien. Ta horrek danak, ba garbittuteko, ba emakumiek eroan zittuezan. Bai. Neure ixekoa be ibili zen. Batzuk Andra Maridxe garbitzen, beste batzuk... ze Andra Maridxen ta, zerien ta, hori nik ez dekot gogoan, baie etzien entzunde, Andra Maridxen ta Santa Klaran konbentuen-ta antza egon zien moroak eta erreketiek eta holakoak euki ebezan akuartelamenduen-edo. Ta gero antza itxi eben dana txarrikorta bate lez ta horrek danak garbitzen; Guarda Zobillen kuartela, Santa Klara, Andra Mari, Doña Elviren txaleta, ofiziñek ipiñtteko falangekoak, ta horrek danak garbitzeko ba ein zien emakumen listiegaz ta deittu eutsien danari garbittasunek eitten joateko.

- Ta han ixengo zan musutruk.

- A! Klaro, klaro zer esanik be ez.

- Ez ebezan... jateko edo emoten dotsiela...

- Ez, ez, ez. Jaten be etzera. Jaten be etzera. Goixien joaten ziren, egun bat astebete edo halako bat ixen zan ze ensegida ein ziñttuezan, hainbeste pilloa ixen zien ta. E? Ta goixien joaten zien; horixe dekot bai gogoan. Hauxe, hauxe dekot gogoan: egon giñen danok han kontuek kontetan, ee, han bixi giñen Olaetaneke txaletian ta, kontu-kontetan egon giñen ta ez gendulez eukitzen ez giltzik ez ezer, esan dotsut /esantsut/, ba han ezkatzien danok jesarritte, ezkatza haundidxe da, kontuek kontetan ta, halan jo eben ezkatzeko atie. Kalien euki gendun ate bat, eta gero eskillarie eta goidxen ezkatza ta, baia ha be zabalik behekoa ta, gora, goiko atie jo eben. Ta hondiño aittitte Tomas falta ixen zan, ta ha dalakoan, beti joten eban atie sartu orduko ta, nire amak esan eutsan: "aurrera". Ta atetik, hauxe dekot gogoan, atetik abots batek esan ebala: "Mañana, que vayan, Anastasia Santiago, Margarita Santiago, Maria Dolores Santiago con el balde y el estropajo pa tal hora a tal sitio". Eta orduen iri eben atie ta txapel gorridxegaz bat etor zen abixue emoten, joateko hurrengo egunien.

- Ta joan ein biher...

- Klaro!

- Ezetz esan ezker...

- Klaro!

- Ezetz esan ezker?

- A, bueno ez dakit zer ixengo zan ezetz baie inor ez zan atrebittan ezetzik-eta esaten. Danak artez.

- Bai, ezta? Eta,lehen esan dozu moroak eta erreketiek-eta.

- Horrek nik neuk ez dekot gogoan, ez dotez ikusi ta hori etzien entzunikoa. Antza, Andra Maridxen moroak egon biher ixen eben, ta hemen, Santa Klaran erreketiek. Ta ba hau be etzien entzundxe, ze nik horrek gauzak ez

dekotez gogoan, baie etzien entzundxe, Santa Klarako mojatxuek, koittaduek, ba, jakin ebenien zegaittik joan diren garbitzen, ze, antza, ba esan dotsiela /esantsiela/ ba andra batzuk boteko dotsiezela / botekotsiezela/ garbitzen, "ta guk pentse dogu ba soldatara zatoziela". Ta han batek, neure ixekoak, ez horrek ixekoak, beste batek, beste ixeko batek, e: "Ba ez. Gu etorri gara garbitzen emakumiek garelako, besterik barik". Ene! Hori entzun ebenien monjatxuek eurek, esaten eban gure ixekoak, atxurregaz ta zikiñik haundixenak kentzen laguntzen-ta.

2.4. Elbira Iturri, emakumeen presidentea

- **Hizlaria(k)**: Basterretxea Santiago, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GER-001/011
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:24:32. **Bukatu**: 00:26:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Karakuel, Kepa
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- **Laburpena**: Doñe; a Elbira Iturri emakumeen presidentea zen, EAJko emakumeen taldekoa. Alderdi jeltzalean talde ezberdinak zeuden: gizonezkoena, emakumeena eta gazteena. Jendea nahiz eta alderdikidea izan ez zen politika munduan murgiltzen.

Transkripzioa

- Eta bittartien, Elvira Iturri non egon zan?
- Bilbon euki eban etzie. Elvira Iturri be bai Bilbon bixi ixen zan. Ahona etorten zan ba aiñtxiñe-aiñtxiñe antzan beti bixi ixen zien bertan, baie gero ya semien estudidxoak eiñdde eta Bilbora joanda, ta hona, antza etorten zien uden.
- A! Uden... Eta hori errekidxetziena-eta, nox ixen zan? Uden?
- Bueno, hori errekidxetziena nazionalak sartu zienien, artez!
- Baia nox sartu zien-edo?
- Ba hemen sartu zien, ba ze, hogeta seidxen ba ixen zan bonbardeoa ta ze ixengo zan sartu zienien ba? Bilboko liberaziñoa hogeta bederatzidxen ixen zan. Ba, ze ixengo zan? Hogeta hamar edo, hogeta hamaika-edo, edo hogeta hamar, edo bat, edo bi-edo. Ba, hortxe! Astebeten bueltan ixengo zan, nik uste dot.
- Ta emakumien presidentie esan dozu zala...
- Bai.
- Zer zan? Emakumien...?
- Hamen egon zan, o sea. Oin PNVn ez dau holako apartekisunik, danak bardin. Baia lehen egon zien, egon zan, antza, antza, horrek gauzak etzien entzunikoak, ze neuk horrek ez dekotez gogoan, baia batzuk emakumek, ta gero gizonezkoak, ta gero beste bat, gaztetxuek. Be bai euki eben euren ee... Oin ez dao gaztetxurik eta holakorik, gaztetxuek. Ze neu, etzien esaten eben, apunteu nenduela gaztetxueta urtebete eiñ nabenien.
- Jaidxo eta segiden ya afilieta...
- Bai. Halanda ze, ba horixe! Ta emakumen listiegaz, antza, jabetu zien ta orduen eroan zittuezan.
- PNVko zerrendan egon ziren, listen egon zien andrazkoak garbitzen.
- Bai, errepartidute batzuk hona eta beste batzuk hara ta zera ta klaro ba

astebetien edo gauzie danan artien garbitu zittuezan danak.
- Orduen andrak be egon ziren politika munduen sartunde...
- Politikan sartunde ez, ezpare ze haidxe, osea zer esango dotsut ba.
Politiken, gure etzien sekule ez diez sartun politiken.
- Bai, bai...
- Gure etzien, e, politiken inor ez da sartu sekule be, baie danak sentidu dabe horixe, ta danak egon dire apunteta.

2.5. Gernikatik Frantziarantz

- **Hizlaria(k)**: Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-027/043
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:58:52. **Bukatu**: 01:02:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena**: Bere osaba Rotaetxeren gidaria zen eta harekin joan zen Frantziara ebakuatuta; Rotaetxe, sasoi hartan, aginpidea zuena zela dio. Gernikatik ezin izan zuten bide jeneraletik joan eta kanposantu aldetik irten ziren Gernikatik: Burgoa-Bizkerre-Bermeo-Algorta bidea egin zuten autoz. Itsasontzia hartu zuten bertan.

Transkripzioa

- Zera dala ta jua ziñien Frantzire ba?
- Ba ebakueu ein ziren jentie.
- Alaba: Zuk esan biher dozu /bizu/ tiok ze biher eitten zeban, ta tiogaz joan ziñen zu.
- Bai. Tiogaz ta tia-ta.
- Alaba: tio ze izen zan?
- Tio Rotaetxen txoferra.
- Alaba: ta ze ordena euki eban? ze ordena euki eban tiok?
- Ez dakitz ze ordena eukiko eban, harexegaz txofer ibiltzen zan-ta.
- Alaba: Itsosora botetan kotxe guztidxe-eta ez ziren ibilli, bestiek sartzen egon zirenen?
- A ez dakitz.
...
- Rotaetxe nor zan ba?
- E?
- Rotaetxe nor zan edo zer zan?
- Ba aginpidie euki eban hantxe, hamen Euskel Herridxen.
- Ministroa, ministroa-edo?
- Ez dakitz zer izen zan.
- Ta lehen txoferra? eta, nortzuk joan ziñien ba hareñe?
- Ta gero zerien egon giñen Algortan. Hametik ebakueta.
- Alaba: Baiña nundik joan ziñien Gerniketik? harek bestiek sartzen eta zuek urtetan nundik ibil ziñien?
- E?
- Alaba: Tian eta tion kotxien sartun ziñienien eskapetako, nundik eskape zenduen?
- Nundik eskape gendun hara?
- Alaba: Nundik joan ziñien bidien eskapetan?

- Kanposantu bide, bide jeneraletik ez, ze igonda egon zan bestiek Burgoko puntera ta. Ta neuk esan notson: "hortik libre-libretik bagoaz tirtuko doskue, ta hortik kanposantutik bueltan joango gara", ta handixik joan gintzezan. Ta orduko goittik behera bajatute Ajangizko Elizaldien hillek ageri ziren, ta sartu kotxien ta joan giñen ta Burgoatik ipilako deskargie ein zoskuen ta [...] burue bajatu behera eta: "beherei behien joan e burue behien dozuezela". Ba pase giñen han Bizkerre parien ta gero ba handik e erreka izkiñetik, Bermiotik Algortara.

- Ta Algortan?

- Algortan gero ein eban ha Frantzirekoa ein zotson /eintson/ Rotaetxek, ta zera barkue bete dala ta jentie bueltan. Danak esaten oskuen /esateskuen/ ze ez joateko ze bete dala barkue ta zerak kanpora altxe diela mahaidxen dauzenak be ta. Ta zerak e, Rotaetxek, guri ofiziñen eingo dabela eingo dabela berak eta sartzeko zerien, barkuen.

2.6. Frantziara itsasontziko kubiartan

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/044
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:02:18. **Bukatu:** 01:05:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Frantziarako itsasontzia Algortan hartu zuten. Gauean, asko mareatuta ziren, eta bera lehengusina txikiarekin kubiartara joan zen. Gizon batek, ama-alabak zirelakoan, esnea eman zien. Izekori kontatu zionean, izeko haserretu egin zitzaion esnea berak behar zuela esanez. Bordelera heldu zirenean, errefuxiatuak gela batera sartu zituzten eta ogi zuria eta gazta eman zieten jaten.

Transkripzioa

Ba gero gabaz han danak mariatute, danak mariatute. Ta ez dakitz zelako gerrako Jose Luis Diezek-edo urten dabela ta ez dakitz nundik bueltie ein biher izen dabela barkuek hareri eskapetako ta joan giñen. Ta danak mariatute egon ziren barkuen ta ni tian umiegaz kubiarta ganera urten naben, barkuko kubiarta ganera. Ta etor jaten gizon bat ta esan osten baze harek umiek... rubidxie dala esan gure izen eban ta ni morenie, ta baietz, ta harek pentseten eban ha umie neurie dala ni bakarrik han kubiarta ganien kaja baten ganien jarritte-ta. Ta gero joan zan gizon hori barrure ta botillekada zera ekar eban, esnie txupeta eta guzti umieri emoteko, ta emon notson ta truke-truke dana akabeu umiek. Eroan eban eta gizon horrek barrure ta gero nun ekarten eustan /ekartestan/ neuri katillu bete kafe ta esne. Ta ederto neu be pareu, hareri umieri emoteko biher dotela / bitela/ esaten eusten /esatesten/. Edan ta joan nitzen barkure barrure ta esan notson tiari ze paseu jaten, berak biher izen dabela hori ta berak biher izen dabela ta gure tia hasarratute, "bai, baia ez zara egon han ta!", ta eroan ein biher notsola /binotsola/ berari, harexe barrure joango nitzen hartun katillue eta berañe. Ta gero bajatu gintzezan ha ez dakitz nun izen zan Burdeos-edo, ta zera, "pasajeras o estos, refujiaus o pasajeras" ta

"refujiaus" garela gu ta "refujiaus" hara barrure sala batera, "pasajeras a la calle", ta harek kalera. Ta ekarri oskuen /ekarriskuen/ ogi zuri bet elegantiaua, gozoa! ta ez dakitz zer izen zan gaztaie-edo beste bat, ta jaten emon oskuen hantxe.

2.7. Daux-en I

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/046
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:09:06. **Bukatu:** 01:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Ez ziren gernikar asko egon. Bilbotar bat 3 umerekin, Portugaleteko 3 ahizpa, mutiko bat eta moja bat egon ziren. Bordeletik Daux-era joan ziren, mugatik 367 kilometrotara.

Transkripzioa

- Eta nungo jentie gehidxau egon zan? gernikarrak egon ziñien asko edo nungo jentie?
- Ez. Bilbokoa bat hiru umegaz ta Portugaletekoak beste hiru aizte ta mutiltxu bet. Ta gehidxau nor egon gintzezan ba? gehidxau malamonja bat, ha gero Ameriketari euker aiztie eta Ameriketara erun zeban aiztie, ta besterik ez.
- Eta Burdeoseri bertan egon ziñien edo beste nonora mobidu ziñien?
- Burdeoseri ez giñen, Daux-en.
- Ta hori zer dau Burdeosetik hurbil-edo?
- Hirurehun eta hirurogeta zazpi kilometro egozala fronteratik esaten eben eta ez dakitz nik nun izengo zan.

2.8. Daux-en II

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/048
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:10:30. **Bukatu:** 01:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Daux-en zeudela, ez zen geldi egoten: neskameari laguntzen zion arropak-eta garbitzen. Irailaren 3an, etxera bueltatu ziren.

Transkripzioa

- (Alaba): Baia biher eitten zendun han be laguntzen.
- E?
- Biherrik ez?
- Biherreri nik kridxedieri laguntzen notson, ni geldi ez nintzen iñoz be

egoten. Kridxedieri laguntzen notson labaderoan ta erropak errekan joten ta danien.

- Ta gero ze ein zenduen, buelteu? Setienbrien buelteu, irailien buelteu esan dozu?

- (Alaba): setienbrien honantz etor ziñen.

- Bai, setienbrien hiruen ta zortzidxen izen zien bertako jaidxek. Ta karteruek esan eustan /esastan/ soldadu dauela eta hillien zortzidxen etorko dala ta ondo pase biher dogule /bigule/ han, ta ha etorri orduko eskape naberen nik.

- Eta? Ajangizera bueltan edo bertora? edo nora joan ziñien?

- Bueltan Ajangizera. Nora joan nintzen ba? aitte ta ama hantxe euki nittuzen ta.

- Ta gero zer etzeko biherretan-eta, edo zetan jarraitu zendun gero? Buelte ziñienien etzeko biherretan edo zetan jarraitu zendun?

- Etzeko biherretan. Ez neken nebarik biher eitteko ta aitteri laguntzen

2.9. Osaba, erru barik, 20 urtean preso

- **Hizlaria(k)**: Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GER-027/073
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 01:44:33. **Bukatu**: 01:48:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Mendatako osaba bat Zaratamoko Elizaldean bizi zen, eta gerran etxetik alde eginda zeuden. Etxera bueltatu zirenean, Guardia Zibilak joan zitzaizkion armarik-edo zuen galdetzen. Bere osabak bat bazuela esan zien. Kaxaren bat bazuen ere galdetu zioten, eta ganbaran bat bazuela esan zien. Gora igo eta esku-bonba, fusila... aurkitu zituzten kaxan. Atxilotu eta preso eraman zuten: heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Azkenean, 20 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten; kartzelan zegoela bronkioetako gaitza hartu zuen.

Transkripzioa

- Ta guk tio bat euki gendun Zaratamon, Zaratamon.

- (Alaba): Hareri be ze pase jakon gerran ama?

- Gerran ze pase jakon? eurek etzetik aldeta egon zien hara beherau Zaratamoko Elizaldien bizi ziren eta. Ta gero, etzera joan zirenien han beheraure joanda eurek billurregaz, etzera joan zirenien ensegida Guarda Zobillek etzera. Ta ia armarik-edo badekon, ta bai, zera karterue dala ta jiroak eitteko zertute dekola ta badekola zera. Ia beste armarik ez badekon ta ez, ez. "Kaidxarik be ez dekozu?" ta "kaidxie bai". Joan ta erakutsi dotso kaidxie ta ezebez. "Beste kaidxarik ez dekozu?" ta "bai, sabaidxen tapie be apurtute ta retxazeta dauen bat", "ia, goazen ikusten ia!". Joan dire ikusten ta eskuko bonbie, fusille ta ez dakitz zertzuk han kaidxan, ta detenidu eben eta eroan eben preso eta hogei. Hiltzeko sententzixe emon ta zera hango Zaratamoko amerikano batek "branga" salto ein ei zeban hara zeran eurrera, ta esan ei zotson baze: "horren lekuen neu afusileu hori kuperik bakoa da ta" esan zotson, "horrek ez deko kulperik". Ta orduen hogei urterako kartzelie emon zotsien. Ta lekurik txarrien ipini eben, ure datorren lekuen goittik behera, ta etor zan bronkidxoak total zarratute, ezetako

geuze ez dan moduen. Ta etor zan geurera be Asuntzixoatan konbidedu ta, bera Mendatako semie zan, gure aitte be bai baia. Ta Mendatara joateko gogoa berak eta ezin joan, ta gure aittek esan zotson: "bai joango zara. Neuk prepareko dotsut astoa ta astoan ganien joango zara hametexik zeretik, ez dakitz nungo zeretik behera bajatuko zara ta joango zara". Ta bote eban ta pozik etor zan bueltie eindde. Baia ez zan ba ha arnasa bete eziñik egoten zan. Ta kulpe bako gizona, kulperik bape-bape bako gizona.

2.10. Gernikako bonbardaketaren ondorioak

- **Hizlaria(k):** Etxebarria Bastegieta, Hirune
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Erref:** GER-037/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Ezin omen da kalkulatu Gernikan zenbat hil ziren. Itxarkundia, Itxasalde eta Loiola batailoiko gudariak egon ziren Gernikan. Ume asko erbestera joan ziren: Ameriketara, Ingalaterra, Errusiara...

Transkripzioa

Esin lei jjakin semat, gitxi gora bera be, semat il siren Gerniken, se ixen san gudarijiek atzeraskadie einde Durangon... edo or... Kalamuako frentea apurtute; eta egon siren emen iru batalloi: Itxarkundia, Itxasalde eta Loiolako gudarijiek. Da aren artien, ba, nor gelditxu sen Gerniken jainkoa lagun, iño 'pe estaki. Da bestie, nor etorri sen kanpotik abes, iño'pe estaki, semat falta diren euren etzietan, eurak jakingo dabe semat falta dauen baiña gurin estaki iñok, iños. Gerniken esta falta iños.

Gero, gernikarrak, falta diresenak, ba, lantzin bat agertzen da emen eta, ba, orduntxe jakitxen dogu ba... «Fulano il jjakun edo. Í. baitte... a ta ba, an gelditxu sen da estakigu eser edo». Batzuk Frantziara, beste batzuk Ingalaterrara, beste batzuk Ameriketara, beste batzuk Rusiara. Ume artien be, ba, iñope estaki semat gelditxu siren. Orixe da gertatu sena emen tristeena.

Lengoan, nire lagune dao gaixorik eta, a ikustera etor siren beste lagun bi: nire lengusue bat eta beste bere lagun bat. Da esautze ba se «Au nor dosue ba?» «Au... Elixabeten nebie» «Ene! txikijjena?» «<<Bai>>. Ba berrogetasak urtiek ikusi barik eta arelakoak, ba asko daos emen. Ontxe agertu da beste bape, Pilar deritxona, ona Residentziara eta estakigu nundik ibilden bes eta ser egin daben bes da olakotan, ba, asko dago.

2.11. Bonbardaketaren eguneko oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Iturbe, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Erkiaga, Josu
- **Erref:** GER-038/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Bonbardaketa eguna zelan bizi zuen kontatzen du. Su-bonbaz eta metralladorez eraso zioten. Babeslektik irten ostean, dena erreta eta hildakoen gorpu asko kalean zehar barreiatuta aurkitu zituzten. Etxe barik gelditu zirenez, baserri batera joan ziren.

Transkripzioa

Astelena, da lagun asko egon san Gerniken. Ferijja egune ixesan da arratsaldeko bostetan asi sien da illuntzeko sortzi txerdijjek arte egon sien botaten... bonbak eta... --selan da ori- susko bonbak eta baitte metralladorie, metralladorie ba bai da gero, ba, andik urtenda dana sue egon san deskenduen nora jua bes, esebes, dana ille kalien, da gero baserri batera jun giñen da antxe egon giñen aldi baten. Gero ostabe etorri giñen barrure baiña emen eseuen arrijje ta sue ta negarra baino. Gero egon giñen, ba, korupien da korupien gengosala jausi san bonba bat an atzeko aldien, kantoi en da arek ateko, arek atzeko ate lodi bijjek jun sien bera, aixie ´putz einjje les, da an egon giñen, ba, arnasarik artu esiñik.

2.12. Euskarazko lehenengo eskolak II

- **Hizlaria(k):** Arzanegi Uribe, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-052/020
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:38:13. **Bukatu:** 00:39:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Industria kaleko "ikastola"n ez ziren mutilekin batera egon. Alemaniarrak sartu zirenean desagertu zen.

Transkripzioa

- Eta hamen Industriako ikastolan eta hamen jesuittakaz-eta, ze ibil ziñien neska zein mutil danak alkarregaz edo zelako jentie egon ziñien?
- Ez, ez mutillekaz ez, neskak, hamen neskak. Hortxe txaletan euki gendun izen zan leku eder bat izengo balitzeke [...] luzie, holan ganera kalien, kalien baia kalien ez, kalie hamen izeten zan eta gero holan izeten zan miradorak dana ta hantxe eukitten gendun ta leku ederra, ta hantxe ein eben ba gerra denporan, etorri arte zelan, Jesus! alemanak, alemanak etorri arte.

2.13. Bonbardaketa bezperan Arratzura egin zuten alde

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Berak 3 bat urte zituela, Gernikara etorri ziren bizitzera, Zigerta dantzalekuaren gainera. Hiru familia bizi ziren etxe hartan. Gernikan Gipuzkoa aldetik alde egindako asko zeuden eta beraien etxean ere egon ziren. Gernika bonbardatu behar zutenaren zurrumurrua egon zen, eta bezperan, domekan, aitak Arratzura eraman zuen familia guztia. Angelek bizikleta baino ez zuen lortu ateratzea.

Transkripzioa

- Gero hamen, ni gero ni Arratzun [...], etorri giñen horra, Gernikara bizitten. Hara, Sala Fiestasen ganera.

- Noz etorri ziñien?

- Pues ze esango dotsut? "Pues, ahí sobre el año", nire aitte hemen pixuen eon zan. Euki ban "en el año veinte ocho o así", eukan pixue. Ta, gero ban ni treintan jaixoa naz ta ya treintan Gerniken bizitten. Egon giñen hor, Sala de Fiestas baten ganien. Hori etxie, zerana zan, "este Jesús" Txingau, Txingau, ezetu zendun? Zuk, ez zendun ezetuko. Haren, etxie, haretxena zan ta etxe guztixen, hiru familie baiño ez zien bizi. Ta behien dendie euki eban eurek, etxe-uzabak. Ta bakizu hantxe nik akordue umetan: etxie zarratzen zan ta beste etxe guztixek danak eoten zien ereitte danentzat. Gero, etor zan gerra denporan, hamendik jente asko etorri zan Gernikera, hortik Gipuzku aldetik eskapeute; eibartarrak-eta asko. Honek kiputxek, eibartarrak, Elgoibarkuek eta horko jentiek, Gernikara jo eban asko.

- Armerire be, asko?

- Ez, baiña eskapetan gerratik. Ta horrek hona etorri zienien, geure etxien be, sartu zien. [...] lo eitteko-ta, hau ta bestie. Ta Gernike bonbardie biher dabiela-ta, ez dakit zer-eta, nire aittek hori astelehenien ein zan bonbardie. Ta domekan atara ta Arratzure eroan gaittun. Osea bizperan zurrumurrue, bonbardeuena ta hartu, ta Arratzun amaittu fameli guztixe. Ta horregaittik atera eban amak etxetik neure bizikletie. Umien terkedadie orduen, horrexek geuzek.

2.14. Burgotik Gernika errearen ikusmira

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/007
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:12:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernika erre eta biharamunean, Burgo mendira igo ziren. Handik ikusten zutena azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero, gu Arratzun joan, hor dometan, Gernike erre ta bixamonien, martitzenien horra Burgora igoten gendun. Ordun, umiek gu; zazpi urteko umiek ba. Pasetan da, nire kuadrillako umiek gehixenak hil die. Nik be larogei urte dekotaz eta harek be batzuk zaharrauek, beste batzuk

gaztiauek ba. Ya ez gara geratzen kontizu bi edo hiru baiño. Ta horra Burgora igon gendun. Ta ikusten zan Gernike ba, laiñoa lez; dana ketan. Ta lantzien behin etorten zan haizie, mobiduten zan ta brasa agertzen zan danien. Ostabe ba, haizieaz ba erdi laiñotute lez geratzen zan keiegaz. Ta ostabe ba, dana illunduten zan. Baiña ostabe haixe [barra bat] etorri ta "ra" brasa, handik Burgo ganetik ikusten zan. Gu umiek orduen, ba atara kontuek zenbat urte. Baia Jesus!

2.15. Gerrako materialarekin jolasten

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/008
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:12:29. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

- **Laburpena:** Umeak zirela, Arratzun preso hartu zuten mutiko bat fusilatu egin zuten, eta bertan lurperatu zuten. Ugerkara eramaten zituzten hildakoak eskailera batean. Gerrako materiala soldaduek bota egiten zuten askotan eta umeek horiek jaso eta jolasteko erabiltzen zituzten. Hori dela-eta, badaude oraindik gerra sasoiaren zauritutakoak. Bonba asko erakargarriak ei ziren, koloretakoak. Mutilak aritzen ziren horretan.

Transkripzioa

- Gero orduen sasoiaren, han Arratzun gu umiek giñela, soldaduek ez dakit preso atrapau eben baten bat, gorri aldekoa esaten eben dala, ta "esto", horregaittik esango dotsut ze, haren... Ze esango dotsut zegaittik. Gorri aldekoa dala eta ez dabela gure konpeseu ta afusillau ein eben han. Ta Telletxe, zuek esaten dozuen Telletxeeurrekoa, kamiñoa dau erdixen, ta kamiñotik, han beheko zulora, han karkabien, han errekatxue dau. Hantxe erreka kantoien hil eben, soloan. Hantxe enterre eben /enterreben/. Ganera, ez gaittuen, gu umiek bakizu, enterau giñela, ez dakit zer ta badakit zer. Umiek edonora joan giñen eta bota ein gaittuen soldaduek. Horrek ya hamengoak ziren: ejerzittue bertokoak. Bota gaittuen: "fuera de aquí". Eta gero hamen Burgorako bidien lantzien-behin ikusten zan bat hilde. Akorduen dekot, bakizu nun bajatzen ebezan, Ugerka ganera eroateko kamioien-ta? Eskillaran: eskillaraxue hartun ta hantxen ganien ipiñi-ta. Horrek ikusitte dekoguz, zelan bajatu ebezan orduen. Ta zelan, ze esango dotsut? Eitten ebena da materixela gerrakoa bota soldaduek; honek balak-eta bonbak-eta honek geuzek. Guk Sabinori esaten gontsen. Sabino Gandarias, hemen Marzananiaren eitten eban biher, armerue zan ha, gure jefie armeruena. Ze eitten geuntsen bonbak-eta batu. Atara kontuek, umiek-eta bonbak batzen. Ta balak-eta honek kartutxera osoak, botata. Ta karkaban sartun, bota [...] igual horrek danak, bota ganetik lastoak eta harek emoten otson sue, danari. Ta klaro tiroa-ta, "bueno aquí hubo de

todo". Horregaittik egon zan gure sasoién mutil asko hankak, hanka barik eta bueno, hanka barik edo txarto dauzela. Hamen Gerniken, bat dau, ezetzen dozu, mekauden! Erreterixeko goikoa, zelan deko harek izena? Jabier? Jabier Manzidor, hantxe Arratzuko kamiñoa, zerien ganien bizi da hori, telebisiñoa Gernikekoa ganien? Hantxe bizi de Manzidor. Hori be, gerratikoa da aberizeute, ta horri, gero be, operazio hainbet ein biher jakozan hankie ez ebateko, gaztie dala. Ba horrek be eukiko dittuz oin, "tendrá pues setenta y cuatro-cinco años". Hamen horrek geuzek, gerrie amaittute gero be, asko agertzen zien, leku askotan. Umiek olgeu bonbakin-ta atara kontue, zelan zien. Nik atrapeu nabén nik umetan etxera bonbak eroanda euki nabezen eta nire moduen bestiek be bai. Ze, zien batzuk, koloriñetakoak eta polittek. Harek die geuzek-eta! Eta "fijate, para un disparate de pares y dios mío, pero". Jakin be ez-ta. Billurrik be ez-ta. Zer dan ta zer ez dan be, ez.

-Olgetan, ganera?

-Olgetan, harekin. Harrike, botaten-ta.

-Seguru, mutillek bakarrik ibiltxen ziñiela, horretan?

-Eske orduen, mutillek neskekin ez zien ibiltten e! Beti ibiltzen zan gaur baiño apartiau. Ez da geurko moduen. Geurko moduko nahastie, ez zan egon. Lantzien behin neskak edadekoak-eta eurekin berba, egon ta hau ta bestie. Baiña gero, olgetako-ta hortik joateko-ta, ze esango dotsut, ba? Txori-habixetan joateko, beti mutillek; sekule be ez neskarik. Osea, geure artien konpondu.

-Baiña, diñot, seguru neskak ez ziela ibiltzen balakaz-eta olgetan?

-Ez, ez. Horrekin gauzeekin, ez. Neskak, ez baiña mutillek ba...

2.16. Baserritarrek presoek jatekoa eramaten zieten

- **Hizlaria(k)**: Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-059/018
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:34:02. **Bukatu**: 00:35:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Nazionalak Gernikan sartu zirenean, tankeak-eta Tilosetan izan zituzten. Presoak agustindarretan egon ziren, institutua dagoen lekuan, eta baserritarrek jatekoa eramaten zien. Baserritarrek heladeriara eramaten zuten esnea. Etxe askotan argoia egoten zen, astoa lotzeko uztaia. Umeak argoiekin jolasten aritzen ziren.

Transkripzioa

- Gero beste bat honek Nazionalak sartu zienien, euki biezan honek tankiek eta kamioiek-eta Tilosetan. Pasiolakuen, hemendik eskoako alderditik haratz joanda. Ta [...] behien goixen euki eben: txontxorra kamiñoan ta behien hegalak, beherantz sartunde, pisuaz hara jeusitte beherantz. Ta denpora askoan eon zan konpondu barik, gero be. Ze han ni akordeten naz presoak zelan eon zien Agustiñoatan. Ze umetan bakizu ba, dana ibiltten zara-ta. Ta harek presoak ointsu arte eon zan, ointxe dala, zemat esango dotsut, ba? Bost-sei urte hil zen bat, katalana. Guk, katalana deitzen geuntsen danok. Iñok be, ez eban jankin zelan dekon izenik be: "El

catalán". Ta harek esaten eban: "a mí que no me hablen mal de los vascos; sobre todo de las aldeanas, porque nos traían talo y leche, estando yo preso. Yo les debo mucho". Edozer eingo ei zeban berak, halako andra batengaittik esaten eban. Eureri ekarri esnie; ze, orduen bakizu, horra erixera ekarten eben andrak, kantiñetan-ta. Ordun, eon zien holako barra batzuk burdinezkoak ta horretan umiek ba bueltaka. Zeiñek buelta gehixa emon, barratan-ta hantxe. Hantxe egoten zien asto guztixek, kantiñekin. Ta etxe askotan eoten zan aroa, argollie, lotzeko astoa hormatan. Leku askotan ta hori, etxietan eon zan. Ta guk umiek bata ta bestera emon: "klin-klon". Solte egoten zienez holako zer baten, ba buelta emon ta zemat etxeakoak [...]: "Horrek ze, ez eizue atara zaratarik!" Eta gabaz be, apur bet edanda bazauzen be bardin eitten da. Geur, zarata asko baiña ordun, ixilik eoten zan Gernike. Bakizu zelako zaratie "klin-klon"? Orduen "ya te digo", ein genduzen...

2.17. Meta batean babestu zen bonbetatik

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/010
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:13:39. **Bukatu**: 00:15:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bonbardaketan beraien etxea erre egin zen. Ortozik joan zen korrika solo batera, eta meta baten azpian ezkutatu ziren. Gurutze Gorria dagoen zonaldean, baserri batzuk zeuden eta haietako bateko meta zen hori, hain zuzen. Beraien etxea han ondoan zegoen, Zallobarri dagoen lekuan.

Transkripzioa

- Ta gero gu joaten giñen zerera be bai, solfeora. Egon zan musika, aiuntamentuk euki eban. Segundo Olaeta, ezetuten dozu? Ba, ni gero Frantzixera joan nitzen, Elai-Alai izen zan grupoa. Ta bonbardeoa izen zanien, ba etxie be bai gurie erre ein zen. Ta geldittu giñien holan, holan, kalien, kalien holan. Ta ni ortozik, ganera. Arrapaladan joan nitzen zerera, errefugixoa nire kalien ez zan egon, baiña joan nitzen solo batera, soloara. Ta egon giñen, oin ez dot ikusten nik soloatan, zuk ez dakit badakizu. Horrek metak esaten gendun, guk.

- Bai, bedar-metak.

- Ta "el maíz" harek zerak. Artoa, ebai ta gero eitten eben negureko soloan ipiñi harek metak-edo. Oin ez dot ikusten nik, oin ez dauz metak-be.

- Baiña egoten die baserrietan, bai.

- Ba, hemen ez. Antziñe, ta, guk hantxe, bonbardeoa paseu gendun hantxe metatan sartun, hantxe ta hantxe solo baten. Han, Cruz Roja dauen lekuen? Ba hantxe. Hantxe egon zien hiru-lau baserri be bai. Oin dana dau konstruidute. baiña han izen zan dana, soloa. Ta guk etxie euki gendun, geurie, han Cruz Rojan, oin tabernak-ta dauz ba, Zallobarri-ta? Hantxe. Hantxe euki gendun guk etxie. Ta hantxe. Gurie izen zan propiedadie ta ganera ba erre ein zen dana. Ta bueno ba!

2.18. Gernikan bizimodu berria hasi behar

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/014
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:23:43. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Beraien bizi ziren zonaldean ez zegoen babeslekurik. Arrapaladan zapatilak galdu zituen, baserritar batzuek eman zizkieten oinetako berriak. Bere aita babeslekuan egon zen, eta hasieran ez zuten bere berririk izan. Gerran Frantziara joan zen, eta handik bueltan, beraien terrenoan Guardia Zibil baten oilategia aurkitu zuten; ezin izan zuten ezer egin. Bera Frantzian egon arren bere gurasoak herrira bueltatu ziren. Hasieran beste batzuekin konpartitu zuten etxe bat beraien eraiki aurretik.

Transkripzioa

- Ta guk euki gendun etxie ta soloa "una huerta hermosa" frutalakaz, arbolakaz. "De todo: ciruelas, peras, manzanas", dana, dana, ikoak, dana. Ta danak abandonete, danak itxi ta Frantzixera eskapeu. Ta gero etorri giñenien, egon zan guarda zibil bet geure terrenoan, euren gallinerotxue ipiñi eban. Baia nok hareri esan ezebe? Ba hantxe egon zan erretirau artien guardia zibille. Egon zan gure terrenoan. Gu bueno nire aitte ta ama ariñau etorri zien hona Gernikera. Baiña harek be txarto paseu eben. Harek be Santanderrera joan, "Osea, según entraban las tropas", eurek eskapetan eskapetan ta Santanderrera. Ta gero Santandarretik etorri zien Gernikera. Baia Gerniken egon zien etxe baten lau famili. Lau famili ta txarto egon zien. Ta gero gure aitte ta amak ein eben etxetxu bet. Han terrenoa euki gendun zerien, etxie erre zan ladrilluekaz-ta etxetxu senzillutxu bet ein eben ta nik Frantzixetik etorri nitzenien, "por lo menos" etxie euki nabem. Baia batzuk ba hiru-lau famili pisuetan ta holan.

2.19. Jende asko ez zen sekula jaioterrira bueltatu

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/015
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:25:11. **Bukatu:** 00:25:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Bonbardaketaren ondorioz, Gernikatik alde egin zutenetako asko ez ziren sekula gehiago bueltatu. Gaur egun ere, edadeko oso gernikar gutxi dago.

Transkripzioa

- Ze hiru-lau etxe baiño ez zan geldittu ta jentie, gernikarrak, asko hemetik

ya joan die ta ez die etorri gehixau. Hamen falta da gernikar asko. Asko falta die.

- Asko ez zarie.

- Antziñekoak gitxi. Gitxi, ze danak-edo, tia edo osabangañe edo baserri baten parientiek dekoieia, bestera; hantxe geldittu zien ta gero batzuk Bilbora, bestera ta hantxe geldittu. Ya gernikarrak, gernikarrak gitxi gauz. Gitxi. Nire ama izen zan gernikar-gernikarra.

- Zubiaurre, ta gernikarra Zubiaurre apellidue, Gernikekoa?

- Bai, bai. Gernikekoa.

- Kaletarra zan zure ama, be bai? Kalekoa, baserritxarra, ez?

- Ez, ez.

2.20. Lehenengo bonbekin batera, etxetik ihesi

- **Hizlaria(k)**: Gabiola Arbulu, Rosarito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-075/032
- **Iraupena**: 0:05:16. **Hasi**: 00:53:46. **Bukatu**: 00:59:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Hasierako bonbak bota zituztenean, etxetik irten ziren; baina aita eta aitita bertan geldi ziren gauza batzuk hartzen, eta bonbak gainera jausi arren, irtetea lortu zuten. Mimentzara joan ziren, Ajangizera, amamaren jaiotetxera. Erreka izkinan zauritutakoak ikusi zituztela du gogoan. Handik Nabarnizera joan ziren eta bertan egon zen urrira arte. Bere osaba Nabarnizko abadea zen.

Transkripzioa

- Ta zuek Rosarito bonbardeotan?

- Beste pentsamentuegaz nau. Ni bonbardeotan akordetan naz urten gendule etxetik hasi zienien bonbak, eske kasi lelengoa edo laster jeusi zen gure etxera, ta urten gendun beste etxe batera, baia aitte ta aittitte geldittu ziren hondiño barruen hartzeko zeozer, ta jeusi jaken zati bet. Eta gure aittittek esaten eban, ba aittitte zaharraua ta geldittu zala ya konorte barik, konortiegaz bai, baia total desorienteta, ta berak ikusi ebala holan argitxu bet, ze guk argitxu bet eukitten gendule entradako etxien Jesusen bixotzegaz argitxue, ta ha argixe geldittu zala biztute ta grazixek hareri argixeri, haregaitzik jun zala hara urtetako kalera, ta haregaitzik argixetaitzik urten bala berak. Ta urten eban, alkartu giñen, ta jun giñen oinez Mimentzara, Mimentzaraiño. Ta beittu zelan akordetan nazen, juten giñen hortik San Juan Ibarretik San Juanen bizi giñen ta paseu San Juan Ibarretik, eta han erreka ondoan han milizianu batzuk erreta gixajoak bonbakaz edo zeozer ta: "Hermanos, ¡socorrerme!", karo erreta egon ziren. Ta gure amak-eta: "que ta vamos a socorrer si no tenemos nada, hemos salido corriendo, no tenemos nada, no podemos hacer nada". Gixajoak han ta gu pase giñen ta justu-justu jeusi zen bonba bat zubixe Erreterixeko zubixeri, baia puntetxue, osea ez aban apurtu erdixe, erdixe bez, holan puntie. Baia klaro, harek harririk eta harek urtetan urten zien ta niri aittek hartu ostan lepoan ta handik pase giñen ederto ze bidie bakarrik ounten, ostantzien euren amesa nik pentsetan dot izengo zala apurtzie

zubixe, nik pentsetan dot ez urtetako hametik, baia ez aben aparau, grazixek. Ta handik jun giñen oiñez Mimentzara, ze gure amuma izen zan Mimentzakoa.

.-Nun dau hori, Mimentza?

- Mimentza Ajandizen, han lelengo baserrixe, Erreterixixe segidu ta lelengo baserri dagona, handixe ederra, on be ondo jabonda dau, harek familixe direz, familikoa, gure amuma izen zan ta hara jua giñen, ez giñen nora joan ezebez barik. Ta handik ikusten sue zelan dan Gernikekoa, umiek; ta zaharrak ba barruen. Ta gero sartu oskuen habitaziño baten ume guztixeri, eurek lau-edo ez daitz zemat izen zien ta neu-ta, ta han koltxoiek bota-eta, eta edarto, ta gero oiñez Nabarnizera. Ta ni ba Nabarnizen geldittu nintzen urrira arte, ze klaro gure ama ta gure aitte etor zen Gernikera ya biher eitten arin tope eban leku bet, etxe bat bizitzeko Erreterixen, hor Apolinar, igual ezetuko dozu Apolinar, bueno ba horren etxien, etxien pisu bet euki eban libre ta han alkile eban, ta han korralien hasi zen gure aitte biherrien ze barberue izen zan: hartun sille bat etxetik ta ipiñi trapu bet ta afeittetan jentieri, dirue irebazten, irebazten. Ta gero han euki ebanien etor ziren ama ta danak, ta ni eureri izteko biherrien be geldittu nitzen Nabarnizen, ta urrixen gure izen eben niri sartun eskolara Nabarnizera, ta ni ez noiela Nabarnizera eskolara, hori pentsa bez, ta bost urte, baia terkie. Ta ba derrigorrez etor nintzen Gernikera ta ya segiduen kolejixora.

- Iñaki: Ta Nabarnizera, esan eizu zegaitzik joan ziñien Nabarnizera? Ze euki zendun?

- Hara joan giñen, euki gendun osaba bat, osaba bat euki gendun.

- Iñaki: Abadie.

- Ta pisu handixe, abadie, ta bera krixediegaz bizi zen. Ta klaro han hiru habitaziño edo lau-edo, on be esango neke zelakoan diezan harek habitaziñoak ederto baten ta han ederto baten egon nitzen, baktotza beren ohien ta ondo, ta han ederto, ederto egon nitzen han umiekaz jolasten danak, osea.

2.21. Elai-Alaikoekin, mugaz bestaldera joan zen

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/009
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:16:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Bere auzoko Ezkurdiatarrekin "Cuatrobanco"era joan zen ezkutatzera bonbardaketan. Gurasoekin batu eta Landaberdera joan ziren; gau hartan arrautza frijitua jan zuela du gogoan. Handik, Bilbora joan ziren eta Gordexuelan batu ziren Segundo Olaetak gidatzen zuen Elai-Alaiko kideekin. Santanderren Bordelerako itsasontzia hartu zuten. Bere familiako hiru joan ziren beraiekin Frantziara. Hainbat euskaldun batu ziren ipar Euskal Herrian. Beraiek Parisera joan ziren.

Transkripzioa

- Kruzita: Nik eta neure barrixokoak, gure dot /quot/ esan lagunek, Ezkurdianak. Ordun Ezkurdiatarrak euki eben ultramariño bat. Ta eitten zan

karameloak malbabiskoak-eta eurek eitten ebezan. Ta haren alabakaz ni izen nitzen lagune. Bonbardeo egunien be harekaz egon nitzen Cuatrobancosen. Harekaz joan giñen merixendiegaz, haren krixediegaz ta Cuatrobancosen hartu oskun bonbardeoak. Ta gero bonbardeoa akaba zaniene, ni bakar-bakarrik eon nitzen. Ez nekixen nun dauen ama, aitte, iñor bez. Bakar- bakarrik.

- Jesus: Galdute, danon moduen.

- Bueno baiña han, salbeta egon ziñen?

- Jesus: Bai, hobeto. Hori bai.

- Kruzita: Baia ene, handik pasetan zien abioiek. Ene, hurre-hurretik, gure hurre-hurretik. Ta gu baiño apurtxu bet beherau, arbolan azpixen eon zien kuadrille bat. Zortzi hil zien han, zortzi, ta gu salbeu ein giñen, Jainkoari eskerrak. Ta gero klaro, nonora joan biher. Topa nebazan ama-ta, topa nabezan. Ta gero joan giñen Landaberdera ta han jan gendun arrautze prijidue. Arrautze prijidue akordetan naz ni horregaz. Ta gero ya handik Bilbora. Ta gero Bilbon, radixotik deittu eban Segundo Olaetak, ba atzera gure dabela formeu, lehen izen eban, hamen euki ebazan jentie, ezta grupoa? Ta gero joan giñen Gordejuelara, Segundo Olaetaz, nire aizte zaharrena ta beste nire neba bat, neu baiño zaharraue zana. Hiru joan giñen gure familitik. Ta gero handik Santanderrera joan giñen barkue hartzen. Ta Santanderren hartu gendun barkue ta joan giñen Burdeosera. Ta gero Burdeostik Sant Jean de Pied-de-Port-rra joan giñen. Han eon zan zure amuman, Sant Jean de Pied-de-Port-en, berak esan ostan /esostan/ han eon zala bera be. Ta gero gu handik joan giñen ya grupoa Elai- Alai bakarrik. Hamen gu giñen asko: Mungixekoak eta Bilbokoak eta andereñoak umiekaz. Asko egon giñen han. Ta gero gure grupoa bakarrik, gernikarrak, joan giñen Parisera.

2.22. Agirre lehendakariarekin Parisen

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:16:22. **Bukatu:** 00:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
 - Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Elai-Alaiko kideekin batera joan zen Parisera Kruzita. Bertan ikuskizunak egiten zituzten, eta bertako trokaderoan ere egon ziren. Eusko Jaurlaritzak finantzatuta egon ziren bertan. Agirre lehendakariak Euskal Herriko jaiegunak beraienean ospatzen zituen. Agirrek izan zuen lehen semeari abestu zioten.

Transkripzioa

- Ta Parisen Ba aktueu eitten gendun. "Gobierno Vasco esto..." Gobernuek, Euzkadiko gobernuek eitten oskun guri, hori; osea, paseten euskun dirue ta.

- Subentziñoa-edo?

- Bai. Ta gero guk eitten genduzen teatroatan, jantzan-ta dirue atarateko. Ta ein gendun, Trokaderoan be ein gendun. Orduntxe, ein zen barrixe

Trokaderoa ta. Hantxe be aktueu gendun.

- Eta kanteu zeuntsen be bai Lehendakari, Agirren leelngo umieri.

- Bai. Agirre etorri eitten zan sarritten geure etxera. Ta ha etorten zan, hamengo, holan jaixek zelebretzen diezenak, San Juan-ta? Beti etorten zan gure etxera, zelebretako gugez. Agirre. Nik badekot rekuerdo itzela dekot Agirrena.

- Zelakoa zan, bera?

- Niretzako, majoa zan. Hori dauena, hor estaziño ondoan zelan dauen ein daben Agirre? Ikusi dozu? Haxe da. Bera ganera, beti ondo jantzitte- ta. Majoa, majoa zan e! Majoa. Andrie be bai, Maria Zabala. Ta harek euki ebanien lehenengo semie, Parisen euki eban semie. Ta nire aitzie ta nausixek, gure grupoko nausixek, zortzi-edo, joan zien beren etxera, kantetan. Andrieri kantetan, semie euki ebanien joan zien.

2.23. Bonbardaketa Burgo menditik

- **Hizlaria(k):** Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/015
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:30:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Bonbardaketa hasi zenean, Burgo mendian egon zen itaurrean; handik ikusi zuen guztia. Ikusitakoa eta sentitutakoa kontatzen du. Dena bukatu zenerako, gaututa zegoen. Amarekin, anaiarekin eta arrebarekin egon zen; aita eta anaia nagusia notariotzan egon ziren. Anaia Burgora joan zen eta aita Forura.

Transkripzioa

- Eta gero gerra sasokoa ze akordu? bonbardeoa ta?

- Jesus: Jo, bonbardeoa, bai. Mekauen Judas!

- Kruzita: "¿Cuál?"

- Jesus: El Bombardeo".

- Kruzita: Ha, bonbardeoa.

- Jesus: Burgo goixen egon giñen.

- Kruzita: Hau honek akordetan da dana bonbardeoz: zenbat bonba jeusi zien, zenbat, zelan...

- Jesus: Burgo goixen eon giñen. Jan gendun goxetik, ez daitz nik ze ordu izengo zan. Bueno, atsaldien joaten giñen ittaurren ein biher dotela / bitela/. Artoak edo ze eraitten da oin aprillien? Bueno dana dala, behixen eurretik joateko, ittaurren palu bet hartunde. Nik sekule behixek ikusi bez, zer dan behixe. Joan nitzen ta halako baten nun datorren, handik itsosotik, Bermio paretetik, bueno Bermio, Laida, hortik itsoso partetik, abioi bet: "xiuxiuxiu". "¡El alcauete!". Etorten zan eguerdixen, beti bat, abioi bat pasetan, ba rekonozimientue-edo eitten ba. Ez daitz nik, baia abioie pase zan ta Muxikerantz. Bueltie emon eban, nun datorren abioie barriro. Ba kasurik be ez, ittaurren. Ta bonbie bota eban. "Mekauen diez!" Bota ebanien bonbie, hasten naz arrapaladan, piñudire!. Ez behixek, ez iñor bez. Jo piñudire! Ta harek, "Alfonso, ¿quién era aquel?". Bertakoa be itxi behixek eta alde ein eban. Bonbak botetan hasi zien, bonbardeoa. Ta bota ebazan beratzi bonba. Ta beti joakeran; etorkeran beti libre. Gorozikera edo holan,

bueltie hantxe emon eta: “iuiuiu, bounba!” Lelen-lelengokoa hor zubixen onduen jo eban. Gero, gero han San Juan Ibarrien. Ta gero ya ez naz akordetamn gero ya. Pues hasi zien botaten-botaten ta bota ahalien. Gaberako, zortzi t´erdixen tartien geldittu barik: etorten zien beatzi, joaten zie; beste beatzi etorri, ta joan; bota, bota ta bota. Danak negarrez, errezetan, bueno. Gabera, gautute ya. Bai, gautute ya, akabe zanien ya. Gernike suten eon zan-ta. Bueno!

- Ta familiakoak bitxartian?

- Bueno ni eon nitzen ama ta beste anaixe bategaz ta arrebiaz. Ta anaixe zaharrena, aitteaz eon zan notarixen laguntzen. Gero etorteko hara; ze Burgon egon giñen bezperatik. Holan tokeu zan ta jun giñen han, ez daitz nik zer dala- ta. Ta gabaz ya ez zien etorri, ez zien etorri; Juanito bai, osea anaixie etor zen, baia aitte ez. Ta galdute dauelakoan ta han. Klaro, ni ez naz, oin karguduten naz aman ta estutasune. Klaro, ez dator ta ez dator ta klaro ba pentsetan ya hilde dauela. Bonbardeoa, dana izen zan apurtzie-ta. Ta eon zan aitte horko Foruko karabixen, “la cantera” bueno bai. Bueno hara joan zan eta gero gaberako etor zen. Ta bueno batu giñen danok-eta bueno pozik- edo.

- Kruzita: Bai, danok junteu giñenien.

- Jesus: Bueno danak junteu giñenien pozik, baia han, ikusi ha sue. Aurrien euki gendun, holan aurrien. Dana, garra, buf! Bueno!

2.24. Bonbardaketa ostean: zerua goian eta lurra behean

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:30:06. **Bukatu:** 00:31:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Bonbardaketan, Kruzitaren eta Jesusen familiak, bienak, etxe barik gelditu ziren. Ezin izan zuten ezer salbatu.

Transkripzioa

- Ta bixok etxe barik, ezta?
- Jesus: Etxe barik, bixok. Bai honek...Klaro, nik ez neban ezetu hau. Bixok, etxe barik. Giltze poltsikoan, baia...
- Zeren giltze?
- Kruzita: Tristie zan ha. Nik oin, oin akordeten naz: gure aitte ta amak, ze, ze pasa eben, orduen. Kalien: zerue goixen ta lurre behien. Ezebez!
- Jesus: Lurre behien, ezebez, ezebez!
- Ez eben ezebe salbeu?
- Kruzita: Ezebez, ezebez.
- Jesus: Ezebez! Ezta...
- Kruzita: Gure aittek atara eban makifñie-ta geuze parie baiña ostu eitten ebezan. Jentie...
- Jesus: Bueno, baia ostu barik be. Kasu baterako, gure etxie suten behetik goraiño. Egurrezkoa dana. Jo, ezin salbeu ezer! Ta joaten zan aitte hara begire ta esaten eban: "Han ez dau ezebe, dana dau erreta". Ta gero jausi da dana. Ganera ezebe-ezebe-ezebez. Zuek be etxien ezebez; oin taillerrien bai. Taillerrien, bai.
- Kruzita: Taillerra bai, salbe zan taillerra.

2.25. Bonbardaketa ostean, Peioneko denda zabaldu zuten

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Garro, Kruzita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-077/018
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
 - Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Kruzitaren etxeok, bonbardaketa ostean, Bilboko Somberreria kalera joan ziren. Handik, bera Frantziara joan zen eta gurasoak Aulestira, senitartekoen etxera. Beranduago, Jesusen jaiotetxea zegoen tokian, bere gurasoek txabola bat eraiki zuten: denda, ezkaratza eta gela bat jarri zuten. Handik Erdiko Kalera joan ziren eta han zabaldu zuten denda berria, "Peio". Baserrirako produktuak saltzen zituzten: abarkak, zapak...

Transkripzioa

- Kruzita: Ta gero joan ziñen, este, nire ama-ta lelengo Bilbora joan giñen. Ta Bilbon eon giñen. Hamen, gernikar batek esan oskun: "Ba nire nobixiek-eta deke etxie Somberrerian. Ta eurek joan biher zielez /bizielez/ Begoñara, gure bozu etxie-eta". Etxe ederra, Somberrerian eon giñen denporan. Gero, gu joan giñenien Gordejuelara, nire ama-ta joan zien Aulestiara. Han Aulestin euki gendun aittitte-ta tiak-eta euki genduzen ta Aulestira joan giñen.
- Jesus: Klaro, ama Aulestikoa da-ta!
- Kruzita: Bai. Eta gero gure ama etorten zan astelehen guztixetan plazara Gernikera saltzen abarkak-eta geuzek, jeneroa saltzen. Ta gero ein gendun Gerniken txabola bat.
- Jesus:

- Kruzita: estaziñoan. A, bai, klaro.

- Jesus: Bertan etxien. A, bueno, ez. Ni bizi nitzen etxien. Ni bizi nitzen.

- Kruzita: Bai. Hau bizi zan lekuen.

- Jesus: Han behien, klaro.

- Kruzita: Ta han txabolan dendie, ezkatza ta habitaziño bat atara eben. Ta halantxik atara eban bizimodue. Ta gero joan giñen Erdiko Kalera. Gero, Erdiko Kalien euki gendun dendie.

- Eta dendiek ze izen euki eban?

- Jesus: Pedro Etxabe.

- Kruzita: Peionekoa. Pedro Etxabe zan, baia gure dot /quot/ esan, la de Peio "La tienda de Peio", danak. Peionekoa.

- Zeren dendie zan?

- Dana izen zan, baserritarrak-eta.

- Jesus: Abarkak...

- Kruzita: Mantak, ganaduek mantak-eta, zapak eta gero oiñetakoak, gomazko oiñetakoak gaztienak eta abarkak; abarketak asko. Ene, abarketak saltzen genduzen, montoie, abarketak asko. Askok saltzen eban, gure amak asko saltzen eban. Kliente asko euki eban gure amak, baserritarrak.

2.26. Ezer barik gelditu ziren, baina lana beti

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-077/019
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:33:35. **Bukatu**: 00:34:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Bonbardaketan zuten guztia galdu arren, ez zuten goserik ezagutu. Kruzitaren gurasoek denda jarri zuten eta Jesusen aitak notariotzan jarraitu zuen beharrean. Gerraostetik urte batzuetara notariotzan behar asko egon zen. Presoak ekarri zituzten Gernikara eraikin berriak eraikitzeko.

Transkripzioa

- Bueno, orduen eurrera urten zenden?

- Kruzita: Holan urten gendun aurrera. Ta Nik Jaingoikoari eskerrak, ez dot paseu goserik esaten dabena batzuk, gosie. Nik ez dot paseu.

- Jesus: ezta geuk bez. Notarixe osorik plante zan, geldittu zen ta aitte bizi izen zan, segidu zen ta gero, biher gitxi baiña astiro-astiro-astiro-astiro ha be eurrera. Eurrera bota gendun.

- Kruzita: Klaro. Gero ta biher gehixau. Etxiek eitten zan ta gero etxie saldu ta.

- Jesus: Zenbat eta etxe gehixau ein, gehixau saldu te biher gehixau. Bueno.

- Zuen aittek sasoi baten, gerraostien bihera topera, zuen aittek?

- Jesus: Bueno, gerraostien ez. Gerraostien, apurtute eon zan dana. Gero urte batzuk barru, ya hasi zenien eitten etxiek. Ze karo, hemen eon zan Gernike geldi ba bost-sei urte ezebe ein barik, gitxienez. Gero, "Debastadas"ekoak etorri zien, harek presoak. Harek eon zien hor Agustiñotan.

- Kruzita: Bai, presoak ei eben hamen, etxiak-eta, Erdiko kale guztixeta presoak ein eben. Grazixek hareri.
- Jesus: Grazixek? Bueno, grazixek. Harek izen ez bazien be, beste batzuk be ingo eben. Baia beno, dana dala. Bai.

2.27. Hiru urteren ostean bueltatu ziren Kortezubitik Gernikara

- **Hizlaria(k):** Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/020
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:34:48. **Bukatu:** 00:37:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Jesusen etxeok Kortezubiko Lendarra joan ziren bizitzen; handik hiru urtera bueltatu ziren Gernikara, San Juan kaleko tejabana batera. Kortezubin bizi zirela ere, egunero etortzen ziren Gernikara, lanera zein eskolara.

Transkripzioa

- Eta zuek estaziñoan etxe barik geratute?
- Jesus: Ezebez, ezebez! "La palma de la mano, nada".
- Kruzita: Hantxe ein gendun guk txabolie.
- Ta gero nun bizi ziñien, ba?
- Jesus: Kortezubin.
- A, bai, nun?
- Jesus: Kortezubin, Lendaganien. Lenda. Horregaittik ezetzeon dotez nik harek Piperrenekoak. Barrutibaso be bai. Bai.
- Lendaganen?
- Jesus: Lendaganen. Anjelan onduen. Anjela, Pedro, ha mantxue, Pedro Malaxetxebarria, "los de...".
- Mateo eta Miren-eta?
- Jesus: Miren ta Mateo ta horrek, klaro. Horren seme-alabak die horrek.
- Malaxetxebarria.
- Jesus; Auzuaz, parez-parez egon giñen han bizitten hiru urte. Gero Gernikera, horra, horra "Calle San Juan". Baia ha tejabanie izen zan, ha. Tejabanie. Han Legarre zaharrak euki eban.
- Kruzita: A bai. Pedro Arrietak-eta euki eben dendie, hor.
- Jesus: Baiña, ha etxie zan Legarre zaharrana.
- Kruzita: "Aiuntiz".
- Jesus: "No, Aiuntiz nieto". Oseake, harek han euki eben "taller de...". Errementarixe.
- Kruzita: "Ah, sí". Errementarixe.
- Jesus: Ta hantxe atzeko partien ein eben tejanabatxu bet etorteko. Ze egunaro- egunaro aitte etorten zan. Artoanien jaten eban aittek, Artoanien Erreterixen. Han taberna bat eon zan, Artoana. Karo etorten zan goixien biherrien, jan Artoanien ta gero, atsaldien, bueno gabaz etxera. Ta gu be etorten giñen ta goixien bakarrik egoten zan eskolie. Eskolie Kortezubittik Gernikera; zortzi t´erdietan ya hartzen gendun, hasten zan edo beatzixetan, beatzixetan. Ordu batak artien ta atsaldien jai. Ta egunaro-egunaro-egunaro Gernikera, etorri ein biher eskolara. Ta bizi han. Ta etxie

haiziek, eroan.

- Bizimodu gogorra.

- Jesus: Gogorra.

- Kruzita: Gogorra, "ya lo creo".

- Jesus: Oin kargutu eitten zara ze paseu zan; ze, karo gu umiek-eta jokatu, ta bestie-ta baia gure aittek barruen euki eben dana.

2.28. "¡A limpiar culos a moros!"

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-077/022
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:40:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Kortezubiko andre bat "Peka" Gernikara joan behar izaten zen beste batzuekin militarren-eta zikinkeriak, kuartela... garbitzera. "¿A dónde vas Peca?" esan eta "¡A limpiar culos a moros!" erantzun ei zuen behin.

Transkripzioa

- Kruzita: Kortezubiko batek, "¿cómo es aquella?".

- Jesus: La Peka?

- Kruzita: Peka. Haixe, "Arrien, el marido Arrien, era".

- Jesus: Arrien, bai. Gure letxerie zan.

- Kruzita: Holan, peka bategaz andra bat, bera guapie. Ramon, euki eban semie. Igez-edo, hil zen. Hamen Gerniken bizi zen.

- Jesus: Saladie bera!

- Kruzita: Ta hareri, ha baldiegaz etorten zan Kortezubittik

- Zegaz?

- Kruzita: Baldiegaz. Bakotzak bere baldie eroaten gendun hara. Ta: "¿a dónde vas Peca?"

- Jesus: Nire amak, nire amak esan otsan, ze ha gure letxerie zan. Ta famosie bera. Bera ta beste, ez dakit nik dozena bat ingeru han, Gernikerantz. Goixien, goixetik; zortzirek edo zortzi t´erdixetan-ta. Ta gure amak ba kanpoan, etxie txixixe-ta. Bueno han kanpoan ta ezeune. Ta: "¿a dónde vas Peca?", "¡A limpiar culo a moros!"

- Kruzita: "¡A limpiar culo a moros!" karo, moroak ein bezen kakak garbittuten.

- Jesus: Eleizie garbittuten. Andra Mariko eleizie, dana eon zan, baia bueno! Ni sartun be ez nitzen eleizara.

- Kruzita: "Y en los Agustinos también".

- Jesus: "En los Agustinos hubo hospital".

- Bai, ospitala.

- Jesus: "Hospital. Aquí, no". Hamen moroak kuartela eukitten eben. "En los esto". Bueno.

- Baia zuen familixen, danak libre?

- Gure familikorik ez zan egon.

- Gure familikorik be ez. Danak.

- Ta hil be ñor bez edo lagunik edo auzokorik-edo?

- Jesus: Ez, ez.

- Kruzita: Gernikarrak bai, nik ezetzen izen dotaz. Baia ya karo andra nausixek izen zienak joan zienak horra garbitzen. Ze klaro, ni akordetan naz ni batzokixen. Ba joan zan batzokixe ein zanien lelengoz hamen, ba joan zien matrimoniñoak batzokire pozik. Ai, batzokixe ikusten. Ta batzokixen kortiñek ipintten eon zan bat, ta faziste handixe ta esan eban, esan otson gizonari: "guazen gizona kanpora. Guri agintzen horixe, eurek joan ziñien garbitzen moroan kakak, ha eon zan jefa. Agintzen. Ta oin batzokixen be bera kortiñek ipintten, bera agintzen batzokixen, be? Guazen!".

2.29. Beraien tailerlean jarri zuten lehen zinema

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/024
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:41:35. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
 - Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Bonbardaketan batzokia erre egin zen. Elvira Iturriren txaletean, falangisten egoitza jarri zuten, Kruzitaren aitaren tailerlean aurrean. Euren tailerlean, zinema-aretoa jarri zuten, Gernikako lehena.

Transkripzioa

- Jesus: Bueno ba batzokixe erre ein zan. Gerniken ez zan egon.

- Kruzita: Batzokixe Gerniken erre ein zen, baia akordeten naz ni hamengo Elvira Iturrik euker txaleta gelditu zen osorik eta ondo. Ta hara sartu zien falanjie ipin eben han, falanjie ipin eben.

- Jesus: Falanjie, han falanjie ipin eben.

- Kruzita: Falanjie ipin eben ta bizitzen be sartun zien ba euren ideakoak.

- Zuen tailerlean aurrien?

- Jesus: Parez, parez, parez.

- Kruzita: Gure tailerra, eurek klaro, uzabak, baia jenero guztixe ez.

- Jesus: Gero, ziñie monteuan eben han. Ziñie ipiñi eben, han. Zuen tailerlean, ziñie montau eben.

- Kruzita: Ziñie montau eben. "Karanban" ziñie. Antziñie lehenego ziñie hamen ein zana? Gure tailerlean ipiñi eben.

- Jesus: Han aurrien, bai. Tailerra.

- Kruzita: Euren zana, e!

- Jesus: Izetoz etxie euren zana.

- Kruzita: Gu rentan egon giñen.

- Jesus: Baia, ha beterik eon zan: egurre ta materixela ta herramintteketan, baia.

- Kruzita: Ta asko, materiel asko gelditu zen.

2.30. Kanpora alde egin beharra seme-alabak mantentzeko

- **Hizlaria(k):** Txopitea Uribarri, Pilar

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GER-104/003
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:05:18. **Bukatu**: 00:07:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena**: Ea, Natxitxu, eta inguruko jendeak kanpora alde egiteko joera zuen, ez zegoen dirurik seme-alaba denak mantentzeko. Gernikak ez zuen erraz bururik altxa. Diru asko bildu omen zuten Gernikara bideratzeko, baina gernikarrek ez zuten sosik ikusi.

Transkripzioa

- Baiña antxiñeko jentie, Ieko (Eako) jentie eta, a ver, Iekoa (Eakoa) ta, Natxitxukoak ta, hortiko jentie asko bakizu nora joaten zan? kanpora. Kuba, Kubara be bai, joaten zien, nortekoak zerekoak be, El Paso, el bar El Pasok eta harek pe bai, norte, nortien, neba-arrebak eta danak. Ee... hamalau ume-eta eukitzen abiezen ta, nok manteniduteko baserridxegaz bakarrik. Holan baiño... ta kosta ein zan, Gernike altxatie e, loteridxe apur bet urten eban, ta harek apurtxu bet zertu. Baie bota ein ebien /einbien/ dirue Gernikarako, e? Ba ze plazan nik hori erretratue badekot, a ver, esango dotsut /esangotsut/. Plazan egon giñen, eta etor zen alemana, bonbardeau ebana Gernike, bat, [etor zen]. Bueno, gehidxau izan zien, baia, bat, etor zen. Ta harek esan oskun /esaskun/, ba ze, ba, zelan entere diezen eurek Alemanidxen, ba, gorridxek ein dabela zertu... a ver, esango dotsut /esangotzut/...

- Bonbardieu?

- Bonbardeau, eta erre, erre. Ta harek esan euskun /esazkun/, guzurrek dizela. Berak ez, traduktorak. Berak tradutorrari esaten otson /esatentzon/, ta harek erderaz esaten oskun /esateskun/ guri. Ta horrek gauzok. Ta bazterrak diru, asko, diru asko batu ebiela /batubiela/, Gernikarako. Baie Gerniken ez dogu ikusi dirurik, antza Madrilen geratu zan. Goikoa, ze guk ez dakagu, ba ze guri ez doskue emon iñok esplikaziñorik eta.

3. Familia eta harremanak

3.1. Etxea beteta, baina eztabaidarik ez

- **Hizlaria(k)**: Basterretxea Santiago, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GER-001/008
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:17:32. **Bukatu**: 00:19:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Karakuel, Kepa
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Bost urtean sekula ez zuten eztabaidarik izan Olaetatarrenean; gaur egun ere harreman estua dute. Bertako oroitzapenak oso alaiak direla dio. Bertan egon ziren Segundo Olaeta eta Frantziatik bueltatu eta estatuak Kaltzada egoitza aurreko etxeak eraiki eta bizitzera bertara joan arte. Lehengusu-lehengusinak eta izeko-osabak beraien etxera joan ziren bizitzera, eta beste zortzi urtez bizi izan ziren elkarrekin.

Transkripzioa

- Ta sekule-sekule eztabaidetxu bet ixen barik aparte giñen. Ta geur egune Olaetanekuekin ta Zabalianekuekin ez dogu pentsetan ez garienik familidxe.

- Neba-arrebak.

- Bai, segiten dogu familidxe beti ixetie lez unidute. Bost urte ein genduzen hantxe, e? ta ez giltzik ez ezer e? Dana libre, danok zera... Han euki gendun harmonidxe guk gabon-jaidxetan-ta, turroi askorik-eta ez gendun euko mahaidxen baie han egoten zan harmonidxe ta soinue jo ta abestu-ta, zera-ta. Eskasunie baia urte, gogoratuteko urte politteke pase genduzen guk bost urte han. Gero geu, gero ya, etor zienien, etorteko ixen zienien, bueno, etorteko baiño ariñau, honek estaduko etziek e in zittuezen, residentzidxen aurrien daozen etziek. Ta nire amak hor solizite eban bat. Ta lehelengo, ba, ez dotsielako ha emongo, ta zera, bihergiñentzako dala- ta atara eben baia gero emon otsien /emotsien/ ta geu etor giñen ixeko ta ama ta ni horra bixitten, ta beste guztidxe han geratu zien hondiño. Ta gero ya etorteko ixan zienien eurek, Segundo Olaeta-ta ya Frantzidxetik, ba ya danontzako ez egoan egon lekurik, ta orduen ba urten ein biher ebela / bibela/ ta, atzera, gure ixekoa ta, ba etor zen geurera ta: "ene! urten ein biher dogu /bigu/ handik". Nire ama ya hildde egon zan, nire ama ya hildde egon zan ta ixeko ta neu egon giñen bakarrik, eta urten ein biher dabela / bidabela/ handik eta: "ba oin ba ez gauz gu oin pisue erosten hasteko moduen, ta zera ta". "A! bueno ba ohitturatute gauz gu lehen be alkarregaz egoten ta etorri geurera". Ta atzera etorri zien danak geurera ta beste zortzi urte ein bezan geure etzien.

- Olaetatarrak?

- Ez, ez, ez, ez. Geuriek. Ixekoa ta lau lehengusuek. Lehengusu-lehengusiñek.

3.2. Barrenkale eta San Juan inguruko kontuak, gaiztakeriak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Olaeta, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-030/003
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:06:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Gernika gaur egun baino askoz txikiagoa zen; hori dela-eta, denek ezagutzen zuten elkar. 3 neba-arreba Txobertxun etxean jaio ziren, gaur egin Boliña hotela dagoen tokian; etxe azpian, Katalinen estankoa zegoen. Beste anaia bat Erreterian jaio zen, eta beste bat San Juan Ibarra. San Juan Ibarra, "Zapotxuek", gaiztakeria asko egiten zituztela dio. Sasoi batean, San Juan kalean tifusa egon zen eta fama txarra zuen.

Transkripzioa

- Gero diferentzidxe egoten zan Gerniken ba txikidxaia izen zalez ezetu be danak, etzeko danak. Joaten ziñen Barrenkalle kaletik, gu jaidxo giñen hiru bai, hiru jaidxo giñen geur Hotel Boliña barridxe dauen lekuen Txobertxun

etzie izan zan, ta hantxe jaidxo giñen. Bai, Hotel Boliña barridxe dauen lekuen egon zan hantxe Txobertxun etzie ta behien egon zan estankue Kataliñena esaten otsiena, ta hantxe jaidxo giñen eta bautidxeu San Juanen.

- Zelan deitzen zan ha etzie?

- Txobertxun etzie esaten otsien. Katalin estankue. Ta hantxe jaidxo giñen hiru; Ni, Jose anaidxe eta Consuelo. Ta Alberto Erreteridxen, gaztiena, ta beste bat San Juan Ibarren, hil zana bonbardeoa baiño ariñau. Ostantzien, gure bizidxe hantxe San Juan Ibarren izen da. Ta karo, San Juan Ibarreko hori beti eukitten oskuen Gerniken billur apurtxu bet, zapotxuek izen giñen, bai mutil gaztiak zapotxuek, billurre danak San Juanetik pasetako ta hortik. Joño! kale peligosue dala ta joño, geiztoak dauzela mutillek eta bueno ba, billurre. Egon zan, ta karo egon zana uneda baten egon zan ba tifuse egon zan itzela, ta han kuadrillie han San Juan kalien egon zan tifuse asko, ta nire lagunek anaidxek etzien, Rikardo Arrienen-eta, batzokidxe euki eben oin Arrien dauen barrien, hantxe egon zan batzokidxe eta nagusidxe esaten otson Rikardori esaten otson: "ez gara joango San Juan Ibarra han tifuse dau ta, ez zara joango hara e! ta handik pasetan bazara arin paseu e! tifuse dau ta". Asko egon zan. Gure lagune, esaten otsien Gerniken "Barkilleruena" harek be hil zien ez dakitz bi-edo, hantxe-hantxe egon zan tifuse, baia asko. Ta orduen, joño ha geixo txarra izeten zan, tifuse, bueno! kontajidxe eta billurre jentiek. Ta gu han ibiltten giñen, etze zaharrak egoten zien, Calle El puertotik Calle San Juanera pasetan zan etze zahar artien ta bueno! ta hantxe pasetan giñun ta bueno, geixoa bakizu, batzuk hartzen dabe ta urrunetik beste batzuk bertan ibildde bez. Ta hantxe ibiltzen giñen gu.

3.3. Argentinako Huracán-en gernikar bat

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/011
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Aisialdia diasporan
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Bilboko Santiago Apostol ikastetxean Gernikaldeko ikasle asko egon ziren. Fermin Uriona gernikarra handik Argentinara joan zen osabengana, eta bertako Huracán taldean jokatu zuen. Nahiz eta kirolari ona izan, lar parrandazalea omen zen, bestela laster lortu zuen ospea. Gernikan inoiz egon den kirolari onena zela dio.

Transkripzioa

- Hamen, ordun sasoi en egon giñen... Hamengo bat, Fermin Uriona... Uriona, zuk ez zendun ezetuko. Han, Katan anaixek, Uriona. "Son familias que han desaparecido ya. Eso. Este Fermin", fenomenoa zan. Hori bizi zen frontoi zaharren aurrien. Hori, horrek euki ebazen aman, ama Aulestikoa zan, aitte hamengoa, tratantie. Ta euki ebazen tio batzuk, amanak Ameriket an, Argentin an. Ta harek solteruek. Ta harek tiuek esan otsien ba, botetako hemendik mutil bet, euren kargu te geuze gutxitek, geuze

guztixen kargu eitteko. Ya berantzat izengo izengo dala-ta hau te bestie. Ta hau Fermin deportistie zan itzela, pelotaka, fubolien, danien. Atara kontue, hau da ya, zenbat urte joango zan hori ba? Hamazortzi-hogei urteaz-edo, ya joan zen hara Argentinera ta esan otsien /esantsien/ osabari: “¿todo esto para mí, por estar aquí? Pa vosotros. Yo no quiero estar aquí”. Fíjate si era deportista”, ordun Argentin en ekipue Huracán zan Argentineko ekipo bat, ointxe izeten lez “como un Real Madrid, no sé yo eso. Y, le quitó el pulso al interior izquierda Fermin. Fíjate si era deportista para quitar el pulso a aquel”. Baia golfantie. Hartu eban dirue eta “nos hizo así a los argentinos ¿Entiendes”. Ba, ointxe hil de, ointxe dala urtebete edo bi hil de Argentin en. Bai, hantxe bizi izen da, han euki deu restaurante bat, hango neskato bataz ezkondu zen ta egon zien ointxe dala urte bi andra-gizonak eon zien hamen. Lumon jan gendun ganera bezkarixe ta ba, zelan dauenta ez dabillega ondo. Ta efetibamente. Handik eta urtebetera edo arintxuau, hor joan zan Fermin. “Ahora, yo el mejor deportista que he visto en Gernika”. Puf! askogaittik.

- Egon die ba, gero be Rafa Iriondo ta holakoak?

- Bueno, Rafa Iriondo-ta baiña hori, zaharraua zan. “Rafa Iriondo tendrá” larogeta hamahiru urte eukiko dittuz. “¿Entiendes?” Baiña ez, ha “era un tfo de, de...” Naturelizie ekarri eban. Pelotarixe be, ona. Bueno, juergistie be, ona. Dana ona.

3.4. Gernikan futbol-jokalari asko

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:42. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Alaves eta Espanyol futbol-taldeetan hainbat gernikar aritu izan dira: Kortabitarte anaiak, Ibarra, Ormaetxe, Makala Zabarte... Mauri Athleticen zebilela, entrenatzailea jaietan etxera joaten zitzaion lo zegoela ziurtatzeko

Transkripzioa

-Ta konstantie ez zan. Hortxe galdu zen, ha. Ha, izen bazen konstantie? Bueno, izengo zan fenomeno bat. Hamen, holako zerak, hainbeste egon die banaka-banaka. Bueno, ni gaztie-edo izen nintzenien, Gerniken hainbeste fuboliste eon zien Alavesen jokatzeta. Hiru-lau te, “en primera división estaban juntos”. Hamen, horrek, bat zan, Korta bat. notarixen egon zana Korta? Harek, aneixe bi eon zien Korta. Hil zana? Haixe, bat. Juanito.

-Bestie, Jesus?

-Bestie, Jesus da. Ta bestie Javier; gaztiena karroan dabillena. Harek eitten eban Alavesen jokatu. Gero eitten eban Ibarra; Pipasenekoak, Erreterixekoak. Harekin jokatzeta eban. Gero atzera, Ormaetxek be, jokatu eban. “Pero esos otros...” Lehenengo egon zien, primeran jokatzeta eon zien, horrek. Ta “aquí hubo muchos”. Gero, Espaynolen eon zan jokatzeta Makala. Zabarte, zuk hori, horrek, alabie hemen bizi de. Ta don Luis izen

zan horrexen denboran kapittana. Ta harexen aneixa bat, bueno aneixe-ordie euken, “aquel también estaba jugando en el Espaynol. Luego, Iriondo aquí en Bilbao, Mauri más tarde”. Bai, geroau. Mauri be, atara kontue: Mauriri entrenadorie etorten jakon etxera, ikusteko lo badeu jaixetan-ta. “Sí”.

-Juergistie zan ala?

-Jo, bakizu jaixetan danak. Bai. Ez dau ha, ta bestie. “Entonces aquel le sacó” Daucik entrenadorie Daucik eon zan ordun Bilbon. Hareixek ata eban, honexek fakultadiiek itzelak, honek Marurik be.

3.5. Gurago du lehengo Gernika

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** GER-059/019
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:38:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Angelek gurago du lehengo Gernika-Lumo gaur egungoa baino; lehen denek ezagutzen zuten elkar, ez zegoen kanpotarririk. San Kristobal aldera kitanuak joaten ziren eta bertan ikusi zuen lehen aldiz zinema, bertan jarri zuten tela batean. Ostean poltsa bat pasatzen zuten dirua batzeko. Errepideetatik ez zen pasatzen autotik, autobusen bat tarteka baino ez. Lasai-lasai aritzen ziren jolasten. Saraspe inguruan egoten zen Gernikarako muga, mikeleteak bertan egoten ziren jesarrita.

Transkripzioa

- Ahora, bizitteko nik gura neban lehengo Genike geurkoa baiño. Bai. Danak ezetzen ziñen. Hamen, kanpoko jentie orduen, banakaren bat bai egon zan; honek zerak, etorri zienak biherrien hona Astrara-ta, kiputxek, etorri zirenak. Ostantzien ba, gehixenak hamen, danak bata-bestiaz danak ezetzen ziñen. Ze, jentie ba, kanpokorik ez zan egon. Horregaittik, nik gura neban orduen. Ni akordetan naz umetan, hor ikusi zendun San Kristobaleko surtidora? Hara surtidora, orduen ez zan egon surtidorik ez ezebez, han. Plazuelie. Ta etorten zien kittanoak, honek, otso bategaz-ta. “Baila Manuel” hondiño [...] memorixen dekot. “Baila Manuel” esaten otsien. Ta holako otso bat, eukitten eban kittano batek gerrittik lotute. Ta gero surretatik eskuen, aroan domiñetako. Ta ezebez, harek otsoak gixajoak ze eingo eban ba, zutunik be, justu-justuen egoan-ta. Apur bat balantzie, hau te bestie. Ta hango bueltako andrak, danak hartu eben [urkitxue] ta joaten zien, jesarriten zien bueltan ikusteko ze eitten daben. Nik lehenengo ziñie ikusi nabena, hantxe ikusi naben. Ipini eben holako izara bat, ta aintziñeko holako karraka handi bet “tarratata” nik ez dakit zelan-eta. Koño, ezebez! Figura batzuk-eta zoyer hantxe telien. Ta gero holako kable bat ipintten eben ta neska bat ibiltten zan han, kablien. Ba, zer, metro biko altura barik. Pasetan, batera ta bestera ta gero, pasaten eben holako poltsa bet, zaku bet, ba bakotxak botateko berak gure deuena. Horreaittik ha, geuzie zan herriko geuzek, herri-herrixe. Ez zan gaurko moduen. Geur, adelantuek eta geuzek dauzenak. Ordun, ibiltten ziñen hamen olgetan umiek. Ba, bakizu, fubola ta zerien, kalien. Hor gerra aurrien-ta ez zan pasetan autobuse

baño Ta noizepeñien. Ta klaro, lekue egun guztixen danerako. Gero, han goiko, gu, goittarrak gara, saraspetarrak. Ta etorten zien Gernikera ba, ikusten ba, trena-ta zer dauen ta zer ez dauen. Ta harek, ha jefie eon zan ba, Garaioa, hau bankukoa egon zan jefie, harena? Foralana edo mikeletiek edo ez daitz zer zien, ta harek esaten eban: “chavales, a Gernika no, eh! Nosotros, pa aquí, allí nada. Pa arriba. Nada de ir a Gernika”. Atara kontuk, handixik farmazixetik eta hona behera, zenbat distantzi dauen, e! Eskubete distantzi baiño ez dau. Ta esaten: “de ahí pa arriba”. Eurek eukitten eben han kanpoan halako banku luze ba,; hantxe tabernetan dauzen modukoa, hantxe kanpoan eoten zien jesarritte lau edo bost, denporie emoten ta “en fin, épocas ¡qué épocas!”.

3.6. Jolasak eta kantuan diru eske

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/021
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:36:33. **Bukatu**: 00:39:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako hainbat jolasak aipatzen ditu. Lehen etxerik etxe abesten joatea ohikoa zen. "Urtebarri barri txarri belarri" abestia abesten du. Gaur egun ohitura hori desagertuta dagoela dio. Baserritar baten diruaren orde zintxaurrak ematen zizkiela du gogoan. Bukatutakoan denen artean banatzen zuten batutako dirua.

Transkripzioa

- Ta gero lehen be, esan dozu, ibiltzen ziñiela kalien?

- Bai.

-“Primeras ta Segundas-ta”?

- Bai.

- Hori zer zan?

-“Primera, Segundas”? Ba, harri bet; osea, marmol zati bet-edo, holan. Ta gero eitten gendun zeragaz, tiziegaz, “con tiza, marcar el uno, el dos, el tres y el cuatro”. Ta gero hankiegaz, harrixe “en el uno”, ta gero “en el dos”, ta “en el tres” ta holan, harrixegaz jolasten gendun kamiñoan eindre tiziegaz gure kuadrotxuek. Ta gero soka, “a cuerdas”, ta holako geuzetan. Hantxe beti kalien. Ta gero oin galdu dana da, zera be bai: “Urtebarri”-ta, kantetan. “Urtebarri karri” ta “Erregiek datoz”. Horrek danak etxerik etxe egoten giñen gu, kantetan horrek. Ta txakur txiki bet emon ta gero, ene! Joan portalera kontetan diruek. Osea zuk ez dakizu horrek kantak be?

Urtebarri karri

Txarri belarri

Dekonak ez dekonari

nik ez dekot eta niri.

Apalazixo zaldune

geur Urtebarri egune,

zotzak eta paluek

Txori bixarten kontue.

Emongo bozu, emoizu,
bardin emongo badozu.
Zeure begire gagozen artien
emoten jaku berandu.

Hemen gatoz lau,
kanpak joten bi,
emoizu limosnie
Jangoikoagaitxik.
Eup!

Ta gero urteten aban ta: "ala umiek, benga; abe!" Txakur txiki bet emonda. Ala propiñie. Ta gu harekaz diruekaz gero, etxerik etxe joaten giñen kantetan. Oin iñor be ez dator. Iñor be ez dator, oingo umiek. Ta gu hara baserrire be joaten giñen kantetan. Ta baserriko andretxu batek, esaten oskun, harek dirurik ez eban emoten, intxurrek-eta: "aiba, aiba-ta. Datorren urtien be etorri e!", esaten oskun. "Datorren urtien be etorri!" Ta guk: "bai, etorko gara". Ta kantetan. Baia baserrixetan be ez zan egon biderik be oingo moduen, ezebez, ezebez! Osea holan estradatxu bet ta handik joaten giñen baserrire kantetan horrek geuzek. Ta Gerniken etxerik etxe kantetan hori "Urtebarri". Ta gero Erregietan be bai; beste baten kante eitten gendun. Ta oin hori be desaparezidu ein da. Oin ez dator ume bat bez. Jakin be ez dakixe kantziñoak bez. Jakin bez! Ta guk ene! Ze pozik joaten giñen ta gero harek dirutxuekaz... Etxe baten igual, txakur txiki bet; bestien be, beste txakur txiki... Ta gero joaten giñen portalera ta repartidu diruek. Zuretzako honenbeste, honenbeste, honenbeste. Ta repartidu ta pozik.

3.7. "Erregiek datoz"

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/022
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:39:37. **Bukatu**: 00:41:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Erregenetan "Erregiek datoz" kanta abesten zuten. Abesti hori kantatzen du.

Transkripzioa

- "Erregiek datoz" be eitten gendun.

"Erregiek datoz,
erregiek datoz,
limosnia batzen,
limosnia batzen.
Gu be hemen gatoz,
gu be hemen gatoz,
limosnia batzen,
limosnia batzen.

Apalazixo zaldune,
hiru erregen egune,
zotzak eta paluek
txori bixaren kontuek.

Emongo bozu emoizu,
bardin emongo badozu.
Geure begira gagozen artian,
egiten jaku berandu.

Hemen gatoz lau,
kanpak joten bi,
emoizu limosnia
jangoikoagaitzik. leup!!!"

Hori Erregietan kantaten gendun. Eta etxat ahaztu e! "Desde niña. Tengo buena memoria todavía". Ta Erregietan horixe ta Gabonetan bestie abestuten gendun, bestie [...]. Horrek bixetan. Eta ume guztixek joaten zien, gu bakarrik ez. Koadrilletxuek eta etzerik etze, etzerik etze. Ta oin ba ez daitz zemat urte /esangotsut/ esango dotsut, igual hogeta hamar urte-edo, etorten zien noze behiñien batzuk, ta jentie pozau! "¡Ay, ya venis! que bien", "Ene umiek!". Baia kantetan be ahaztute, dana txarto eitten eben, dana txarto. Baia guk ederto kantetan gendun eta gero errepartidu diruek, horixe.

3.8. Marijesiak

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/024
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:43:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Betidanik egon dira Marijesiak Gernika-Lumon. Gaur egun egoitzarako da batzen duten dirua; lehen, ostera, beraientzat izaten zen.

Transkripzioa

- Ta Marijesixek be bai kantetan. Marijesixek be izen zien Gerniken, beti-beti-betikoak. Beti ta oin be bai eitten dabe. Baia oin eitten dabe "para el axilo, pa...". Baia lehen eurentzako, eurentzako. Osea kuadrillettue, antziñeko gizonak ta kanteu, beratzi egun, Marijesixek ta gero, harekaz diruekaz eitten eben banketa. Ta mozkortxue hartu ta pozik. Bai, horixe.

- Polittek die Marijesixek.

- Bai. Osea, eitten ei da Gerniken bakarrik ta ez dakit, beste herri baten. Baia hori galdu eindde hori be. Baiña hemen oniño eitten dabe, oniño, e! Hemen Gerniken. Gerniken eitten dabe. Bai, bai, Gerniken. Asike guk nehikoa ein dogu, nehikoa ein dogu.

3.9. Tren-geltoki ingurua

- **Hizlaria(k):** Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:05:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak
(kokapena)
- **Laburpena:** Jesus tren-geltoki ondoan jaio zen, gaur egun banketxea dagoen tokian. Inguru hartan egon ziren dendak-eta aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Hantxe bai. Parajie, bertan. Boliña Zaharra klaro oin. Lehen ez zan egon baiñe edifizixo bat izen zan dana, ha dana. Han eon zan "La Gloria y El Sol, Blasco, la imprenta de Goitia", Goitiako harek liburuek-eta saltzen Domingo Legarra, ultramarinos, bai, han.
- Eta noz jaixo ziñen?
- Noiz?
- Bai.
- Abenduen hogeta lauen mille bederatzirehun ta hogeta zazpizen. "Ochenta y tres años".
- Lau eitteko Gabonetan.
- Gabonetan lau.

3.10. Dendan, zapan borlak egiten, josten...

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/028
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:51:31. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak
(kokapena)
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Kruzita Otazuaneke eskola partikularrean eta Bareñorenean egon zen kontabilitatea ikasten. Jesusek ere bertan ikasi zuen kontabilitatea. Beranduago josten ikasten ibili zen. Etxeko dendak zapan borlak egiten zituen. Denda gutxi zeuden sasoi hartan eta asko saltzen zuten. Gerora denda zegoen lekuan "Omago txiki" taberna jarri zuten.

Transkripzioa

- Kruzita, zu eskolan nora joan ziñen?
- Kruzita: Ni hamen eskolan lelengo joan nitzen Otazuarena. Eskola

partikularrera, Otazuarena. Ta gero handik Otazuanetik, han ibil nitzen ez dakit zenbat urte Otazuanien, ta gero joan nitzen Bareño kontabilidadera. Bareñok Santa Klaran euki eban. Ta gero Iruña goixen, han txoritokixen euki eban, ta hara. Hau be joan zan hara nigez, hara kontabilidadera.

- Ba Iñaki be bai, Solaguren?

- Kruzita: Iñaki be, bai. Bai.

- Orduen, hirurok batera joan ziñien?

- Kruzita: Bai, batera joan giñen.

-Ta, gero bihera ein zendun hortik zuk?

- Kruzita: Ez. Ez dot iñoz ein. Beti dendan etxien. Ez dot ein, Gero, kosturera hasi nitzen Erreterixen, Pilar Ajuriarenera. Zure tia, osea Gregori be han ibilli zen, nigez josten. Josten ikesten-ta. Ta gero ba, dendan laguntzen: zapak, borlak eitten genduzen zapantzako; ze, ekarten ebezan zapak konpontzen. Igual ya gastaute-ta. Ekarten ebezan dendara ta borlak ein biher. Ta, nik eitten nebazan borlak, dendan.

- Jesus: Gorrixek!

- Kruzita: Hori etxien lagundu ahal dala.

- Eta zelan eitxen zien zapan borlak?

- Kruzita: Gero gure amak, oseake aittek eitten eban zuletu zapie ta gero gure amak euki ebazan herramintta batzuk, eta harekaz kolokau hamen borlak.

- Jesus: Josi, josi.

- Kruzita: Begixen... ta asko ekarten ebazan konpontzen-ta holan. Barrixek be saltzen genduzen. Mantak be bai. Ta mantak be josi eitten ebien, eitten gontsen goixen, holan, lana gorrixegaz. Ta, ha erakutsi eusten niri amak, eitten. Sasp txarrien, ze beti mantak josten ta denporarik be ez olgetan joateko. Ta gero hori, ta dendan, orduen, bai.

- Jesus: Taillerra, taillerra josten.

- Kruzita: Orduen ganera asko saltzen zan dendetan. Denda gitxi eon zien. Denda asko be ez-ta. Asko, baserrittarrak, baserrittarrak gehixen euki eben dirue be. Eurek ekarten ebezan plazara saltzeko-ta. Ta bueno, atara eban gure amak bizimodue eurrera.

- Dendie noz arte euki zenduen?

- Kruzita: Ba dendie euki gendun, gero bakizu Omagito ta ez dakizu gauzak, Erdiko kalien? Ha ixen zan dendie, gurie. Erdiko kalien Omagito dauen lekuen.

- Jesus: Bueno, Omagito ez da oin.

- Kruzita: Oin dau esto, Bolibar. Bolibar haixe. Haxe Bolibar zan gure dendie.

3.11. Jolasak, paperezko pilotak...

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/030
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:55:45. **Bukatu:** 00:57:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolasak: "a marros", tabak... Gaur egungo umeek gauza asko zituzten, beraiek ez zuten jostailurik. Kruzitak erregeek partxisa eta eskolarako maleta ekarri ziotela gogoratzen du. Pilotak

paperez egiten zituzten. Pasealekuko arkupeetan esku-pilotan aritzen ziren mutilak.

Transkripzioa

- Olgeko zenduen?

- Kruzita: Bai ene! Nik asko jolastu dot, asko. Primeras, Segundas-ta, Marros-da. Asko.

- Marros?

- Kruzita: "A marros" redondel batzuk eindde ta bota pelotie bota, ta korriduten hartu orduko-ta. Horrek geuzek, ene! Orduen ganera, ezta... Oingo umiek, dekez bizikletie, este hau bestie, baloiek onak danak. Orduen? ya-ya, ez gendun euki horrek geuzek. Jugetiek, ni akordeten naz ni azkenengo urtie ein nabeni, inozente, Erregiek pentsa nebazan... Ez naben jakin orduen Erregiek nortzuk dizan. Ta egin ostien /eistien/ partxis bet. Ipiñi eisten /ipiñesten/ Erregiek eta maleta, egurrezko maleta bat eskolarako.

- Askok hori bez e!

- Kruzita: Haxe.

- Jesus: Pelotoie.

- Kruzita: Oingo umiek gure daben guztixe deke: ordenadorak olgetarako, mobbille, ene!

- Jesus: Lehen fubola. Pelotoie, pelotoie ta pelotoie.

- Bai, zuek bai?

- Kruzita: Ta pelotak be igual laniagaz eindde-ta.

- Jesus: Papelagaz be bai. Zapatak apurtu arte. Zapatak be merke eon zien, antza; ni ez naz akordetan, baia. Ta, gero, pues...

- Papelegaz?

- Jesus: Bueno, papelaz ein bolie ta lotu kordela.

- Kruzita: Papelagaz lotu.

- Jesus: Astelehenetan, platanuek ekarten eben, ta holako paper berde bat, lodixe eukitten eban. Eta hareri begire, begire, pelotoie eitteko. Gero, hori txirlora antzekoa, platanuan artien etorten zan. Haregaz bete eta benga! Ez zan egon, ez pelotarik ez ezebe. Benga! Gero eskure bai, pelotaka han arkupietan.

4. Herria, azpiegitura

4.1. Seber Altuberen etxea udaletxe; Elvira Iturrirena Falangisten bulego

- **Hizlaria(k)**: Basterretxea Santiago, Maria Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-001/009
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:19:26. **Bukatu**: 00:21:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Karakuel, Kepa
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena**: Zabalekoak Olaetatarren etxetik irteterakoan Seber Altuberen txaletera joan zen tiloetako pasealekura; institutu aurrean dagoen etxera. Nazionalak sartu zirenean, etxea errekisatu eta bertan jarri zuten udaletxea. Orain batzokian dagoen etxean doña Elvira

Iturrin txaleta zegoen, eta emakumeen presidentea zenez, etxea kendu eta Falangekoek beraien bulegoak jarri zituzten.

Transkripzioa

- Gero Zabalianekoak urte eben ta eurek joan zien Seber Altuben txaletera, han, Tiloatara. Seber Altuben txaleta da, haixe dauena institutoan eurrez-eurrez kontixu, hondiño be txalet sostenitan dana.

- Bai, bai, badau bat. Asesoridxen ondoan, Torrealdaien ondoan.

- Torrealdai baino harantzago dau bat. Oin ez dakit zelan egongo dan baia gehidxenien berdez pintteta bentanak ta eukitten dabez harek. Ha ixen zan Seber Altuben txaleta. Ta ha, sartu zienien nazionalak, ba ha errekiexu ei eben ta han ipiñi eben udaletxie. Udaletxie egon zan hantxe, hau bestie ein arte.

- Klaro, dana apurtute egon zalako.

- Bai, hau be dana apurtute egon zan. Ta oin batzokidxe dagon lekuen egon zan beste txalet bat, ixen zana doña Elvira Iturriñe. Ta doña Elvira Iturri ixen zan lez emakumeen presidentie ba hareri be kendu eutsien ha txaleta. Ta han egon zien Falangeko ofiziñek. Hantxe egon zien.

- Orduen, klaro, hor zer egon zan? Edifixidxo guztidxen txalet bakarra edo etzetxu gehidxau han?

- Ha ixen zan txaleta be bai, ortu ederragaz. Gero P. N. V.k erosi eban, batzokidxe eitteko. Baie Txorrabururentz begire, Txorraburutik hasitte, etziek eiñdde dauzenak han Batzokidxen ganien-? ha terreno guztidxe ixen zan txaleta.

- Txaleta.

- Bai.

4.2. Bonbardaketa aurreko Eriabarrena

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/002
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:00:23. **Bukatu:** 00:02:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena:** Eriabarrenan jaio zen Presen, "Fernando el Católico" deitzen zen orduan kalea. Bertan ospatzen zen eria, astelehenetan ganadua ekartzen zuten traturako. Inguru hura zelako zen azaltzen du. Merkurioko iturria Faisan taberna dagoen tokian zegoen, bonbardaketa ostean bajatu zuten behera.

Transkripzioa

- Nun jaixo ziñen?

-Ni, nun? Hor, Eriexabarrenien "donde está ahora Picasso". Lehen izeten zan han, "Fernando el Católico" aintziñe. Izena, harena kaliena, ni txikitxue izen nitzenien, "Fernando el Católico". Ta oin da Picasso. Oin Auzokoa ta kafie-ta dauen lekuen, hantxe jaio nitzen, ni. "Allí he nacido".

- Auzokoa ganien-edo?

- Ez, harantzau apurtxo bet. Harantzau baiña hortxe kalien. Ta, hori izen zan, izena Eriexabarrena. Izetex zan, erixie; oin jardiñek dauz ba, itxurrixe-

ta? Ta antziñe egoten zien astelehenetan, ganadue. Ganadue eitxen zan han, zerien ta egoten zien holako burdiñek. Ta guk hantxe bueltaka-bueltaka jolasten. Ta astelehenetan izeten zan erixie ta etorten zien baserriko guztixek euren ganaduekaz saltzeko. Ta tratantiek txarrirxuegaz ta... Hor eitxen zan erixie. "Por eso", izena euki eban Erixabarrena. Bai.

- Ta zelakoa zan hori ingurue?

- Hori? Ba etxiek. Oin dauzenak: Auzokoa... Hantxe ba, etxiek dana; komertzioa ta dendak-eta. Ta gero oin jardiñek eta iturririxek dauen lekuen, dana ganaduentzako ta arbolakaz, arbolakaz. Ta gero aparte, kamiñoa ta gero Pasilekue. Oin dauzen moduen, ba Pasilekue, holan egon zan. Holan. Jardiñe holan politxek barik, bederra ta holako elegantie ez. Zera, senzilloa.

- Ta Merkurixoa be hor egon zan? Merkurixoko iturririxek hor egon zan?

- Merkurixoa egon zan, ez, Faisana? Faisana? hantxe ondoan egon zan bankutxu bet ta hantxe egon zan hori iturririxek. Ta gero bonbardeoak izen zienien, bajatu ein eben hara. Baiña hori egon zan han, Faisan-en ondoan, Pasilekuen. Pasilekuen, egon zan hori iturririxek. Bai, akordeten naz "claramente". Bai, osea horrek... Gure badozu pregunteu beste geuze batzuk.

4.3. Eriabarrenako merkataritza

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/003
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:02:42. **Bukatu**: 00:04:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Hainbat, denda, taberna, jatetxe hotel... egon ziren Eriabarrenan. Astegunez aterki-konpontzaileak egoten ziren eta baita "txarlatanak" ere gauzak saltzen.

Transkripzioa

- Ta hor zuen kalien, egon zien dendak edo tabernak-edo?

- Bai. Hor kalien, hor Erixabarrenien? Bai dendak: farmazixek, konfitterixek gure parientiena ta ferreterixek be bai. Hotela be bai, Zimela. Osea, tabernie ta gero, jaten emoten eben lehenengo pixuen ta dana egon zan hor, hor zerien. Bai kale inportantie izen zan. Ta gero astelehen guztixetan, ferixek ganaduena. Ta hantxe egoten zien gero, astegunien egoten zien hantxe ezkiñetxu baten, paragueruek. Osea, arregletan guardasolak-eta. Hantxe, hantxe egoten zien paragueruek. Ta gero etorten zien astelehenetan, horrek txarlatanak saltzen geuzek. Ta baserriko guztixek hantxe, eureri ikusten. Kotxien etorten zien ta hantxe planteute: "A ver, esto por un duro. Por no sé cuántos. Tal"-ta. Txarlatanak. Ta baserrikoak: bueno, horixe, horixe gure dot /gurot/. Ta bueno ba, "venga, por un duro, esto, tal, tal-ta. Esta manta esta sábana, todo esto un duro-ta". Hor, saltzen. Ta baserrikoak hantxe, ha begire danak, grupo asko, e! Baserri

asko, haretxeri entzuten ta gu be bai igual, txikitxuek izen giñenien, hareri astelehenetan. Horixe izen zan Gernike, astelehenetan.

4.4. Pasealekuko eta San Juan Ibarako kontzertuak

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/004
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Eguenetan eta zapatuetan Pasealekuan kontzertuak egoten ziren. Kaltzada egoitzakoek aulkiak jartzen zituzten eta dirua jasotzen zuten kontzertua jesarrita ikusten zutenengandik. Pasealekuan beti egon zen kioskoa eta musika-bandak kontzertu ugari jotzen zituen. Udan, ostera, San Juan Ibaran egoten ziren kontzertuak bertan ere kioskoa baitzegoen.

Transkripzioa

- Ta gero egon zien konziertuek be bai. Konziertuek egoten zien eguenetan ta ez dait zapatuetan-edo Pasilekuen. Ta ospitteleko, oin residentzixe dau, hor zerien ba, "Residencia Kalzada". Ta aintziñe hor izeten zan ospittela. Esaten gendun, pobrientzako. Ta hango jentie, etorten zien sillek ipiñi Pasilekuen ta kobreten eban txakur hudi bet. Osea, "diez céntimos, diez céntimos" kobreten eben ta jente, señora guztixek hantxe jesarritte, konziertue entzuten. Ta han kioskoa, oin kendu ein dabe kioskoa. Ta kioskoa beti egon da Gerniken kioskoa. Beti. Ta "Banda de Música" be bai. Dana uniformiekaz, danak. "La Banda de Música". Ta ba horixe konziertue. Ta gero uden egoten zan kontziertuek San Juan Ibarren. Hor San Juan Ibarren, hor be, kioskoa egon zen. Ta hori orain etxe barrixek eindde dauz, hortxe. Ta hori izeten zan dana txaletak, dana. Oin be badau, bat edo bi edo baiña orduen izen zan, kondie be bai, hortxe euki eban txaleta "Conde Arana". Ta hori dana txaleta ta uden izeten zien hor konziertuek, uden; ta neguen han goixen, Pasielekuen.

4.5. Jolasak zein antzerkiak kalean bertan

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:10:01. **Bukatu:** 00:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Aisia » Kultura » Antzerkia

- **Laburpena:** Kanean olatzen zuten, ez baitzebilan autorik, noizean behin gurdiren bat baino ez zen pasatzen. Domeketan dotrinara joaten ziren eta ostean, etxeko atarietan antzerkiak egiten zituzten.

Transkripzioa

- Ta gu beti kalien olgetan. Kotxerik be ez zan egoten. Gerniken kotxie? herri guztixen igual hiru kotxe. Ta gu kalien osea kordelagaz jolasten, ta kalien izeten zan. Ta domekatan joan zera, dotriñera joaten giñen lauretan. Ta gero entretenimientue izen zan, egixe da hori, portaletan eitten zan teatroa umiek, gure lagunek eta umiek, teatroa portaletan. Joan zerara, dotriñera domeketan ta gero, dotriñetik: "Teatroa dau, han zerien, kalien, ez dait nungo etxien". Ba, hara joaten giñen. Ta gero txakur txikixe pageu, neskari e! Gernikeko neskari, hau gure lagunek-eta, ta jantzi trapu zahar batzukaz ta gu eskillaretan danak, ume guztixek hantxe planteute ta bestiek teatroa eitxen. Ta gu hantxek ikusten teatroa. Ta haixe izen zan bizimodue; ez zan egon ez telebisiñorik, ezebez ta kalien, izeten zan umiek kalien. Osea, askozaz be oin baiño gehixau. Oin umiek dekoie telebisiñoa, bestie ta beti, hantxe etxien sartunde harek ikusten. Gu kalien beti; hantxe, jokoan edo "primera-segundas-ta", kotxerik be ez zan egon. Ta kamiñoan eitxen gendun dana; kamiñoan olgeu ta dana. Ta nozipeñien burdixe paseten zan; baserriko burdixe ta guk hantxe jesarri ta baserrikuek igual, esaten oskuen: "Umiek kanpora! ez zer!". Ta beste batzuk itxi eitten ginttuzen. Ta guk hantxe, ipiñi karruen ta traka-traka burdixekaz. Antziñe Gerniken, burdixek eta karroa, harexek izen zien; kotxeik bapez, kotxeik bapez. Osea, kanbixeu ein de konpletamente bizimodue, konpletamente.

4.6. Bonbardaketa osteko Erdiko Kalea

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-077/025
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:45:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Kruzitaren aita abarkak-eta konpontzen aritzen zen dendan. Geltoki ondoko txabola batean jarri zuten lehenengo denda, presoek Erdiko kalea eraiki aurretik. Hasiera batean estatuarenak ziren dendak, baina gerora saldu egin zituzten. Hainbat denda eta taberna zabaldu ziren bertan: beraiena "Peio", Pio, Boyra, "Ferretería de los alemanes", "Surtidor bilbaíno", Sebera, Ojanguren, Elvira, Zuñiga, Adela Garteiz, Carmen Zabaleta, Pilarren taberna, Blaskoren tabako-almazena, Melchorren taberna... Presoei eskerrak berreraiki zen Gernikako herria.

Transkripzioa

- Ta gero zure aittek be dendan eitxen eban biher?
- Kruzita: Gero gure aitte ba gero mendixetan be bai.

- Jesus: Abarkak-eta konpontzen.

- Kruzita: Ta konpontzen ebazan dendan. Klaro, orduen ba gomazkoak apurtu eitten zien. Ta konpontzen eban gomazko abarkak eta zapatak-eta konpontzen eban dendan. Hor gure dendan. Ekarten ebenien igual zuloagaz-ta ta aittek arregleten ebazan danak. Partxie ipintten eutsen.

- Ta ze denda gehixau eon zien Erdiko kalien?

- Jesus: Baiña noiz? Ordun, bapez.

- Gerraostien, zuek dendie jarri zenduenien?

- Kruzita: Guk dendie lelengo esan dotsut /esantsut/ txabola baten estaziñoan. Ta gero ein ebezenien presoak, presoak ein ebenien Erdiko Kalie, hartu gendun denda bat.

- Erosi ein zenduen?

- Kruzita: Gero, erosi ein da.

- Jesus: Errentan “no daban primero”?

- Kruzita: “Primero, renta pero luego, vendieron. Lelengo, rentan eta gero saldu.

- Jesus: Errentan, danak: pisuek eta lonjak eta danak. Ez eben saltzen.

- Kruzita: Dana saldu eben, gero.

- Jesus: “Eso era del Estao”.

- Kruzita: Ganera prezixo onien saldu ebien. Osea...

- Ta ze denda gehixau eon zien?

- Jesus: Gehixau ba Erdiko kalie osue.

- Erdiko kalien eon zien ba: Pío, Boyra be eon zan baia oin, Boyrak dekon beste dendie, Pío zan, han. Gero han “Ferretería de los Alemanes” be bai eon zan.

- Jesus: “La nueva bolsa”.

- Kruzita: Gero, eon zien “Surtidor Bilbaíno”. Horrek ez zien gernikarrak. Eurek ez dakit nungoa zan bera ta andrie, Kortezubikoa zan. Ta gero Sebera, “Sebera también”. Harek, Muxikekoak Sebera-ta eon zien.

- Jesus: Beste partien Ojanguren, Elvira...

- Kruzita: Esto, Zuñiga ta Adela Garteiz. Esto, Elorriane eon zan lekuen, lelengo eon zan Carmen Zabaleta.

4.7. Errazionamendua; Pasealekuko dendak

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-077/027
- **Iraupena**: 0:04:04. **Hasi**: 00:47:27. **Bukatu**: 00:51:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Errazionamendu garaian Jesusek bi bider hartzen zuen jeneroa: Gernikan eta Barrutian (Kortezubi). Bonbardaketatik 10 bat egunetara etxe batean jateko pila eman zioten. Dendetan ez zen ia ezer egoten saltzen; hala ere, soldaduek beti zuten zer jan. Errazionamenduan ematen zieten ogia beltza zen. Gernikan Meliton Martijarenean, Santos Uriberenean, Escuderorenean eta Pedro Arrietarenean hartzen zuten errazionamendua. Pasealekuko arkupeetan dendak jarri zituzten bonbardaketa ostean: janari-dendak, ile-apaindegia, tela-denda...

Transkripzioa

- Zuek esan dozue goserik ezetz, baiña rasionamentue be euki zenduen.
- Jesus: Rasionamentue bai.
- Kruzita: Rasionamentue ene! Akordetan naz ni.
- Jesus: Ni beti tranpak eitten; leku bittera-ta, ene! "En Barrutia, en Barrutia", han kolan ipiñi te: "zu, ez zara gernikarra?", " bai, baia hamen bizi naz".
- Hori, nun?
- Jesus: Han Barrutin.
- Piperrenen?
- Jesus: Bai. Bueno, Piperren bestien. Bestiek euki eban dendie. Piperrene ba, baserrikoa zen ta bestiek euki eban tabernatxue ta dendie. Ta, han emoten eben: arrosa, kafe, galletak-eta. Bai ta bueno, hantxe kolan. Ta: "Zu ez zara hemengue!", "bai, baia hemen bizi naz eta hemen jaten dot nik". Ta, arpeixe, enne! Holako txikixe izenda, baia leku guztietara. Ah! Ta baitte be, joaten nitzen, bonbardeoa paseute hamar egun, jatekoan bille. Eon zien alemanak eta italianuek. Italianuek egon zan han Goixezko Erreterixen? Han alemana bizi dan, bueno, lehen, hau izen zan "éste, ¿cómo era aquél, donde Bortxes vivió, el mayor?".
- Kruzita: "Ah, sí", Isidoro Leon.
- Jesus: Isidoro Leon. Hantxe, apur bet goratxuau. Han, euki eben "para las baterías", dana armamentue ta harek ingeru guztixek. Hartu kapazo bat nik "ri-ra, ri-ra, ri-ra", jatekuen bille. "Ez dekogu etxie, dana erre jaku. Beittu, hor bizi izen nitzen, dena erre doskue ta ez dekogu ze janik, ez ze...". "Ra-ra-ra-ra" toperaiño gaztaiek, latak, dana! ogixe. Danak niri begire, ia banator jateko. Baserrixen be, ez zan egon, e! Bueno, apur bet, urune ta ze esango dotsut ba? Eon zan apur bet, baia danak niri begire. Ta, nik danga, bueltie emon ta dana jateko: gaztaie, "no sé lo que había, todo, latas de escabeche", dana. Baia soldadue bai ondo. Harek, bai euki eben jatekoa baiña dendetan, ez. Ez zan egon ze janik.
- Kruzita: Ez zan egon ze saldurik bez.
- Jesus: Ze saldurik bez, karo.
- Kruzita: Gero rasionamentue botaten eben. Olixoa be rasionamentuen. Ogixe be, baltza "de yuca"-edo, ze zan? Ogixe txarra.
- Jesus: Ha, ogixe zatittu, puf! "Yuca o garbanzo o ahora me acuerdo cómo era".
- Ta Gerniken nun hartzen zenduen errasionamentue?
- Jesus: Rasionamentue ba, eon zan, Melitón Martija "que se le quedó...?"
- Kruzita: Santos Uribe.
- Jesus: "Santos Uribe que hizo la esto".
- Kruzita: Escudero, be bai.
- Jesus: "Escudero, luego Pedro Arrieta y esos también pero eso fue más tarde porque hicieron..."
- Kruzita: Baia joaten giñen, gauze batzuk igual Lurgorrin.
- Jesus: Lurgorrin ta beste batzuk, ze esango dotsut? Hemen. Karo, dana apurtute eon zan.
- Kruzita: Ni akordetan naz; galletak be, rasionamentuen. Baia joaten giñen Lurgorrireño igual galletan bille ta kamiñoan galletak jan. Kamiñuen akabeu galletak.
- Jesus: Pasilekuen dendak ipin ebezen. Han...
- Kruzita: Bai. Oin, Pasielekue dauen lekuen? Terzera edad dau han? Ha buelta guztixen, dendatxuek ipiñi ebezan. Denda asko han. Pelukerixie be bai.
- Jesus: Ipiñi ein biher. Hogei edo gehixau. Bai, bai asko! Grazixek harexeri ze, ostantzien nun erosi be ez zan egon.

- Kruzita: Ta han ultramarinos Galok be bai.
- Jesus: "Galo, la de Udetxea también tenía tienda".
- Kruzita: "Aquella de telas". Ta, Escudero.
- Jesus: Bai, bai.

5. Aisia

5.1. San Pedro osteko domeka

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/021
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Pasealeku behean San Pedro eguneko hurrengo domekan erromeria egoten zen Lumoko jaiak zirela-eta; Gernika eta Lumoren arteko muga hortxe dago.

Transkripzioa

- San Pedrorik hurrungo domekan hortxe behien, hor eskillaratatik behera bajatute, hantxe kafien eurrien erromeridxe.
- Arrienien eurrien?
- Ha partie Lumona. Gernike, Gernike, Gernike handik Andra Marixko elizien ondotik behera bakarrik; ta beste guztidxe Lumona. Ta gero Lumok eta Gernikek bat ein eben ta.

5.2. Frontoiko eta Argatxuruko zinematik

- **Hizlaria(k):** Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-034/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Frontoian lehenengo zinema izan zuten. Pelikula mutuak ziren eta Azkaraik biolina jotzen zuten. Gero, Tiloetako Argatxururen garajea hasi ziren zinea ematen; Rafa bera 14 urterekin hasi zen bertan lanean.

Transkripzioa

- Ta pelotarik-edo ez zenduen euki?
- Bai, bai, bai, bai, pelotak bai. Pelotak bai, frontoi edarra, ta ganera han egon zan ziñie, lelengo; ta ziñie zerien horman zer zuri bet, pintture zuri bet, ha pantallie ta mutue. Ta Azkaraik biboliñe jotzen ban ta mutue ta

biboliñe jota, ta haidxe ziñie egon zan. Ta gero ipin bien ziñie Tiloatan, Argatxburuk euki eban zera garajie, ta hantxe garajien ipin bien ziñie. Ta nik emoten nabien ziñie, hamalau urtegez.

- Zuk emoten zendun?

- Bai. Zera, beran jabiek nobidxie euki eban Muruetakoa, ta bera joaten zaniñen zera ba neu geratzen nitzen ziñie emoten, gero buelta emon zerari pelikulierari, ostabe emoteko hurrengo egunien. Ta gero barridxe ipin bienien, Tiloak, hor hor, han bost ogerleko emon ostiezan ta ya horra joan nitzenien hor ya ipin osten /ipisten/ sueldoa.

5.3. Espainiako ereserkia zineman; zentsurak

- **Hizlaria(k):** Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-034/025
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:42:59. **Bukatu:** 00:45:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Zinema
 - Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Argatxburuko zineman Espainiako ereserkia jarri behar izaten zuen pelikula guztietan; kanpoan "Guardas de asalto"ak egoten ziren zaintzen. Pelikulak zentsurarekin heltzen ziren, beraiek ez zuten ezer erabakitzen. Maila desberdinetako pelikulak egoten ziren.

Transkripzioa

- Ta zelan dezididuten zenduen ze pelikula emon?

- Bai, zerak dauz, oin be bai. Warner Bross, Picture "eso las casas que alquilan", alkillen pelikulek ba hiru egunerako eta lauerako-edo, ta por ejemplo hor emoten bien zapatue, domekie ta astelehena.

- Bai hor zensurie egongo zan, dana ezingo zan emon.

- Bai, bai. Ta ganera iritzen zienien atiek, ipintten nabien nik diskoa "el imno nacional", ta danak zutunik, zutunik urten orduko. Ta guarda de asaltoak kanpoan, zerien. Zensurie itzela.

- Ta derrigorrez jarri biher izeten zendun imnoa?

- Bai, ostantzien multie. Hori ahaztu barik!

- Ta gero zelan izeten zan zensura kontue edo ze pelikula emon ahal zan edo zein ez-eta?

- Ya bertatik almazenetik, pelikule lekutik etortzen zan ya zensurie eindde, ta pelikulek ekarten bien papel bat: "tal esto censurau, tal esto censurau".

- Ta ez zan izeten "R1, R2"-edo?

- Bai. Elizan ipintten bizen berdiek... "Uno pa todos los públicos, dos para trece, y tres pa censurar" ta holan.

- Ya baia karo, zuena ez zan elizako ziñie, zuena nok kontroletan eban zuen ziñie?

- Eurek zerak, horrek eukin bien zer bi, lokal bi, lokal alderdi baten ipin bien zinie ta beste lokalien garajie, ta izen zien sei sei anaidxe. Baia harek anaidxetan egon zein bi kontroletan benak, Agustin ta Mario.

5.4. "Marianela" lehen pelikula; "Las cuatro plumas" koloretako lehena

- **Hizlaria(k):** Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-034/026
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:45:41. **Bukatu:** 00:46:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Berak ikusi zuen lehen pelikula Mary Carrilloren "Marianela" izan zen. Ameriketako pelikulak zentsuratuta zeuden; hori dela-eta, bakarrik espainiarrak ikusten ziren. Lehenengo pelikula amerikarra eta koloretakoa "Las cuatro plumas" izan zen.

Transkripzioa

- Ta ze pelikula izen zan zuk ikusi zendun lelegokoa?
- Marianela de Mary Carrillo. Ganera Ameriketatik ez egoan pelikulerik, prohibidute egon zan, ta danak izeten zien españolak. Ta Marianela izen zan lelego pelikulie emon biena. Lelego pelikulie "en technicolor" ta amerikanue, "Las cuatro plumas". "En tecni color" ta entradarik bez, entradarik bez.
- Eta egoten zien asiento batzuk baten batentzat erreserbeta-edo?
- Ez, euren eurentzako. Sei mutillek ta ama ta aitte eurentzako euki bien palkotxu bet, ostantzien danantzako libre.

5.5. Kandelario Eguna; Basatoste

- **Hizlaria(k):** Armendariz Gainza, Rafa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-034/056
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:27:14. **Bukatu:** 01:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Kandelario Egunekeo abestia kantatzen du. Basatoste Egunez tostadak jaten zituzten.

Transkripzioa

- Eta gero bestela kandelaridxotan-eta?
- Bai. Kandelak horrek ogidxe ipini zer bat eta, horrek danak. Kandelaridxo leridxo atxari ura daridxo sagarrari madari, eutsi Peru adarrari.
- Beti ezetu dozu Gerniken hori ohitturie?
- Bai, bai.
- Ta Basatosten?
- Basatosten tostadak ein. Ogi, ogidxe, gure amak eitten eban ogidxe zerien esnetan sartun ta kaleniegaz ta gero urune ta zera, arrutzie, ta prijidu.

5.6. Lehen gauza gutxirekin bizi ziren

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/009
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Zinema
 - Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- **Laburpena:** Gaur egun teknologia asko dago. Ezkaratzean (sukaldea), txapa eta sukalde ekonomikoa erabiltzen zen denerako: ur berorako, laberako, etxea berotzeko... Askok arropa denbora askoan izaten zuten garbitu barik. Domeketan Lizeoko zinemara joaten ziren. Lizeoa ere erre egin zen. Erre bako gauza gutxi daude herrian.

Transkripzioa

- Oin dana dekogu mekaniko ta sue be, harek "cocina económica" izeten zan ta "económica verdaderamente" izen zan koziñie. Egoten zan ur beroa bertan koziñetan. Ta kendu ein doguz danak. Danak etxe guztixetan baiña penie da, penie da. Ta eitxen eban lapikokoa edo jatekoa, labie euki eban eitxeko erretan sagarrak-eta ta itturixie be bai, ur beroa. Ta ez zan egon ur berorik be, etxietan be. Ta dutxau be bapez. Ta hemen gauz. Oin dana dau dutxie ta historixe. Guk ezebez. Egixe, eh! Ez zan egon! Ez zan egon, diferente.
- Hijjenie?
- Keba! Ta batzuk erropie be, ez dakit zemat denpora garbittu barik. Eta gero ipiñi bizperetatik hantxe baldien-ta. Guk, ez baiña beste batzuk, bai. Baiña, bueno. Ba, baia bizimodue horixe izen zan. Ta gero igual domeketan, igual ziñie egoten zan be bai, infantil. Ta dirue badekogu ba, ziñera joan ta.
- Nora?
- Lizeora. Lizeoa eon zan ta gero, erre ein zebeu Lizeoa. Hori be barrixe da. Gerniken aintziñekorik, hiru-lau etxe baiño ez dauz oindiño, hiru-lau. Herri guztixe zertu zen, erre zan.

5.7. Bonbardaketa ostean, Elai-Alaikoekin Parisera

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/011
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:15:19. **Bukatu:** 00:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Bonbardaketa ostean, Bilbora joan ziren eta handik Frantziara Elai-Alaiko kideekin. Hiru urtez egon zen bertan, Parisen. Hasieran, komunistak zirelakoan, bertakoek ez zituzten maite, baina gerora egoera aldatu zen.

Transkripzioa

- Ta gero Frantzixera. Ta gero Bilbora joan giñen ta gero Bilbotik, Segundo Olaetak esan eban, bueno Elai-Alai formatako grupoa. Ta hantxe grupoa formeu, gernikerrak egon giñen han Bilbon ebakeeta ta esan oskuen: bueno, “los gerniqueses que están en Bilbao que vengán a la oficina de Sota”. Ta joan giñen ta gero izen zan ba, formatako grupoa ta Frantzixera joateko. Ta bueno, nik aitxagaz ta amagaz-ta hantxe Bilbon, baiña txarto egon giñen, txarto, jatekorik bez, ezebez. Etxien, etxien errefujixeta. Eta zera, Franco-ko jentie, eskapau ein zen. Ta harek etxiek hutsik geldittu zien ta “los refugiaos” sartu giñen danak holako etxietan dauzenak abandonata. Baiña igual etxe baten igual lau famili. Ta guk igual zerien, lurrien lo ta holan ibil giñen. Ba “mal”, txarto. Ta gero Olaetaneke grupoa formeu zanién, joan giñen Frantzixera. Ta hantxe ba ederto egon giñen. Hiru urte ein naben nik Frantzixen, Parisen, Parisen, ta formeu zan grupoa ta han be, eitten gendun, osea teatroak eta hemengo euskaldunen geuzek. Ze joan giñenien hara, esaten oskuen, komunistek gariela. Ta dana Frantzixek despezixeu guri, bakizu ba, hemengo moduen emigrante-ta. Ta gu be emigrantiek izen giñen ta despezixeu hantxe Frantzixen. Ta gero Segundo Olaetak guri, egunien-egunien-egunien-egunien mezatara joan giñen, joaten giñen, harek esanda: “mezatara joan biher dogu /bigu/”. Ta gero frantsesak ezetu zelako jentie garien diferentiek; ze han egon zien “refugiaos”, komunistek-eta asturianuek-eta, osea maldeziñoak-eta esaten eben harek-eta. Harek diferentiek izen zien, baiña gu beste beste geuze bat.

5.8. Euskal kultura erakutsiz Paris inguruan

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/012
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:17:41. **Bukatu:** 00:20:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

- **Laburpena:** Bonbardaketa ostean, Elaiko-Alaikoekin Parisera joan zen errefuxiatuta. Hainbat ikuskizun antolatzen zituzten euskal kultura zabalduz. Parisko Trokadero antzokian ere egin zuten bat. Frantziako beste leku batzuetan ere aritu ziren. Ekainaren 24an heldu ziren Parisera. Han ere bonben beldur ziren. II. Mundu Gerrak harrapatu zituen han, eta han ere babeslekura joan behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Ta gu joan giñen “pa que vean las costumbres del País Vasco”. Meza osteko jaia, eitten gendun ta, “Osea, cuadros vascos”. Ta Parisen ein gendun “en el Trocadero también, en el teatro Trocadero”. Ta leku askotan. Ta gero ein gendun eskursiño bat be, “excursion o para atuar, al norte de Francia”: Calais, Valennciennes, Dunkerque, Douai, dana nortie, dana. Joan giñen hemengo kostunbriek erakusteko. Ta han Frantzixen guk danak lagunek ein genduzen; frantses guztixek, nobixue be euki gendun ta danak. Orduen nik euki naben han Frantzixen. Ein naben hamazazpi urte. Bonbardeuen euki naben hamasei. Ta Frantzixera allege giñenien, hemen izen zan bonbardeoa, “veinti seis de abril” ta gu Frantzixera allege gendun “el veinte cuatro de junio”. “Osea, abril, mayo, junio” egon giñen hemen gerriegaz, baia txarto, txarto. Ez zan egon jatekorik eta lo eitten edozein lekuetan. Santanderren be barkue hartu baiño ariñau, elixa baten sartu oskuen, han lurrien lo eitten ta txarto. Ta gero Frantzixera joan giñenien ba, ederto hantxe bonbardeo barik-eta. Harexek bonbardeoa billurrekaz beti, beti. Hementxe sirenie jo ta beti errefujixoa. Ta gero han Frantzixen, beste gerrie europeue hartu gendun. Ta han be joaten giñen refujixotara. “a la...”. Igual gabeko ez dakit ze orduten ta kamisoiegaz-ta gu arrapaladan. Refujixue euki gendun albotxuen; gu bizi garen albotxuen. Ta haraxe joaten giñen. Ta frantsesak etorten zien euren sonbreruekaz-ta boltsakaz-ta. Guk: “bai, horrek ez takixie zer dan gerrie. Guk, gerrie paseu dogu-ta”. Danak kamisoiegaz ta arrapaladan haraixe, billurregaz, billurregaz. Ba hori gerra denporan izen zan, baia gure txiki denporan ba edertoau Gernikan. “¡Estupendamente!”.

5.9. Gabonetako, Kandelarioko eta Santa Agedatako kantauak

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/023
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:41:12. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Gabonetan "Mañana Navidad..." erdarazko abestia kantatzen zuten kalean. Kandelario Egunekoa ere abesten du. Santa Agedatan berak ez zuen abesten, baina talde asko egoten ziren abesten.

Transkripzioa

- Eta holan Kandelariotan-eta be kantetan zenduen?

- A be bai. Ta Gabonetan be bai. Gabonetan, orduen erderaz izeten zan: “Mañana Navidad”. Osea, holan ipiñi ume guztixek, kamiño osoa dana zertunde umiekaz ta kantetan, han kamiñoan.
 “Mañana Navidad, comer jalea
 Turrón de Alicante, que rico estar.
 Mañana Navidad, triste de mí,
 el gallo en la cazuela, Kikiriki”.

Ta hori egoten giñen kalien kantetan; osea, Gabonetan hori. Horrek danak galdu ein die. Horrek danak.

- Kanderixotan?
 - Be, bai.
 Kanderixo lerixo,
 hatxari ure darixo,
 Sagarrari madari,
 Eutsi Peru adarrari.
 Hori be bai, kandelakaz-ta. Horrek danak.

- Santa Agedatan?
 - Be bai. Bueno, Santa Agedetan guk ez gendun kantetan. Etorten zien, baia, etorten zien grupo asko, aintziñe grupo asko, ta baserrikoak-eta. Ta igual gabeko hiruretan-ta. Ta jo aldabak: “bunba-bunba”. Gabeko hiruretan kantetan! Ta altxeu ogetik eta limosnie emoten. Ta etorten zien grupo asko. Ta oin ba oin herriko zerak die, baia lehen jentie baserrikoak igual kuadrillie ta kantetan etxerik etxe. Dirue batzen, ta gero euren jatekotxue-ta eitten eben banketa harekaz diruekaz. Ta oin diferentie da, oin, “grupos de eso pero”. Aintziñe jentie normala normala kantetan.

5.10. Komediak

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/029
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:50:47. **Bukatu**: 00:52:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kultura » Antzerkia
- **Laburpena**: Udaletxe aurreko komediak, titiriteroak, ugariak izaten ziren. Jendeak etxetik eramaten zuten jesartzeko aulkia.

Transkripzioa

- Ta lehen esan dozu, antzerkixek eitten zenduzela portaletan. Ta Gerniken egoten zien komedixek eta zarzuelak eta...?
 - Komedixek? Plazan, aiuntamentuko plazan, osea “titiriteros”. Etorten zien kanpotik ta ene! Orduen zelako afana! Urten eitten gendun etxetik, komedixek dauzela-ta. Ta bueno ba plazan. Han aiuntamentuen. Gero erre ein zen aiuntamentue be. Ta han egoten zien titiriteruek, baia zelako komedixek! Oin ikusten bagu hori esaten dogu: “vaya gitanería, vaya porquería”. Trapu zahar batzuk jantzitze, hiru-lau kantziño kanteu ta jentiek: “Bien”. Danak hantxe. Ta gero paseten eben bandeje dirue botateko. Ba txakur haunditxu bet-edo, gitxi. Baia joaten zien jentie silliekaz-ta. Hara etxetik, sillie eroanda. [...]. Sillie eroan ta hantxe komedixetan. “Pues eso”. Zelako eleganteik guretzako.

5.11. Zartzelak eta Lizeoko zine mutua

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** GER-067/031
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:52:10. **Bukatu:** 00:56:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Zinema
 - Aisia » Kultura » Antzerkia
- **Laburpena:** Presenek beste gazte askorekin batera hainbat antzerkitan parte hatu zuen. El Caserío zartzelarekin bost funtzio egin zituzten Lizeo antzokian. Beste hainbat zartzuela ere egin zituzten. Lizeoko zinema. Hasieran zuri-beltzezko zine mutua egoten zen eta gizon bat biolina jotzen egoten zen. Domeketan erreal bateko (lau zentimo eta erdi) paga hartzen zuten.

Transkripzioa

- A, bai, zerien bai. Guk be, ein gendun teatroak asko. "El esto: la zarzuela, El caserío". Guk, eindde dekogu...

- Segundo Olaetagoz?

- Ez. Bertako mutil... Osea, Gernikako gaztiek. Ta zelako exitoa euki eban! Bost funtziño emon gendun Lizeoan ta izen zan dirue ospittelerako. Ta ein gendun "El caserío". Ta ederto. Ta gero beste zarzuela batzuk be bai: "la esto, ¿cómo era aquello? No sé que de rosa. ¿Cómo es? Una zarzuela. Ya no sé cuántos, ahora no me acuerdo". Hiru-lau zarzuela ein gendun aparte. Ta "no sé qué de la paloma también y la zarzuela, también otra. Varios hicimos". Baiña Gernikeko grupo bat. Bai. Osea.

- Ta nok erakusten otsuen?

- Ba bertako mutillek, bertako mutillek "Las zarzuelas y eso". Ta gero kantetan ba elejidu gendun jentie boza politte dekona ta ederto dana. Ene, zelako exitoa, zelako exitoa! Askok! Ta gero zifñie be eon zan Lizeoan. Lelengo, "cine mudo. Yo, he visto cine mudo". Ta gero "luego vino el habla. Eso pero primero cine mudo". Ta egon zan "uno que le llamaban aquí, uno que tocaba violín". Ta joaten zan Lizeora haxe jotzen; ze, musikerik be ez zan egon. "Mudo era el cine y aquel tocaba el violín mientras estaban dando la película. Charlot-ta en blanco y negro. Blanco y negro", bai Charlot. Harek famosuek izen zien Charlot "y El Gordo y El Flaco" ta beste batzuk, nortzuk izen zien? Chikilín edo mutiltxu bat biserriegaz-ta. Ta famosuek izen zien harek. Ta gero horixe gizona joaten zan bioliñe zertzen, ikusten pelikulie, jo bioliñe ta ene! Ze pozik gu! Enei, harek pelikulak ikusten! "Menudo éxito, blanco y negro", dana. Ba, ez zan egon etxien telebisiñorik be ezebez. Ba haraxe ikusten. Ta zelako exitoa! Hombre, Charlot! Hori famosoa izen zan, Chaplín. Charlot Chaplín. Ai Ama!

- Eta zifñera joateko dirue?

- Emoten eskuen, pagie. Pagie, domekatan pagie. Izeten zan erriel "un real. Osea, "4 céntimos y medio era la entrada". Orduen ba, euki gendun domekatan pagie aitxegaz. Ta esaten gendun: aitxe, "la paga". Ta emoten oskun ta gero zifñera joan. Horixe dirue euki gendunien, ostantzien bapez, Pasielakuen olgetan. Ta haraxe zifñera ta horrexek. Horixe izen zan gure bizimodue ta pozik.

5.12. Taverna Vascaren hastapenak

- **Hizlaria(k):** Arrien Monasterio, Kontxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-071/020
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:40:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Bonbardaketa ostean, Santa Clara eta juntetxe alboan jarri zuten jatetxea, Montefuerte kondearen etxean. 1929. urte inguruan zabaldu zuten beraien gurasoek Taberna Vasca. Lehenago etxe horretan ere logelak izaten zituzten bezeroentzat, baina bonbardaketa ostean dena pasatu zuten bertara berria eraiki arte.

Transkripzioa

- Ta gero apurken-apurken ba hasi giñen, hor Santa Claran ipin gendun ba restaurantxu bet, iñor bez ez zan etorten lelenguetan alemanak bakarrik.
- Sanra Claran nun?
- Santa Claran, bakizu nun bizi den Egala?
- Aldatzien bertan diñozu?
- Ez, Santa Claran, zu, aber mojan kamiñue, lelengo dau oin museue dan palaxixue. Bueno, gero segiduen jardintxu batzugin etxe bat, han etxien. Ze guk ha etxie euki gendun alkillata hori etxie da, Conde Montefuertena izen zan, ta eukin gendun akilleta gerran ze hamen zer asko egon zien, Madrilleko republikanuek-eta asko, eskapata eta giputzek eta etor zien asko eta orduen ba jentieri eta emoteko habitaziñuek eta lo eitteko-ta jentie alkillata euki gendun ha etxie. Ta klaro, gero hau erre zanién, handixe erre zanién, ba bertan ipin gendun restaurana, arbolan ondoan. Ta han bizi giñen ba hau etxie ein arte, hau etxie ain arte bertan bizi izen giñen. Ahal dan moduen han be bai.
- Zuk beti ezetu dozu restaurana etxien.
- Nik beti.
- Nok jarri ban martxan Taberna Vasca famosue?
- Ba nire aittek hartu otsan beste bateri, beste bateri, eta gero bera ba hor oin dau, hor egon zan lekuen hasi ziren nire aitte ta ama ya barriztute, "el año" ze urtien izengo zan? "Veinti nueve"-edo izengo zan. Usten dot izen zala.

5.13. Alkate-soinua

- **Hizlaria(k):** Solaguren Basabe, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-075/016
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

- **Laburpena:** Jaietan alkatea eta zinegotziak kultur etxetik gora igotzen ziren elizara alkate-soinua jotzen zen bitartean. Elizako lehenengo ilarako jesarlekuan jesartzen ziren, tratu ezberdina ematen zitzairen. Txistulariak musika-bandakoak izaten ziren.

Transkripzioa

- Alkatiek-eta diñot.

- alkatiek bai bai. Orduen jaietan, joaten ziren kultur etxetik ta alkatie ta kontzejalak-eta danak ta txistularixe aurretik, alkate soñua egoten zan zozer txistuegaz joateko, bai. Ta joaten ziren ta lelengo bankuen han alkatie ta kontzejalak. Ta gero orduen monagilloa, ni baten baiño gehixau ein dot, insensionarixoa “ra-ra”, insensarixoa, ba banan-banan alkatieri ta kontzejalari aurrien pareu ta ein holan ta “tra-tra-tra” ta bestie “tra-tra-tra”. Bai, diferentzixe hareri, bai.

- Ta hori txistularixe nor izeten zan, alkate soñue jotzen ebana?

- Ba txistularixe, orduen egon zan bandie be egonzan, musika bandie be egon zan. Hor egon zan Paselekuen kiosko ederra, bota eben gero, ta txistularixek be bai. Horrek txistularixek joaten ziren. Bai ta uniforme ondo jantzitze-ta. Ta gero mazerua, mazeruak holan buruen ipiñi peluke zuri bat eta kapie ta harek be bai joaten ziren. Kategorixe, orduen kategorixe gehixau egoten zan horrek geuzek.

5.14. Auzo edo kale bakoitzak bere San Juan sua

- **Hizlaria(k):** Etxabe Garro, Kruzita; Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** GER-077/006
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:12:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Kruzitak bere etxe ingurua eta San Juan Ibarra ingurua baino ez du gogoan umetako kontuak gogoratzerakoan, ez ziren beste inora joaten. Jesusek beraien etxe ondoan, tren-geltokiko plazan egiten zuten San Juan sua dakar gogora. Bakoitzak bere sua egiten zuen, auzo eta kale bakoitzak berea.

Transkripzioa

- Kruzita: Nik egixe esan neure kalekoa dekot. San Juan Ibarra ta Ocho de enero; baze, horko partetik bizi giñen, San Juan elizien aurrien. San Juan elizie erre ein zen. Ta nik horkoa bakarrik. Nik beste Gernikeko akordurik urten be ez, hortik.

- Jesus: Gaztie, zenbat urte izengo aben, ba?

- Kruzita: Hau bai. Honek gehixau.

- Jesus: Ni be asko ez. Bai ni akordeten naz San Juan suek-eta eitten. Erramak eta dana hara presara harek arbolak ebaitten-ta. San Juan suek-eta. Gero, gorde eitten gendun erramak estaziñoan. Han kotxeratan, hantxe erramak. Ta bata bestieri listo lapurretan eitteko erramak, gero sue eitteko. Ta han ibiltten izen giñen ba pelieka. Ba bueno, estaziñoan San Juan suek eta.

- Ta San Juan suek, zer eitten zan, bat bakarrik edo bakoitzak berena?

- Jesus: Bakotzak beren barrixoan. Beren kalien edo barrixadtxuen ba hantxe. Guk estaziñokoak, hantxe plaza handixen eitten gendun han suek.

- Kruzita: Gure barrixoan, San Juan Ibarren eitten zan.

- Jesus: San Juan Ibarren. Gero egoten zan beste bat, hemen aiuntamentuan aurrien. Hantxe txistuegaz ta aingeru guztixekin bueltakata berebilletak-eta eoten zien.

- Ezer kantetan zenduen San Juan suetan?

- Jesus: Ez.

5.15. Parisko oroitzapen onak

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Garro, Kruzita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-077/012
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:18:59. **Bukatu**: 00:22:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Urte bi baino gehiago zen Parisen Kruzita Elai-Alaikoekin. Beste gernikar batzuk lehenago heldu ziren. Gernikara heldu zirenean, herriko bandak egin zioten harrera. Oso gustura egon zen bertan. Taldeko bigarren gazteena izan zen. Parisen txalet batean bizi ziren.

Transkripzioa

- Eta zenbat denporan egon ziñen?

- Kruzita: Han, horrek gitxiaue. Xixili Mintegia-ta ariñau etor zien.

- Jesus: Zuek, zenbat? Urte bi, ez?

- Kruzita: Urte bi paseu.

- Jesus: A, paseu?

- Kruzita: Paseu, urte bi? Hogeta zazpi hillebete-edo, holantxik. Hogeta sei? Urte bi paseu eon giñen, esto Frantzixen. Baiña horrek batzuk etorri zien ariñau: Arrienekuek be bai, Xixili ta aitzie be bai, batzuk. Gu azkenengo etorri giñen ta Gerniken errezibidu oskuen! Bandiek urten oskun estaziñora. allege giñenien.

- Ta bitxartien familiko barik?

- Kruzita: Familiko barik, gu hirurok. Ta beste batzuk be bai. Bakarrak be eon zien, han.

- Jesus: Grupo handixe, baia.

- Kruzita: Grupo haundixe, e! Asko, ez dakit nik fijo, zenbat eon giñen, baia asko egon gintzezan. Baia batzuk bakarrak. Presen Alberdi be bera bakarra; alaba bakarra zan- ta.

- Eta gustora egon ziñien Parisen?

- Kruzita: Gustora. Niretzako Segundo Olaeta ta andrie zien aitte ta aman modukoak. Aitte ta aman modukoak. Jente hobarik ezin leike topeu. Guretzako izen zien!

- Orduen, aktuaziño asko-ta eitten zenduezan, ezta?

- Kruzita: Ganera ni izen nitzen beran alabie gaztia, ostien ni gaztiena izen nitzen.

- Jesus: Umie.

- Danetatik gaztiena?

- Kruzita: Danetatik gaztiena izen nitzen. Beran alabie gaztiaua ni baiño, baia ostien, neu gaztiena danetatik. Bonbardeo egunien, zazpi urte eitteko,

hogeta seigarrenien izen zan-ta maietzien batien. Ta gero zazpi urtegaz joan giñen Parisera. Joan nitzen ta bestiek egon zienak, bederatzi-hamar urte gaztienak. Neu nitzen gaztiena danetatik.

- Orduen akordu onak dekozuz?

- Kruzita: Onak dekotaz. Nik Parisekoak onak dekotaz. Ta gero joan giñen urtiak paseute gero, Bitorregaz joan giñen. Ze gu eon giñen Saint Jean Pied-de-Port. Saint Jean de Pied-Port esan dot. Edo [Bi...man]. Ta han eon gintzen ya denpora guztien, hantxe. Parisen ein genduzen ez dakit zenbat denpora, Presenek dakiz horrek danok: zenbat denpora Parisen ein gendun. Danak dakiz hak. Ta gero joan giñen hara. Ta joan giñen bisittetan, hamendik autobus bet, grupoa joan giñen hara. Ta gugez ibiltten zan ha, gure mutillekaz-ta olgetan, fubolien ibiltten zan ha alkatie zan. Bertako herriko alkatie. Ta zelako rezibimientue ein oskun /oskun/ han orduen be? Ene! Emon oskuen bazkari bet eta bueno, bueno itzela! Ein gendun / eingun/ bieja bat! Ta gu egon giñen etxien, txalet batien eon giñen bizitten; ta oin, han txaletien eon zan "artes oficios" bez, baia holan erakusteko geuzek.

- Jesus: Eskolie edo?

- Kruzita: "Era como un...Sí". Akademie izetie lez baiña biherrak eittekoa: punta te geuzek. Oin ez zan izen etxebizitzie ez zan izen. Izen zan osea, eskola bat izetie lez.

6. Lanbideak

6.1. Guardia Zibilak Erreterian

- **Hizlaria(k):** Irigoras Zabala, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-027/039
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:52:12. **Bukatu:** 00:54:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Erreteriarako bidegurutzean Guardia Zibilak egoten ziren bestaldetik (Ajangiz, Kortezubi, Nabarniz...) zetozenak harrapatzeko eta zekarren jeneroa konfiskatzeko. Arratzuko andre bat zaldiz etortzen zen Gernikara eta haren anekdota bat kontatzen du. Saraspen, Melitonen atzean, zegoen kuartela.

Transkripzioa

- Erreteridxen Guarda Zibilek egoten ziren Nabarnizetik eta Kortezubittik-eta, hortik, Ajangiztik-eta, datozenak atrapatuko, Guarda Zibilek itxeraitten han. Ta danak errekistetan, ta hor, Arratzun, andra bat geizto-geiztoa egon zan, plazan be beti egoten zan zarataka iñok erregatietan batson o jaten zera agirikak eitten eta arrantzaka beti. Ta baten etxatorren beran zaldidxe euki ban, ta trailen dabela, ta "a ver si trae alguna maleta", "si, ahí atrás vienen" esan zotson /esantson/. Ta guarda zobille joan ta errekisteu ta errekisteu ta errekisteu ta errekisteu beran zerak eta: ¿dónde estan pues?" "¡ahí atrás!" bestiek. Ta ostabe baia "¿pero dónde?" "ahí tiene el burro las paletas pole...las pelotas" esan zotson /esantson/. Guarda zobilleri be barrieri urten zotsien ta eskapeu ein biher zeban /bizeban/. "Ahí tiene las maletas, ahí atrás el burro". Baia ha andrie beti egoten zan plazan be danari zarataka agirikaka iñok erregatietan batson barritz, Jesus!

- Guarda Zibilek esan dozu ta, nun egoten ziren Guarda Zibilek Gerniken?
- Hortxe kurtzeroan, Erreteridzeko kurtzeroan.
- Ta kuartela nun euki eben?
- Kuartela nun euki eben Guarda Zibilek orduen, ba? ez naz akordetan.
- Saraspen ez bien euki kuartela?
- Bai, bai. Bai hortxe, Melitonen atzien.

6.2. Guardia Zibila, mikeleteak eta "guardias de asalto"ak

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/017
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:32:31. **Bukatu:** 00:34:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Guardia Zibilen kuartela Pilatosen etxean egon zen eta Saraspen mikeleteak egon ziren, foralak, Omaetxebarria botika dagoen lekuan. Gerora, "guardias de asaltos"ak egon ziren Lurgorri aldeko txalet batean.

Transkripzioa

- Ta hemen Gerniken guardia zibilek beti egon die ta asko?
- Han lehen zerien, han goixen bizi zien.
- Saraspen?
- Bai. Saraspen egon zan, Pilatosen etxien bizi zien harek, han atzien. Saraspen eon zien mikeletiek, foralak. Zelan dauen ha? Klaro, han kantoi en dau farmazixe, Ormaetxeana. Ormaetxean etxie bat eongo da. Hantxe eon zien honek, mikeletiek. Zan alture bateko etxie; osea, ez zan gani en etxerik ez zan egon, bakarrik lonjie. Hantxe eon zien honek foralak. Ta ha etxie, ha jota egon zan gure etxie. Ta guardia zibilek beste alderdixen egon zien. Baiña gero foralak gerra denporan desaparezidu zien hamendik. Gero, gerraostien bai agertu zien honek "guardia de asalto"ak etorri zien Gernikera. Hor bizi zien hor Lurgorri bueltan. Hortxe egon zien. Han txalet bat euan akordetan naz ni. Honek bentanak eta balkoiek, añil pinttaute hantxe egon zien honek zerak, guardia de asaltoak esaten otsien ordu en hareri. "Ahora son la policía estatal" edo zelan deko horrek izena? "La policía de..." Madrillen-ta dauzenak. Holakoxiek eon zien ordu en, han. Baiña ostantzien esan dotsut /esantsut/.

6.3. Baserritarrak, frutadunak, arraindunak, okinak... etxerik etxe

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/005
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen

- **Gaia(k):**

Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- **Laburpena:** Astelehenetako baserritarren eria, azoka, Pasealekuan egiten zen. Fruta-saltzaileak ere etortzen ziren kanpotik. Arrain-saltzaileak etxeraino etortzen ziren; ziento bat antxoak txakur txiki bat balio zuen. Ogia ere sorki gaineko otzaretan ekartzen zieten etxera. Okinak gurdiaekin hasi zirenean garraio lanetan, aurrerapen handizat hartu zuten.

Transkripzioa

- Ta erixe ba bai, eitten zan, osea, oin plazie dau hemen, ba? Eitten zan, Pasealekuan erixe. Ta etorten zien baserrikuek-eta danak, hortxe arkuetan, hantxe barruen, bankutxuek-eta jesarri hantxe ta euren gauzatxuek saltzen. Ta gero horrek naranjeruek-eta horrek fruteruek be etorten zien ta hantxe izeten zan erixie. Osea, astelehenetan izeten zan? Bai, astelehenetan seguramente. Ta arraiñek-eta be etxeraino ekarten oskuen, buruen zerak, zestoak buruen. Hemetik haraiño, Lurgorrireiño, Cruz Roja dauen lekuen, haraiño etorten zien arraiñekaz. Ta zientu bet antxoa, txakur txiki bet, txakur txiki bet. Ta bajatu [...] geure platertxuekaz behera ta zientu bet antxoa ta txakur txiki bet. Ta etzeraiño ekarritze! Ta ogixe be etzeraiño ekarten genden antziñe, zestoatan. Buruen ipiñi zorkixe ta etzeraiño, ogixe ta danak. Eta oin nobera joan biher deu /bideu/ danetarako. Ta harek karrotxuek etorten zien, hasi zien etorten karrotxuek, “ay, qué lujo!; Vaya carros las panaderas!”. Ta orduen be, etzeraiño baiña karrotxuen. Baiña lelengo, buruen zorkixe ipiñi ta hantxe ogixe ekarri. Ta ekarten dabe oiñez ta pixureiño, pixureiño. Ta gero guk oin, joan ein biher dogu /einbigu/ erosten panaderixera. Horixe, diferente total izen zan bizimodue, total! Ta baserrikoak ba, etxeraiño be ekarten oskuen patatak-eta esnie be bai.

6.4. Aita juntetxeko atezaina

- **Hizlaria(k):** Solaguren Basabe, Iñaki

- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

- **Erref:** GER-075/005

- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:07:01. **Bukatu:** 00:09:53

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**

Lanbideak » Udal langileak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** 1930. urtean jaio zen Gernikako arbola ondoan. Bere aita juntetxeko atezaina zen eta komentu ondoan bizi ziren. Bonbardaketa ostean, postua kendu zioten. Gernikako arbolako orriak prestatzen zituen saltzeko. Aita atxilotu egin zuten eta 8 hilabetez izan zuten preso. Aita lan barik gelditu zenean, etxekoek beharrean hasi behar izan zuten: josten, alpargatak egiten... Gernikan lantegi eta lanpostu asko egon ziren eta horrek asko lagundu zuen.

Transkripzioa

- Iñaki Solaguren Basabe.

- Eta noz jaixo ziñen?
 - Treinta de julio, mil novecientos treinta.
 - Nun jaixo ziñen?
 - Gerniken, Gernikeko arbolan azpixon, Santa Klaran. Han nire aitte zan konserjje "casa de juntas"koa, ta han bizi giñen gu, han etxien, dau konbentuen ondoan, arbolan aurrien ta han jaio nitzen ni.
 - Hori etxie hondiño badau?
 - Dau apurtxu bet modifiketa, bai badau hondiño.
 - Zein da konbentu kanpoan dauena?
 - Bai, konbetuen han bat dau ta bestie. Bi dauz bat txikitxue handixau ha handixaua da. Ta nire aitte izen zan konserjje hara bonbardeora arte. Gero bonbardeoa etor zen ta ez daitz zer pase zan ta hauxe bestie ta kendu ein otsoien.
 - Ze biher zan konserjje, "casa de juntas"eko konserjje?
 - Ba erakutsi "cada de juntas" barruen barrukoa. Ta ha puesto ona izen zan ze ha diputaziñoana izen zan. Ta sueldo ona eukin eban ta gero propiña asko ataten eban. Harek hor orrixek eitten biegen, Gernikako arbolako orrixek han zepillotxu bategaz "ta-ta-ta-ta" jo ta [...] ein ta harek emoten eban ta propiñek ataten eban. Ta kenduko otsen gero zegaittik? ba batzokire joaten zan egunaro kafe hartzen, ez daitz nik izen bazan afiliadue, politiken ez zan sartu, ta gero kartzelara eroan otsoein zortzi hillebete, ta gu bizi giñen bigarren pisuen ta gero joan giñen boardillera, izteko leku barrixerri, ta han egon giñen.
 - Rosarito: Ta ezebez barik.
 - Baia etxe barik ez ziñien geratu, tellatu barik.
 - Ta gero danak biher ein biher. Ze aitte biher barik, mutille anaixe nagosixe, hamazortzi urtegaz soldadu joan biher zan /bizan/ ta arrebak ba bat josten, bestie egon zan alpargaterixien, fabrikien, Etxien be alpargatak josi ta puntoan ein ta danak.
 - Rosarito: Etxe guztixetan. Grazixek fabrikek hamen derrepente arin hasi zirela. Holan hasi giñen danok biherrien, ni ez, baia bueno.
 - Zerriñen bille zerratara ta zozpalak eta dana ekarten etxera, danak lagunduten.

6.5. Kortabitartetarrak notariotzan

- **Hizlaria(k)**: Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-077/003
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:05:24. **Bukatu**: 00:07:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Aita gernikarra zuen eta ama Ajangizkoa. Bere etxeok bere egin dute lana notariotzan: bere aitak, bere anaiak, Jesusek berak, bere semeak eta ilobak. Lehen notariotza Andra Maria eliza ondoko txaletean egon zen.

Transkripzioa

- Eta ama ta aitxe nungoak euki zenduzen?
 - Jesus: Aitte gernikerra. Ama Ajangizkoa.
 - Kruzita: Bixek, hurrekoak.

- Bai baiña ama baserritarra? Aitte ez?

- Jesus: Aitte ez. Aittek notarixan eitten eban biher. Gero ni ta nire anaixie ta nire semie...

- Kruzita: anak hantxe notarixen.

- Eta zuen familixe zelan sartu zan ba notarixen? Nik beti ezetu dotez Kortatarrak, notarixen.

- Jesus: Bai. Bueno ba zelan sartu zen? Ba, aitte hasi zen han biherrien, ta gero aitte. Aitte hil zanién, Juanito soldadutzen egon zan. Ta gero ni joan nitzen. Ta, gero nire semie ta gero ba...

- Kruzita: Loba bat be bai.

- Jesus: Loba bat be bai. Bai. Nire anaixien alabie. Marisol. Hantxe dauz Kortabitarte.

- Beti eon da leku bardiñien notarixe?

- Jesus: Ez. Notarixe ni sartu nitzenien, Andra Marixeko eleizie? Han goiko partien dau etxe bat, txalet bat, txalet bat. Nabor dentistie zan, berak ein eban ha. Bueno Ortiz ein eban. Lehengo notarixue ariñau, Aurelio Ortiz baiña gero, Aurelio Ortiz joan zanién Bilbora, Naborrek erosi otsan etxie. Ta oin berak ipiñi eban han gabinetie: Nabor. Nabor Pardo, Victor Nabor Pardo. Ta gero haixe, eurrera segidu. Oin notarixe, oindiño hemen dau, anbulatorixoan beste partien.

- Kruzita: Hor, bakizu nun dauen?

- Bai. Orduen zuk, hemengo inguruko danak eukiko zenduzen fixxeta saso baten?

- Jesus: Hemengoak eta Mungialdekoak eta buelta osue. Dana.

- Kruzita: Ni gero, exilieta egon nitzen, bonbardeo ostien exilieta Frantzixen.

- Jesus: Frantzixen joan zan hau.

6.6. Notariako lan denak eskuz

- **Hizlaria(k)**: Kortabitarte Madariaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-077/004
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:07:27. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Notariako lanak zeintzuk izaten ziren kontatzen du. gaur egungo lan bera egiten zen. Alde bakarra aurrerapenetan dago, lehen dena egiten baitzen eskuz. 1943. urtean hasi zen lanean eta 77 urtera izan arte aritu zen bertan lanean.

Transkripzioa

- Ta notarixan ze biher eitten zendun? Zein zan bihera?

- Biherra? Ba kasu baterako: erosten bada pisu bet, klaro saltzaillie ta erosten dabena, bixek joaten die hara. Eitten dabe dokumentu bet notarixuen aurrien. Klaro notarixue ni ez naz. Ni biherrera. Bueno, ezetu edo jentie ta bueno. Han eitten da tratue. Neuk emoten dot, honenbeste diru ta zuk hartu dozu habitaziñoa. Notarixoak firmeu te kittu. "Al archivo".

- Oin eitxen dan moduen?

- Bardin-bardin. Oin be holan eitten da.

- Kruzita: Baia oin ordenadoraz eitten da asko. Baia bueno, lehen.

- Eskuz, dana eitten zan. Eskuz, dana. Ene, ha zan biherra! Madre! Ta letra ona euki biher. Leiduteko, letra ona, leiduteko. Ta ortografixe ta dana, klaro. Oin, makiñie tri-tri-tri, ta pun.

- Ta zu baiño zaharratxuak, askok ez eben jakingo, baserriko askok-eta idazten-eta?

- Anaixie nire anaixe, lau urte ni baiño zaharraua eon zan. Ba bixok.

- Ez baiña diñot, hara joaten zan jente askok ez ebala jakingo idazten bez?

- Kruzita: A klaro. Baserriko jentiek, idazten bez askok. Firmetan-ta atzamarragaz.

- Ez, ez. Nire sasoiari bai. Bai, bai. Ni sartu nitzen “el año, cuando yo tenía dieciseis años, pues el cuarenta y tres-cuarenta y cuatro por ahí”.

- Hamaseigaz sartu ziñen notarixen?

- Bai. “Y, retirar con setenta y” Osea, hirurogeta hamazazpiaz erretireu, jubileu.

- Hirurogeta hamazazpi?

- Hamazazpi. “Siete, siete”, ointxe arte.

7. Baserria

7.1. Baserritarrak pertsona argiak dira

- **Hizlaria(k)**: Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-059/002
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:03:16. **Bukatu**: 00:06:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Baserritarrak pertsona argiak, zuhurak, zirela dio, nahiz eta baserritik ez irten. Behin ekologista batzuekin izan zuen elkarrizketa dakar gogora. Gaur egun, ostera, ez dago osotasunean horretara dedikatzen denik. Lehen ez zegoen ezta negutegirik ezta urik ere.

Transkripzioa

-Oin berai esaten netsen, orduen sasoiari: “koño, ba frailiek”. Ze baserritarra intelijentia da gero, eh! Esaten ebien, baserrixe ez dakit zerta. Baserritarra ez da tontue, ez deko hauxen be gero! Bakizu ze paseten dan? Ordun sasoiari baserritarra, egoten zan asko baserrixen geldi. Jaixetan iñora be ez zan joaten; ez domekarik ez ezer. Jarritten zan etarte baten ta etarte baten ba, esaten eban zelako denporie dauen, zer eingo daben, zer ez daben eingo, zer bertan. Nik baten diskuziñoa, honekin ekolojistekin euki naberen. Esan esten /esasten/ ba, berbetan hamen, hor Errixo kalien, ta: “pues nosotros, sabemos que, porque hemos estudiado por eso y tal y cual”. Nik esan notsen, ba bateri: “no tenéis ni idea vosotros”. “¿Cómo que no?” “¿Vosotros la tierra conocéis? Vosotros no conocéis la tierra. Conocen la tierra, esos que están trabajando ahí. Vosotros no”. Y ¿por qué y tal? le dije”. Esan netsen: zuk ekarri eizu baserritar bat Arteagakue edo Kortezubikoa, errekin hemengo alderdire, ta forutar bat eroaizu hara, ta bixek dabiz galdute. Ta beittu zelako distantzixen, ezebe. Lurre ez dabe ezetzen, ez dabe mame ha behie. Ha behien mame ezien ba alperrik de. Eta zuek zelak jakingo dozue /jakingo/ lurren barrixe, etxien

tarro bat lur ez dekozue-ta? Ta joño, “pues tienes razón también pero tal” ta hasi jaten eta bueno. “Tendré o no tendré razón” baiña egixe, holantxik de. Baserritarra zuhurre da. Baserrittarrak sufridu eitten deu asko. Eta oin horrenbeste ez, baiña lehen akordeten naz ni gaztie nitzenien, iguel domeka baten baserritarra jesartzen zan etartien ta egoten zan hantxe zigarroa erre ta hantxe begire ta siestie ein ta gero, hona ta hara, zelako denporie ingo daben-ta. Horrek kalkuloak eitten, beti eon da baserritarra. Mariñerue be itsosoan beti egon da arraiñe nun egongo dan uren koloriegaittik edo hau edo bestie. Bardin-bardin. Alperrik da, haren kontra zelan joango zara, ba? [...] nik ama, Ondarrukoa eukitte ba ha asko ezetzen naberen, ezta? Zelan joango zara harek gizonak, analfabetoak, barkoz-eta nora joaten zien? Ta gero hona etorri. Ez eben biher, ez makiñarik ez aparatorik ez kristorik. Ezebez! Ta haren kontra zelan joango zara, ba? “Es en balde”, alperrik de! Ta honekin baserrittarrokin “pasa igual”. Gaur egunien ez, ze geur egunien ez dau baserrittarrik; ze, geur baserritarra, dediketen dana osoa, ez dau garaurik be. Garaurik be, ez. Iñun be ez. Zahar-zaharren batzuk edo edadeko andrak edo gizonen batzuk, baiña gitxi. Gitxi, gaur ez dau ze danak alde eitten dabe-eta. Ta orduko denporako geuzie, dana zan Gernikara etortie baserritarra astelehenetan. Gehixau?

-Solotik bizi dana ez badan dekozela asko, inbernaderoak-eta saltzeko-eta, ez.

-Keba! Ta gaur inbernaderoak; ordun, ezebez ez zan egon. [...]

inbernaderoan-ta, hartzen da; orduen dana hartu biher izeten zan. Zelan esango deusut ba? “A puro huevo” ze, ez zan egon ezebez: ez, urik baserrixetan, ez ezebez ez zan egoten. Errekatik, galderiaz ataten, ure. Ta, harek, ze esango dotsut, ba? Ipintten ebezan porruiek ta geuzek, bakotzak erun apurtxo bat katilluaz, botaten “tza-tza-tza”, erregeu daittezan.

7.2. Baserritar asko Gernikara lanera

- **Hizlaria(k)**: Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-059/004
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:07:17. **Bukatu**: 00:08:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ekonomia eta industria » Boom industrialak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea
- **Laburpena**: Baserritar asko etortzen ziren Gernikako lantegietara lanera. Basoetan ere lan asko zegoen. Gaur egun baserritar asko daude hutsik.

Transkripzioa

- Bakizu zenbat jentek eitten eban biher Gerniken baserrikoak? Lehen etortzen zien baserrixetatik bizikletatan igual kuadrillek hamar-hamabost-hogei lagunekoak. Beste alderdittik beste batzuk eta Gerniken juntetan zanielen, orduen jente asko egon zan. Ta, gero beste bat egon zana da biher asko, hemen mendixen, basoan. Orduen biher asko egoten zan mendixen, baia asko. Bakizu zenbat serra, zenbat geuze eon zan orduen, hemen? Basoak eta danak. Geur ezebez! Geur egurrek ez deu balixo ta nok? Ha

jornala ez da altxetan lehengo biherregaz. Ezin ta baserriko biherregaz be, ez. Baserriko biherria daukonak, ba... Haxe euko deu, ze esango dotsut ba? Afiziñotxue ta penie ixtie ta horrexek geuzek. Haren hurrungo jeneraziñoak, itxi deu. Hara ez doa iñor. Beittu zemat baserri itzelak dauzen, kanpoak abandoneute! Geur egunien, dana dau holantxik. Dana dau, galdute konpletamente, konpletamente.

7.3. Baserritarrak astoz etxeraino

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-067/006
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:07:36. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Baserritarrak astoz etortzen ziren eta etxera eramaten zieten jeneroa. Kaleetan ere astoak lotzeko anilak zeuden, horrela ibiltzen ziren etxerik etxe.

Transkripzioa

- Esnie baserrikoak aintziñe danak baserriko esnie. Ta oin “que si no sé cuántos, que si no hay que tomar la nata que si no sé qué”, dana kendute dekogu. Baiña aintziñe, danak edaten gendun baserriko esnie, upilako natakaz. Egixe, bai, bai, bai. Ta etxeraiño, eh! Euren astotxuekaz etorten zien ta oin, astorik be ez dago baserrixetan. Nik ez dot ikusten ta aintziñe, Gerniken etzietan egoten zien, holako anillek astoak lotuteko. Ta kalietan Gerniken, etzietan holako anille handixek egozan, ta baserrikoak hantxe lotu euren astoak, eta gero ba etzietara esniekaz-ta. Eta etxera ekarten oskuen esnie ta geuze guztixek. Ta iguel jentiek iguel errebajau apurtxo bet, “a tanto-ta”, gure aitzek esaten eban: “baserriko kutxadueri, etzeraiño etorri, ez daitz ze orduten altxeu ogetik ta etorri etzeraiño ta hondiño, errebajau eitten dozue?”. Gure aitte errixetan beti. Bai, horixe izen zan.

8. Euskara

8.1. Euskara galarazita

- **Hizlaria(k)**: Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GER-059/014
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:26:21. **Bukatu**: 00:27:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Lanbideak » Polizia
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Gernikan euskaraz egitea galarazita zegoen. Guardia Zibilak aritzen ziren isiltzeko esaten; hori dela-eta, askok gaztelaniarako

joera hartu zuten. Arratzun berdin-berdin egiten zuten euskaraz.
Guardia zibil batek arratzuar bati jo zionekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Ya bakizu? Zuk geuze bat ez badarabizu aldien, galdu dozu. Ta harek be, haixe.

- Gerniken asko galdu zan euskerie?

- Bai. Ordun galazo eitten eben, jode! "Entonces te venía la Guardia Civil y te tenías que callar". Gu akordetan naz ni, Arratzun eskolan-ta ordun guardia zibillek etorten zien kamiñotik; bata alderdi batetik eta bestie, bestetik. Oingo moduen ez zen. Bat, alderdi bakotxetik. "Chavales, ¿no sabéis hablar en español, en cristiano?", esaten oskun. Ba bai, jakitten genduen eta ein eitten gendun, baiña harek aldeten ebaneko, ya ostabe ba zure erara edo eitten zien. Hari kokoteko bat zerak zerari emon otson, Juaneri. Juan hil zen, ha be egon zan Brasillen edo hortik hil zen. Hori zen koiñetue, honek Irazabal ferreterixe? Horrexen koiñetue zan. Ta hari emon otsien /emontsien/ kokoteko bat Arratzun; akorduen dekot Juaneri. Ez daitz er zan eta euskeraz konteste otson, ta plas! Bueno, ez esateko [...]

Kokoteko bat. Bakizu nori emon otsien, Doroteori, bakizu Telletxekoa Doroteo? Harexei emon eutson guardia zibil batek, itzela. Ni ordun bizi naitten Arratzun. Ni bakarrik urte askotan bizi izen nitten.

8.2. Aita kontratista, gorria ez, bizkaitarra baizik

- **Hizlaria(k):** Txopitea Uribarri, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-104/007
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:12:39. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
 - Politika » Jarrera politikoak
- **Laburpena:** Aita Amorotokoa zuen, kontratista. Gorria zelakoan kartzelara joan beharko zuela esaten zioten, eta berak ezetz, ez zela gorria, bizkaitarra baizik. Aitak ez zekien gazteleraz.

Transkripzioa

- Dana obrerue, nire aitte albañela izen zan, kontratistie. Ta nire aitteri esan ei otsen /eixotzen/, Txopitea apellidue euken, ta Amorotokoa esan dotsat /esantsat/, ta esaten otson /esatentzon/ ba ze, esaten otsen: "Txopeta, kartzelara joan biher dozu /bizu/, zu gorridxe zara ta", "Ni ez naz /enaz/ gorridxe, bizkaitarra baiño" esaten eben. Ta zerak... baten be esan ei otson /esanitzon/ bankukoak, arkupitan ipin bien, kaiolatxu lako zertxo bat, bonbardeoa izan ta gero, e. Guarda zobil bi haulan. Ta joan ta jefiari esan otson /esantzon/ ze: "Txopitea, no le podemos dar dinero, porque usted es rojo", "Yo rojo no, ¿eh?, bizkaitarra sí, pero rojo no", gure aittek. Ez eban jakin eusker... erderaz, ez amak, ez aittek. Nire aittek hemeretzi urte ezkondu zani, ta amak 22.

- Karo, Amoroton... Ai, zure aitte, Amorotoko ama ta aitte eukinde, ez eban entzungo...

- Bai.

9. Bestelako kontuak

9.1. Tabernan billetea sinatu zuena ezagutu

- **Hizlaria(k):** Nabea Arriola, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-059/022
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:40:54. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena:** Billete zahar pila bat erakusten ditu. Lizeo taberna izan zuen Angelek eta bertan izaten zituen askotan erakusgai. Behin Bilbotik txikiteoan etorri zen batek bere sinadura ezagutu zuen billetean bertan.

Transkripzioa

- Honek danak die hamengoak. Honek Euzkadikoak. Honek diferentiek billetek. Honek danak die, osea zerak dekez firmek, "el avalao de atrás. Este es el aval del billete vasco por el Banco de España, porque el Banco de España estuvo en Bilbao entonces". Ez zan egon Madriden, Bilbon eon zan.

- Bilbon egon zan?

- Bai. "Y, éste es el eso, el... ¿Cómo se llama, eso? Jesús! Se me olvida ya, todo". Zahartzaroaren geuzek. "El aval de que este billete es auténtico. Y, esto firmaba..." Bilbon eon zien orduen, firmeten ebenak hau batzuk. Niri kasue paseu jaten? Barrien nauela, etorten zien hamen Bilbotik, "yo tendría entonces pues, ¿qué te voy a decir yo, treinta y cinco o treinta y seis años?". Etorten zien bilbotar batzuk, kuadrilla bat, zortzi-edo. Trenien etorten zien zurixek edaten, domeketan edo zapatuen. Ta eitten eben rondie Gerniken ta esaten eban: "como el vino blanco de Gernika no hay en ningún lao". Ta hamen pernille ta leku guztixetan jaten eben-ta hamentxe ibiltten zien. "Y, da la casualidad que..." Nik, honek, barrien euki nebazen eskeitte honek monedak. Danak. Ta esan osten: "coño, las monedas esas y tal y cual y... Ya, el papel de Euskadi. Oye!". Batek esan eban bestiai: "tú, ¿no te acuerdas de las monedas de Euskadi?". "Sí, hombre ¿no me voy a acordar, estaría bueno? Porque él tenía el poder de una de las firmas en Bilbao, en el banco. Y.". Atara nabazan hara ta: "coño, ésta es mi firma!". Ta beste bat ein ban azpixon, bardiñe. Bai. Ta ha billette, esan osten /esasten/: "tengo que llevar porque no tengo", ta eroan ein eban. "Esos, claro aunque por fuera son..." Baiña aurretik danak ehun pezetakoak.

- "Banco de España Bilbao". Bai. "Pagar al portador, pesetas cien. Treinta y seis, uno de septiembre" mille beratzirehun ta hogeta hamasei.

- Hogeta hamasei! Ba, atara kontuk.

10. Natura

10.1. Elurtzak neguro

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** GER-067/007

- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Umetan bizimoduan kalean egiten zuten. Neguak gogorragoak izaten ziren, elur asko egiten zuen, neguro.

Transkripzioa

- Ta gero ba, gerrie-ta ba han antziñe, kalien guk umiek-eta telebisiñoi be bapez; radixorik be bapez; kalefaziñoa be bapez. Osea, txapiegaz, haretzegaz berotuten gendun etze guztixe. Ta ogera jueteko be, igual neguen, Ta eitxen eban edurre be, oin baiño asko baiño gehixao, asko! Osea, negu guzti-guxtixetan, Gerniken holako edurtzie, beti. Ta oin ikusi be ez da eitten edurrik. Kanbixau ein de. Ein de kanbixeu berotara; ze, nik dekotez laregota hamaika urte ta umie izen nitzenien, umie-edo hamabost urtegaz-ta holan, upelako edurtzek negu guztixen: osea, Gabonetan, Erregietan ta danetan edurtzie, itzela Gerniken. Ta oin noz ikusten da? Iñoz bez. Han, Oizen, Oizen. Horixe da.

11. Ekonomia eta industria

11.1. Aita Gipuzkoatik arma-fabrikara etorria

- **Hizlaria(k):** Alberdi Zubiaurre, Presen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** GER-067/013
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:20:03. **Bukatu:** 00:23:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Alaba bakarra zen. Ama gernikarra zuen eta aita Soraluzekoa (Gipuzkoa). Bere aita Alkartasuna arma-fabrikara etorri zen, "Alkar" izeneko pistola egiten zuten bertan. Bere aitak etxean bi pistola zituen oroigarri bezala. Gerra hasi zenean, beldurrez erre kara bota zituen.

Transkripzioa

- Ni alaba bakarra izen naz. Bai. Ta ba dana niretzako.
- Ama ta aitxe nungoak euki zenduzen?
- Ama gernikarra betikoa. Ama betikoa, betikoa. Ta aitte Gipuzkoakoa, "Guipuzcuano", giputxe. Etor zen Gernikera montetan, gure aitte izen zan "socio fundador de la empresa de pistolas Alkar", Gerniken, lehenengo enpresie, pistolana Alkar izen zan. Ta gure aitte etorri zen Gipuzkuatik, Eibarretik edo ez dakit nundik. Hiru-edo lau etorri zien "para fundar la fábrica Alkartasuna" ta pistoliek euki eban izena Alkar. Ta gure aitte hori akordeten naz, gerrie borbardeoa baiño ariñau, ba euki eban gero hori... Hori enpresie erre ein zen ta enfin, pase zan. Ta gure aittek euki eban pistola bi errekuerto moduen etxien. Hori akordeten naz. Kajatxu holako kuadradutxu bategaz ta papel holan grazie gaz-ta euki eban pistolak. Ta ataten eban nozonoz, garbittuteko-eta. Ta bat izen zan "pistola de lujo" eta

bestie normala. Ta gerrie etorri zanien, aitte pentsetan ba bakizu billurregaz-ta igual etxie ikusteko guardixek-edo billurregaz hantxe, soldaduek-eta ibiltten zien-ta. Ze ein eban? Hartu pistolak ta iñok jakin barik be presara bota, hona erre kara pistola bi. Pena bat dekot! ha ez eukitxie harek pistolak, “recuerdo”. Ta bota ein eban billurregaz ta oin ezebez. Ta “recuerdo tengo yo de los padres, de eso; de la pistola y todo eso”. Hori izen zan bonbardeoa baiño ariñau; ze gure aittek ya geuzie ikusi eban txarto, Gerniken ya abioiek-eta hamen be beti errefujixuetara. Baia gu bizi giñenien, ez da egon errefujixorik ta gu gero soloatara eskapeu. Ta gero handik sartun, urten ta etxe guztixe erretan. “Adios”. Ta holan, bueno, holan ez! Batatxuegaz, lauretan izen zan bonbardeoa ta batatxuegaz hondiño, zapatillekaz-ta. Ta ni zapatillek galdu ein nabezan arrapaladiegaz. Ta gero baserri baten emon oskuen, emon ostien niri zapata batzuk. Harek gorde biher nabezan /binabezan/ nik errekuerdorako. Zapata batzuk danak oker-okar eimde. Nik ez daitz ondo banekon edo ez, baia haretxeaz ibiltten giñen. Haregaz.

- Ortozik baiño hobeto?

- Ortozik baiño hobeto. Ortozik geldittu nitxen arrapaladiegaz, abioien billurregaz. Ta han solo baten, hantxe sartunde. Ta hantxe ein gendun bonbardeo guztixe. Nire ama, ni eta beste neskatxu bet, han barrixokoa. Ta hantxe ein gendun gure bonbardeoa ta ba, haxe; gero gerrie ta gero Frantzixera ta...

- Ta zure aitte bonbardeotan?

-Nire aitte egon zan Gerniken, refujixoan, aparte. Guk ez gendun jakin hilde badeu be ta ezebez. Ta gero agertu zen, agertu zen. Ta bueno ba, danak egon giñen bizirik ta pozik. Etxie erre ein zan, baia orduen, noberan bizimodue baiño ez zan zertzen. Harek joan zien ta listo.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gernikan jaioa (101-003/002)

Faribak bere buruaren aurkezpena egiten du.

2. Farsia eta euskara, ama hizkuntzak (101-003/004)

Ama hizkuntza: euskara ta farsia (persiera) ikasi zituen momentu berean.

3. Farsiaren inguruan (101-003/005)

Farsiaren inguruko informazioa ematen du: zazpi bokal ditu, ezberdin idazten da etab. Zenbat hitzun dituen, non hitz egiten den.

4. Irango beste inor ez hemendik (101-003/007)

Ez du Irango beste inor ezagutzen inguruan; familiaren lagun bat egon zen duela urte batzuk, baina orain ez. Euskal Herritik kanpo egiten dira farsiarekin lotutako jardunaldiak.

5. Iranekin duen erlazioa (101-003/008)

Iranekin gaur duen harremana: Internet bidez mantentzen du kontaktua, noizean behin joaten da.

6. Iranen farsia eta arabiera gehienbat (101-003/009)

Iranen hitz egiten diren beste hizkuntzak arabiera eta ingelesa dira; azaria Azerbaijanen, gertu dagoenez, baina berez ez.

7. Umetatik euskara eta farsia ikasia (101-003/010)

Haurra zela ikasi zuen hizketan farsia, aitak erakusten zien Fariba eta bere neba bizkiari, gauzak seinalatzen, kantuen bidez... Euskara eta gaztelania batera ikasi zituen.

8. Farsia aitarekin, gaur egun (101-003/011)

Gaur egun farsia soilik aitarekin hitz egiten du, telefonoz.

9. Zenbat hizkuntza dakizkien (101-003/012)

Euskara, farsia, ingelesa eta gaztelania badakizki, eta ingelesa gehiago praktikatzea gustatuko litzaioke.

10. Beste kulturekin harremana (101-003/013)

Atzerritar gehiagorekin eta beste pertsiarrekin ez ei du harreman gehiegi, atzerritar gutxi ezagutzen ditu hemen.

11. Arroza eta dilistak yogurtarekin (101-003/014)

Irango ohituretatik soilik gastronomikoa gorde dute. Hango bizitza lasaiagoa dela dio, egunerokotasunean familia gehiago elkartzen dela.

12. Iranekiko aurreiritziak (101-003/015)

Iranen inguruak aurreiritziak badaudela dio, Ekialde Hurbileko herrialde guztiak zaku berdinean sartzen dituztela hedabideek eta ezjakintasun handia dagoela.

13. Atzerritar sentitzea (101-003/017)

Jendeak bere izena entzutean atzerritarra dela pentsatzen du, eta era batean bada, hemendik kanpo denbora asko ematen duelako.

14. 29 hizkuntza, Donostian (101-003/018)

Donostian 29 bat hizkuntza hitz egingo direla pentsatzen du berak.

15. Etorkinek irribarre gehiago egiten dute (101-003/019)

Etorkinak ondo integratzen direla eta beste aire bat eta poztasuna ekartzen dutela dio.

16. Hizkuntzak ikasteko makina (101-003/020)

Hizkuntza asko jakitea oso gauza ona dela eta, makina bat asmatzeko aukera izango balu, hizkuntza pila ikasteko, egingo lukeela.

17. Farsieraz oinarrizko hitz batzuk (101-003/022)

Oinarrizko hogei hitzak farsieraz, 'maitasuna' hitza arte.

18. 'Txikia' farsieraz, bere gustuko hitza (101-003/024)

Hiztegiko azken hitza, "101 hizkuntza" farsieraz. Gustuko hitza ere esan du.

19. Behi baten inguruko kanta, persieraz (101-003/026)

Haur kanta bat persieraz (farsieraz), umetan aitak erakutsitakoa.

20. Lan bila etorri zen Euskal Herrira (101-188/003)

28 bat urterekin etorri zen Euskal Herrira.

21. Lanean aritzeko ikasi zuen euskara (101-188/004)

Nagusiki lanean behar zuelako hasi zen euskara ikasten; hala ere, hizkuntza gustatu izanak gehiago ikastera bultzatu du.

22. Euskara desberdina Gernikan (101-188/005)

Iruñean euskara batura ohitu zen, baina Gernikan oso euskara desberdina topatu zuen, eta gehiago kostatu zitzaion.

23. Lagun euskaldunekin gaztelaniaz (101-188/007)

Lagunek, euskaldunak badira ere, Sararekin gaztelaniaz hitz egiten dute gehienetan. Batuan egiteko ohiturarik ez dute.

24. Erosketetan, tabernetan... euskaraz? (101-188/009)

Bizitza euskaraz egiten saiatzen da.

25. Euskaldunak itxiagoak (101-188/011)

Euskaldunak itxiagoak direla dio baina, behin jendea ezagututa, oso gertukoak direla.

26. Etorri bezain pronto integratu zuten lagunek (101-188/012)

Integrazioa.

27. Aisialdian gaztelaniaz (101-188/013)

Orokorrean lagunekin gaztelaniaz egiteko ohitura du

28. Norekin egiten duzu euskaraz? (101-188/015)

Ikaskideekin euskaraz egiten du beti, lankideekin ere bai, eta noizean behin, lagunekin.

29. Arraun taldean beti euskaraz (101-188/017)

Arraunari eta arraun taldeari buruz dihardu Sarak.

30. Lagunartean euskaraz? (101-188/019)

Kuadrilan gehienak euskaldunak badira ere, badago euskaraz ez dakien baten bat. Honek kuadrillako hizkuntza ohituretan eragiten du.

31. Gazteen hizkuntza ohiturak (101-188/021)

Gernikako eta Bilboko egoera desberdinak direla dio. Gernikan giro euskalduna dago eta gazteek euskaraz egiten dute; Bilbon, ordea, ez hainbeste.

32. Euskara indartzeko neurriak (101-188/022)

Instituzioen aldetik euskarari babes eta garrantzi handiagoa eman behar zaiola uste du Sarak.

33. Kuartela "barrio Chino"n; urriaren 12ko ospakizunak (GER-001/013)

Bere lehengusinak kuartela garbitzen ibili ziren. Kuartela "barrio Chino"n egon zen, gaur egun Uribitarte kalea. Hiru eraikin, hiru kolarrekin egon ziren; erdiko kolarra zen kuartela eta beste biak "Industrias Gernika"ko beharginen etxebizitzak. Etxe aurrean Pilarreko Ama Birjinaren egunean soinua-eta egoten zen dantzarako. Guardia Zibilekin harreman ona izan zuten, guztiz integratuta zeuden herrian.

34. Zorrozuanekeo taberna (GER-001/014)

Ezkongabe etortzen ziren guardia zibilak Zorrozuanekeo tabernan hartzen zuten ostatu; Onaindiakoek etxearen alderdi batean zegoen taberna hori. Taberna non zegoen azaltzen du eta inguruan zegoena ere: Otazuaren etxea, zerrategia... Guardia Zibilek nahiz eta herrian integratuta egon ez zuten euskararik ikasi.

35. Juan Kaltzada eta Kaltzada egoitza (GER-001/016)

"Barrio Chino" izena nondik datorren ez dakiela dio. Gaur egungo Juan Kaltzada kaleak "Asilo Calzada" izena zuen "Señorio De Vizcaya" izan aurretik, Juan Kaltzada egoitza eraikitzekeo dirua eman zuena ajangiztarra izan zen. Kanpotik ibili zen, eta dirua egin zuenez babestokia (asiloa) eraiki zuen, beranduago bihurtu zen zaharren egoitza; hala ere, mojak beti egon dira. Unada batean umeak ere egon ziren bertan, umezurtzak.

36. Bonbardaketa osteko udaletxea (GER-001/020)

Seber Altuberen txaleta bonbardaketa ostean bihurtu zen udaletxe inguru hura zutunik gelditu zen-eta. Altubetarrak Pauen (Frantzia) egon ziren. Etxea errekuperatu zuten bueltatzerakoan baina, urte batzuetara saldu egin zuten.

37. Seber Altubek irakatsitako kanta (GER-001/022)

Seber Altubek eta bere emazteak, doña Gregoriak, ez zuten seme-alabarik izan. "Taberna Vasca"n hartu zuten ostatu; "Taberna Vasca" non zegoen azaltzen du. Bere familiak hartu-eman handia zuen Seber Altubenarekin. Oraindik gogoan du Altubek irakatsitako kanta bat; Elisabete izeneko iloba bati egindako abestia. Abesti hori kantatzen du pasarte honetan Maria Doloresek.

38. Seber Altuberen ekarpena (GER-001/023)

Seber Altube arrasatear musikologoa zen, Gernikako bandakoa zuzendaria. Bere emaztea, doña Gregoria, zen bertakoa. Gernikako Marijesietako hainbat bertso berak idatzitakoak direla dio. Beraien iloba Elisabetek mojatza utzi eta Seber hil arte Arrienen egon zen ostatu hartuta. Ortusantuko panteoia ere dotorea dutela dio, piano-jotzaile eta guzti.

39. Gizarte Etxeko lurrak (GER-001/024)

Seber Altuberen emazte zen doña Gregoriaren familiaren lurretan dago Gernikako Gizarte Etxeko zati bat eraikita. Beste zati bat Gangoitiarren parrokiari eman zien. Goienkale aldekoa zen beraiena, Frantseskalekoa (Azokakale) beste bi familiarena zen.

40. Gernikako banda eta Segundo Olaetaren akademia (GER-001/025)

Don Fernando Bizkarra parrokoa Paura (Frantzia) joan zen Seber Altuberengana lurren jabetza eskatzera. Bere emaztearen familiako batzuk ostera beraien zatia parrokiari eman zioten. Sasoi hartan Gernikako banda oso garrantzitsua zen; gizonezkoen banda zen. Segundo Olaetak gerra aurretik umeentzako musika-akademia zuen. Bandako entseguak mutilen eskoletan egiten zituzten, "Taberna Vasca"ren aurrean.

41. Olaetarrak Frantziara (GER-001/027)

Olaetatarrek Frantziara egin zuten alde; Elai-Alai dantza-taldeko neska-mutikoak hartuta egin zuten ihes. Gernikar asko ei daude Olaetatarrekin Frantzian egondakoak. Apurka-apurka etxerantz bueltatzen hasi ziren; lehenengo ama bi alabekin, eta beranduago, Segundo bera gainerakoekin.

42. Kaltzadako babes-etxea eraikitzeke dirua Kaltzadak eta Gangoitik emana (GER-001/029)

Seber Altuberen emaztea, Gregoria Gangoiti zen. Gangoiti familiak ere Gernikari ekarpen handia egin zion, gaur egungo Kaltzada egoitza eraikitzeke dirua eman zuen Juan Kaltzadarekin batera. Sasoi hartan babes-etxea zen eta beraien aitak baldintzapean eman zuen dirua, bere alabek behar izanez gero bertan bizi zitezen.

43. Otazuaneke eskola I (GER-001/030)

5 urtegeaz hasi zen Otazuaneke eskolara, bonbardaketaren hurrengo urtean. Bitoria Otazuak gela handi bat zuen azken solairuan, eta bera eta Otazuatarren iloba bat ziren neska bakarrik. Beranduago beheko aldean jarri zuten. Maria Doloresek dio, Gernikan ez dagoela bere sasoiko mutilik eskola horretan ibili ez denik. 9 urtegeaz Arenetik Kaltzada egoitza aurreko etxera bizitzera joan zirenean hasi zen karmeldarretara joaten. Bitoria Otazua eta bere ahizpa, Teresita, ziren Otazuaneke maistrak.

44. Otazuaneke eskola II (GER-001/031)

Erdaraz ikasi zuten dena, nahiz eta eskolatik kanpo beraiekin ere euskaraz egin. Eskola zelakoa zen azaltzen du; entziklopedia bakarrarekin ikasten zuten.

45. Karmeldarren eskola (GER-001/032)

Bederatzi urtegeaz karmeldarretara joan zen 15 urtera arte. 15 urtegeaz Makalagaz hasi zen mekanografia, takigrafia eta kontabilitatea ikasten. Karmeldarretan neskek eta mutilek banatuta ikasten zuten, mutilentzako "Hermana Josefa" eta "Hermana Bitoria" gaz beheko solairuan zeuden bi gela. Goiz-arratsaldeko ordutegia zuten Santiago egunera arte. Domeka eta eguen arratsaldea izaten zuten jai bakarrik. Zein oporraldi izaten zituzten azaltzen du. Hiru-lau mojek ematen zizkieten ikasgai guztiak. Gehiago ikasi nahi

zutenentzako bazeuden aparteko ikasgaiak ere, "clases de lujo" deiturikoak: musika, marrazketa eta pintura, takigrafia eta mekanografia, frantsesa eta ingelesa. Inguruko herrietako neskatilak ere hurbiltzen ziren bizikletaz.

46. Karmeldarren eskolan desberdintasunak ordaindu edo ez (GER-001/033)

Barneko ikasleak (internoak) ere bazeuden; bertan bazkaltzen zutenek osterara, "media pensión" zuten. Diru aldetik bi zatitan banatzen zen: debaldekoa eta ordaintzekoa. Ordaintzen ez zutenentzako azkeneko solairuan bi gela zeuden; "Hermana Eusebia" arratiarra txikienekin eta "Hermana Maria" bermeotarra nagusiagoekin. "Hermana Eusebia" k kapilau beharrak ere egiten zituen. Ordaintzen zutenen eta ordaintzen ez zutenen artean ezberdintasun nabarmenak zeuden: batzuk uniformeak besteek ez; kaperan batzuk aurrean, besteak atzean; ordaintzen zutenek jai-egunetarako belo zuriak zituzten, besteek ez; Konfesatzeko, don Pedro Aboitiz atzeko konfesategian jartzen zen ordaintzen zutenentzat, eta sakristia ondokoan don Kandido Orbegozo, Santa Klarako bikarioa, debaldekoentzat.

47. Karmeldarrak 15 pezeta hileko; hileko lehenengo barikuan mezetara (GER-001/034)

Adinaren arabera ordaindu beharrekoa ezberdina izaten zen; bera hasi zenean 15 pezeta ordaintzen zuten hileko. Aparteko ikasketak aparte ordaindu behar izaten ziren, berak pianoa jotzen ikasteagatik 10 pezeta ordaintzen zuen hileko; "Hermana Carmen Abasolo" gaz ikasi zuen pianoa jotzen. Klase-orduetan ez ziren mezetara joaten, hilaren lehenengo barikuetan joaten ziren mezetara klaseak hasi orduko, zortzietan. Gure Jauna hartzeko gaueko hamabietatik baraurik joan behar zenez, meza ostean armozua hartzera etxera joan eta eskolara bueltatzen ziren.

48. Karmeldarretan berogailurik ez (GER-001/036)

Karmeldarretan ez zuten sekula berogailurik izan. Kristalez banandutako bi klaseren erdian estufa bat zuten; lei asko egiten zuten egunetan sotora bajatzen ziren sokasaltoan edo korrika egiteko.

49. Denetariko mojak (GER-001/037)

Denetariko mojak zeudela dio. Ama hil zitzaionean euretako bat berarekin oso txarto portatu zen, bertara interna moduan edo "media pensión" moduan joatea gura zuelako eta Maria Doloresen etxean ezetz esan zuten. Ordutik aurrera moja galiziar harekin ez zuen harreman onik izan.

50. Olgetan: "etxekas", sokadantza, tronpan, "alinke" (al inque), "tio vivo", diaboloa... (GER-001/040)

Umetan zertan jolasten zuten kontatzen du. "Etxekas" era olgetan zuten neskek, ezkaratzeko eta etxeko lanetan jolasten. Umetan guztia zen guztiena. Sokadantzan, tronpan eta "alinke" (al inque) ere aritzen ziren mutilekin; "alinke" zelan den kontatzen du. Mutilek "tio vivo" a egiten zuten eta txakur txiki bat ordaindu behar zieten ibiltzearren, baina labaintzeko xaboi zatia eramanez gero buelta bat debalde zen. Diaboloa ere izaten zuten. Sokadantzan nagusitan ere ibiltzen ziren Pasealekuko erromeria garaietan, mutil zein neska. Gehienetan mutilekin batera jolasten ziren. Pilotan eta tabaka ere ibiltzen ziren.

51. Olgetan: Tabaka eta "Guardias y ladrones" (GER-001/041)

Tabaka zelan jolasten den azaltzen du pausuz pausu erabiltzen diren berba guztiak aipatuz. Gehienetan neskek baino ez zuten jolasten tabaka. "Guardias y ladrones"era ere jolasten zuten, jolasa zelan den azaltzen du.

52. Mazarredo jauregiko eta liburutegiko zinema (GER-001/042)

Bere lehengusu Jose Luisek zinemarako makina erosi zuen eta domeketan pelikulak ikusten zituzten. Anbulatorio ondoko Mazarredo jauregiko gela handi batean ematen zuen eta gero liburutegian; txakur handi bat ordaintzen zuten sarrera. Kepa Urrutia egoten zen sarreran eta askotan ordaindu barik uzten zion sartzen. Gizarte Etxean zinema zabaldu arte egon zen zinema hori.

53. 41 urtez beharrean (GER-001/043)

Gizarte etxeko zinema 1959an eraiki eta 1961an inauguratu zuten; hasieran txartel-saltzaile legez aritu zen eta gero zuzendari moduan. 1959an hasi zen Andra Mariako parrokian beharrean bertako kontuak eramaten eta handik joan zen zinemako txarteldegira; bertan egon zen 64 urtera arte jubilatuta arte.

54. Zinema bost ministeriok kontrolatzen zuten (GER-001/045)

Bere ordez zineman hasi zenari erakusten ibili zen hasiera batean, lana ez baitzen oso sinplea; bost ministeriok kontrolatzen zuten zinema-eta. Gizarte etxeko zinema zarratu ostean Lizeokoa zabaldu zuten eta bertako beharginak ere bertara joan ziren.

55. Zinemaren lehenengo pausoak (GER-001/047)

"Los diez mandamientos" izan zen Gizarte Etxeko zineman emandako lehen pelikula; 8-10 egunez eman zuten aretoa topera betetzen zen-eta. Astelehen, martitzen, zapatu eta domekaz ematen zen; batzuetan hiru sesio eta beste batzuetan bi. Sarrerek 3 pezeta eta erdi balio zuen, umeek apur bat gutxiago ordaintzen zuten 5-6 erreal inguru. Azkenengo ilaran bi eserleku erreserbatuta egoten ziren plaka eta guzti alkatea eta bere emaztearentzat; derrigorrezkoa zen neurri hori, baina azkenerako ez zen erreserbatzen. Alkateak ere berdin-berdin ordaindu behar zuen sarrera.

56. Pelikulen sailkapena; ikuskarien kontrola (GER-001/048)

Pelikulek sailkapen ezberdina zuten: "1", "2", "3", "3R" eta "4"; "3R" eta "4" ez zuten ematen. Frankismo ostean desagertu zen sailkapen hori. 14 urtera artekoak bakarrik "1" eta "2"-ra sartu zitezkeen. Ikuskariak harrapatuz gero isuna jasotzearen arriskua zegoen; bestelako akatsik eginez gero jasotzen zen isuna "acta de infracción" delakoaz. Behin pelikularen izenburua txarto idazteagatik jaso zuten 2.000 pezeta inguruko isuna. Tiloetako zinemakoek behin 10.000 pezetako isuna jaso zuten. Txartel-saltzailearen jornala hileko 2.100 pezetakoa zen.

57. "Fides Norte" (GER-001/049)

Bizkaia eta Gipuzkoako parroketako zinemak "Fides Norte" delakoan egon ziren batuta. Kooperatiba bat modukoa zen, beraiek arduratzen ziren areto

guztietako ikuskizunez. Pelikula arrakastatsua izanez gero irabazien %40a banatzaileei eman behar izaten zitzaion; banaketako kontrolekoak sarreran egoten ziren zenbat jende sartzen zen kontrolatzen. Gernika-Lumon nahiz eta 3 zinema-areto egon, askotan betetzen ziren.

58. Zinema askotan betetzen zen (GER-001/050)

Domeketan txarteldegia eguerdiz zabaltzen zuten, meza irteeran arratsaldeko txartelak erosten zuelako jendeak; telefonoz ere saltzen zituzten. Aretoa betetzen zenean sarritan goiko palkoa ere betetzen zen, inoiz ez zuten ikuskaritzakoek harrapatu.

59. Euskarazko pelikulek ez zuten eskabiderik (GER-001/051)

Diktaturak ez zuen eraginik izan pelikulen aukeraketan. Beraiek ez zuten euskarazko pelikularik eman, gehienbat eskoletara zuzendutako programetan ematen ziren, baina beraiek ez zuten antolatzen. Ez zegoen euskarazko pelikulen eskabiderik; behin ekarri zuten eta 4 pertsona baino ez ziren agertu, gehiago ez zuten ekarri horrelakorik. Jendeak gaztelaniaz asko berbetan zuela dio.

60. "Sardina freskue" esatearren 2 pezetako isuna (GER-001/052)

Euskara ez erabiltzearen errua euskaldunona da bere ustez. Behin bermeotar arrain-saltzaile bati "sardina freskue" esatearren 2 pezetako isuna ezarri zioten. Arraina dozenaka saltzen zuten, otzara buruan zutela etortzen ziren.

61. Pelikula eman aurretik udaletxetik pasatu behar (GER-001/053)

1961ean Gizarte Etxeko zinema zabaldu zutenean Isaias Zabala zen alkatea, beranduago Gervasio Gezuraga "Litri" izan zen. Pelikula eman aurretik, goizean, udaletxera eraman behar izan zituzten pelikula horren datu guztiak, paper guztiak zigilatzeke eta artxibatzeko. Ikuskariari ere udaletxetik pasatutakoa zela erakutsi behar zitzaion.

62. Eskola nazionalak eta bertako maisu-maistrak (GER-001/055)

Eskola nazionalak, pasealekuko eskolak, bi eraikinetan banatzen ziren, mutilen aldea eta neskena. Doñaldea, Florencia, Josefina Unamuno maistrak aipatzen ditu. Mutilen alderdia Taberna Vascaren aurrekoa zen, eta bertako maisuak don Mauro Galateñ, don Feliciano Uribarren eta don Manuel Alonso izan ziren. Eskola publikora gernikarrak baino ez ziren joaten. Eskolen goiko partean bi etxebizitza zeuden: nesken alderdian alderdi batean 'Petroleo' ezizeneko bat, adbitrioa kontrolatzen zuena eta aguazil bat bizi ziren; eta, bestea aldean ere, aguazilak bizi ziren. Maisu-maistrak kanpotik etorritako ziren; hala ere, don Manuelek euskaraz oso ondo egiten zuen berba.

63. San Juan Ibarra (GER-001/057)

"Conde Monte Fuerte"-ren jauregia San Juan Ibarran zegoen. Bonbardaketan etxe hori erasotu zuten eta erdi suntsituta geratu zen; hala ere, bonbardaketa ostean bi familia-edo etxe horretako sotoan egon ziren ezkutatuta. Maria Doloresen amak han ondoan zuen ontzi-denda eta janari-denda, 21 urte bete

zituenean zarratu zuten denda. Denda hori gerra aurretik Ezenarro garajea zela dio, bere amak bonbardaketa ostean zabaldu zuen denda. San Juan Ibarren horrelako etxe gehiago zeuden: Katarronekoa eta don Jesus Toñarena.

64. Arana kondea (GER-001/059)

San Juan Ibarreko "Conde Arana"ren jauregian babeslekua zegoen; eta, antza, bazekiten han bazegoela zerbait, bonbardatu egin zuten-eta. Bonbardaketa ostean kondea eta bere emaztea beste etxe batera joan ziren. "Condes de Montefuerte" ere egon ziren, odolekoak, baina antza Aranatarrek titulua erosi egin zuten.

65. Allende Salazartar Montefuerte kondea (GER-001/061)

"Conde Montefuerte"-eta Madrilen bizi ziren, eta udarako etortzen ziren. Bere emazte doña Rita Alfontso XIII.aren senitarekoa-edo zen., titulu askoko pertsona ei zen. Konde horren abizena "Allende Salazar" zen, hortik datoz gaur egun ezagutzen ditugun eskolaren eta kalearen izenak. Kondearen lehengusu batek anbulatorio aurrean ere beste jauregi bat zuen.

66. Bere ama Montefuerte kondearen jauregiko dontzeila (GER-001/062)

Maria Doloresen ama Montefuerte kondearen jauregian egon zen neskame, dontzeila legez, ezkondu zen arte. Gernikan igarotzen zituzten egonaldietan bere ama ere bertan bizi zen. Bere amak denetariko lanak egiten zituen. Kondesak beharginak oso ondo tratatzen zituela dio. Udetxea jauregikoak ere Allende Salazartarrak ziren, beraien lehengusuak.

67. Mendatako eskola (GER-002/002)

Eskolara joateaz gain eta etxean egin beharreko lanak egiteaz gain, pilotak egitea zen euren entretenimendua. Lau senideen artean hirugarrena da bera. Eskolara Mendatara joaten ziren, bi edificzio zituen eskolak, neskena eta mutilena.

68. Elizpean pilotan mutilak, neskak tabaka (GER-002/003)

Baloirik ez eta pilotekin jolasten zuten elizpean, frontoirik ere ez zegoelako. Paperean bildutako zimeldutako naboekin ere jolastu izan dute futboleant. 1962-1963 inguruan egin zen frontoia. Mutilak elizpean pilotan edo karrerak egiten, eta neskak "tabaka" ibiltzen ziren. "Kubike" neskak eta mutilak elkarrekin jolasten zuten, ezkutaketan jolastearen antzekoa omen zen.

69. Tronpa txapelketak (GER-002/004)

Tronpekin ere jolasten zuten, egun eskuz eginikoak dauden arren, orduan makinekin egiten zituzten. Tronpa txapelketak egiten ziren, kanpotik ere etortzen zen jendea lehiatzera, Erreterria auzoko mutil bat omen zen oso noa tronpan. Parte-hartzaile denak mutilak izaten ziren, neskak begira zituztelarik. Sekulako ikusmira sortzen zuen, plaza goraino beteta egoten zen. Elurrez beteta bazegoen frontoia edo plaza, palarekin kendu, zerrategitik zerrautsa ekarri eta horrela lehortzen zuten.

70. Frontoi zaharretik Jai Alaira, ikusmira handia eta apustu ugari (GER-002/005)

Frontoi zaharra "Bar frontoia" zenaren aurrean zegoen. Urriko azken astelehenean Retegi I eta Gorostiza aritu izan ohi ziren pilotan, jendetza

biltzen zen. Onaindia gernikarra ere aritzen zen, oso ona omen zen. Diru asko jokatzeko zen orduan, batez ere frontoi berrian, Jai Alaien. Apirila eta Urria artean larunbat, igande eta astelehenero topera egoten zen Jai Alai, zestalariak ikusteko, neguan zestalari onek Miamira-eta alde egiten zuten. Sarrerak zortzi duro inguru balio izaten zuen, eta emakumeek ere bazuten ohitura frontoira joateko.

71. Gernika eta Durangoko frontoiarekiko zaletasuna (GER-002/006)

Txurruka pilotari mutrikuarra lagun handia du, egun Ameriketara bizi da. Pilotari euskaldun batzuk Ameriketara pilotan jokatzera joan eta bertan geratu ziren, asko gaur arte. Durangarrak ere abilak ziren pilotan, behin erronka jo zieten gernikarrei, eta dirutza jokatu zuen jendeak, baina azken momentuan atzera egin zuten durangarrek. Gernikan garai hartan aberastasun handia zegoen, jendeak dirutzak jokatzeko zituen frontoian. Bilbon bizi zen galiziar bat ere bazen, apustuzale amorratua.

72. Durango, Markina eta Miarritzera frontoira (GER-002/007)

Durangora eta Markinara ere joaten ziren frontoira, zestalarien partidak ikustera, eta askotan partida ostean bertan gelditzen ziren parrandan. Urrunago ere joan izan ziren, Miarritzera, esaterako. San Mamesa ere sarri joaten ziren futbola ikustera.

73. Idi-probak utzi eta harategira lanera (GER-002/008)

Idi-probatan ibilia izan da, 18 urterekin egin zituen bi proba, idiekin eta astoekin, amari esan zion ez zuela nahi gehiago egiterik. Ez zen dirurik mugitzen idi probatan. Amari esan zion harakin izan nahi zuela, Luis harakinak deitu zion eta bere harategian ikasi zituen harakin lanak. Soldadutzan bi urte igaro ostean lanera itzuli zen Luisen harategira, 1960. urtean plazan bere harategia jarri zuen arte. 67 urterekin jubilatua zen, harategia familiako inork hartu nahi ez zuenez, errege biharamun batez itxi zuen harategia.

74. Harategia itxi eta lokala errentan (GER-002/009)

Harategia itxi zuenetik errentan izan du lokala. Harategiko materiala saldu, oparitu edo zakarretara bota zuen. Garai hartan Gernikan hamar harategi zeuden, eta 18 egotera ere iritsi ziren, gaur egun gutxiago daude.

75. Ganadu eta txerri tratua (GER-002/010)

Gernikan harakin ugari ziren garai hartan. Harategia emaztea eta bere artean atera zuten aurrera, Ajangiz, Munitibar, Ibarrangelu eta beste hamaika herritan bezeroak zituztelarik. Bezeroak hiltegiara joaten ziren, bertan txahala hil, pisatu eta txartela ematen zieten, horrekin harategira joan, ordaindu eta haragia etxera eraman ahal izateko. Ganadua baserri askotan egoten zen orduan, baita txerriak ere, txerri-bodatara joan ohi zen txerriak hiltzen laguntzera baserritarrei.

76. Harategiari lotutako bizimodua (GER-002/012)

Mila kilo haragi saltzen zituen astean, lau txahal, oso bezero onak ziren gernikarrek. Lapikokoa saltzen zuen gehienbat, zankarroia, hezurrak... Udan haragi gehiago saltzen zuen neguan baino, uda pasatzera etorritako kanpotarrei, eta abar. Lauretan edo bostetan jaikitzen zen egunero, eta

gauetan hamarrak arte ere egiten zuen lan, emaztea, Pantxike Legarra, lehenago joaten zen etxera.

77. Zigorak nonahi: elizan eta eskolan (GER-002/013)

Eskolan mutilek maisu valentziar bat izan zuten, falangista bera. Euskaraz eginez gero 20 minutu pasa behar izaten zituzten hormaren kontra. Bera eta beste bi lagun bihurriak ziren oso, apaizarekin izandako tirabira baten harira maisuak aste osoan errekreio gabe utzi zituen.

78. Elizan monagilo eta maiordomo lanetan (GER-002/014)

Apaiza bertakoa zen, Don Jose Gorroño, pilotan beraiekin aritzen zen. Monagilo ibili zen elizan, baita maiordomo ere, dirua batzen, apaizak gailera batzuk ematen zizkien jateko. 15 urte ingururekin, dirua irabazten hasi zirenean, gailetak anis eta koñaketan bustita jaten zituzten lagunartean, pilotan jolastu aurretik.

79. Albaitarien bisitak hiltegia (GER-002/015)

Urtebete egin zuen Gernikako hiltegia joaten harakin lanak ikastera, txakur txiki bat kobratzeke. Gernikako hiltegia ixtean, inguruko denek Durangoko hiltegia joan behar izaten zuten. Goizetan albaitariak hiltegia bisitatzen zuten, ganadua egoera onean zegoela ziurtatzeko. Behiak idiskoagana eraman beharrean, albaitariak injektatzen zieten semena.

80. Harategiko zorren kitzatzea (GER-002/016)

Hilabete amaieran komeriak izaten ziren askotan, bezero oso finak ziren batzuek, harategian zorretan gelditu arren dirua lortu orduko zorrak kitzatzen zituztenak, eta dirua izan arren ordaintzen ez zutenak ere bazeuden, denetik zegoen.

81. Bonbardaketaren eguna, arrosarioa errezatzen eta leihotik begira (GER-002/018)

Zazpi urterekin hasi zen eskolan, Gernika erre eta egun gutxira. Goizeko bederatziak inguruan hasi ziren aeroplanoak pasatzen, beraiek etxe barruan amarekin arrosarioa errezatzen zeuden bitartean. Etxetik ikusten zuten nola erretzen zen Gernika. Mendatako jende asko hil zen, euren etxea ere errekitatzekoak ziren, baina azkenean libratu egin ziren.

82. Bonbardaketa ondorena eta gerraostea (GER-002/019)

Bonbardaketa ostean Gernikara joan zen aitarekin, txahal bat eramatera saltzeko, eta Gernikak sutan jarraitzen zuen, hildakoak omen zeuden hondakinen artean. Soldaduak plaza zaharrean jarraitzen zuten, gerraostean gerrako atxilotuek egin zuten plaza zaharra, baita Sukarrietatik Bermeora doan bidea ere.

83. Harakin Gernikan eta Melillan, soldadutzan (GER-002/020)

Zazpi urtetatik 14 urtera arte ibili zen eskolan, gero baserrian aritu zen lanean, hamazazpi urte bete arte, 17 urterekin harakin izateko ikasten hasi zelarik. 1951n joan zen soldadutzara, 16 hilabete egon zen Melilla inguruan soldadu, eta 16 hilabetetik 15 soldadutzako harakin moduan igaro zituen.

84. Gabonetan, baimenarekin soldadutzatik etxera (GER-002/021)

Teniente koronelak galdetu zionean ea zerbait behar ote zuen, gabonetan etxera itzultzeko baimena nahiko lukeela erantzun zion, eta 50 egun igarotzera itzuli zen Gernikara. Gero, fraide bati egindako enkarguak zirela-eta, beste 40 egunetarako baimena eman zien, eta orduz gero ez zen itzuli soldadutzara.

85. Soldadutzako abenturak (GER-002/022)

Soldadutzan ilea moztu zien. Gernikako festako zirela-eta mozkortu egin ziren kuadrillan, etxetik urrun egon arren ospatu nahi zutelako, eta bertakoren batekin izandako liskarra kontatzen du.

86. Soldadutzan euskaldunak harreman ona elkarren artean (GER-002/023)

Janari aldetik eskas ibili ziren soldadutzan. Euskaldunak ia denek zuten arduraren bat bertan, oso ondo moldatzen ziren euren artean, larunbatero taberna batean elkartzen ziren, eta izugarritzko parrandak egiten zituzten. Elkartzen zirenetan euskaraz aritzen ziren elkarrekin.

87. Elizaldeko erromeriak (GER-002/024)

Mendatan erromeria ederrak egiten ziren, Elizalde auzoan, inguruko herri eta auzoetatik jende ugari joaten zen Mendatara. Hasiera batean alkateak ez zuen uzten dantzarik egiten, baina alkatea aldatu orduko aldatu zen hori ere, apaizari bost axola zitzaion baltsean aritzen ziren ala ez. Inguruko herri eta auzoetako ia denak ezagutzen ditu, harakin lanetarako ganadua erostera baserriz baserri joaten baitzen.

88. Mendatako jaiak eta jaietako jantziak (GER-002/025)

Erromeria egunean edo igandetan txukun jantzita irteten ziren: 'mil rayas' galtzak, zapatila zuriak, alkondara koadroduna, etab. Mendatan zortzi eguneko festak egiten zituzten, eta gauero egoten zen erromeria. Mutilek pezeta bat ordaindu behar izaten zuten dantzan egiteko, eta koloretako txapa bat ematen zieten, neskek dohainik egin zezaketen dantza.

89. Zahagi mutilak jaien arduradun (GER-002/026)

Zahagi-mutilek jaietako kontuez arduratu behar izaten zuten, udalak ere diruz laguntzen zuen, behin Albizeko kondeak ere egin zuen ekarpen ekonomikoren bat.

90. Albizeko kondea (GER-002/027)

Albizeko kondea madrildarra zen, Albizen lurak zituelako deitzen zioten hala. Uda Albizen igarotzen zuen familiarekin. Bere bezeroa izan zen urteetan zehar, haragi asko erosten zion udan.

91. Galtzontzilo karrera Gernikako jaietan (GER-002/028)

Gernikako jaietan galtzontzilo karrera egiten zen, frontoitik hasita. Goizeko ordu biak edo hiruak aldera izaten zen. Neskak begira egoten ziren ondoan.

92. Tabako landareak baserrian (GER-002/029)

Soldadutzan hasi zen tabakoa erretzen, eta handik itzultzean puruak erretzen hasi zen, lau puru erretzen zituen egunean. Tabako landarea ekarri Gernikako plazatik eta baserrian landatzen zuten, udaberrian, abuztuan jaso, alanbreetan lehortzen jarri eta kutxilo batekin edo guraizeekin mozten zituzten orriak. Puruak eta zigarroak eurek egiten zituzten. Emakumeek ez zuten erretzen, baten batek agian.

93. Neska laguntzeak eta sagardogintza (GER-002/030)

Albizetik-eta joaten ziren neskak erromeriara Mendatarara. Gero mutilek kuadrillan neskei etxera laguntzen zieten askotan, oinez. Astelehenetan astoan edo gurdian eramaten zituzten berdurak plazara, sagar ugari zuten baserrian, onena 'reineta' sagarra omen zen, ondoen saltzen zena ere bai. Sagardoa eta txakolina egiten zuten baserrian, tretzan, eta botilaratu aurreko prozesua kontatzen du. Sagar gaziekin egiten zen sagardoa, beste sagar mota batzuekin nahastuta. Auzolanean egiten zuten, familiakoen eta auzokoen artean.

94. Txakolina mahastietatik botiletara (GER-002/031)

Mahastiak ere izan zituzten baserrian, eta txakolina egiten zuten tretzan, sagardoa egitea baino errazagoa zen. Orduko txakolina oso garratza izaten zen, emakumeek ardorik ez, baina sagardoa eta txakolina edaten zuten.

95. Milizianoak baserriak errekiatu arren, auzolanean aurrera (GER-002/032)

Milizianoek auzoko etxe batzuek errekiatu eta ganadua eta tresneria ugari eramane zuten beraiekin. Aita inguruko baserrietako jendeari laguntzen ibiltzen zen, denen artean erosten zituzten behiak, ermandadearen bidez. Goserik ez zuten pasa, baserrian beti zegoen zerbait jateko, berdurak, taloa...

96. Garia eta artoa baserrian, errotara estraperloan (GER-002/033)

Ogia errazionamendukoa izaten zenez, taloa jaten zuten urdaiarekin, gosea engainatze aldera. Gari asko zuten baserrian, eta baita arto pixka bat ere. Inguruan hiru errota zituzten, gauzez joan behar izaten zuten estraperloan, milizianek ikus ez zituzten.

97. Sarramentara estraperloan (GER-002/034)

Aitarekin Sarramentara joaten zen goizeko hiruetan estraperloan. Txahalak gurdian jaitsi, eta kotxean bila zetozenek argiekin keinuak egiten zizkieten, jakiteko eurak zirela bila zetozenak. Estraperloa nonahi egiten zen, diru asko irabazten zen horrela, harrapatuz gero ordea, 1.000 pezetako isuna ordaindu behar izaten zen.

98. Auzolana eta elkartasuna herritarren artean (GER-002/035)

Lehen ez zegoen segururik baserrietan, herriak babesten zituen baserriak. Ermandadea ordaintzen zuten, eta erretako baserriek, ondasunak galdu zituztenek ermandadetik jasotzen zuten behar zutena, auzolanerako joera handia zegoen, auzokoen arteko elkartasuna handia zen.

99. Jaietan dantzaldiak eta idi-demak (GER-002/036)

Mendatako San Migel jaietan askotariko jolas eta dantzak izaten ziren: idi eta asto probak, baba zakuen altxatzea... Bertako eta kanpoko jendea ibiltzen zen horretan, eta diru asko jokatzen zen plazan. Gizon probak ere izaten ziren, bera ere ibilia da, 700 kiloko harria mugitu zuen 17 urterekin Gernikan.

100. Idi-demak (GER-002/037)

Frontoian diru gehiago jokatzen zen arren, idi-probatan ere diru asko jokatzen zen plazan. Idiei hanketan ferrak ipintzen zizkieten. Tranpa eta tongo ugari izaten ziren, epaileek harrapatuz gero deskalifikatzeko arriskua zegoelarik. Markina-Etxebarriko plazan zen onena idi-probatarako.

101. San Markos, harakinen eguna (GER-002/038)

San Markos izaten zen harakinen eguna, apirilaren 25ean. Harategiak itxita, inguruko harakinak elkartu, bazkaldu eta parranda ederra egiten zuten elkarrekin. Gernikako hiltegia itxi zen arte mantendu zuten ohitura hori.

102. Medikuak eta dentistak Gernikan (GER-002/039)

Patxi Urkiaga zen Mendatako medikua, gerora Gernikara joan behar izaten zuten medikuarengana, Don Pako Alegria zen sasoi hartan Gernikako medikua. Hiru hilabetero ordaintzen zitzaion medikuari, bere aita ibilia zen auzoan dirua batzen medikuari emateko. Dentistarengana Gernikara joaten ziren, garai hartan dentista asko ziren Gernikan.

103. Lanbide eta sindikatuak Gernika eta inguruetan (GER-002/040)

Sindikatuena berak harategia jarri eta geroko kontua izan zen Mendatan, gerora aita izan zen Mendatako sindikatuko presidente bost urtez. Notarioak baziren Gernikan, jostunak gutxi ziren baina sastreak asko, bizarginak ere baziren.

104. Gernikako banda (GER-002/041)

Panderojoleak eta soinujoleak bai, baina bandarik ez zegoen Mendatan. Gernikan bai, banda handia zegoen, igandero pasealekuko kioskoan jotzen zuen bandak.

105. Bataio, jaunartze eta ezkontzak (GER-002/042)

Bataio eta jaunartzeak Andra Marin egiten zituzten. Umeak jaio eta bi edo hiru egunera bataiatzen ziren. Bera Mendatan ezkondu zen, Albizen, urdinez jantzita eta emaztea zuriz. Jende asko egon zen ezkontzan, bazkaltzera Gernikara joan zirelarik. Eztei-bidaian Madrilera eta Sevillara joan ziren, 15 egun igarotzera.

106. Lehenengo bainua itsasoan 13 urterekin, Sukarrietan (GER-002/043)

Txahalak hiltzera Bermeoko hiltegira zihoazela ikusi zuen lehen aldiz itsasoa. 13 urterekin bainatu zen lehenengo aldiz itsasoan, Sukarrietan, eskolatik joanda, igerian bazekiten, ordea, Mendatako errekan eta presan ikasita.

107. Guardia Zibilaren koartelera haragia eramatera (GER-002/044)

Gernikako guardia zibilekin izan zuen traturik, Mendatara idi-dematara joaten zirenetik ezagutzen zituen. Behin harategira azaldu ziren gauez, eta ea koartelera haragia eramango lukeen galdetu zioten, berak baietz, kapitainarekin elkartu zen egun batean eta handik aurrera egunero joaten zen koartelera haragia eramatera, eguneroko bezeroak ziren.

108. Igel jokoak eta baserriko baliabideak (GER-002/046)

Mendatan ez zegoen bolatokirik, Markinan bai, baita Santa Eufemian ere. Mendatan igel jokoan aritzen ziren lagunartean, txikitoa nork ordaindu jokatzen zuten. Argia eta ura beti izan dute etxean, garbitokia zuten arropak garbitzeko, ganaduentzat... bestela errekarra eramaten zuten ganadua, etxe ondoan zuten-eta.

109. Letania inguruko hiru ermitatan (GER-002/047)

Inguruan San Juan, Santa Eufemia eta San Pedro ermitak zeuden. Lehen mezak izaten ziren bertan, baita letania ere. Apaizak urtean behin hiru ermitatan ematen zuen meza, koñaka, anisa eta gailetak banatzen zituzten eta erdi mozkortuta itzultzen ziren etxera.

110. Txerriak, idiak eta behiak (GER-002/048)

Txerriak hil eta gero, gatzetan mantentzen zuen haragia, gatz loditan. Auzokoen laguntza jasotzen zuen txahalak erditu behar zuen momentuan, behiak gaixotuz gero, ordea, al baitariak joan behar izaten zuen baserrira. Baztanga kasurik baldin balego, berrogeialdian egon behar, animalia zenbat hil ere egiten ziren. Idiak irendu egiten zituzten. Bera ez zen ehiza zalea, eskopeta bat oparitu zion lagun batek, eta lehengusu bati eman zion.

111. Idiei apatxak konpontzera ferrategira (GER-002/049)

Idi eta astoei apatxak konpondu behar izaten zitzaizkien, tenazekin, ferrategira eramaten zituzten horretarako. Ferrak ere jarri behar izaten zitzaizkien idiei, eta nola jartzen zitzaizkien kontatzen du Serapiok.

112. Basoko eta erreko animaliak (GER-002/050)

Behiei baba, garia, artoa, garagarra, zahia... ematen zieten jateko, lehen ez zegoen pentsu prestatuturik. Behiek, ahuntzak, akerrak, eta abar, "orroie" egiten omen dute, zaldiak irrintzi, astoak arrantza, oiloak "karkaxie"... Lehen basoan erbiak eta txoriak izaten ziren asko, basurderik ez, azkonar, basakatu eta katamixar gutxi, errekan berriz apoak.

113. Gaztetako bihurrikeriak (GER-002/051)

Barrabaskeria asko egindakoa da gaztetan, eskean joandakoak ez zituzten bakean uzten. Behin igandea kartzelan pasa zuen lagun batekin, alkatearen aginduz, akuiluarekin izandako istorio bat zela-eta. Eskolatik ere ihes egin izan zuten, eta arropa denak zikinduta itzuli.

114. Abarkak eta txapinak (GER-002/052)

Narruzko abarkak izan zituen berak, aitik dotoreak zituen, zuriak kordel beltzekin, igandetarako. Osabak egin egiten zituen abarkak. Abarketak ere bazituen. Izebak lanazko txapinak egiten zituen, lodi-lodiak.

115. Hiru maistra eskolan (GER-003/003)

Hamabi urtera arte eskolan ibili zen. Hiru maistra izan zituen: Anixita Ondabeitia, izena gogoan ez duen erdaldun bat eta Klara muxikarra.

116. Eskolako ibilerak (GER-003/004)

Eskolara zein auzotakoak batzen ziren kontaktzen du. Neska-mutilak elkarrekin egoten ziren. Ia kilometro bi egiten zituen oinez. Amak bazkaria ekartzen zien hiru semetxoei.

117. Dotrina eta arrosarioa euskaraz (GER-003/005)

Don Jesus Aldekoa apaiza izan zuten, gogorra. Dotrina eta arrosarioa euskaraz erakusten zizkien. Iluntzean eskolatik irtenda joaten ziren.

118. Mauma auzoko apaizak (GER-003/006)

Mauman bi apaiz egoten ziren: Don Rikardo, Maumako abadetxean bizi zena, eta Don Jesus Aldekoa, kendu zuten baten partez etorri zena.

119. Etxean egindako pilotekin jolasean (GER-003/007)

Umetako jolasa. Banderaka (zotz batekin), kubike (ezkutaketan), pilotan... Hariz etxean egindako pilotak erabiltzen zituzten. Pasaka, binan-binan... aritzen ziren.

120. Dultzainero eta danbolinjoleak erromerietan (GER-003/008)

Mauman San Lorentzo jaietan erromeria debekatu egin zuen apaiz batek eta Garaira joan ziren gazteak erromeria egitera. Elorrioko Larrinaga dultzaineroa egoten zen erromeria alaitzen eta Muxikako Ordorikakoak izaten ziren dabolinjoleak. Garaitik zuriz jantzita eta gerriko gorriarekin etortzen ziren mutilak.

121. Gerrako oroitzapenak: hegazkinak, soldaduak eta senideak (GER-003/010)

Gerrako kontuak. Hegazkinak hiru nola etortzen ziren Gasteiztik Gernikara oroitzen du. Abadiñotik etorritako senideak izan zituzten etxean hiru astez. Soldaduak orokorrean ondo portatu omen ziren beraiekin baina senideek ekarritako astoa eraman zieten. Geroago berreskuratu egin zuten.

122. Aita eta bera artzai (GER-003/011)

Aitak hirurehun ardi izaten zituen. Morroia, zaldia eta txakurrarekin Santo Domingoraino joanda dago bere aita ardiekin negua pasatzera. Goizean artzai eta ondoren eskola partikularretan ibili zen urte batzuek Lekeition. Urtean hiru hilabete pasatzen zituen han, urtarriletik martxora.

123. Artzain Ameriketara (GER-003/012)

1960an, hogeita hamar urterekin, Ameriketara joan zen, eta 1964an etorri zen bueltan, ezkontzera. Urte berean Ameriketara itzuli zen beste hiru urte eta erdirako. 1968an etxeratu zen. Hemen lan gutxi zegoen eta Ameriketara hiru urte eginda, etxe ona eros zitekeen Gernikan. Berak etxea egin eta lursaila erosi zuen.

124. Bizimodu ona Ameriketara (GER-003/013)

Bakarrik joan zen Ameriketara. Hotel Española heldu zenean, euskaraz hartu zuten. Ugazaba etorri zenean, arrantzora eraman zuen. Leku ona izan omen zen, berogailu eta dutxa eta guzti.

125. Ameriketatik bueltan (GER-003/014)

Ameriketako ugazabak emaztea eta semea bertara eramatea proposatu zion, baina ezetz erabaki zuen. Ugazabarekin eta senideekin harremana jarraitu du eta bere etxean izan ziren.

126. Mendian baino, arrantxoan (GER-003/016)

Anaiarekin batera ibili zen Ameriketara. Mendira ez zen joaten, beti arrantxoan egoten ziren.

127. Ameriketako ardiak probetxua (GER-003/017)

Ardi handiak izaten ziren Ameriketakoak. Artilea ere gehiago eta leunagoa izaten zuten. Zaku handietan eramaten zuten kamioietan. Bildotsetarako izaten ziren ardiak eta ez zieten esnerik kentzen.

128. Iloba ere Ameriketara artzain (GER-003/018)

Iloba eraman zuen Ameriketara eta ugazaba bertakoa hobe zela euskalduna baino aholkatu zion. Sute handi bat izan zen eta hesiak konpontzen ikasi zuen ingelesa.

129. Gernika ingurukoak Ameriketara (GER-003/019)

Gernikarrak asko ez baina ingurukoak asko joan ziren Ameriketara.

130. Etxekoekin gutunez Ameriketatik (GER-003/021)

Ameriketara egon zenean, gutunez komunikatzen zen etxekoekin eta neska-lagunarekin. Semea hiru urterekin ezagutu zuen Sondikako aireportuan. Ardiekin ateratako argazkiak bidaltzen zizkion andregaiari.

131. Ameriketatik bueltan, Dalia lantegira (GER-003/023)

Ameriketatik itzulita, Dalia lantegian hasi zen lanean. Erretiro ona duela dio.

132. Baserriko eta lantegiko lanak, batera (GER-003/025)

Lantegira orduko, behiak jetzi eta jatekoa emanda eta prest lagatzen zituen. Goizeko lauetan jaikitzen zen. Jubilatu zenean, esne-behiak kendu zituen.

133. Esnea saltzen (GER-003/026)

Esnea saltzen zuen, hasieran Gernikako gaztandegira eta ondoren beraiek kudeatzen zuten. Hirurogeita bost urterekin kendu zituen abereak. Lehenengoan eskuz eta gero makinaz jezten zituzten behiak. Makina nori erosi zion aipatzen du.

134. Dalia lantegian salmenta handiak (GER-003/027)

Dalia lantegian urte batzuetan salmenta handiak egiten zituzten, baita atzerrira ere. Alemaniak erosteari utzi zionean, beheraka hasi zen.

135. Dalia lantegia eta sindikatuak (GER-003/028)

Lehen lantegietan garrantzitsuena Astra zen Gernikan. Sindikatuak hasi berri ziren Dalian lanean hasi zenean eta berak ELAn eman zuen izena. Orduan izan ziren kaleratzeak aipatzen ditu.

136. Dalia lantegiko grebak (GER-003/030)

Zortzi orduz gain, ordu extrak egiten zituzten Dalia lantegian. Lanean beherakada izandakoan, grebak egiten zituzten. Behin hamabi egun lantegi barruan eman zituzten. Beste hainbat ekimen ere egin zituzten.

137. Emakumeen egoera Dalia lantegian (GER-003/032)

Dalian hasi zenerako, emakumeak ere bazebiltzan lantegian lanean. Emakume baten kontua aipatzen du. Emakume eta gizonen artean soldata desberdintasuna izaten zen. Zilarra eta aluminioa erabiltzen zituzten lanerako.

138. Mauma auzoko gertaerak gerra garaian (GER-003/033)

Durangoko bonbardaketarekin ez da akordatzen baina Gernikakoarekin bai. Lehenengo milizianoak eta ondoren erreketek pasatu ziren beraien etxetik. Frentea non egon zen kontaktzen du. Mauma auzoko hiru gizon afusilatzerara eraman zituzten baina barkatu egin zieten eta etxera bidali zituzten bueltan.

139. Gerraosteko murrizketa eta debekuak janariarekin (GER-003/034)

Gerra garaian goserik ez zuten pasatu baina irin eske etortzen zitzairen jendea urrutitik. Txerririk hiltzen ere ez zieten uzten eta garia eta laboreak entregatu egin behar izaten zituzten. Lehengusuaren errotara joaten ziren, denak gauez. Markinatik asto-ilarak etortzen ziren Oizetik behera.

140. Errazionamendua eta estraperloan ibili beharra (GER-003/035)

Errazionamendurako kartilla edukitzen zuten: olio, azukrea... hartzen zituzten. Non banatzen zuten kontaktzen du. Azokara saltzera joaten ziren baserritarrek hainbat salgai ezkutatu egin behar izaten zituzten, zaindarien ez harrapatzeko.

141. Aita estraperloan bildotsekin (GER-003/036)

Estraperloan ibiltzen ziren batzuk. Beren aitak bildotsak gauez Bermeora eraman zituela gogoratzen du. Anekdotak pare bat kontaktzen du.

142. Fermina emagina (GER-003/037)

Igorreko aguazila, Leon Aldai, gizon ona omen zen. Mauman ere emagin bat izan zen, Fermina, eta nor zen azaltzen du. Pasadizo bat kontaktzen du.

143. Don Juan medikua (GER-003/038)

Maumako medikua Don Juan izeneko bat zen. Anekdotak bat kontaktzen du. Bere arrebari apendizagatik ebakuntza nola egin zioten kontaktzen du.

144. Gernikako hiltegia (GER-003/041)

Gernikako hiltegia non zegoen aipatzen du. Herriarena zela uste du. Harakin askorekin izan du tratua. Izenak aipatzen ditu.

145. Idiekin gertatutakoa (GER-003/043)

Idiak Aixenbekon beti izaten ziren. Idiekin nola moldatzen ziren kontatzen du. Pasadizo bat kontatzen du.

146. Garoa saldu baina dirurik ez (GER-003/044)

Garoa saltzen zuten baina ez zuten dirurik ematen. Ortueta erabiltzen zen. Gurdikadak eramaten zituzten. Anekdotak bat kontatzen du.

147. Idi-probetan animaliei tratu txarra (GER-003/045)

Idi-probak ikustea gogoko zuen. Inguruko herrietatik zeintzuk ibiltzen ziren kontatzen du. Etxerako eta probetarako ez zen alde handirik izaten perretan baina zaintzeko moduan bai. Probetarako mozkortu ere egiten zituzten idiak.

148. Uztarrigilea Berriatuan (GER-003/046)

Uztarriak egiten Berriatuan egoten zen bat. Ez ziren garestiak izaten eta normalki baserritarrak berak eramaten zuen materiala.

149. Gernikako tindategiak (GER-003/048)

Trajearekin ezkondu zen. Emaztea ere jantzi dotoreekin ezkondu zen baina ez zuriz. Doluak bi urte inguru irauten zuen. Gernikan tindategiak non zeuden kontatzen du.

150. Gernikako tabernak (GER-003/049)

Gernikan 40. hamarkadan zeuden tabernak izendatzen ditu. Anekdotak bat kontatzen du.

151. Neska-laguntzen bizikletaz (GER-003/051)

Emaztea Gernikako pasealekuko erromerian ezagutu zuen. Neska-laguntzen bizikletaz ibiltzen zen. Hiru anaientzat bizikleta bakarra zeukaten etxean.

152. Lurgorriko jaiak (GER-003/052)

Urriko azken astelehenean, erromeriaz gain, idi-probak egiten ziren. Non zegoen kontatzen du. San Roke jaiak. Lurgorriko jaietan asto-lasterketak izaten ziren, txokor batzeak, zakua bizkarrean hartuta lasterketan...

153. Baserritarrak harizko frakekin (GER-003/053)

Baserritarrari janzkeran nabaritzen zitzaion ez zela kaletarra. Harizko frakekin ibiltzen ziren. Bere amak kanporako josten zuen.

154. Totorikaguena denda (GER-003/054)

Totorikaguena hasieran denda txikia zen baina handituz joan zen. Beste dendatxo bat non zegoen aipatzen du. Makina bat dantza egin eta ikusitakoa da.

155. Morroi bi etxean (GER-003/057)

Morro bi izaten zituzten etxean, bata arditarako, bestea etxerako. Aita gogorra zen. Morroi bat ihesi joan zitzaion eta ez zen bueltatu.

156. Fraidea gazta bila (GER-003/058)

Forutik Oizera gazta bila etortzen zen fraidearen kontu barregarria kontatzen du.

157. Aitak egindako abarkekin (GER-003/059)

Abarkak eta etxean egindako galtzerdiak erabiltzen zituzten. Aitak larruarekin egindako abarkak, lehorretan labanak eta bustitakoan gogorak izaten omen ziren. Nola egiten zituen kontatzen du.

158. Ama birjinaren ipuina eta sorginen desagertzea (GER-003/061)

Amak tarteka ipuinen bat kontatzen zien. Gogoan duen bat kontatzen du, ama birjinarena. Lehen sorginak irtetzen omen ziren baina pistolaren ondorioz galdu omen ziren denak. Bere aititak lapur batzuekin izandako komeriak kontatzen ditu.

159. Azeriak galdu zirenekoa (GER-003/062)

Bere aita gaztea zela, sute handiak izan omen ziren eta orduan galdu omen ziren azeri asko. Txakur galduren batzuek erasoren bat egin izan zieten ardiei.

160. Etxe inguruko baserriak (GER-003/064)

Etxe inguruko baserriak izendatzen ditu.

161. Oizen elurragatik gertatutako ispatripuak (GER-003/066)

Ardiekin Oizen zebiltzala, elurrak harrapatu zituen aita- seme batzuk. Semea gaixotu eta beste lau gizonak batu zituzten ardi haiek etxera. Oizen elurpean 18 ordu luzetan egondako mutila zatzetan sartu zuten berotzeko eta ondo irten zen.

162. Oizen eta Lekeition ardiekin (GER-003/067)

Ardiekin Lekeitiora joaten ziren abenduaren 1ean eta apirilaren azkenera arte egoten ziren. Lainoagatik ardiak topatu ezinda ibili izan zen Oizen.

163. Berorika apaizari, Gernikan lagunekin eta tabernan hika (GER-003/068)

Apaizari berorika egin behar izaten zitzaion Mauman, bestela, zartakoren bat jasotzen zuten eta. Gernikako apaizarekin itsu bati gertatutakoa kontatzen du. Lagunekin eta tabernan egin izan du hika. Etxean ez zuen asko egiten.

164. Maumako eta inguruko hizkerak (GER-003/069)

Inguruko hizkerak desberditzten direla dio. Berak Maumako hizkera duela dio.

165. Santa Ageda koplak (GER-003/070)

Santa Agedatan etxerik etxe ibilitakoa da. "Abestu daiogun Agate deuna..." kopla abesten du. Umetan "basatoste" egiten zuten, txitxiburduntzia.

166. Aita Oñatitik Arratzuko kanposantua egitera etorria (GER-004/002)

Bere aita hargina zen eta Arratzuko kanposantua egitera etorri zen, Gandariasen kanposantua egitera. Hiru behargin etorri ziren Oñatitik eta hirurak ezkondu ziren arratzuarrekin. Bere ama han ondoan bizi zen eta askotan egoten ziren bere etxean.

167. Loiolako eskolan mutilekin batera eta euskaraz (GER-004/005)

Loiolako eskolara joan zen. Mutilek "Juanita txuleta toca la corneta" egiten zien burla. Eskolan neska zein mutil maistra batekin egoten ziren, euskaraz ikasi zuten. Maistra eskola gainean bizi zen eta beraiek gelan geratzen zien hark etxeko lanak egiten zituen bitartean. Trapuentzako bainiak egiten zituzten. Eskolan gauza gutxi ikasi zutela dio.

168. Arrautzak saltzen: dozena 1 pezeta 1 (GER-004/007)

Gerra sasoiaren Gernikara etortzen ziren. 12 dozena arrautza ekartzen zituen eta 12 pezeta jaso, Jesusa erregatera bermeotarrari saltzen zizkion. Jesusa buruan otzara zuela joaten zen Gernikatik Arratzura oinez. Bonbardaketa egunean ere astelehen guztietan bezala, Gernikan etorri zen lehengusinarekin. Saldutakoarekin etxerako gauzak erosten zituzten: txokolata, kafea... Etxean ez zitzairen ezer falta animaliak eta zituztelako. Taloa eta morokila nahi beste jaten zuten.

169. Bonbardaketan bere lehengusinarekin umea hil zen (GER-004/008)

Bonbardaketak San Juan Ibarran harrapatu zuen. Bere lehengusina eta haren umearekin egon zen eta berak etxerako bidea hartu zuen. Baina lehengusinari eta umeari bonba bat gainera jausi, umea hil eta lehengusinak hanka zauritu zuen. Etxera Ajangiztik joan zen, bideak metrailatu egiten zituztelako.

170. Asturiar bat soroan lurperatu zuten (GER-004/009)

Arratzuko solo batean bonba bat bota zuten eta asturiar bat hil zuten bertan. Abadeari eskatu zien kanposantuan ez lurperatzeko eta soro batean ehortzi zuten, baina txakurrek gorpua atera zuten. Azkenean, asturiarrek beraien lurraldera eraman zuten.

171. Plaza Erreteriatik Gernikarako bidean egoten zen (GER-004/010)

Lehengusinak hanka zauritu zuen bonbardaketan eta Santoñara eraman zuten. Merkurio iturriaren inguruan zaldiak eta astoak egoten ziren. Bonbardaketa sasoiaren ez egon oraingo merkatu-plaza modukorik; Erreteriar bidean egoten ziren baserritarrak.

172. Autoa=Sakamastekas; Neba nagusia nazionalisten idazkaria zen (GER-004/011)

Lehen ez zen auto askorik ibiltzen; bakarren bat ikusiz gero, Sakamantekas zelakoan, ezkutatu egiten ziren. Bere neba zaharrena nazionalisten idazkaria zen eta kartzelara eraman zuten: lehenengo Larrinagara, eta gero Urduñara. Urduñatik langile-batailoietara eraman zuten. Bere senarra neba bisitatzerantz zihoan tren batean ezagutu zuen.

173. Bizikletak eta txahala konfiskatu zizkieten (GER-004/012)

Etxean bi bizikleta zituzten, bere nebak Gernikako eskolara joan zitezten, eta kendu egin zizkieten. Etxeke txahalik onena ere eraman zieten. Gernikara etortzeko Lorategietan uzten zituzten zapatilak; haraino abarketekin etortzen ziren.

174. 1936ko Santa Ageda eguneko argazkia (GER-004/015)

1936ko Santa Ageda eguneko argazki bat erakusten du. Argazkiak arratzuarrak agertzen dira ikurrina eta guzti. Juanitak hogei urte zituen.

175. Andrak tabernatara ez ziren sartzen (GER-004/017)

Tabernara sartzen zen andreak fama txarra izaten zuen. Mutilek hartzen zituzten kanikadun limonadak eta kanpora ateratzen zieten andrei. Bera ezkondu ostean sartu zen lehen bider taberna batera.

176. Erreterria zaharra (GER-004/024)

Erreterria auzoko etxeak aipatzen ditu. Lehen ez zegoen horrenbeste etxerik, solo asko zegoen.

177. Goserik ez; kafea eta txokolatea estraperloan (GER-004/026)

Sekula ez zuten goserik izan. Etxean egoten zuten etxean eta hori dela eta ez zuten goserik izan. Kafearen eta txokolatearen kapritxoa izaten zuten, eta Bilbotik zetozen estraperlistei hartzen zieten.

178. Karabiak eta labeko sua (GER-004/027)

Bere aitonak-eta karabiak egiten zituzten. Mendian karea egiten zuten soloan botatzeko. Bere amak labeko sua egiten zuenean, Arratzuko abadea joaten zen beraien etxera tremesaren bila.

179. Soldaduak eta guardia zibilak (GER-004/028)

Auzoko batek soldaduei bertako neskak gorriak zirela esan zien, soldaduak beraien bila ez ibiltzeko. Inguruko jendea asko joaten zen Arratzura eta inguruetara laguntza eske. Guardia Zibilak ikusten zituztenean, beldurtu egiten ziren.

180. Konfesatzen (GER-004/030)

Lehen jai guztiak ospatzen zirela dio. Fraideak eta abadeak kanpotik joaten ziren eta pulpitutik sermoi beldurgarriak ematen zituzten. Sagarrondo batetik sagar bat hartuz gero ere konfesatu egin behar izaten zuten. Konfesatzerakoan, mutilekin baltseoan-edo aritzegatik, abadeak buruko zapiak eta Hijas de María kongregazioko dominak kentzen zizkieten.

181. Gorpuzti E-guna; mezak (GER-004/031)

Gorpuzti Eguneko ospakizunetan sermoi ikaragarrik egoten ziren eta kanposantura prozesioa egiten zen. Arratzun mezak beti euskaraz izan direla dio. Sermoirako Zornotzatik etorritako fraideak joaten ziren.

182. Ezkontza eta ezkon-bidaia (GER-004/034)

Ezkontza etxean ospatu zuten, abadea eta jueza ere etxera joan zitzaizkien. Ezkon-bidaian Bartzelonara joan ziren trenez bere senarrak han hartu behar baitzuen itsasontzia Ameriketara joateko. Handik hilabetera Sevillara joan zen berriro ere senarrarengana.

183. Gaztetako arropak; depilazioa (GER-004/037)

Gaztetan arropa politak erabiltzen zituztela dio. Bere amaren sasoian gona luze-luzeak ziren eta ez zuten kulerorik erabiltzen. Arrazutik abejarketekin etortzen ziren, baina Gernikan zapatilak janzen zituzten. Ez zuten makillajerik eta kremarik ematen. Bernetako ileak kentzen zituzten, besapeetakoak ez.

184. Arrieta haginlaria; hortz-haginak 500 pezeta (GER-004/038)

Medikuarenera Gernikara etortzen ziren. Hogei urte zituela, bonbardaketa aurretik, Arrieta haginlariak jarri zizkion hortz-hagin berriak 500 pezeta ordainduta. Erdiko kalean zuen kontsulta Arrietak.

185. Elizpean bataiatua (GER-004/041)

Bera bataiatu zutenean elizpean ur bedeinkatuarekin pila handi bat zegoenean eta bertan bataiatu zuten. Jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zuten umeak hilez gero zerura joan zitezen.

186. Anbeko baserrian jaioa (GER-005/001)

Izen-abizenak. Kortezubin jaioa, Anbeko baserrian. Baserriaren izena nondik datorren azaltzen du.

187. Aitak Ameriketara izandako istripua (GER-005/003)

Aitak Ameriketara bost urte egin zituen lehenengo, eta gero berriz joan zen. Istripua izan zuen basoan lanean ari zela eta besoa sentitu ezinik geratu zitzaion. Zigarroak egiteko nola moldatzen zen kontatzen du.

188. Azpigarriaren bila mendira (GER-005/004)

Azpigarriaren bila mendira joaten ziren, eta adar handi baten gainean jeisten zuten gurdia zegoen lekuraino. Handik bidea hartu eta Kortezubira joaten ziren. Gaez farola edo kandela eraman behar izaten zen eta aitak harekin behin eskua erre zuen.

189. Antonio Astelarra ebanista (GER-005/007)

Antonio Astelarra, ebanista famatua izan zen. Abertzalea izan zen eta Agirre lehendakariaren eskolta.

190. Kortezubiko eskola (GER-005/008)

Kortezubiko eskolara joaten zen bizilagunekin. Eskolak non zeuden eta nolakoak ziren kontatzen du. Nesken eta mutilen eskola bananduta zegoen.

191. Orduko baloiak eta txonpikere jolasa (GER-005/009)

Futboleko baloiarekin ibiltzen ziren. Ordukoak nolakoak izaten ziren kontatzen du. Txonpikere nola jolasten zen kontatzen du.

192. Frontoirik gabe, elizpean pilotan (GER-005/010)

Tronpekin edo elizpean pilotan aritzen ziren. Frontoirik ez zegoen orduan. Otargilea bizi zen lekuan egin zuten frontoia.

193. Gramofonoarekin dantzan (GER-005/011)

Gramofonoa zeukaten, aitak Ameriketatik ekarritakoa. Nola funtzionatzen zuen kontatzen du. Gramofonoaren inguruan dantzan aritzen ziren bizilagunekin igande arratsaldetan.

194. Nola jakin zuten gerra hasia zela (GER-005/013)

Justa ezkondu zen gerrak irten zuen egunean eta eztei-bidaira Iruñeara joatekoak baziren ere, etxera bueltan etorri behar izan zuten. Halaxe jakin zuten gerrak irten zuela.

195. Sardina-saltzailea eta okina albiste emaile (GER-005/014)

Sardina-saltzailea edo okina izaten ziren sarri albisteak jakinarazten zizkietenak. Gernikako bonbardaketa izan zenean, ihesi joan ziren apirilaren 28an. San Pedro bezperan etxeratu ziren.

196. Gerratik bueltan, senide bat hila (GER-005/015)

Gerratik ihesi joan eta itzuli zirenean, Justa hil zela jakin zuten. Justa ez zen berez arreba, lehengusina baizik. Bere arreba Trinik esan zion.

197. Lehengusina erditzean hil zen, gerra betean (GER-005/016)

Gerratik itzulita jakin zuten Justa erditzean hil egin zela eta umea ere bai. Gernika suntsituta zegoen eta ez zegoen medikurik. Militarrek Gasteizera zeramatela hil ziren ama-umeak.

198. Burdinazko gerrikoa egiten (GER-005/018)

Hamar urte zituen gerrak irten zuenean. Burdinazko gerrikoa egiten aritu ziren gernikar asko. Nondik nora egin zuten kontatzen du. 10 pezetako soldata izaten zuten. Zerrenda-egile moduan ibiltzen zen bizilagun batekin joaten zen Burdinazko gerrikoa egiten ari zirenen jarraipena egitera. Nondik nora ibiltzen ziren kontatzen du.

199. Burdinezko gerrikoa egiteagatik, zilarrezko txanponak (GER-005/019)

Burdinazko gerrikoa egiten Bermeotar asko zeuden beraien sekzioan, itsasora irtetzeko debekua baitzuten. Euzkadiko diruarekin ordaintzen zieten langileei. Zilarrezko txanpona ematen zioten eguneko, egindako lanagatik.

200. Zilarrezko txanponekin ogi zuria (GER-005/020)

Gerratik ihesi joan eta itzulitakoan, ogi zuria erosi zuten berak etxera ekarritako zilarrezko txanponekin. Errazionamenduan ogi beltza banatzen zuten orduan.

201. Tropak etorri zirenean (GER-005/021)

Gerratik ihesi joan zirenean, non egon ziren kontaktzen du. Egun argiz ezkutuan egon behar izaten zuten, soroan beharrean zebiltzanak hegazkinek tirokatzen zituztelako. Tropen etorrera kontaktzen du, bera behiak zaintzen ari zen egun batez. Soldaduek astoak harrapatzea nahi izan zutenekoa kontaktzen du.

202. Txerria hiltzen soldaduek lagunduta (GER-005/022)

Tropak zetozeela ikusitakoan, txerria hiltzea pentsatu zuten, ihesi jarraitzeko beharko zutelakoan. Soldaduak etxera etorri zitzaizkien oiloa jateko prestatzeko eskatzera eta haietako batek hil zuen tiroz txerria.

203. Errefuxiatu Derion (GER-005/023)

Hegazkinak ezkutatuak, gurdia hartu eta Bilbo alderantz joan ziren. Eguna argitutakoan, behiak gordetzeko eta eguna bertan pasatzeko lekua eskatu zuten baserri batean. Esnea banatzen zuten Bilbon baserri hartakoek. Bi hilabete eta erdi eman zituzten han.

204. Deriotik ebakutzeko agindua (GER-005/024)

Mateoren aita trintxerak egitera joaten zen Lemoiz ingurura. Gauez egiten zuen lan, ametrailadore-kabiak egitera. Soldaduek ebakutzeko agindua eman zieten, hegazkinek tirokatu zuten baserria. Oilotegian babeslekua eraikia zuten eta han ezkutatu ziren. Bizkargiko frenteko kontuak kontaktzen ditu.

205. Portugaletera bidean (GER-005/025)

Mungiako babeslekua erreka arku baten azpian zegoen. Bonba-lantegia bonbardatzen ari zirela, baserri bat hil zuten. Etxetik ihesi Portugaletera abiatu ziren lau gurdirekin baina zubi esekia itxita zeukaten. Zubitik gertu pasealekuan bertan egin zuten lo.

206. Errefuxiatu Ortuellan (GER-005/026)

Portugaleteko zubi esekia pasatutakoan, Ortuellaraino joan ziren. Aita-amak ostera Santurtziko bidetik joan ziren. Aita bila joan zitzaien. Ikatza saltzen ibiltzen zenak lagundu zien aterpea topatzen.

207. Frontearen erdian babesturik (GER-005/027)

Bolbora lantegi zaharrean hartu zuten aterpe. Handik etxerako bidea hartu nahi izan zuten, frontearen erdian egon behar izan zuten. Behiak ere geldigeldi egon ziren.

208. Etxerako bidean, Bilboko ibaia nola zeharkatu zuten (GER-005/028)

Etxerako bidea hartu zutenean, Cervera itsasontzia ikusi zuten. Bilboko zubi guztiak apurtuta zeuden eta soldaduei galdezka aritu ziren etxera nondik joan. Gabarrekin osatutako pasabide batetik igaro ziren eta Derioraino joan. Kainoiak gurutzatu zituzten. Eskuko bonbak topatzen zituzten bazterretan.

209. Etxera itzulitakoan, errazionamendu kartilla (GER-005/029)

San Pedro bezperan iritsi ziren etxera. Errefuxiatuak zirenez, ondo hartzen zituzten udaletxeetan. Idazkari lanetan aritzen zen ezagun batek

errazionamenduko kartilla egin zien eta arroza eta lentejak eman zizkieten. Jatorduak nola egiten zituzten kontatzen du.

210. Errazionamendua umeentzat bakarrik (GER-005/030)

Frankismoan errazionamendua egon zen. Luengo izeneko idazkariak ez zien errazionamendua etxeko denentzat ematen; umeentzat bakarrik, "gorriak" zirelakoan.

211. Gerratik ihesi hiru txahal eta guzti (GER-005/033)

Gerratik ihesi ibili ziren garaian, ez zen eskolara joan. Txahalak zituztenez, belarra batu behar izaten zuen haientzat. Ofizial batek txahaletako bat berak eramango ziela esan zien baina aitak ezetz esan zion, beraiek moldatuko zirela. Txahal handiena saldu zutenekoa kontatzen du.

212. Txahalarentzat belarra batzen (GER-005/034)

Iluntzean txahalentzako belarra batzera joaten ziren. Soldaduekin nola moldatzen ziren kontatzen du.

213. Ehiza-txakurra itsasora bota zutenekoa (GER-005/035)

Frentean soldadu zebilen gizon baten senideekin joan ziren gerratik ihesi. Ehiza-txakur bat zeramaten haiekin. Asko jaten zuenez, zubi esekitik uretara bota zuen andreak txakurra.

214. Gernikako bonbardaketaren eguna (GER-005/036)

Gernikako bonbardaketa hasi zenean, txahala jaio zen etxean eta bere gurasoak behiari erditzean laguntzen ari ziren. Mateok intxaurrondoaren gainetik ikusi nahi izan zituen hegazkinak, baina ez zituen ikusten. Bi motorreko hegazkin bat ikusi zuen.

215. Lehen hegazkin eta bonbei begira (GER-005/037)

Frontea non zegoen kontatzen du. Posta eramatera motoz zihoan bitartekariak Mateo intxaurrondo gainean ikusi zuenean, motorra gelditu eta bere ondora igo zen. Hegazkina eta bonbak eskuz seinalatzen zizkion baina bitartekariak ez zituen ikusten. Lehen bonbak eztanda egin zuenean, bitartekariaren motorra estali zuen behientzat erabiltzen zuten mantarekin.

216. Intxaurrondoaren gainetik hegazkinei begira (GER-005/038)

Bitartekariaren motorra estali ostean, intxaurrondoaren gainera igo ziren berriro Mateo eta biak. Handik ikusi zituen hegazkinak. Zehaztasun handiz gogoratzen du.

217. Hegazkinak ikusita, Gernikara ez joatea hobe (GER-005/039)

Gernikako azoka arratsalde izaten zen. Ama prest zegoen joateko, aita geroxeago joatekotan. Bazkaltzen ari zirela, aitak itxura txarra hartu zien hegazkinei eta Gernikara ez joatea erabaki zuten.

218. Gernikatik ihesi zetozenak (GER-005/040)

Gernikatik urruti bizi zirenak, asteleheneko azokara goizez joaten ziren Gernikara. Bonbardaketa hasi zenean, jende guzti hark etxerako bidea hartu

zuen. Kazek tirokatu egin zituzten. Jendea etxeko kortara sartzen hasi zitzairen ihesi eta atea itxi behar izan zuten, bonbaz etxea lehertuko zieten beldurrez. Etxeko guztiak eta ihesi zebiltzanak kortatik irten eta sakonune batean ezkutatu ziren. Handik hegazkinak ikusten zituzten. Zehaztasun handiz gogoratzen du. Bonbak botatzeari utzi zietenean, jendeak etxerako bidea hartu zuen.

219. Gernika sutan ikusi zuetenekoa (GER-005/041)

Gernikako bonbardaketa egunean, hegazkinek pasatzeari utzi zietenean, goialdean zituzten soroetara igo ziren eta Gernika sutan ikusi zuten.

220. Gernikako senideak onik ziren ikustera (GER-005/043)

Aitak Gernika erreta ikusi zuenean, etxera joan, jantzi eta Gernikara joan zen, senideen berri jakitzeko. Orduan babeslekua non eta nola eginda zegoen aipatzen du. Aita herrira joandakoan, senide gehienak onik topatu zituen baina senide bat sutan zegoen etxetik ateratzen ahalegindu zen. Han ez zegoela ohartu ziren. Gerora topatu zuten.

221. Gudariak ondo antolatuta (GER-005/044)

Beraien senide bat soldaduek erreskatatu eta buruko gaixotasuna zutenen zentrura eraman zuten. Gudariak ondo antolatuta egon zirenen frogatzat du. Ez du inoiz kontu hau kontatu.

222. Gerratik ihesi, Deustura, Santanderrera eta Frantziara (GER-006/002)

Bonbardaketa izan zenean, Lumora bidean joan ziren zazpi senideak eta aita-amak. Milizianoek esan zieten han lubakiak zeudela eta Deustura joan ziren orduan. Han ortuan zulo bat eginda zeukaten eta hegazkinak zetozenean, zuloan sartu eta egur batzuekin tapatzen ziren. Han enbarazu egiten zutenez, ama eta zazpi umeak Santanderrera joan ziren. Aita bertan geratu zen lanean.

223. Frantziatik etxera bueltan (GER-006/003)

Frantziara iritsi zirenean, ume txikiena elgorriak jota zegoen eta ospitalera eraman zuten amarekin batera. Handik Espainiara itzuli zirenean, Francok egin zien harrera. Etxerik ez eta Lumora joan ziren amaren gurasoen etxera.

224. Etxerik gabe, lantzean etxe batean bizi behar (GER-006/004)

Lumotik Gernikara etorri ziren eta lantzean etxe batean bizi izan ziren. Estatuak etxebizitzak egin zituenean, beraien etxea lortu zuten.

225. Bonbardaketa eguna (GER-006/005)

Bonbardaketa egunean Tabernaberriko zubiaren azpian egon ziren. Auzoan pikondo bat zegoen eta haren azpira batu ziren. Milizianoek abisua eman zieten alde egiteko. Hegazkin asko eta oso baxu pasatzen ziren.

226. Tristeia da gerra (GER-006/006)

Goizaldean pasatu zuten Gernika eta dena sutan zegoen. Milizianoen kamioi bat geratu eta Deustura joan ziren. Gerra tristeia dela dio, ezin dela azaldu dio. Jendea zoratu egiten dela aipatzen du. Gerraren ondorioz etxerik gabe geratzea oso gogorra izan zen, beti enbarazu egiten zutelako.

227. Gerraostean gaztainak batzera (GER-006/007)

Laguntza jaso zuten itzuli zirenean baina ez zen asko zazpi senide hazteko. Basora joaten ziren gaztainak batzera eta egosita jaten zituzten gero.

228. Umezain eta Dalia lantegian beharrean (GER-006/008)

Bonbardaketa ostean eskolara hasi zen berriz baina ez zuen astirik izaten, umezain egin behar izaten zuen eta. Diru pixka bat eta ogia txokolatearekin ematen zioten ordainetan. Hamazazpi urterekin Dalia lantegian hasi zen. Han ezagutu zuten elkar senar-emazteek. Zortzi urte egin zituen lanean, ezkondu artean.

229. Karmelitetan ikasten eta lanean (GER-006/011)

Anastasio Kortezubiko eskolan ibili zen, Segundo Juez irakaslearekin. Hemengo maistrak lanik gabe utzi zituzten gerra ostean. Karmelitetan ibili zen Kontxa, hala zegokiolako. Jaio zenean, Erretereria Ajangiz zen. Ordaintzen ez zutenez, garbiketa-lanak egin behar izaten zituzten.

230. Gogorrak ziren mojak eskolan (GER-006/012)

Lehen mojek kapatxekin lo egiten zuten. Beheko bodegetan kapatxak askatzen ibiltzen ziren, mojek koltxoietarako erabil zituzten. Gogorrak omen ziren mojak. Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Bere amak ez zekien erdaraz eta berritsua izanik, ezin izaten zuen kalean hitz egin. Euskaraz egitearren zaplaztekoak jasotzen zituztenak ere izan ziren.

231. Ikasle aberats eta diru gutxikoen arteko aldea (GER-006/013)

Mojarik onena Hermana Eusebia izan omen zen. Eskolan gorengo pisura joan behar izaten zuten diru gutxi zutenek eta beheko solairuan egoten ziren dirudunak. Elizan ere, aberatsak erdian egoten ziren eta besteak bazterretan. Mojek dirua eskatzen zieten eskolan txinatarrentzat eta amak haserre egiten zien seme-alabei, berak dirurik ez zeukala eta.

232. Kristau aberats eta diru gutxikoen arteko aldea (GER-006/014)

Konfesatzera etortzen zitzaizkien bi apaiz, bata aberatsentzat eta bestea dirurik ez zutenentzat. Ez zuten bekatu handirik izaten. Aberatsek jaunartzea Karmelitetan egiten zuten eta diru gutxi zutenek Andra Mari elizan.

233. Dirudunentzat ikasketa hobeak (GER-006/015)

Diru gutxi zutenen etxeetakoek ez zuten asti handirik izaten eskolara joateko eta hala ere, mojek lanean jartzen zituzten. Dirudunek asti gehiago izaten zuten eta haiei eskola gehiago ematen zieten. Olgetan aritzen ziren: prima segundaka, tabakaz, sokiegaz...

234. Txopinke eta prima segundaka jolasean (GER-006/016)

Txopinke, ezkutaketan jolastea izaten zen. Prima segundaka jolasa zela izaten zen kontaktzen du.

235. Babeslekuak, kartzelak, ospitaleak non zeuden (GER-006/021)

Bonbardaketan iturriaren azpian sartu zirenak zela hil ziren kontatzen dute. Babeslekuak non zeuden kontatzen du. Neska asko bortxatu zituztela aipatzen dute. Moja eta fraideen monastegi eta komentuetan kuartelak, kartzelak eta ospitaleak jarri zituzten. Anastasiok zuloak egin behar izan zituen jendea lurperatzeko. Gerrarik ez etortzea espero du Kontxak. Bakerik txarrena hobea dela dio gerrarik onena baino.

236. Baloia ordez arbia (GER-007/001)

Arbiarekin jolasten zuten, ez baitzeukaten baloirik. Arbia hartu, zapiekin batuz biribildu eta horrela aritzen ziren futboleant. Elizako horma erabiltzen zuten.

237. Lehen eta bigarren mailako hiletak (GER-007/002)

Monagilo moduan aritu zen, Don Genaro parrokoarekin. Apaizari meza emoten laguntzen zion eta diruz ordaintzen zioten lana. Hiletak bi modutakoak izaten ziren: lehen mailakoak edo bigarren mailakoak.

238. Eskolarako arropak (GER-007/009)

Eskolara fraka laburrak, blusa eta abarkak jantzita joaten ziren.

239. Bonbardaketaren ostean, gorpuak hilobiratzen (GER-007/016)

Bonbardaketaren ostean, etxe bakoitzetik lagun bat eskatzen zuten astean behin edo, soroan gorpuak hilobiratzeko zuloak egiteko. Bizkargin hiltzen ziren nazionalen gorpuak izaten ziren. Zenbakiez identifikatzen zituzten. Gurdiz ekartzen zituzten gorpuak ospitaletik hilerrira.

240. Errenteriako "fielato"ak (GER-009/002)

Errenterian jaio zen, baina garai hartan Ajangiz zen. Orduan ingurua nolakoa zen aipatzen du. "Fielato"ak (zerga-biltegia) zegoen etxe hartan garai batean, eta kobratu egiten zitzairen plazara baserriko barazki eta frutekin zetozenei. Herriko sarreretan egoten ziren "fielato"ak.

241. Bonbardaketa eguna (GER-009/005)

Bonbardaketaren eguna. Indaba zuriak bazkaldu zituzten egun hartan. Hegazkinak bi txandatan etorri zirela gogoan dauka. Sirenak joka hasi zirenean, Malostetik zehar ihesi joan ziren. Sasien ondoan geldi-geldi egon zen beste emakume baten besoetan. Bonbardaketaren ostean, emakume hura zoratu egin zela kontatzen du. Aita kortan geratu zen.

242. Bonbardaketa eguna eta ondorengoak (GER-009/006)

Ajangiz alderantz joanda, koba moduko bat zegoen eta hantxe egon ziren gero. Jende asko batu zen bertara. Gudari batek zotzak ematen zizkien ahoan eusteko, bonben eztandaekin belarriak ez lehertzeko. Bonbardaketa bukatu zenean, etxera itzuli ziren beraien ondasunak ateratzera. Handik pasatzen zirenek ohoztu egiten zizkieten gauzak. Batetik bestera ibili ziren.

243. Esperanza lantegiagatik, Deriora eta Markinara (GER-009/008)

Astra lantegiak Esperanza izena zeukan gerra garaian eta Deriora lekuz aldatua zegoen. Kruzelegi lantegi gipuzkoarra ere hantxe zegoen. Deriotik Markinara eraman zituzten lantegiok gero eta hantxe bizi izan zen hogeita hamar urte ingurura arte.

244. Esperanza lantegian gerrako materiala egiten (GER-009/011)

Deustun egin zituen ikasketak eta hemezortzi urte baino lehen Esperanzan (Astra) hasi zen lanean. Gerrako materiala egiten zuten.

245. Markinako eskola publikoa (GER-009/014)

Eskola publikora joaten zen Jose Antonio Markinan. Neskak eta mutilak bereizita egoten ziren baina jolasean elkarrekin aritzen ziren. Irakaslea Jesus Egia Torrealdei izan zuen eta Leoneko Sara izeneko maistra ere bai.

246. Deustuko ikasketak (GER-009/017)

Hamar urterekin joan zen Deustura ikastera. Gabonetan etortzen zen etxera eta igandetan etxekoan bisita jasotzen zuen. Astoari ematen zitzaion janaria ere ematen zieten.

247. EGiko hasierako urteak (GER-009/022)

Polizia atzetik duela ibilitakoa da. Propaganda Venezuelatik etortzen zen eta hura banatzen aritzen ziren. Lagun onak izan ditu jeltzaleen artean zein ezker abertzalean. EGIk ikurrinak jarri, margoketak egin... horrelakoak egiten zituen.

248. San Anton orfeoiarekin euskarazko kantuak (GER-009/026)

San Anton Orfeoia euskarazko kantuak abesten zituen beti. Hiru urtez hiriburuetan aritu ziren euskal kantuak abestuz. Zer kantatzen zuten aipatzen du: Boga-boga, Amak ezkondu ninduen, Uso zuria... Gorbeia Andoni Arregik "Itxina" izeneko zarzuela egin zuen euskaraz. Iparraldeko kantu asko abesten zituzten orfeoian eta tabernetan ere kantuan ibiltzen ziren.

249. Zesta jokarariak eta zestagileak (GER-009/028)

Zestan profesionalak egon izan dira eta berak ere jokatu nahi zuelako ez zuen Bilbora joan nahi. Bera ume zela irakasleak zeintzuk ziren aipatzen du: Bitoriano Orbea, Arragoitiaren aita... Orduan pilotak astunagoak ziren baina oraingoan antzekoak. Orbeatarrak zestagileak izan dira. Oso garestiak izaten dira. Makazagak egiten zituen Gernikan.

250. Zestolari ospetsuak (GER-009/029)

Markinako zestolari ospetsuak izendatzen ditu: Laka, Txurruka, Egurbide... Gernikar zestolari ezagunak: Potxolo eta beste asko zeuden.

251. Frontoiko apustu handiak (GER-009/030)

Frontoietan apostuak egiten zirenean, lau lagunek diru asko jokatzeko zuten eta beste guztiek gutxi. Larrinaga medikuak miloi eta erdi pezeta jokatu zituenekoa du gogoan. "El Divino" izeneko beste jokalaria bat aipatzen du. Apustuak egin eta ordaindu gabe joaten ziren asko.

252. Markinako raketistak (GER-009/031)

Emakume raketistak ezagutzen zituen eta izenak aipatzen ditu: Gesaliz, Barrenetxeatarrak... Markinarrak izaten ziren profesional aritzen zirenak. Gernikarrak ez hainbeste. Nolako tresnak eta jantziak izaten zituzten kontatzen du.

253. Gernika inguruko euskalkiak (GER-009/035)

Inguruko hizkerak. Garai batean esan egiten zieten kalean erdaraz egiteko eta hala egin behar izaten zuten lagunartean. Normalean euskaraz egiten zuten. Euskaltegia ikasten ibilitakoa da.

254. Beti ezagutu du Marijesiak kantatzeko ohitura (GER-010/002)

Beti ezagutu izan du Marijesiak kantatzeko ohitura, bai Ajangizen, bere jaiotetxean, eta baita Lumoko "Olazarre" baserrian ere. Auzoko gazteak etortzen ziren "Olazarre"ra, bai Marijesiak kantatzera eta baita Santa Ageda eskean ere.

255. Santa Agedetan borondatea eskatzen zuten (GER-010/004)

Santa Agedetan eskean etortzen ziren, kantari. Borondatea eskatzen zuten.

256. Auzoko neskek lehenengo irteera 14-15 urterekin (GER-010/006)

Urte barri egunean eta Erregeketan gaztetxoek kantatzen zuten. Lehenengo irteera izaten zen, izan ere 14-15 urtera arte ez ziren lagunekin irteten. Auzoko lagunekin eta herrian bertan ibiltzen ziren erromeria edo jaietan. Gernikara lehenengoz irten zirenean ezkontzeko adina izango zutela dio.

257. Gabonetako jatekoak (GER-010/007)

Gabonetan, jateko berezia. Intxaur-saltsa eta konpota ohikoak izaten ziren. Ume-umetan ez, baina gerora turroia ere bai. Aza-olioa eta oilaskoa.

258. Bedeinkatutako kandelak, kordelak eta jatekoa (GER-010/009)

Kandelario egunean kandelak bedeinkatzen ziren. San Blasetan kordelak. Zer gehiago bedeinkatzen zen; laranja, adibidez. Gero, bedeinkatutako jatekoaren azalak ez ziren botatzen. Bedeinkatutako kandelak trumoa zegoenean pizteko izaten ziren.

259. Ereintzarekin egindako gurutzeak soroetan (GER-010/010)

Garai bateko ohiturak: ur-bedeinkatua, gurutzeak... Kandelarioetakoa nesken ohitura izaten zen eta gurutzeak egitearena mutilena. Ereintzarekin egiten

ziren gurutzeak eta gero soroetan ipini. Ur-bedeinkatua. Herriko parrokoa etortzen zen soroak bedeinkatzera.

260. Abadearentzat baserriko jatekoak (GER-010/011)

Abadea soroak bedeinkatzera joaten zen baserrietara. Gero, jateko eskean etortzen zen; arrautzak, artoa, garia edo bestelako jatekoren bat ematen zitzaion. Pazkoa inguruan etortzen zen jatekoak batzen.

261. Bedeinkatutako gurutzeak, kandelak, kordelak eta jatekoa (GER-010/014)

Soroetan bedeinkatutako gurutzeak jartzen ziren, trumoiak soroak ez hondatzeko. Kandelarioetan kandelak bedeinkatzen ziren.; San Blasetan kordelak. Bedeinkatutako laranjen azalak musu bat eman eta sutara.

262. San Juanetan sua eta bedeinkatutako sortak (GER-010/015)

San Juanetan suak egiten ziren. Gero, sortak egiten ziren eta neskatoeak bedeinkatzera eramaten zituzten mezara.

263. Aurreko urteko San Juan sorta sutan erre (GER-010/017)

San Juanetan egiten zen sorta bedeinkatu egiten zen eta hurrengo urtean sutan erre. San Juanetako abestiak zioen sugeak, muskerrak eta belar txarrak erre egin behar zirela eta gariak eta artoak, berriz, gorde.

264. Gabonetan ogi-zatia gordetzen zuen aitak mantel azpian (GER-010/020)

Maria Teresak gogoan du euren aita zenak Gabonetan ogiaren lehenengo azala moztu eta mantelaren azpian gordetzen zuela. Ez du gogoratzen zer egiten zuen gero ogi-zati harekin. Mahaia beti bedeinkatzen zen.

265. Gauza gutxi erosten zen; etxeko gaiekin moldatu behar (GER-010/021)

Maria Teresaren jaiotetxean txakolina eta sagardoa egiten ziren. Ardoa ekartzen zen, baina domeketarako edo. Ez zen gauza asko erosten kalean, dirua behar zen eta. Etxeko gaiekin moldatzen ziren: artoa, garia, txerriak...

266. Gaubeila, auzokoren bat hiltzen zenean (GER-010/023)

Norbait hiltzen zenean, gaubeila egiten zen. Gau osoan egoten ziren auzokoak hildakoaren etxean, haiei lagun egiten. Gero, hileta ostean, tabernan elkartzen ziren senide eta auzoko guztiak.

267. Bedeinkatutako gurutzeak soroetan (GER-011/002)

Erramu egunean meza egoten zen. Gurutzeak egiten ziren ereinotzarekin eta, bedeinkatu ostean, soroetan ipintzen ziren.

268. Ur bedeinkatu ontziak etxean (GER-011/004)

Garai batean etxeetan ur-bedeinkatu ontziak egoten ziren. Norbait oso gaixorik zegoenean, abadeari deitzen zitzaion, gaixoa konfesa zedin.

269. Santa Kurutz eguneko errogatiba (GER-011/006)

Santa Kurutz egunean egiten zen errogatiba. Gero, pattarra eta ogi zatitxo bana banatzen ziren.

270. Gariaren inguruko lanak: ereitea eta jotzea (GER-011/014)

Garia jotzeko auzokoak elkartu egiten ziren, elkarri laguntzeko. San Lorentzo inguruan jotzen zen. Lehenengo azaoak egin, gero meta. Eskuz nola jotzen zen. Azaroan, garia ereiten zenean, afaria egiten zen lanak amaitutakoan: "galafaria". Txitxarroa jaten zen normalean.

271. Txarribodan gizonak gibela jaten eta emakumeak hesteak garbitzen (GER-011/016)

Txarriboda. Txerria hil aurretik lehenengo kopa bat hartzen zen. Gero, hil ostean, gibela jaten zen. Baratxuri zopa, gibela eta intxaurrak. Bitartean, emakumeak erre kara joaten ziren hesteak garbitzera.

272. Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak (GER-011/017)

Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak. Ilea nola erre. Gauean zer afaltzen zuten.

273. San Juan bezperako kanta (GER-011/019)

San Juan bezperako kanta: "San Juan bezpera gabien abadiak hasarretu zirenien...". Zapoak eta sugeak erretzeko esaten zuen kantak.

274. San Juan egunean lizarra balkoian (GER-011/021)

San Juan egunean lizarra ipintzen zen balkoian. Sortak egiten ziren landare gehiago sartuta (garia, baratxuriak...) eta, gero, bedeinkatu.

275. San Juanetako gurutzeak San Pedroetan erre (GER-011/023)

San Juanetako ohiturak. Erramua eta lizarra ipintzeko ohitura. Gero, San Pedro egunean etxeetako gurutzeak Gernikara eramaten ziren eta denak batera erre. Ondoren, erromeria egoten zen.

276. Garizuman musikarik ez (GER-011/027)

Garizuma sasoi an ez zen egoten musikarik Gernikan zazpi astez. Beste jairen bat Garizuma sasoi an tokatzen bazen (San Jose eguna, adibidez), ez zen egiten erromeriarik.

277. Sasoi bateko jaiak; Santa Apolonia (GER-011/028)

Sasoi bateko jaiak. Santa Apolonia eguneko ospakizunak. Erromeria itzela. Aurrekua meza ostean. Zer gehiago egoten zen.

278. Zahagiaren "entierroa" (GER-011/029)

Plaza mutilak. Zahagia jaietan. San Pedro hirugarrenean zahagiaren "entierroa" egiten zen. Jaiaren amaiera izaten zen.

279. San Pedroetan "plaza mutilak" jaien arduradun (GER-011/032)

San Pedrotxu eguna. Zahagi mutilak. Zahagiaren "entierroa" nola egiten zuten. Plaza mutilak izaten ziren jaiaren arduradun. Aurrekua nola antolatzen zuten.

280. Jaietan ardo zahagia jartzeko ohitura (GER-011/033)

Ariatzan ere egoten zen zahagia. Hangoak etortzen zirenean, ardoa debalde izaten zuten; gero, Lumokoak hara joandakoan, gauza bera. Ohitura izaten zen ardo zahagia jartzea jaietan.

281. Inauterietan dantzaldia eta mozorro lehiaketa Gernikan (GER-011/036)

Inauterietako asteartean (arratsaldean) jai izaten zen Gernikan. Mozorro lehiaketa eta dantzaldia egoten ziren.

282. Txitxi-burruntzi edo "Basatoste" eguna (GER-011/037)

Txitxi-burruntzi edo "Basatoste" eguna. Ohituraren inguruko azalpenak: mendira joan, han bertan sua egin eta burruntzian txorizoa edo urdaia erre eta jan. Ze datatan ospatu izan den.

283. San Rokeetan baino erromeria handiagoa Gernikan (GER-012/003)

San Rokeetan baino erromeria handiagoa egin ei zen behin Gernikan San Pedro hurrengo domekan. Nortzuk ibili ziren antolaketa, etxerik etxe dirua batuta. Non egin zen erromeria.

284. Beluko meza; olatak (GER-012/007)

Beluko meza. Elizan bakoitzak bere hilarriak izaten zituen. Kandelak pizten ziren. Hamarretan, lehenengo, arrosarioa eta kanta. 11etarako eliza ingurutik buelta egiten zuten maiordomoak eta besteren batek, estandarteekin. 11etan meza. Olatak. Orduko ohituren inguruko azalpenak.

285. Elizako hilarrien ardura (GER-012/010)

Hilarriak eskailerapean egoten ziren. Lekukoetako baten koinatari familia batzuek ordaindu egiten zioten goizean hilarriak zabaldu eta meza ostean atzera dena jasotzearen.

286. Elizako kofradiak (GER-012/013)

Elizako kofradiak; "hermanoak". San Isidroko kofradiakoek San Isidro egunean eta San Jose egunean zerbait ordaindu behar. Elizako maiordomoa.

287. Kanpaien inguruko azalpenak (GER-012/016)

Kanpaiak. Suteen berri emateko edo trumoia zetorrela iragartzeko ere erabiltzen ziren. Arimen kanpaia. Maiatzeko Santa Kurutz egunetik irailekora bitartean egunero 12etan kanpaiak (din-dana).

288. Andabideak; andariak (GER-012/019)

Andabideak. Andari joaten zirenek batzuetan erreleboa izaten zuten. Beste batzuetan hildakoa lurrean utzi eta atsedean hartzen zuten. Nortzuk joaten ziren hil-kutxaren inguruan.

289. Hileta ostean ogia, ardoa eta bakailaoa (GER-012/022)

Hileta ostean bakailaoa jateko ohitura. Ogi berezia. Andariek banatzen zuten ardoa eta ogia. Bakailaoa auzoko emakumezkoek prestatzen zuten. Sasoi batean ijitoak eta eskekoak ere hurbiltzen ei ziren batzuetan.

290. Bederatzi errealeko hileta (GER-012/024)

Klase desberdinetako hiletak. Merkeena 9 errealekoa ei zen, baina 7 errealekoa ere aipatzen dute. Hileta ostean banatzen zen mokaduaren inguruan jendeak esaten zuen esaera.

291. "Sardinerak" Bermeotik Gernikara otzarekin (GER-013/005)

"Sardinerak" etortzen ziren Bermeotik; Sukarrietara oinez, han trenea hartu eta Gernikara. Gernikako geltokitik Errigoitiraino otzarak buru gainean hartuta, zorkiarekin. Pisu handia eramaten zuten. Ia egunero etortzen ziren. Tomasa eta Mari.

292. Santa Agedetako koplak (GER-013/009)

Santa Agedetan kantatzen ziren koplak: "Bedeinkatua izan deitela etxe honetako jentea...".

293. Beluko meza, domekero 11etan (GER-013/011)

Beluko meza, domekero 11etan. Hilan aldeko meza izaten zen, latinez. Elizan oihal beltza ipintzen zen; gainean otarretxoa trapu zuriarekin. Hara dirua botatzen zen. Abadea etortzen zenean, diru-kopuruaren arabera egiten zituen errezoak.

294. Pazkoetako txartela; "buldia"; abadea arrautzak batzen (GER-013/013)

Pazkoetarako txartela ematen zuten. Gero, abadea etxerik etxe joaten zen txartelak batzen eta arrautzak ere batzen zituen. Lagun bati arrautza dozana osatu ezinik gertatu zitzaiona. Ostiraletan bijilia egoten zen, haragirik ezin jan. Baina "buldia" ordainduz gero, libre. Kategoriak egoten ziren.

295. Abadeari ordaintzeko bideak (GER-013/014)

Abadea eta sakristaua mando handi batekin eta zakuarekin etxerik etxe joaten ziren arrautzak, garia eta indaba batzen. Abadeari ordaintzeko garai bateko beste bide batzuk: hilerrietako dirua eta opilak. "Denarioa".

296. San Juanetan lizarra eta loreak ipintzeko ohitura (GER-013/020)

San Juanetan lizarra eta loreak ipintzeko ohitura zegoen. Osabak izaten zuen horren ardura.

297. Bideak auzolanean konpontzen ziren (GER-013/022)

Bideak egitea edo konpontzea auzolanean egiten zen. Gero, udalak zahagi bete ardo ematen zien ordainetan. Garai bateko bideak; asto-bideak, gurdibideak.

298. Gurdien gurpilek hondatutako bideak (GER-013/024)

Garai bateko gurdien gurpilek bideak hondatzen zituzten, pisuagatik. Bideak lokaztuta egoten ziren eta gurdiak bideetan pasatu ezinda ibiltzen ziren. "Bide zantarrak" ei ziren.

299. Aita ganadu tratularia; al baitariari laguntzen (GER-013/025)

Aita ganadu tratularia izan zen eta etxeko gehiago ere bai. Uribarrena al baitariarekin harremana zuen eta batzuetan hark esanda joaten zen baserrietara, laguntzera.

300. Foruko Tomas ferratzailea (GER-013/026)

Foruko Tomas ferratzailea. Non bizi zen eta ferratokia non zegoen. Erreterian ere bazegoen ferratzailea.

301. Txarribodaren inguruko kontuak (GER-013/030)

Txarriboda. Kontzesio egunaren inguruan izaten zen. 16 arroako hiru-lau txerri hiltzen zituzten bi hilabeteren barruan. Txerriei ze elikadura ematen zitzairen, loditzeko. Txarriboda egunean auzoko bat (Mariano Betanzos) etortzen zen txerria hiltzera. Lehenengo "Sol y sombra" edaten zuten. Gauean porrusalda, odolosteak, saiheskia... eta postrean sagar erreak edo intxaurrak. Edateko txakolina. Jai handia izaten zen.

302. Hamaiketakoan taloa eta txerrikoa edo bakailoa (GER-013/031)

Amama seiak inguruan jaikitzen zen eta kafea egiten zuen. Nahiz eta estraperlokoa, beti egoten zen kafea euren etxean. Gero, 10ak inguruan, taloak egiten ziren eta harekin zartaginean eginiko txerrikoa jaten zen (txorizoa, urdaia, saiheskia eta solomoa). Edateko ardoa edo txakolina. Txerria amaitutakoan, bakailoarekin hasten ziren. Nola prestatzen zuten. Horiek bukatutakoan, sardina zaharrak. Bazkaritan porrusalda edo barazkiak eta "gixarria". Arrainduna etortzen zen eta arraina sarri jaten zuten.

303. Barikuetan aste osorako ogia egiten zuten (GER-013/032)

Ogia barikuetan egiten zuten aste guztirako. Garia irinaren truk aldatzen zuten. Labe handia zuten. Aitak eta berak egiten zituzten ogiak. Kolegiora joaten ziren Gernikara eta han bazkaltzen zuten, hara ere eramaten zituzten.

304. Piperrak labean (GER-013/033)

Etxean prestatutako jatekoak: tomatea eta piperrak. Piper lodien sasoian, labearen ahoko brasatan piperrak egiten ziren, ogia egin ostean. Gero txuleta ere bertan erretzen zuten.

305. Baratxuri-zoparen errezeta; Villaverdeko markesarekin gertatutakoa (GER-013/035)

Txerria hiltzen zen egunean baratxuri-zopa jaten zen hamaiketakoan. Nola prestatzen zuten baratxuri askorekin, piper gorriekin, txorizoarekin eta arrautzekin. Behin aita Arnedillora bainuak hartzera joan zen Gernikako tabernari batzuekin. Hotelekoei esan zien berak prestatu nahi zuela lagunentzat baratxuri-zopa. Jaten ari zirela, alboan Villaverdeko markesa. Hark ere zopa probatu zuen eta ea bere sukaldaria izan nahi zuen galdetu zion aitari.

306. Morroiari hileta-mezarik eman nahi ez (GER-013/039)

Euren etxean morroi egondako gizon bat hil zenean, ez zioten meza arrunta eman nahi, ez zegoelako elizako kofradian sartuta. Auzokoek kontra egin zuten, Arribalzaga baserrian morroi egondakoa zelako eta hango familiak kofradia ordaintzen zuelako. Kofradia desberdinak.

307. Lehortea zegoenean, santua atera eta errogatibak egin (GER-013/041)

Ermitak. Urtean behin bederatziruena egitera joaten ziren. Lehortea zegoenean, santua kanpora ateratzen zen eta zortzi egunean herriko ermitetara eramaten zen santua, txandaka. Errogatibak izaten ziren. Lehortea handia egon zen urte batean aitari santuarekin gertatutako anekdota.

308. Gabon egunean bedeinkatutako ogi zatia (GER-013/043)

Gabon egunean mahaia bedeinkatu eta ogi zatitxo bat gordetzen zen "txakur amorratuarentzat". Ogi hori ez zen usteltzen urteak pasatu arren. Gero erre egiten ei zen denbora batera.

309. Umeek eta pertsona nagusiek barau egin beharrik ez (GER-013/044)

Garizumako bariku guztietan bijilia egin behar izaten zen eta bariku santu egunean baraua. Umeek eta pertsona nagusiek ez zuten barau egin beharrik. Bera umea zen artean eta gogoan du otorduen tarteetan ezin izaten zutela ezer jan. Haragirik ezin zenez jan, indaba zuria, bakailoa, patatak saltsa berdean, porrusalda... "jateko garbia" jaten ei zuten.

310. Elizarekiko betebeharrak: bederatziruena eta arrosarioa (GER-013/045)

Maiatzean emakumezkoak Lumora joaten ziren bederatziruena egitera. Urria arrosarioko hilabetea izaten zen eta orduan ere domeka guztietan, arrosarioa errezatzera. Derrigorra izaten zen.

311. Gaubela hildakoaren etxean (GER-013/046)

Inguruko norbait hiltzen zenean, kanpaiak jotzen ziren San Pedro elizan eta berehala jabetzen ziren. Auzokoak hildakoaren etxera joaten ziren eta gau guztia pasatzen zuten familiarekin, ezkaratzean. Orduero arrosarioa errezatu eta tarteetan kontuak esan. Anisa eta koñaka ematen zen.

312. Andariak; Lumoko andabideak (GER-013/047)

Andariak hildakoaren senideak izaten ziren normalean. Lepoan eramaten zen hildakoa eta bidean txandakatu egiten ziren. Hildakoen inguruan entzun izan dituen kontuak. Andabideak.

313. Gaztetako sineskeriak; Sakamantekas (GER-013/053)

Beldurra pasatzen zuten Sakamantekas zela eta. Beste sineskeria batzuk: etxeari bueltak emanez gero, arimak irteten zirela.

314. Ezkontza-tratua; morroia zergatik ez zen ezkondu (GER-013/056)

Ezkontzetako tratuak. Euren etxean morroi egon zen gizonari neska-lagunarekin gertatutakoa.

315. Txakolina etxean egiten zuten (GER-014/005)

Txakolina etxean egiten zuten. Sagardoa ere bai, baina gutxiago. Mahastiak non zituzten. Traman zegoen mahatsa egiteko harria eta hara joaten ziren. Izagirre baserrian prentsa zegoen eta han prentsatzten zuten mahatsa. Oraindik ere prentsa osorik dagoela aipatzen dute.

316. Gabonetako kanta: "Abendu santu honetan..." (GER-014/009)

Gabonetan bere amak abesten zuen Marijesia: "Abendu santu honetan..."

317. Txarriboda eguneko otorduak (GER-014/011)

Txarribodetan "juerga itzela". Bezperatik hasten ziren gauzak prestatzen: porruak txikitu, arroza egosi... Txerria hil ostean, hamaiketakoan baratxuri-zopa eta txerriaren gibela jaten ziren. Gainean, laranjak eta intxaurrak. Gauean, porrusalda eta indaba zuria, bakailaoa, odolosteak eta "gixarria". Txerri-hiltzea nola egiten zen. Ira lehorra erabiltzen zen erretzeko.

318. "Basatoste" eguna (GER-014/014)

Inauteriak. "Bastoste" eguna ospatzen zuten. Eguraldi ona bazen, kanpoan, basoan, eta, bestela, barruan. Sua egin eta makila luzeetan sartuta urdaia eta txorizoa erretzen zituzten, burruntzian. Etxera etorritakoan, txokolatea. Familiakoak eta lagunak elkartzen ziren.

319. Garizuman domekero Izagirreko ermitara (GER-014/020)

Garizumako ohiturak: gurutzeak, loreak... "Ixerreko" (Izagirreko) ermitara joaten ziren domekero. Aitak ez zuen joan nahi izaten. Amamak nola engainatzen zuen.

320. Baraua eta bijilia (GER-014/023)

Ostiral santua barau eguna izaten zen. Zer jaten zuten. Garizumako bariku guztiak bijilia egunak izaten ziren. Arraina edo arrautza jaten zuten orduan. Arrainik ohikoena bakailaoa izaten zen. Bestela, sardinak.

321. Anaiari begizkoa egin ei zioten umetan (GER-014/025)

Begizkoa. Bere anaia bat ume ederra ei zen jaio zenean, baina norbaitek begizkoa egin ei zion eta ordutik beti negarrez. Azkenean, hil egin zen.

322. Erromeria etxean, amak panderoa jo eta abestuta (GER-014/029)

13-14 urterekin neska gazteak bere amarengana joaten ziren. Amak pandero handi bat jo eta kantatu egiten zien, dantza egin zezaten. Nagusiagotan Gernikara. Amaren ahizpa batek ere jotzen zuen panderoa.

323. Gabonetako jateko bereziak (GER-015/005)

Gabonetan jateko berezia: karakolak, intxaur-saltsa, aza-olioa, ardoarekin egindako sagar-saltsa edo konpota...

324. Txarribodaren inguruko azalpenak (GER-015/007)

Txarriboda. Noiz egiten zen. Pattarra edanda mozkor ederrak harrapatzen zirela dio. Txerria hil aurretik pattarra edaten zen. Gero, hil ostean, gibela jan. Gauean odolosteak. Txerria hiltzeko eta garbitzeko zer erabiltzen zen. Eurenear ez ei zegoen "jokolaririk", baina etxe batzuetan arratsaldean musean aritzen ziren gauera arte.

325. Eskolara Lumora (GER-015/011)

Trama ingurutik Gernikarako joera handiagoa izan dute Lumorakoa baino. Hala ere, izatez lumotarrak direla dio. Lumora joaten ziren eskolara hiru neba-arreba, oinez, jatekoa poltsan hartuta.

326. Lagunekin jolasean Lumon (GER-015/012)

Lumon lagunek zertan olatzen zuen: pilotan, kanikaka... Harriekin eta intxaurrekin jolas egiten zuten. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

327. Ardo gutxi; etxean egindako txakolina (GER-015/019)

Ardoa egun berezietan bakarrik egoten zen. Normalean ura. Bestela, txakolina. Etxean egiten zen. Txakolina egiteko harria eta prentsa zituzten etxean, baina apurtuta daudela dio. Sagardoa ere egiten zuten.

328. Txakur amorratuarentzat ogi bedeinkatua (GER-015/029)

Ogiaren inguruko ohitura zaharra, "txakur amorratuarentzakoa". Gabonetan, ogia jaten hasi orduko, gurutze bat egiten zitzaion eta muin eman. Gero kozkorra gorde egiten zen. Hurrengo urtean berdin-berdin egoten ei da, hondatu gabe. Orduan, txakurrari ematen zitzaion. Txakur amorratuarentzako ogi bedeinkatua zela esaten zen.

329. Ilargiaren gorabeherak (GER-015/030)

Ilargiaren gorabeherak. Zuhaitzak inausterakoan kontuan edukitzen zen. Txerria hiltzerakoan ere ba ei zuen bere garrantzia; ilbeheran hilez gero, hobeto kontserbatzen zen.

330. Lumoko meza osteko aurrekua (GER-016/002)

San Pedro eguna Lumon. Meza ostean aurrekua egiten zen. Aurrekuaren inguruko azalpenak. Doinuak abesten ditu. "Erregela zaharrak"; leku gutxitan dantza egiten ei ziren.

331. Santa Apolonia jaia Lumon (GER-016/003)

Santa Apolonia egunean ere aurrekua egiten zen Lumon eta San Pedroetako antzeko jaia izaten zen. Mutilek zahagia ipintzen zuten eta ardoa nahikoa egoten zen.

332. Rufinoren aurrekuaren arrakasta Ibarrangelun (GER-016/004)

Jaietan Udaleko kideak banku batean eserita egoten ziren, kanpoan. Behin Ibarrangelura joan ziren. Ezagun batek hango alkateari esan zion aurrekulari on bat etorri zela, eta aurrekua egiteko eskatu zioten Rufinori. Alkateak hamaiketako ordaindu zien tabernan. Gero, berriz dantza egiteko eskatu zion eta, horren ostean, bazkaria, afaria eta nahi zuten gutzia eskaini zien.

333. San Rokeetan aurrekua egitera; German txistularia (GER-016/005)

Inauterietan ez zen egiten aurrekurik, baina San Rokeetan bai. Andra Mari elizara joan izan zen askotan aurrekua egitera. Dirua eta bazkaria ematen zizkieten. Txistularia German izaten zen gerra aurretik; gero kendu egin zuten gerra sasoian, nazionalista zelako. Udalak ordaintzen zien txistulariei.

334. San Juanetan belarra lapurtzen gaez (GER-016/018)

San Juanetan lehortea egoten zen normalean. Mutil gazteek gaez belarra zegoen lekura joan eta handik belarra lapurtzen zuten.

335. Garai bateko ezkontzak; arreo gurdian (GER-016/020)

Garai bateko ezkontzak. Elizara oinez joaten ziren senargaiak eta euren senide bana edo, testigu gisa. Arreo gurdian eramaten zen. Alboan emakumezko batzuk joaten ziren buru gainean otzarak zituztela; otzaretan gauza txikiak eramaten zituzten. Bazkari edo afariak egin, bolanderak bota eta dantzan eginez ospatzen zituzten ezkontzak.

336. Garai bateko hiletak (GER-016/022)

Hiletak. Hildakoa andariak eramaten zuten lepoan. Nola joaten ziren: abadearen aurretik andre bi joaten ziren zestotxo batzuekin; andariak abadearen atzetik.

337. Lumoko andabidea; lurperatu ostean elizkizuna (GER-016/024)

Andabidea nondik nora zegoen. Lumora iritsitakoan, lehenengo elizpean kanta batzuk abesten zituzten, hil-kutxa mahai gainean utzita. Gero andariak hilerrira eramaten zuten eta lurperatu egiten zen. Ondoren, eliza barruan elizkizuna egiten zen.

338. Hiletan inguruko ohiturak Lumon (GER-016/026)

Euren senideen hiletan inguruko azalpenak. Lumoko ohiturak. Norbait hildakoan, "tokada" egoten zen eta, bestelako abisurik ez bazegoen, auzoko guztiak joaten ziren hiletara. Lau mutil (andariak) eta auzoko lau neska eta sukaldaria eramaten ziren. Zenbat jateko eramaten zuten: bost artoa bakailao, ogi bana denentzat, bi zahagi ardo... 10 abade elizan. Izugarritzko gastua izaten zen etxe koentzat. Askok mozkortuta amaitzen zuten eguna.

339. Bulda ordainduz gero, haragia jateko baimena (GER-016/028)

Garizuman bijilia egin behar. Lehengo jendea gaur egungoa baino tontoagoa zela dio, izan ere, abadeari bulda ordainduz gero, haragia jan zitekeen bai bariku santu egunean eta bai beste edozein egunetan ere. Dirua batzeko tranpa bat zela dio.

340. Abadeak publikoki esaten zuen zenbat ogerlekoko meza ateratzen zuten (GER-016/033)

Garai batean, jendeak mezak ateratzen zituenean, batzuek sei ogerlekoko meza ateratzen zuten, beste batzuek bederatzikoa, hamalaukoa... Abadeak, meza-paperak hartuta, jendearen aurrean esaten zuen bakoitzak zenbateko meza atera zuen.

341. Santa Ageda koplak neska gazteei (GER-016/041)

Santa Agedetan etxerik etxe kantuan joaten zirenean, etxeko neska gazteei botatzen zitzaizkien koplak.

342. Errogatiben inguruko azalpenak (GER-016/046)

Errogatibak egiten ziren garai batean, Asentzio bezperan, hiru egunez jarraian. Lumon hasi eta Santa Luziara. Auzoko batek garrafoi bete pattarra eta ogi pila bat eramaten zuen hara, errogatibak eginez zetozenentzat.

343. Marijesiak eta Santa Ageda koplak (GER-017/005)

Marijesietan Jesusen jaiotzaren inguruan abesten zen. Santa Agedetan, berriz, koplak kantatzen ziren eta etxe batzuetan bertako neskei abesten zieten.

344. Txakurrak ez amorratzeko, ogi-zatia gorde Gabonetan (GER-017/007)

Gabonetan, otorduko lehenengo ogi zatia gorde egiten zen, hurrengo urtean txakurrei emateko. Txakurrak amorratu ez zitezen izaten zen.

345. Gabonetako jatekoak (GER-017/008)

Gabonetan gaur egun baino ilusio handiagoa izaten zuten. Zer jaten zuten: bisigua, aza-olioa, karakolak, oilaskoa... Intxaur-saltsa, konpota eta turroia postrerako. Bisigua jatea gaur baino errazagoa zen.

346. Etxeko txakolina eta sagardoa urte guztian (GER-017/009)

Urte guztian izaten zuten txakolina etxean. Ardoa egun berezietan bakarrik edaten zen. Gaur egun txakolina modan jarri dela diote. Etxean egiten zituzten txakolina eta sagardoa. Ez zuten prentsarik etxean eta auzoko baserri batera joaten ziren.

347. Txarriboda; txerria nola garbitu (GER-017/014)

Txarriboda eguna. Lehenengo txerria hil, gero garbitu, odolosteak egin... Txerria nola garbitzen zen.

348. Kandelario egunean, bedeinkatutako kandelak soroetan (GER-017/018)

Kandelario eguna. Ama zenak mihimenarekin egindako kargak eramaten zituen elizara bedeinkatzera. Gero, han kandela ipini eta gauean soroetan sartzen ziren. Sorginak uxatzeko izaten zen. Erramu egunean, berriz, ereintzarekin egindako gurutzeak ipintzen ziren. San Blas egunean frutak bedeinkatzen ziren.

349. San Juanetako ohiturak (GER-017/019)

San Juan egunean ere kargak bedeinkatzen ziren elizan. Loreak, artoa, berakatza eta lizarra erabiltzen ziren. San Juan bezperan belarra osteko ohitura zegoen, baina harrapatuz gero ere ez zen ezer gertatzen; "libre" zen.

350. Bidegurutzeetan aitaren egin, sorginik ez irteteko (GER-017/034)

Eskolastikok amari entzun izan zion gurutze formako bidegurutzeetan aitaren egin behar zela, arriskutsuak zirelako. Bestela, sorginak irten zitezkeen.

351. Abadearen bedeinkazioari erantzuna (GER-018/004)

Berak ez du ezagutu abadeak soroak bedeinkatzeko ohitura. Koinatuak kontatua: abadeak "satsa ta karie ora pro nobis..." esaten ei zuen. Abadeari erantzun ziotena.

352. Errege-bidea eta inguruko etxeen historia (GER-018/007)

"Camino real" edo errege-bidea non pasatzen den. Inguruko etxe bati "Benta" esaten ei diote, garai batean erregeek zaldiak erosi eta saldu egiten zituztelako bertan. Beste etxe bati "Armutxe" esaten diote, baina "Armaitz" ei da berez, garai batean armak edukitzen zituztelako.

353. Sallabente jaietako aurrekuak (GER-019/002)

Plaza mutilak, auzoko mutilak, izaten ziren jaietan aurrekuak egiten zutenak. Alkateari baimena eskatzen zioten. Gizon helduak izaten ziren eta euren alabak ateratzen zituzten dantzara. Sallabente jaietako bigarren egunean neskek egiten zuten aurrekuak eta gizon helduak ateratzen zituzten dantza. "Erregelak" dantza egiten zituzten dantzariak: Rufino "Mili", Bartolo eta Anton.

354. Santa Apolonia jaia kendu zuteneko protesta (GER-019/004)

Santa Apolonia egunean inguruetako emakumeak briskan jokatzera joaten ziren. Jaia kendu zutenean, mutikoak Gernikara bidali zituzten, bolanderak erostera. Lumora begira jarri eta bolanderak bota zituzten, protesta gisa.

355. Amak eraztuna eskaini Santa Apoloniari (GER-019/006)

Miren Tereseren amaren inguruko kontakizuna: Gernikako bonbardaketan lehengusu bat hil zuten eta Karmelitetara joan zen haren gorpua ikuskatzera. Etxera bueltan zetorrela, Santa Apoloniari eraztun bat eskaini ei zion.

356. Santa Ageda koplak (GER-019/010)

Etxeko neska gazteei kantatzen zitzaizkien Santa Ageda koplak: "Hor goixen landetan...". Aititak iloba bakoitzarentzat "lore" bat ei zuen eta kantatu egiten zien.

357. Urte barri egunean umeak eskean (GER-019/012)

Urte barri egunean 12ak jotzen zituenean, panderoa jo eta inguruetako umeak kantuan irteten ziren. Laranja, intxaurreak, txokolate ontza bat edo diru apurren bat batzen zuten.

358. Kandelario eguneko kanta (GER-019/014)

Kandelario eguneko kanta.

359. Bedeinkatutako gurutzeak eta kandelak (GER-019/018)

Erramu egunean bedeinkatutako gurutzeak eta ereinotza soroetan eta atean ipintzen ziren. Kandelario egunean, berriz, kandelak bedeinkatzen ziren eta gero ekaitza zetorreanean piztu.

360. San Juan gauean sua eta kantak (GER-019/020)

San Juan bezperan sua egiten zen eta abestu: "San Juan dabil soloetan...". Gero, aitak "estampa" moduan erabili zuen hori: amamari kontu bat kontatzeko eskatzen zioten eta honela abesten zien: "Nik ikusi nituan San Juan gabian Txomin eta Bartolo tabernako atian...".

361. Hilerriak elizan; olatak abadearentzat (GER-019/030)

Domeka guztietan 11etako mezara joan behar. Familia bakoitzak bere hilerria edukitzen zuen elizan. Nolakoa izaten zen. Han, manteltxo gainera dirua botatzen zen; aurreragoko sasoietan, diruaren ordezkariak, ogi txikiak. Olatak abadearentzat izaten ziren. Abade batek horren inguruan esandakoa.

362. Pazko egunean amabitxik besoetakoari pazko mokotsa (GER-019/032)

Pazkoetan amabitxik bere besoetakoari pazko mokotsa ematen zion. Ogi normala izaten zen, gainean arrautza egosiarekin. Ogi, artoa eta taloa etxean egiten ziren labean.

363. Galtzontzillorik ez garai batean (GER-019/044)

Galtzontzillorik ez zen egoten garai batean; alkandora luzea erabiltzen zen praktetan ondo sartuta.

364. Seme-alabarik izan ezean, arreoan itzuli egiten zen (GER-019/047)

Ezkontza kontratuak egiten ziren eta arreoan zer eramango zen ondo zehazten zen idatziz. Ezkontutako bikoteak seme-alabarik izaten ez bazuen, arreoan ekarritako gauzak kanpotik etorri zenaren etxera itzultzen ziren berriz.

365. Gabonetako ohiturak, ogiarekin lotuta (GER-019/053)

Gabonetan, otorduaren aurretik arrosarioa errezatzen zuten. Ogiaren inguruko ohiturak: ogi zatitxo bat mantel azpian gordetzen zen. Beste ogi zati bat erre egiten zuten. Gero, ogi zati hura azukrearekin gozatutako ardotara bota eta edan.

366. Aitita Tomasen eguna (GER-019/055)

Santo Tomas egunean, aititaren egunean, aititak gailetak eta anisa ematen zizkien. Bere nagusiari kapoi bi eramaten ei zizkion eta bueltan mandarinak ekarri. Egun horren zain egoten ziren. Aititak bakailaoa bizkaitar erara nola prestatzen zuen.

367. "Zantiratua" sendatzeko belarra (GER-019/059)

"Zantiratua" sendatzeko belar bat ("Ilantén") ipintzen zen, oliotan bustita. Garai batean sendabelar asko erabiltzen zen.

368. Asunekin astinaldia, gripea sendatzeko (GER-019/061)

Duela urte asko gripe izurritea egon zen. Auzoko gizon bat gaixotu egin ei zen. Amak asunekin astindu zuen eta sendatu egin zen.

369. Infekzioak sendatzeko: epai-belarra (GER-019/062)

Infekzioak sendatzeko epai-belarra erabiltzen zen. Teilatuan irteten ei ziren. Nolakoak izaten ziren. Erredurentzako krema ere egiten zuten, argizariarekin nahastuta.

370. Txindorraren eta pinpilinpauxaren inguruko sineskeriak (GER-019/067)

Amaren sineskeriak. Neguan txindorra leihora etortzen zenean, "notizixek, eroan zaharrak eta ekarri barrixek" esaten zen. Pinpilinpauxa zuri bat ikusiz gero, albiste onak; beltza izanez gero, berriz, txarrak.

371. Inguruko baserrietako jendea oinez festara (GER-020/002)

San Antonio hurrengo domeka ospatzen zuten. Inguruko baserrietatik oinez joaten zen jendea. Errigoiti inguruari "Txorierrixe" esaten zioten. Lasterbidea nondik nora zihoan.

372. Abadeek denen aurrean ematen zuten meza-diruen berri (GER-020/009)

Hiletetan dirua ematen zitzaion abadeari, mezak ateratzeko. Bakoitzak nahi edo ahal zuen beste ematen zuen, baina gero abadeak meza erdian denen aurrean esaten zuen bakoitzak zer diru ipini zuen.

373. Ardoa egun berezietan bakarrik (GER-020/022)

Garai batean ez zen egoten dirurik ardoa erosteko. Egund berezietan bakarrik edaten zen. Mahatsa zutenek txakolina, baina bestela ura edan behar! Sagardoa ere izaten zen. Ur-sagardoa.

374. Gariaren inguruko lanak eta "galafaria" (GER-020/023)

Garia eskuz jotzen zen. Atartean egurrak ipintzen ziren eta haien gainean harri-lauzak. Azaoak harrian kolpatuz jotzen zen garia. Eguzkia behar garia errazago jotzeko. Tarteka oilo-salda, ogi pusketa bat eta ardo tragoa. Gero makinan garbitu. Auzokoek edo ingurukoek elkarri laguntzen zioten. Lanak amaitutakoan "galafaria" egiten zen.

375. Hiletetan bakailaoa, ogia eta ardoa denentzat (GER-020/028)

Garai batean hiletetan bakailaoa eta ogia banatzen zen jateko. Ijitoak ere hurbiltzen ziren, hura jatearren. Ardoa ere goten zen eta batzuk mozkortuta bukatzen zuten. Ogia berezia izaten zen, zuria, bakoitzarentzat errazioa; asko jaten zutenentzat bikoitza!

376. Mutil gazteak Santa Ageda koplak kantatzen (GER-021/006)

Santa Ageda egunean auzoko mutil gazteak elkartzen ziren etxerik etxe eskean joateko. "Santa Ageda, Ageda, bixer da Santa Ageda..." kantatzen zuten.

377. Garai bateko hiletak, oso ezberdinak (GER-021/012)

Hiletak oso ezberdinak izaten ziren lehen. Norbait hiltzen zenean, auzoko guztiak joaten ziren haren etxera. Gau osoa pasatzen zuten han, errezatzen eta kontuak esaten. Auzokoek hartzen zuten gorpuaren ardura.

378. Txitxi-burruntzi eguna; bizimoduaren aldaketa (GER-022/011)

Inauteriak. Garizuman sartu aurreko domekan Txitxi-burruntzi eguna ospatzen zen. Garizuman ezin izaten zen eta egun horretan txerrikia jaten zen: txorizoak eta urdaia burruntzian erreta. Lehen ez zegoen asko eta gutxirekin ere gustura. Gauzak nola aldatu diren. Juan Ispastertik oinez etortzen zen Lumora, izebaren etxera, gonbidatu gisa. Ze jateko egoten zen.

379. Juanen aitaren dotea eta arreo (GER-022/014)

Juanen aitak 22.000 errealeko dotea eta zazpi gurdiko arreo ekarri ei zuen Ispastertik. Zazpi gurdiak ilaran, irrintzika. Garai bateko ezkontzak askotan komenentziaz hitzartutakoak izaten ziren.

380. Abadeari ordaintzeko ohituren inguruko azalpenak (GER-022/019)

Elizako hilerrien inguruko azalpenak. Juana Kortezubiko elizara joaten zen amamarekin. Trapuaren gainean txakur handia eta azpian zentimoa. Abadea etortzen zenean erresponstua botatzen, txakur handia ematen zitzaion. Gero, berriz etortzen zen abadea eta eliza aurrean musu ematen zioten denek haren estolari. Orduan, zentimoa botatzen zuten otarretxo batean.

381. Abadea etxerik etxe elikagaiak batzen (GER-022/021)

Abadea eta sakristaua "zelemina" (lakaria) batzen ibiltzen ziren etxerik etxe; artoa eta garia batzen zituzten. Zaratamon, urtero, abadeak bedeinkazioa egiten zuenean, etxe bakoitzetik oilo parean eraman behar izaten zioten abadeari.

382. Umea jaio eta 40 egunera elizan sartzera (GER-022/024)

Umea jaio eta 40 egun pasatutakoan, ama umearekin elizan sartzera joan behar izaten zen. Kandela eraman eta elizan lagatzen zen. Orditik aurrera joan omen zitekeen andrea beharrera. Ohitura hori betetzea ia ezinezkoa izango zela diote, etxean behar asko egoten zen eta.

383. Erbia harrapatzera joateko meza utzi zuen abadearen ipuina (GER-022/028)

Juanaren aita Mendatakoa zen eta umetan hara joaten ziren, gonbidatuta. Amamak kontatzen zuen ipuina: ehizarako zaletasuna zuen abade batek behin meza utzi ei zuen erbia harrapatzera joateko. Zer gertatu zitzaion.

384. Ispasterrera eskolara; erlijioaren inguruko gogoetak (GER-022/033)

Juan Ispasterrera joaten zen eskolara, bost kilometro oinez eginda. Palentziako irakasle bat izan zuen eta zigortu egiten zituen euskaraz eginez gero. Herrian hiru abade egon ziren, eta ez ei zuten kolperik jotzen. Ondo bizi ei ziren. Erlijioa gauza ona dela, baina neurrian, dio Juanek. Neurritz kanpo diktadura bihurtzen da.

385. Urteberri egunean eta Erregenetan umeak kantari (GER-023/004)

Urteberri egunean umeek zer kantatzen zuten. Erregenetan ere kantatzen zuten: "Erregiak datoz...".

386. Gabonetako jakiak; txakolina etxean egindakoa (GER-023/005)

Gabonetan jateko berezia egoten zen: olio-aza, bisigua, karakolak eta oilaskoa. Gainean intxaur-saltsa eta konpota. Nola prestatzen zuten. Gabonetan ardoa edaten zen; baina, bestela, egunerokoan, txakolina. Etxean egiten zuten txakolina; sagardoa ere bai, baina gutxiago. Etxean zeukaten prentsa.

387. Txarriboda eguna; txerriak gatzetan kontserbatu (GER-023/010)

Txarriboda egunean oso goiz jaikitzen ziren goizean, eguna argitu baino lehen. Eguna argitzen zenean hiltzen zuten txerria. Haren gibelarekin eta baratxuri-zoparekin hamaiketakoa egiten zuten. Gauean porru-patatak, "gixerrie" eta odolosteak afaltzeko. Txerriaren pusketak (hankak, belarriak eta bestelakoak) gatzetan kontserbatzen ziren. Egun berezietan jaten zituzten; inauterietan, esaterako.

388. Gabonetako ogi zatia txakurrarentzat, amorratu ez zedin (GER-023/011)

Gabonetan ogiari zati bat kendu eta gorde egiten zen. Hurrengo urtean txakurrari ematen zitzaion jateko, amorratu ez zedin. Etxean egiten zuten ogia.

389. Inauterietan marro jantzita (GER-023/013)

Inauterietan txerri-hankak eta tostadak jateko ohitura zegoen. Marro janzten ziren arropa zaharrekin. Askok tostadak mahai gainean lagatzen zituzten eta beste etxeetara joan eta haiek osten zituzten. Emakumeek ez zuten prakarik janzten orduan, baina marro janzteko bai. Gazteriaren "juerga" izaten zen.

390. Txitxi-burruntzi eguna elurretan (GER-023/014)

Txitxi-burruntzi eguna inauteri aurreko domekan ospatzen zen. Txorizoa eta urdaiazpiko-tortilla jaten zituzten. Behin, elurra zegoela, nola ospatu zuten eguna; tortilla eta txokolatea gogortu egin ei zitzaizkien hotzarekin. Ilusio handia izaten zuten. "Txitxi-burruntzi" edo "Basatoste", bietara esaten zuten.

391. San Juanetako ohiturak eta kanta (GER-023/017)

San Juan egunean loreez egindako "kargatxue" bedeinkatu egiten zuten eta hurrengo urteko sutara botatzeko gorde, "lapurrek eta sorgiñek eta subiek eta sapuek erretako". Suaren bueltan ibiltzen ziren eta abestu egiten zuten: "San Juan bagilian, denpora ederrian...". Balio ez zuten gauzak erretzen zituzten sutan. San Juan egunean atartean lizarra, berakatza, garia eta loreak ipintzeko ohitura.

392. Erramu eguneko eta Kandelario eguneko gurutze bedeinkatuak (GER-023/019)

Erramu egunean eta Kandelario egunean gurutzeak egiten ziren. Desberdinak izaten ziren; bakoitza nolakoa izaten zen. Soroetan ipintzen ziren gero. Geroago abadea etortzen zen etxerik etxea, soroak bedeinkatzen. Ordainetan, arrautzak jasotzen zituen.

393. Abadea garia batzen, maiordomoen laguntzaz (GER-023/020)

Abadea soroak bedeinkatzera joaten zen etxerik etxe. Gero, sakristauaren laguntzaz arrautzak batzen zituen. Geroago, garia ere batzen zuen bi maiordomoren laguntzaz. Maiordomoak gizon ezkonberriak izaten ziren. Luis izan ei zen azkenetakoa.

394. Buldak ordaintzea derrigorrezkoa (GER-023/023)

Hiletetan buldak ordaindu behar izaten ziren. Derrigorra izaten zen buldak ordaintzea. Hura ordaindu ezean, urteko bariku guztietan bijilia egin behar; bestela, Garizumako barikuetan bakarrik. Nolakoak izaten ziren.

395. Kandelario eguneko kanta (GER-023/025)

Kandelario eguneko kanta.

396. Barau egunean gozorik ez (GER-023/028)

Barau eguna gutxiago jatea izaten zen. Esaterako, gozo gauzarik ez. Bariku santu egunean Gernikara joaten ziren santuak ikustera eta orduan ezin jan "orduko gazteen litxarrerriak": mahaspasak, "abellanak"...

397. Familiaren elizako hilarria ere arreoan (GER-023/032)

Antzina etxean ospatzen ziren ezkontzak. Luisen amari entzundako kontuak. Arreoan gurdikada gehien eramaten zuena izaten zen kategoria handienekoa. Arreoaren aurretik auzoko emakume bat joaten zen buru gainean otzara hartuta. Familiaren elizako hilarria eramaten zuen, azpiko mantel beltza eta gaineko mantel zuri eta guzti. Goizean goiz ezkondu, gero arreoa ekarri eta ondoren bazkaria.

398. Gari-jotzea auzolanean; lanak amaitutakoan, otordua (GER-023/036)

Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Umeei ere behar asko egiten zuten. Hasieran, eskuz jotzen zen garia, harrietan kolpatuz. Gero makinak etorri ziren. Lanak amaitutakoan otordua egiten zuten.

399. Sorgin-putzuak Ajangizen eta Lamikizen (GER-023/043)

Sorginen inguruko kontu asko entzun izan dituzte. Ajangizko putzu bat sorginen putzua zela eta handik sorginak irteten zirela esaten zuten. Lamikizen ere ba ei zen beste sorgin-putzu bat. Jendea beldur izaten zen gauzez handik pasatzeko.

400. Umeei kutuna ipintzen zitzaaien, begizkotik babesteko (GER-023/048)

Umeei kutunak ipintzen zitzaizkien, begizkotik babesteko. Nolakoak izaten ziren. Berak ere ohituraz ipini ei zizkien bere umeei. Garai batean oparitu egiten ziren.

401. Arimen inguruko kontakizunak (GER-023/049)

Arimak penatan. Entzun izan dituzte halako kontuak. Lekeitiora bidean gertatutako kasua.

402. Umetako jolasak (GER-023/051)

Umetako jolasak: "tabaka", "fidoka". Nola jolasten zuten. "Txirrinbolak"; nola egiten zituzten eta nola jolasten zuten. Mutilak "tronpa"rekin ere ibiltzen ziren. Lurrezko kanikak. Pilotan eta futbolekin ere ibiltzen ziren mutilak. Intxaurrekin nola jolasten zuten. "Bolaketan" ere ibiltzen ziren. Lumon ez zegoen bolatokirik; Mendatan bai.

403. Kukuaren inguruko esaerak (GER-024/001)

Euren osaba batek kukuaren inguruan esaten zuen kontua: andre Mari martikotik hamar egunera ez bazen azaltzen, "korredorie" bidali behar zela bila. Kukua entzuten zen lehenengo aldian poltsikoan dirua eduki behar zela ere esaten zen, gero urtean zehar dirua edukitzeko.

404. Pazkoetako esaera (GER-024/002)

Pazkoak aurretik errogatibak egiten ziren, euria egin zezan. Horrekin lotutako esaera: "Pazkoa euritsu, urte guztia ogitsu".

405. Ezkondu eta hurrengo domekan hilerrietan dirua bota behar (GER-024/005)

Ezkondu eta hurrengo domekan andrea elizara joan eta hilarri guztietan dirua bota behar izaten zuen.

406. Umea jaio osteko ohiturak (GER-024/007)

Umea jaio eta berehala bataiatzen zutenez, ama ez zen egoten bataioan. Geroago, ama umea elizan sartzera joaten zenean, ezin izaten zen elizara sartu abadeak kandela bat eman arte. Elizan sartu, errezo batzuk egin eta etxera. Umearekin elizan sartu aurretik emakumeek ezin zuten ezer egin. Oinez joan behar elizaraino, umea besoetan hartuta.

407. Gernikatik Lumorako gurutze-bidea (GER-024/012)

Gurutze-bidea egiten zen Gernikatik Lumora. Lumoko abadea joaten zen. Noiz amaitu zen. Abadea eta mozorrotutako lagun batzuk joaten ziren: Jesukristo, deabrua, Judas, Veronica... Nolakoa izaten zen. Gero sermoia Lumon. Jende asko joaten zen.

408. Algortako etxe dotore batean neskame (GER-025/005)

Gaztetxotan neskame joan zen Algortara, etxe dotore batera. Eskularru zuriekin zerbitzatzen zuen eta "sí, señorita" esan behar. Hiru neskame egoten ziren, amantal zuriekin eta uniformearekin. Gaur egungo aberatsak ez direla horrela ibiltzen dio. Lehen ohikoa zen neskame joatea.

409. Abadeak garia eta arrautzak batzen zituen, soroak bedeinkatzearen truk (GER-025/015)

Abadea soroak bedeinkatzen ibiltzen zen baserririk baserri. Gero, sakristauaren laguntzaz, garia, artoa eta arrautzak batzera etortzen zen, garia batzea amaitzen zenean. "Zelemina" bete gari ematen zitzaion. Soroak nola bedeinkatzen ziren. Lehen soroak ganaduaren laguntzaz lantzen ziren. Baserriko bizimodua nola aldatu den.

410. Inauterietako ohiturak (GER-025/025)

Inauterietan tostadak egiten ziren. Txerri "kaderak" eta belarriak jateko ohitura ere bazegoen. Inguruetan bazen marro janzten zenik ere. Gernikan, berriz, maskararekin ibiltzen ziren.

411. "Bastoste" eguna lagunekin ospatzen (GER-025/026)

Inauteriak aurretik "Basatoste" eguna ospatzen zuten. Auzoko lagunekin mendira joan eta txerriak jaten zuten, sutan erreta,

412. Bost pezeta ordainduta, okela jateko baimena (GER-025/028)

Okela jan ahal izateko, buldak hartu behar izaten ziren. Abadeak edukitzen zituen papertxo batzuk izaten ziren. Bost pezeta balio izaten zuten. Orduan diru asko zen.

413. Garizuman, jauna hartzean, txartela jaso eta Pazkoetan itzuli (GER-025/029)

Garizuman "txantelak" banatzen zituen abadeak jauna hartzerakoan, nork hartu zuen eta nork ez jakiteko. Gero, Pazkoa ostean, baserrietara etortzen zenean, eskatu egiten zuen txartel hori. Derrigorra izaten zen jauna hartzea.

414. Lumoko sakristian bakailaoa eta ogia jateko ohitura hiletetan (GER-025/032)

Hiletan inguruko azalpenak. Andariak familiak aurkitu behar izaten zituen. Auzoko mutil gazteak izan ohi ziren. Garai batean hiletara joaten ziren guztiei bakailaoa eta ogia ematen zitzaizkien Lumoko sakristiako ezkaratzean. Bakoitzak bere sardexka eraman behar izaten zuen etxetik. Gerora, ohitura hori galdu egin zen eta Lumoko tabernan ematen zitzaizen jaten bertaratutakoei.

415. Ezkontza deiak; dotea (GER-025/037)

Garai batean hiru dei egiten ziren ezkontza aurretik, domeka bakoitzean bat. Azkenengoan, abadeak esaten zuen norbaitek zer bait bazuen esateko, hiru egun pasa aurretik adierazteko. Ezkontzetan kontratu modukoak egiten ziren. Dotea; bakoitzak ahal zuena. Ohikoa izaten zen logela bat sartzea dotean.

416. Marijesien inguruko azalpenak (GER-026/004)

Marijesiak kantatzen irteten ziren Gabonetan, bederatzi egunez. 4-5 lagun elkartzten ziren. Bakarlari moduan abesten zuen berak. Hiru klasetako doinuak kantatzen ziren. Horien inguruko azalpenak.

417. Marijesietako kantak I (GER-026/005)

Marijesietako kantak: "Abendu santu honetan Kristoren jaiotzia...". Hiru egunetan kantatzen zen kanta hori.

418. Marijesietako kantak II (GER-026/007)

Marijesietako kanta batzuk abesten ditu.

419. Urteberri eguneko kanta (GER-026/010)

Urteberri eguneko kanta.

420. Txerria hil eta hurrengo egunean "txintxarradie" (GER-026/018)

Txerria hiltzen zen gauean berakatz-zopa ederra eta odolostea erreta. Hurrengo egunean "txintxarradie": "txintxarrak" frijitu egiten ziren eta haren koipea aprobetxatu. Auzokoak elkartzten ziren. Gauean berriz berakatz-zopa eta "txintxarrak". Gainean, gaztainak. Gero, kontuak esan lagunartean.

421. Santa Ageda koplak (GER-026/021)

Santa Ageda koplak.

422. Lumoko San Pedro jaietan erromeria eta sua Gernikan (GER-026/031)

Lumoko San Pedro jaietan Gernikara jaisten ziren eta erromeria egiten zuten. Andra Mari elizaren aurrean sua egiten zuten. Erromeria non egiten zuten eta ingurua nolakoa zen.

423. Bedeinkatutako gurutzeak saltzen zituzten Gernikan (GER-026/035)

Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen ziren elizan eta Gernikako plaza zaharrean saltzen zituzten. Jendeak ereinotz adarrak ere erosten zituen, balkoian ipintzeko. Lore eta adar gehien zituen ereinotza izaten zen garestiena. Non bedeinkatzen zituzten gurutzeak.

424. Oinaztutik babesteko aterkia (GER-027/003)

Aharitxo batekin izandako kontakizuna. Gaiztoak izan arren, ez zituzten askorik zigortzen. Doña Romana maistra ona zen; baina doña Luisa, bere laguntzailea, ez. Behin, Juanitari erregela apurtu zion eskuan. Maistra euskalduna zen, arratzuarra; hori dela-eta, euskaraz ikasi zuten. Katezismoa ere doña Romanarekin ikasi zuten, hori ere euskaraz. Belendiztarrak jaunartzea Arratzun egiten zuten eta bertako umeei Arratzura laguntzen zieten; egun euritsu batean, bertarako bidean gertatuko pasadizoa kontaktzen du: oinaztuak (tximistak) ez harrapatzeko aterkia aldrebes eraman zuten.

425. Jaunartzea; dotrina euskaraz (GER-027/005)

Kortezubiko don Bizente, don Bittor eta "Gorritxu" aipatzen ditu. Don Bizentek emakumezkoak ikusterakoan alde batera begiratzen zuen. Jaunartzean eramandako arropa zelakoa zen kontaktzen du, harro joan zen. Gane auzoko mutil bati abadeak gaiztakeriaren bat-edo egin zuelako belarritik tiratu zion. Dotrina euskaraz ikasi zuen. Behin dotrinara Kortezubira joan barik Gautegiz-Arteagara joan ziren.

426. Sermoi gogorak (GER-027/007)

Sermoiak pulpitutik egiten zituzten. Baltsean egitearren gogor egiten zieten bekatua zen-eta, soltean baino ezin zen egin dantzan.

427. Karmeldarren ikastetxean (GER-027/009)

Karmeldarren ikastetxean, debaldekoan, beheko solairuan egoten ziren. Gaztelaniaz ikasten zuten; oinez joaten ziren goizez zein eguerdiz. Doña Bitoria, doña Eusebia eta doña Petra mojak gogoratzen ditu.

428. Belendizko eskola karmeldarrena baino hobea (GER-027/011)

Belendizko eskola karmeldarrena baino hobea zen tratu hobea ematen zietelako. Bietan ikasi zuten josten; Belendizen kakorratz (gantxillo) dotoreak egin zituela dio.

429. Nebaren gaiztakeriak (GER-027/013)

Bere aita Ameriketara egon zen artzain. Amarekin eta aitona-amonekin hazi zen Juanita. 3 neba-arreba izan ziren, bera bigarrena. Bere neba zaharrena, Segundo, gaiztoa zela dio; horietako gaiztakeria bat kontatzen du. Amak txerri artean utzi zuen preso zigor modura. Behin, ezkaratzeko (sukaldeko) armairuko trasteak atera eta oilandak eta oilaskoak sartu zituzten bertan. Beste behin, aitaitaren eskopeta hartuta, sabaiko leihotik tiroka ibili zen bere neba.

430. Gaueko bederatzietarako etxera (GER-027/015)

Ajangizeko erromerian panderoa egoten zen, Gernikako Pasealekuan, aldiz, banda. Gaueko bederatzietarako etxera joan behar izaten ziren. Behin San Juan Ibarrako erromeriatik ordu erdi berandu joan zen eta etxeko atea zarratuta aurkitu zuen, ama erratz kirtenarekin irten zitzaion atera.

431. San Roketako "Tio vivo"ak (GER-027/019)

San Roketara "Tio vivo"ak egoten ziren. Behin, "Tio Vivo"ko katearen olioarekin arropa zikindu zuen eta ordutik aurrera ez ziotean arropa berririk erosten jaiak pasatu arte. San Juan Ibarrako plazan egoten ziren "Tio vivo"ak.

432. Kanposantura gorpuak ikustera (GER-027/027)

Gerra sasoiaren, bere lagun batek mutil batzuk ikusi zituen kamioi batean, eta lo zeudela pentsatu zuen. Bonbardaketa egunean, bendajearekin etorri zen Gernikara. Soldaduak beraien etxera taloa eta esnea jatera joaten ziren. Ez zekiten bere neba non zegoen eta kanposantura joan zen bere lagun batekin ea gorpua han zegoen ikusteko; 7 gorpu zeuden, baina bat bera ere ez zen Segundorena. Lurperatzaileak esan zien ez zegoela ajangiztarrik hildakoen artean.

433. Bonbardaketan Erreteriatik Oleskoraino ihesi (GER-027/029)

Bonbardaketa egunean bere lagun Marirekin abarketak erosten joan zen Teresatxunera. Handik Erreteriatik auzora joan ziren; eta, "Gernika" tindategiaren aurrean zeudela, San Juan Ibarra bota zuten lehenengo lehergailua. Dena ketan hasi zenean, bertako atari batean sartu zen beste andre batekin. Erreteriarantz zihoazela, beraien etxetik hegazkinak zeuden; beraien atzetik zetozenak bertan hil egin ziren. Oleskoraino joan ziren arrapaladan eta bertako baso batean ezkutatu ziren.

434. Arbola baten atzean ezkutatuta (GER-027/031)

Oleskoko basoko arbola batean atzean egon zen ezkutatuta. Ondoko landa batean "Taverna Vasca"n ostatu hartuta zeuden madrildar batzuk egon ziren. Hegazkinek alde egin arte, ez ziren handik mugitu. Gero, karkaba batera joan ziren eta Arratzuko mutil bat ere beraiekin egon zen. Bonbardaketa bukatu zenean, etxerantz joan ziren, Burgobekotik Ajangizko bidera.

435. Bonbardaketa eguneko gaua (GER-027/033)

Bonbardaketa eguneko gauean, trenaren jendea batzen zebilen jendea ebakutzeko. Gorrien munizioak su hartu zuen. Ez zitzaion familiako eta auzoko inor hil. Hurrengo egunetan, baserriei eraso egingo zizketelakoan, jendea karkabetan ezkutatu zen.

436. Kupoa entregatu behar; errazionamendua (GER-027/037)

Ajangiztik Gernikara, Larrondonera, entregatu behar izaten zuten indaba, artoa, garia... Errazionamendua Gernikako denda ezberdinetan ematen zuten.

437. Neba preso (GER-027/041)

Guardia zibilak dendarik denda joaten ziren jeneroa eskatzen. Bere neba Gaztela aldean hartu zuten preso; fusilatzeke zituztela, hegazkin bat hurbildu eta alde egitea lortu zuten. Urte askoan egon zen Valentziako langile-batailoietan, okindegi batera eraman zuten lanera; ogirik ez zitzaion falta, behintzat, lodituta bueltatu zen-eta.

438. "Taverna Vasca" maletazaina (GER-027/050)

Gerra aurretik "Taverna Vasca"n ibili zen beharrean sukaldari-laguntzaile legez. "Maleteroa" egoten zen jendearen bila tren-geltokira joaten zena. Andre bat egoten zen kalean egunkariak saltzen "Euzkadi, Euzkadi roja, ´rgano de la juventud del Partido Comunista de Euzkadi mundo obrero" oihuka, eta emakume hura segika izaten zutela esaten zuen maletazainak. Maletazaina kartzelan sartu zuten eta Juanitak eramaten zion tabernatik jatekoa.

439. Gernikako kartzela (GER-027/052)

Gernikan kartzela dotorea zegoela dio, gaur egun Baste dagoen tokian. Juanitak "Taverna Vasca"ko behargin bati eramaten zion jatekoa.

440. "Taverna Vasca"n jornalik ez (GER-027/053)

"Taverna Vasca"ra Madrildik-eta etorritako jendea egoten zen uda pasatzera etorritakoak. Ez zuen inolako jornalik jasotzen, ikasten joan zela dio. Bertako ugazabak, Julik, plazara bidaltzen zuen erosketak egitera, eta baserritarrek Julirekin egiten zuten zuzenean tratua. Ugazabak ajangiztarrak ziren. Bonbardaketan bertan lanean zebilen mutil bat hil zen.

441. Guardia Zibilen kuartelera deitu zuten (GER-027/054)

Frantziatik bueltan, Guardia Zibilen kuartelera joateko errekadua eman zion aguazilak. Arratsaldeko 5etan bertan agertzeko esan zion; eta, 5etan agertzen zirenak 6etako trenean Bilboko kartzelara eramaten zituztenez, Juanita maleta eta guzti azaldu zen bertara. Azaldu zen, baina etxera bueltatu zen, esan zioten ez egiteko inon errekaduei kasu.

442. Liberazioko egunean Bilbora I (GER-027/055)

Ajangizko udaletxetik gutun bat bidali zioten liberazioko egunean Bilbora joan zedin, borla gorridun txapel gorria zuela. Bere neba ezpata-dantzaria zen eta haren txapelarekin joan zen. Trenez joan zen bere lagun batekin, Linarekin, Lina ez baitzen sekula Bilbon egon. Bilbora heltzerakoan Areatzara joan ziren.

443. Liberazioko egunean, Bilbora II (GER-027/056)

Bilbora heltzerakoan, Areatzara joan ziren. Erdiko kalean zeudela, arratsaldeko bostetan Jesusen Bihotzaren aurrean desfilea zegoela zioten bozgorailuek eta beraiek 7etan zuten etxerako trena Atxurin; desfilea ikusi barik bueltatu ziren etxera.

444. Errotara (GER-027/068)

Txaportan Arabietako errota egon zen; Kanpantxun Errotabarri, Goikorerota eta Estilotza. Juanitaren etxeok Arratzuko Elizaldera joaten ziren, Arratzuerrotara. Arratzuerrotan gariaren zein artoaren irina egiten zuten. Marmiztik joaten ziren gauez.

445. Lurgorritik Gernikara beti oinez (GER-028/002)

Lurgorritik Gernikara beti oinez joaten ziren. Eskolara, karmeldarretara, trenbidetik joaten ziren. Ez omen zuten askorik ikasi, gero eskola partikularretara joan zen.

446. Saraspera jateko bila (GER-028/003)

Bonbardaketan Lurgorri egon ziren. Ama, aita, anaia bat eta bera gelditu ziren etxean; gainerakoak Basaurira joan ziren izeko batengana. Saraspera joaten ziren jatekoaren bila. Militarrek ematen zuten jatekoa.

447. Asturiarrek nahi zutena egiten zuten (GER-028/004)

14 urte bete orduko hasi zen Talleres Gernikan lanean; bonbentzako piezak kargatzen zituzten. Urte askoan ibili zen bertan beharrean; baserriko lanarekin uztartzen zuen. Bonbardaketaren ostean, asturiarrak sartu zirenean, nahi zutena egiten zuten: beraien aitari gabardina eskatu, Arangoiti baserrian txahalak kendu...

448. Bonbardaketan, baba artean ezkutatuta (GER-028/005)

Bonbardaketa hasi zenean, soloan egon zen anaia batekin eta ganadurekin. Ama zarataka hasi zitzaien etxera joateko eta arrapaladan joan ziren. Ama zubipean ezkutatu zen eta bera Txokillo ondoan, baba artean. Derrigorrez ezkutatu behar zuten, jendea metrailatu egiten baitzuten. Etxera bueltatu zirenean, etxea erre barik aurkitu zuten; inguru guztian bota zituzten bonbak, baina etxean ez.

449. Trenak alde egitea lortu zueneko (GER-028/006)

Beraien etxe ondoan dago trenbidea. Bonbardaketan trena geldi egon zen. Baina, halako batean, trenak bagoi bakar batekin Bilborako bidea hartu zuen; eta, abioiek eraso egin arren, ez zuten jo.

450. Bizkargira gorpuak batzera (GER-028/007)

Gizonezkoak gorpuak jasotzera eta garbitzera eramaten zituzten gerran. Beraien aita gurdiarekin joan zen Bizkargira, eta Claudio aitari laguntzen joan zen; baina ibilbide erdian etxerako bidea hartu zuen. Bere aita ere ez zen Bizkargira heldu.

451. Garretan eta ketan denbora luzean (GER-028/008)

Bonbardaketa ostean, egunetan egon zen herria garretan eta ketan. Erreterria auzoan zuten izeko batengana joan behar izan zuten, baina ezin zenez herritik pasa, inguruetatik joan ziren: Santa Klaratik anbulatorio ingurura, handik institutura, eta erreka pasa ostean, Erreteriara. Bertako zubiari hainbat bonba bota zizkieten, baina ez zuten helburua lortu. Mendian aurkitzen zituzten balekin jolasten ziren mutikoak.

452. Gurdiak, astoak eta astalekuak (GER-028/009)

Beraien etxea trenbidearen eta errepidearen artean dago, baina lehen errepidea estuagoa zen, ez baitzegoen ia kotxerik; gurdiak baino ez ziren pasatzen, Muxikatik zetozen "asto-karroak". Bidearen kontrako etxeko horman, pilotan aritzen ziren mutilak; neskatilek ere errepidean jolasten zuten. Gernikan, Arrien aurreko parkean, feria egiten zen eta astoz beteta egoten zen, bertan lotzen ziren. Kontsezio egunean, Kaltzada egoitzan (ospitalea zen sasoi hartan) txerriak hazten ziren. Mutil gazteek astemeei pipermina jartzen zien ipurdian; hori dela-eta, ostikoka eta saltoka hasten ziren kateak apurtuz.

453. Neba-arreben bila Basaurira astoz (GER-028/010)

Gerra bukatu ostean, neba-arreben bila joan behar izan zuen Basauriko Dos Caminosera (Bidebieta). Astoz eta bizikletaz joan ziren bera eta aita bertara, baina ez zituzten bertan aurkitu. Hurrengotan, bera bakarrik joan zen astoarekin. Astoak behin egindako bidea ezagutzen zuen. Etxera bueltan anaia eta arreba asto-otzaretan ekarri zituen; gainerakoak trenez etorri ziren. Astoz trenez baino lehenago egin zuten bidea.

454. Neba-arreba denak beharrera (GER-028/011)

Bonbardaketa ostean, bere arreba esnetegian hasi zen beharrean eta gerora abarketak egiten. Esnetegia eta abarketeria non zeuden azaltzen du. Claudio "Talleres"etan hasi zen beharrean eta apurka-apurka neba-arreba denak hasi ziren lanean.

455. Kamioi-gidari urte luzez (GER-028/013)

Hainbat lanetan ibili ostean, Paco Gomezekin hasi zen kamioi-gidari. Bost ordu tardatzen zuen Donostiara heltzen. Hasieran, gerrako kamioi italiarrak ziren; gero, Pegasoarekin ibili zen. Beranduago, "Aprovechamientos siderúrgicos"en hasi zen txofer. Azkenean, neba-arrebei dirua eskatuta Pegaso bat erosi zuen eta bere kontura hasi zen. Kamio-gidariarena lanbide gogorra dela dio.

456. Pasealekuko erromeria eta antzerkiak (GER-028/016)

Gernikako erromeriak Pasealekuan izaten ziren. Aratusteetan jantzi dotoreak ikusten ziren. Astelehenetako erromerian domeketakoetan baino jende gehiago batzen zen. Banda egoten zen kioskoan, Olaetaren banda. Claudio bera ere ibili zen tronpeta-jotzaile. Segundo Olaetak alde egin zuen gerran eta gerora beste zuzendari bat izan zuen. Antzerkiak ere ugariak izaten ziren, Claudiok barkillogile papera bete zuen lehen antzerkian.

457. Karmelitetatik bota zutenekoa (GER-029/002)

Traman jaioa da. Ama ez zuen ezagutu eta izebaren etxera joan zen bizitzera, eskolara Gernikako karmelitetara joateko. Moja batek Gernika gorriek erre zutela, bere aitak erre zuela esan zion eta aita eskolara joandakoan, Bittori eskolatik bota zuten.

458. Kalerako oinetakoak aldatu (GER-029/008)

Tramatik Gernikara joateko, bidean oinetakoak aldatu egiten zituzten.

459. Ahizpa modista (GER-029/009)

Bere ahizpa modista ona zen eta arropak berak egiten zizkion. Egunero bizikleta hartu eta lagunengana joaten zen.

460. Prakatxo datorrela (GER-029/012)

Aintzinako ipuinak. Prakatxo etorriko zela mehatxu egiten zien aita. Ekaitza zetorreen ere Prakatxo zetorrela esaten zien. Mahaipean ezkututzen zen.

461. Frakak jantzita gaztetatik (GER-029/013)

Lehenengotarikoa izan zen frakak janzten. Bere ahizpak egiten zituen. Batzuek onerako eta beste batzuek txarrerako iritziak ematen zizkieten. Osaba bat izan zuen apaiza, Don Tomas.

462. Zigarroak eta tabernak (GER-029/014)

Gaztetatik erre izan du. Lagunekin eskuz egiteko zigarroak erosten zituen eta arto artean erretzen ibiltzen ziren. Modari jarraitzearen, erre ere egiten zuen. Tabernara joaten ziren baina muztioa edatera. Orduko tabernak izendatzen ditu.

463. "Las Americanas" ile-apaindegira (GER-029/016)

Berandu artean ez du aurpegia margotu izan. Ezkutuan ibiltzen zen. Hamazortzi urtetik aurrera ile-apaindegira joaten zen, "Las Americanas" izenekora. Non zegoen kontatzen du.

464. 'Jose Martillo' aitona; San Juan Ibarra olgetan (GER-030/002)

Bere aitaita sakristaua izateaz gain zapataria ere bazen. Barrenkale kalean zuen zapata-denda 'Jose Martillo' deitzen zioten; umeei mailua botatzen zieten 'Jose Martillo' deitzerakoan. 'Txankan' denda Ocho de Enero kaletik San Juanerako izkinan zegoen. Beraiek San Juan Ibarra Portu kalean bizi ziren; erreka izkinako zapoak zirela dio. San Juan Ibarra bertan jolasten zuten neska-mutiek elkarrekin: txorro-morroka, sokadantzan... Eskolara joateko bidean arandelaka eta tronpaka ibiltzen ziren. Pasealekuko eskoletan ikasi zuen.

465. 'Poste elektriko' aguazilari egindako zapokeria (GER-030/004)

San Juan Ibarra, inguruko gazteek zapokeria (gaiztakeria) asko egiten zituzten. Aguazilei ere zapokeria itzelak egiten zizkieten eta ez ei ziren hara askorik hurbiltzen. 'Poste elektriko' aguazila aipatzen du eta harekin bizitako istorio bat. Aguazila etxera joaten zen gurasoei kontatzera eta etxean "propina" izaten zuten. Beste aguazil batzuk aipatzen ditu: Katarro eta Asentzioren aita (inspektorea), besteak beste.

466. Gomazko baloiak (GER-030/005)

Jostailu barik jolasten zuten. Baloia bederatzi txakur eta erdiko pilota txiki bat izan zen. San Juan Ibarra, kondeak bizi ziren eta askotan beraien etxeko baloiak osten zituzten.

467. Arana kondearen autoak (GER-030/006)

San Juan Ibarra Arana Kondearen etxea zegoen. Babeslekua zuen eta erre egin zen. Bertan ondoan kotxetegia zituen eta auto dotoreak zituen. Elizara joateko zaldiak ere bazituen. Behin autoak atera eta bertatik bueltara ibili ziren. Aguazilek udaletxera eramaten zuten eta isuna jarriko zietela esan, baina ez zuten dirurik.

468. Gomazko baloiak II (GER-030/007)

Kondearen seme-alabekin ez zuten harremanik, beraien beldurra zien. Baloiak osten zizkieten, handiagoak ziren haienak. Enriquek-eta Pioren dendan erosten zituzten 9 txakur eta erdi balio zituzten pilota txikiak, baina ez zuten diru askorik izaten.

469. Sokadantza; txorro, morro, piko, taio, ke! (GER-030/008)

Iluntzetan neskekin jolasten ziren: sokadantza eta txorro, morro, piko, taio, kera. Zaharragoak zein gazteagoak denak aritzen ziren elkarrekin.

470. Errekako bainuak (GER-030/010)

"Errekako ugaraxoak" deitzen zieten, errekatik Portu kalerako lehenengo etxeetan bizi ziren. Errekan bainatzen ziren eta bertan aritzen ziren jolasten, bertan ikasi zuten igerian. Han ere gaiztakeriak egiten zituzten. Arratzuko errekkako ura garbiagoa zen, eta Lotxin izeneko tokira joaten ziren bainatzera. Neskak ez ziren errekan bainatzen; Muruetapuntara paseatzera joaten ziren eta karramarrotan ere ibiltzen ziren.

471. Artekaleko eta Andra Maria kaleko dendak (GER-030/012)

Gerra aurretik Artekalean zeuden dendak aipatzen ditu: Uriberena, kandelena, fruta-denda, Piorena, Isidoritoren drogeria, Erretxinen okindegia... Andra Maria kalean, Sandalio harategia dagoen lekuan, denetariko gauzak saltzen zituen denda bat zegoen eta kanpoan jartzen zituen gauza asko; Enriquek-eta askotan osten zioten tira eginda. Andra Maria kalean, beste denda zahar bat zegoen eta bertan ere osten zuten. Eskolako maisuari, norbaitek abisua emanaz gero, zigortu egiten zituzten.

472. Pasealekuko eskolan ere barrabaskeriatan (GER-030/013)

6 urterekin hasi zen Pasealekuko eskolan, adin ezberdinekoak batera egoten ziren. Nagusiagoek maisuei egindako barrabaskeriak kontatzen ditu: jesarlekuetan jostorrazak jarri, tintontzian txiza egin... Astelehenetan bertako arkupean kanpoaldean egiten zen azoka, eta soka batean iltze bat jarrita sagarrak-eta lapurtzen zituzten leihotik.

473. Kaletarrak eta baserritarrak (GER-030/015)

Pasealekuko eskolan kaletarrak zein baserritarrak batzen ziren. Kaletarrek zapokeria gehiago egiten zituzten, baserritarrei ez zitzaizkien horrelakorik bururatzen. Sasoi hartan "semilargoak" ziren prakak janzten zituzten.

474. Pasealekuko maisuak (GER-030/016)

Maisu erdaldunak zituzten: don Mauro Galace;n eta don Manuel Alonso aipatzen ditu. Don Mauro gizon handia zen eta behin bere semeari emandako zaplaztekoa gogoratzen du. Maisuak joz gero ez ziren kexatzen eta etxean ere ez zuten protestarik egiten bestela etxean berriro zigortzen zituzten.

475. Asturiasko Iraultza eta greba (GER-030/017)

Errepublika sasoian Asturiasen iraultza egon zenean, greba handia egon zen. Ez zen ogirik egiten eta itsasoz eramaten zuten ogia Bermeotik bideetan konfiskatu egiten zuten eta.

476. Errepublika sasoian langileak ondo bizi ziren (GER-030/018)

Errepublika sasoiko bizimodua normala zen, ondo bizi ziren, lan asko zegoen eta jendea langilea zela dio. Lizeo ondoan Iruña taberna zegoen eta langileek han "kafe konpletoa" hartzen zuen eta San Juan elizaren kontran zegoen 'Txinoana' deituriko tabernan jaten zuten. Astra arma-lantegian ondo irabazten zen, 8-10 pezeta eguneko. Taberna Vascan eta Txinoanean 2.5 pezetagatik hartzen zuten ostatu behargin askok. Makazagak ere San Juan Ibarrian izan zuen ostatua. Soldata onak zeudenez gernikarrak ondo bizi ziren eta kalean igartzen zen. Eibar aldetik heldu ziren asko eta asko, Enriqueren aita ere horrela heldu zen.

477. Abarka-denda eta esnetegi garrantzitsuak (GER-030/019)

Gerra aurretik jende askok abarka-dendetan egiten zuen lan, eta dirua asko ematen zuten. Esnetegia ere oso famatua izan zen, gaur egun Lidl supermerkatua dagoen tokian zegoen; gaztak eta gozoki oso gozoak egiten zituzten. Andrazkoak ere aritzen ziren lanean, bai behar horietan baita arma-lantegian ere.

478. Eibar inguruko asko arma-lantegira etorri ziren (GER-030/020)

Eibar aldetik behargin asko heldu ziren, gehienak arma-lantegira; arma-eskolatik ikasita zetozen. Bertako ugazabak ere, Unzetatarrak, inguru hartakoak ziren. Alkartasuna izeneko soziedade bat ere egon zen arma-lantegiko langileek sortutakoa, hura erre zenean sortu zuten Astra.

479. Limonada lantegiak (GER-030/021)

Gerra aurretik, Industria kalean limonada egiteko lantegi bat zegoen, Gernika garagardotegia dagoen lekuan, eta San Juan Ibarrian ere bazegoen beste bat. Azken hau, Berrojalbizena, garrantzitsua zen eta baserriz baserri banatzen zuten edaria. Kanikadun botilak izaten ziren. Familia-enpresak ziren, langile gutxikoak. Erreterian ere egon zen beste bat.

480. Kaleko baserriak eta kortak (GER-030/022)

Gerra aurretik herri txikia zen, 4.000 biztanle ingurukoa. Ateak txaramela izaten zuten eta edonor sartu zitekeen etxeetara. Kalean ere bazeuden kortak: Lizeo aurrean Urremendikoek idiak zituzten; San Juan Ibarrian Pascuala erregaterarena eta Felix Orberena. Felix Orbek sagardoa egiten zuen, Kortezubiko Goiburun egiten zuen eta udan lonjan saltzen zuen.

481. Agirre Lehendakaria etorri zeneko istiluak (GER-030/028)

Jose Antonio Agirre Lehendakaria juntetxera etorri zenekoa kontaktzen du. BBK banketxea dagoen lekuan Norte taberna egon zen eta han aurrean egon ziren autobusak kanpotik etorritako jendearekin. Kaleak jendez lepo zeudela, juntetxean istiluak egon ziren eta "Guardia de asalto"ak agertu ziren. Gazteek korrika egin zuten baina nagusiagoak porraz jo zituzten.

482. Arto-bizarrak eta patata-orriak erretzen (GER-030/029)

Bonbardaketan 12 urte zituen. Mertzeden eta Agustinoetan kuartela zegoen. gazterik hasi zen erretzen. Gerran tabakorik ez zegoenez arto-bizarrak eta patata-orriak erretzen zituzten.

483. Bonbardaketa hasiera (GER-030/031)

Gerran, abioiak hurbiltzen zirenean, Aizerrota menditik bolanderak botatzen zituzten. Babeslekuak hareazko zakuekin eta enborrekin egiten ziren. Hainbat babesleku egon ziren. Bonbardaketan bera pinu baten azpian babestu zen. Inguruko lehenengo hildakoa trenbide ondoko txabola bateko Emilio 'Patxarrota' izan zen. Lehenengo bederatzi bonba bota zituzten eta beraien etxea orduan bota zuten: auzoko batzuei etxea gainera jausi zitzaizen eta bertan hil ziren, Pascuala erre kardaria eta Felix Orbe izan ziren.

484. Bonbardaketan trenbidetik Forurantz (GER-030/032)

Lehenengo bonben ostean, 3 minutuko tarte bat-edo egon zen eta trenbide aldera jo zuten korrika, Foru aldera. Hegazkinak baxu pasatzen ziren metrailatzen. Beraiek zortea izan zutela dio, ez zuten etxeko inor galdu. San Juan Ibarrako jendea erreka izkinara joan zen babes bila, plaza guztia txikitu zuten-eta. Hurrengo egunean, Foruko harrobiko kobazuloetan egon ziren Gernika berriro bonbardatuko zutelakoan.

485. Suteetatik ke-lainoetara (GER-030/033)

Bonbardaketaren ostean, Forutik Gernikara bueltatzerakoan, jesuiten etxe zahar batean igaro zituzten lehenengo bi gauak. Bonbardaketan hildako lagun batzuen izenak aipatzen ditu. Andra Maria kaleko babeslekuan handik hilabete batzuetara oraindik gorpuzkinak zeudela dio. Arana kondearen etxean ere jende asko erre zen. Inork ez ei daki zenbat pertsona hil ziren herrian. Inguruetarantz zihoazenak metrailatu egiten zituzten. Dena egon zen sutan. Hasieran guztia zegoen erretzen, baina gero keeta handia zegoela dio. Udaletxe ondoko pare bat etxe eta San Juan eliza bigarren egunean oraindik erretzen zeuden.

486. San Juan eliza (GER-030/034)

Beraien eliza San Juanekoa izan arren eta mezara bertara joan arren, dotrinara Andra Marira joaten zen eta bertan egin zuen jaunartzea. San Juan eliza zelakoa zen kontaktzen du; eliza guztiak bezalakoa zen, baina ez zuen erlojurik. San Juan pobreen eliza zela dio, Andra Maria ostera, aberatsena.

487. Portua, Idiga ontziola eta arrantza (GER-030/035)

San Juan Ibarran portua zegoen eta Idigan ontziola. Ontziola horretan 'Begoña' izeneko belaontzi bat egin zuten. Erreka lehen garbia zen, arrankariak zein

angulak egoten ziren. Arrantzan aritutakoa da Enrique, bere aitarekin zaletu zen. Bere aitak 3 tabernatan saltzen zuen arrantzatutakoa perretxikoekin eta karakolekin batera; bera aritzen zen horiek banatzen.

488. Perretxikotan (GER-030/036)

Perretxikotan Nabarnizera joaten zen aitarekin batera eguzkiak irten aurretik, Burgoan ere hartzen zituzten. Onddoak, urdinak, "setak", "lengua de vaca" eta urretxak aipatzen ditu, onenak eta politenak saldu egiten zituzten. Perretxiko kaltegarriak bareek ere ez zituzten jaten.

489. Urremendi baserrira bizitzen (GER-030/038)

Nazionalak sartu zirenean, Urremendi baserrira joan ziren eta bertan igaro zituzten 8 bat urte. Obietatarrena zen etxea eta baserriko lanetan orduan hasi ziren. Sindikatuko etxeak (Kaltzada egoitza aurrekoak) egin arte egon ziren han eta bertan bizi izan zen 85 urtera arte.

490. Gerra osteko eskola: Francorena (GER-030/040)

Gerra ostean berriro hasi zen eskolara. Lehengoarekin alderatuz dena zen Francorena, sartu aurretik Cara al Sol abestu behar zuten. Gutxi ikasi zutela dio. Nazionalek herri bat hartzen zuten bakoitzean jai izaten zuten. Don Manuel Alonso izan zen maisua. 14 urtera arte ibili zen eskolan.

491. 'Iturri' ezizenaren jatorria (GER-030/043)

Gernikan ezaguna izan arren jendeak ez daki bere abizena Aranzabal denik, Iturri ezizenez baita ezaguna. Bere aitaren aita zen Elgetako Iturri baserrikoa. Bere aitaita Elorriora joan zen eta han jaio eta hazi zen bere aita.

492. Jesuitetako eta agustinoetako eskola eta zinea (GER-030/049)

Gerra aurretik, jesuitek anbulatorio ondoan zeukaten etxean zinea egoten zen. Baina bera gehiago joaten zen agustinoetara, han jolaslekua zegoen, eta Padre Bikuñak zinea ematen zuen eskolaz gain. Gernikar asko joan ziren bertako eskolara, 2 pezeta ordaindu behar izaten zen hilabetean. Bere lagun Jose Ramon Ormaetxea aipatzen du, mezetan kantatzen zuen eta oso ondo gainera.

493. Arrien taberna (GER-030/052)

Tailerrean lanean hasi zirenean, Arrien tabernara joan ziren eta praka laburretan zeudela eta umeak zirelakoan tabernatik irteteko esan zien bertako ugazabak. Gaur egun taberna dagoen lekuaren atzean, barrualdeko patioko etxetxu bat zegoen Kaixao tabernaren ondotik sartzen den garajeetan, eta bertan zegoen taberna eta jatetxea.

494. Gerra aurreko tabernak eta kafetegiak (GER-030/053)

Gerra aurreko tabernak: Barrenkaleko Sangroniz eta Solloa, Artekaleko Katalin, txakolindegia eta sagardotegia, San Juaneko Txinoarena eta Makazagarena. Kafetegiak: Norte Adolfo Uriosten, Industria kaleko Café moderno, Iruña eta Katarro Ocho de Enero kalean, San Juan kaleko Artoa 'Txorixona'. Geltokian Julian hotela zegoen.

495. Gerra aurreko gasolindegia (GER-030/054)

Ocho de Enero kaleko katarro kafetegiaren aurrean gasolindegia egon zen gerra aurretik. San Juan elizaren aurrean beste bat zegoen, beraiek 'Matronarena' deitzen zioten, Kike Dublang medikuaren izekoak zuen. Saraspeko gasolindegia okindegia dagoen tokian zegoen.

496. "Barrio chino" (GER-030/055)

Saraspe ondoan, "Barrio chino"n Guardia Zibilaren kuartela egon zen. Zonalde hori ez zen erre, hori dela-eta gernikar asko horra joan ziren bizitzera eta txinatarrak bezala bizi zirenez -pilatuta- izen hori jarri zioten.

497. Frontoi zaharra (GER-030/056)

Industria kalean zegoen frontoia bonbardaketa ostean nahiko ondo egon zela dio, baina ez zuten konpondu. Enrique-eta jendearen artetik sartzen ziren ordaindu gabe. Jose Luis Garciaren aita eta Txobertxu ziren atezainak eta harrapatuz gero kanpora botatzen zituzten. Mateo de la maza zen bertakoa intendentea. Aurreko tabernan bingoa egoten zen. Zine mutua 3 txakur txikigatik ematen zuten frontoian. Aratusteetan dantzaldiak egiten ziren.

498. Gerra aurreko aratusteak (GER-030/057)

Gerra aurretik ospatzen ziren aratusteak. Pasealekuko arkupeetan ospatzen ziren. Forum kirol-denda dagoen tokian, 'Txardelo'k denda txiki bat zuen eta trajeak alokatzen zituen. Egunez Pasealekuan egiten ziren ospakizunak bukatu ostean, gaueko hamarretan frontoi zaharrera joaten ziren.

499. Dantzan egiteko ordaindu egin behar (GER-030/058)

Dantzan egiteko ordaindu egin behar izaten zuten mutilek. Mutilak hurreratzen ziren neskengana dantzan eskatzera. Urriko azken astelehenetan inguruko neskak etortzen ziren eta oso gogoko zuten egun hori.

500. Gerra aurreko urriko astelehenak (GER-030/059)

Gerra aurreko urriko azken astelehenetan baserritarrak gurdiekin hurbiltzen ziren herrira. San Juan kalean, zubitik Bermeorako bideraino, postuak zakuz beteta egoten ziren. Erregatera asko etortzen ziren Bilbotik, gero bertan saltzeko. San Juan Ibarran erromeria egoten zen, kanpotik etortzen ziren soinu-jotzaileak. Hiru-lau erromeria egoten ziren korro ezberdinetan. Korro bakoitzera sartzeko mutilek ordaindu egin behar izaten zuten.

501. San Juanak (GER-030/060)

San Juan bezpera gauean erreka izkinan egiten zen sua, eta bezperan eta egunean bertan Gernikako banda egoten zen; banda ez baldin bazan egoten, erromeria egoten zen. Etxerik etxe joaten ziren altzari zaharrak batzen sua egiteko.

502. Gabonetan eta Santa Agedatan abesten (GER-030/061)

Santa Ageda egunean ez zuten abesten, baina urte berritan eta Errege egunean bai. Zinerako dirua ateratzen zuten. Gerra aurretik Santa Agedatan kuadrilla asko irteten ziren kantatzen: Makazagarena, Briñasena, Totorikarena, Joaneterena...

503. Gabonak (GER-030/065)

Gabonetako kaleko denden erakusleihoetan egoten ziren pastelei begira, gozo-denda guztiek egiten zituzten gozokiak.

504. Errekarako ontzia eraiki zutenekoa I (GER-030/066)

San Juan Ibarreko umeek errekan ibiltzeko ontzi handi bat egin zuten; zelan eraiki zuten kontatzen du zehaztasun osoz. Materiala aroztegietan ostu zuten. Ez zieten sinistu beraiek bakarrik egin zutenik.

505. Errekarako ontzia eraiki zutenekoa II (GER-030/067)

San Juan Ibarreko umeek errekan ibiltzeko ontzi handi bat egin zuten; zelan eraiki zuten kontatzen du zehaztasun osoz. Materiala aroztegietan ostu zuten. Ez zieten sinistu beraiek bakarrik egin zutenik. San Juan suetan, erreka izkinako erramak-eta batzeko ontzia erabiltzen zuten; horrela, erreka garbi mantentzen zen. Ontzia zubipean egoten zen. Bonbardaketan bertara erori zen metrailatutako gizon bat. Nazionalak sartu zirenean, beraien botea italiarrek erabiltzen zuten itsasadarraren alde bien artean garraiatzeko.

506. Montefuerte kondearen pinuekin egindako babeslekua (GER-030/070)

Euskal Herriko museoaren atzealdeko arbolekin egin zuten gerrarako babeslekua, Montefuerte kondearen pinuekin. Baina lehegailua handiago izanez gero ez zuten ezertarako balio.

507. Herria berreraikitzen (GER-030/075)

Bonbardaketa ostean herri garbitzeko eta berreraikitzeko, hasieran presoak ekarri zituzten. Enrique bera azoka eta Banco de Vizcaya eraikitzen ibili zen arotz bezala. Altxatu ziren lehenengo eraikinak zeintzuk ziren aipatzen du.

508. "Olleridxie"n jaioa (GER-031/003)

11 neba-arreba izan ziren; bera bosgarrena. Bera Gernikan jaio zen, baina bere neba-arreba batzuk Arratzun jaio ziren ber aita Nabearen errota alokatu baitzuen okindegia jartzeko. Bere gurasoak Juan Kaltzada kaleko etxe batera joan ziren bizitzera. Bertan batzarkideak batzen ziren taberna eta lapikoak egiteko tailerra zegoen "olleridxie". "Olleridxie" zegoen etxea erosi zuten bere gurasoek.

509. Jaiotetxean okindegia eta biltegia (GER-031/005)

Asilo Kalzada kalean jaio zen. Bere aita okindegia eta biltegia (zahi, baba, garagarra, ereiteko patata...) jarri zuen. Bizikletaz zaku-banaketa egiten zuen herrian zehar.

510. Ama Birjinaren kapa (GER-031/011)

Gernikako abadearen arreba, doña Piak, Errigoitiko Ama Birjinaren kapa jarri zion Gernikakoari eta Gernikakoa Errigoitikoari. Doña Pia nesken maistra zen.

511. Anaia pilotari profesionala (GER-031/012)

Pasealekuko eskolan ikasi zuen. Hasiera baten mutil eraikina eta frontoia baino ez zegoen. Denak aritzen ziren pilotan. Bere anaia, Dioni, pilotari profesionala izan zen, Atano III.aren mailako pilotariekina batera.

512. Pasealekuko eta Otazuareneko eskolak (GER-031/015)

Pasealekuko eskoletan nesken alderdia eta mutilena zegoen. Seberinok dio ez zuela askorik ikasi, gerora beraien etxe ondoko Otazuenera joan zen bertako eskola partikularretara. Bertako alaba batek ematen zituen eskolak.

513. Maisu erdaldunak (GER-031/018)

Pasealekuko maisuak erdaldunak ziren, euskaraz suntsitzera etorri zirela dio. Hala ere, berak izan zituen maisuak ez ziren euskararen kontrakoak.

514. Artilezko pilotak (GER-031/021)

Pasealekuko eskoletan Gernikako umeak baino ez ziren batzen. Pilotaka jolasten ziren batez ere. Pilotak amari osturiko artilearekin eta kortxo zati batekin egiten zituzten.

515. Gaztetako ibilerak (GER-031/023)

Gaztetako ibilerak: madari-lapurretan, mojen komentura sartu nahian egindako ebakia, foralekin bizitakoak... Gaiztakeria asko egindakoak dira. Bere anaiak atzamar batzuk galdu zituen umetan.

516. Tabaka, karramarrotan... (GER-033/002)

Umetan eta gaztetan Pasealekun egoten ziren. Tabaka eta sokasaltoan aritzen ziren. Tabak harategian eskatzen zituzten eta zelan jolasten zuten azaltzen du. Orratzekin ere olgetan zuten. Muruetara karramarrotan joaten ziren. Ez zuten mutilekin jolasten.

517. Pasealekuko dantzaldiak; orkestra soziedadean (GER-033/004)

Pasealekuko dantzaldiak zelakoak izaten ziren aipatzen du. Kioskoaren inguruan batzen ziren mutilei begira. Lehenengo, baltseoan dantza egitekoak jotzen zituzten, gero, soltean egitekoak, eta, azkenik, pasodoblea. dantzaldia bukatu eta segidan joaten ziren etxera, Udan ere goiz joaten ziren etxera. Behin bere bi nebekin soziedadean zegoela gaueko hamaiketan aguazila agertu zitzairen etxera joan behar zela esanez alkatearen aginduz.

518. Errepublika: "Sociedad guerniquesa de los carlistas" eta batzokia (GER-033/009)

Errepublika sasoiaren "Sociedad guerniquesa de los carlistas" eta batzokia zeuden. Bera batzokian egoten zen, eta bonbardaketa ostean emakumeak aritu ziren elizak-eta garbitzen, baina bera Landaberden zegoenez libratu egin zen.

519. Frantziara errefuxiatu (GER-033/011)

Bonbardaketa ostean, Olabarrira joan ziren amaren familiarengana. Handik Bilbora joan ziren, eta itsasontziz Santanderrera eta Frantziara. Hiru hilabetez egon ziren Frantzian. Bere aita ez zen beraiekin joan; eta, gutun bidez esan zienean Landaberden zegoela, beraiek ere bueltatu egin ziren. Herrirantz zetoze, muga-plater bat jateko lortzeko, Cara al Sol ikasi eta kantatu behar zuten. Irundik, animaliak garraiatzeko tren batean etorri ziren. Beste gernikar batzuk ere egon ziren beraiekin Frantzian.

520. Bonbardaketa Andra Marian egon ziren (GER-033/013)

Bonbardaketa egunean, arratsaldeko lauretan irten zen kalera auzoko batekin. Sasoi hartan, Gernika-Lumok errefuxiatu asko jaso zituen; hori dela eta, kanpoko jende ugari zegoen. Kalean mugimendu handia nabaritu zuten. Amuma bonbardaketa baino hilabete lehenago hil zen eta oraindik lutoz zebilen. Kalera irten eta segidan, kanpaiak entzun zituzten. Andra Mariara joan ziren Piedadeko Ama Birjinaren ondora, eta han egon ziren erasoak bukatu arte.

521. Etxekoak non zeuden jakin barik (GER-033/015)

Andra Maria kanpora irten zirenean ikusitakoa ikaragarria zela dio. Gurasoak Astrako babeslekuan egon zirela uste zuen, baina ez ziren egon han; eta, Montefuerte kondearen etxean egon zirelakoan, bertara joan zen. Hala ere, gurasoak ez zituen han aurkitu. Kanpantxuko (Ajangiz) Sebera esne-saltzailea zegoen bertan, eta hark esan zion beraien etxea osorik zegoela; baina kanpoko aldeak baino ez zuen iraun zutik. Gauean bertan, Kanpantxura joan zen lotan. Bigarren egunean, Olabarrira joan zen eta bertan aurkitu zituen etxekoak.

522. Frantziarako bidaia eta hango egonaldia (GER-033/016)

Bonbardaketa ostean, Olabarrira joan ziren; eta, handik gutxira, Bilboko Colón de Larreategi kalera. Handik, senitarteko batzuekin batera, Frantziara joan ziren. Itsasontziz heldu ziren Frantziara, eta gero trenez Bordelera. Bordeleko dendez gogoratzen da, Gernikan ez zegoen ezer ere, eta han denetarik. Frantzian egon ziren tokia, lehenago, kuartela izan zen. Koltxoiak arto-bizarrez eginak ziren. Bi neba eta ama ere egon ziren bertan.

523. Bonbardaketa aurreko Gernika (GER-033/018)

Bonbardaketa baino lehen Julian hotela eta Juan Bilbaoren kamioiak zeuden tren-geltokiaren alboan. Don Tello kalerantz Julian taberna zegoen. Beraien etxe azpian osabak "Café moderno" zuen. Faisan taberna dagoen tokian, bere aitona estankoa zuen, tabakoa baino ez zuen saltzen. Berak bi urte zituela joan ziren geltoki ondora bizitzen.

524. Bonbardaketa aurreko Gernika II (GER-033/019)

Erdiko kalean zeuden dendak aipatzen ditu: Florentino Uriberen denda, konfiteria... Gaur egun Txankan denda dagoen lekuan "Café el Norte" egon zen eta goian karlisten elkarte zegoen. Gerra aurretik Gernikan karlista asko zegoela dio.

525. Erretako eta zutik iraundako eraikinak (GER-033/022)

Falangisten lokala erdiko kalean egon zen. Batzokia Arrien dagoen lekuan egon zen, eta hura ere erre egin zen. Etxe gutxik iraun zuten tente: Santo Domingo militarren etxeak eta Goienkaleko etxe batek. Juntetxea, Andra Maria eliza eta arma-lantegia ez zituzten ukitu ere egin. Kaltzada ospitalean 26 pertsona hil zirela dio.

526. 36 senitarteko eta denak onik (GER-033/024)

36 senitarteko egon ziren Gernikan; eta, denak kalean bizi arren, ez zuten inor galdu.

527. Ospitale militarra (GER-033/026)

Agustindarren ikastetxean gerran zaurituentzako ospitale militarra jarri zuten. Bertara joaten zen Claudio Rodriguez mediku gernikarra aipatzen du. Bertako soldadu asko neska gernikarrekin ezkondu ziren.

528. Montefuerte eta Arana kondeak; Gernikako txaletak (GER-033/028)

Montefuerte kondearen etxea Juntetxe ondoan du etxea. Arana kondeak San Juan Ibarren zuen etxea. San Juan Ibarren 3-4 txalet egon ziren. Andra mari aurrean doña Lolaren txaleta zegoen. Sasoi hartan txalet asko egon zela dio.

529. Errazionamendua, gosea, estraperloa... (GER-033/030)

Bonbardaketa aurretik industria zela eta gernikarrak oso ondo bizi zen. Bonbardaketa ostean, errazionamendua izan zuten. Pasealekuko arkupeetan hartzen zuten errazionamendua. Beraien etxean irina ez zen falta Olabarritik ekartzen zutelako eta talo eta morokil asko jandakoak dira. Hasieran baino ez zuten pasatu gosea. Estraperloko jeneroa erosteko dirua behar zen, behin gernikar bat Bilbon indabekin harrapatu zutenekoa kontatzen du.

530. Bonbardaketa aurreko ile-apaindegiak; bainujantziak (GER-033/033)

Bonbardaketa aurretik Gernikan egon ziren bi ile-apaindegiak aipatzen ditu. Ez ziren makillatzen eta kremarik ere ez zuten ematen, "Nivea" baino ez. Nesken bainujantziak gonatxo bat zeukan.

531. Erdiko kaleko dendak, tabernak... (GER-034/002)

Elorrioko, Eibarko eta kanpoko jende asko etorri zen Gernikara lanera, arma-lantegira zein beste lantegietara. Erdiko kalean, Artekalen, bizi ziren, Pio denda aurrean. Bareñoren denda, Katalinen taberna eta Berasaluzeren harategia zeuden beraien korralearen (ataria) ondoan. Sei ogerleko errenta ordaintzen zuten. Pio dendakoak zuen inguruko irrati bakarra eta bertara joaten ziren irratia entzutera. Santos Uribe kandelagilearen denda, bere izekoren fruta-denda eta Nikolasaren fruta-denda ere bazeuden erdiko kalean.

532. Komedianteak (GER-034/003)

Plazara komedianteak etortzen ziren eta ikustera joaten ziren.

533. Salbokonduktoa (GER-034/005)

Pioren denda handia zen. Bere ama erregatera moduan ibiltzen zen baserriko produktuekin, baina kanpora joateko, Durangora edo Bermeora adibidez, salbokonduktoa behar izaten zen. Udaletxean ematen zuten arren, berari Pio dendako Piok egin zion agintarien alderdiko zelako.

534. Errazionamendua (GER-034/006)

Errazionamendu-txartela izaten zuten errazionamendua jasotzeko. Udaletxeak ematen zieten txartela dendetan hartzeko jatekoa: azukre beltza, azukrea, ogi beltza, txikoria...

535. Bonbardaketa Foru baba artean babestuta (GER-034/007)

Abioiak azaltzen zirenean, kanpaiak jotzen zituzten herritarrek babeslekuetara joan zitezten. Bonbardaketa bera Foruan egon zen, baina bere ama eta arreba Gernikan. Baba artean babestu ziren. Gernikara etorri nahi arren, ez zioten uzten pasatzen.

536. Etxe barik alde batetik bestera (GER-034/008)

Etxea erre zietenez, 6 urte pasatu zituzten Foruan; Tiloetako Martin Berasaluzeren etxean egon ziren gero, hilean 25 ogerleko errenta ordainduz. Azkenean, sindikatuko etxeak egin zituztenean, bertara joan ziren. Kaltzada egoitzara joan arte, bertan bizi izan zen.

537. Gernikako babeslekuak (GER-034/010)

Bonbardaketa aurretik Forura joan ziren bera eta anaia, beldurrez. Bere ama eta arreba, ostera, Gernikan egon ziren; anbulatorio ondoko babeslekuan ezkutatu ziren. Beste babesleku batzuk ere bazeuden Artekalen eta Andra Mari kalean; azken horretan, jende asko hil zen.

538. Ama zaldi-gurdian abarketak saltzen; 12 urterekin abarketa-lantegira (GER-034/011)

Bere ama zaldi-gurdian ibiltzen zen abarketak eta baserriko produktuak saltzen inguruko herrietan. Abarketa-lantegian erosten zituen gero berak saltzeko. Hamabi urterekin Rafa ere bertan hasi zen beharrean, ez baitzen eskolara bueltatu gerraostean; 3.5 pezetako soldata zuen egunean. Gero, gasogenoa egiten ibili zen "Industrias metalúrgicas"en.

539. Abarketak egiteko prozesua (GER-034/012)

Abarketa-lantegian abarketak zelan egiten zituzten azaltzen du.

540. Presoak Gernika berreraikitzen (GER-034/015)

Institutua dagoen tokian, lehen agustindarren ikastetxea zegoen; gerora, kartzela egon zen, bertara ekarri zituzten Gernika berreraikitzen ibili ziren presoak.

541. Errekisatutako etxeak (GER-034/016)

Hainbat etxe errekisatu zituzten Gernikan: Seber Altuberen txaleta "Guardia de asalto" eta "Auxilio social" jartzeko, postetxerako beste bat, Elbira Iturrirena falangistentzat... Baserritar askori produktuak errekisatzen zizkieten.

542. Emakume abertzaleak garbitzera behartuta (GER-034/017)

Bere arreba Andra Mariako eliza garbitzera behartu zuten, beste emakume abertzale batzuekin batera. Bonba su-eragileak bota zituzten Gernikan; hori dela-eta, denak hartu zuen su. Hilabetegarrenean-edo etorri ziren Gernikara.

543. Erdiko kalea; udaletxea beraien etxe gainera jausi zen (GER-034/018)

Bonbardaketa ostean, Pasealekuko arkupeetan denda antzeko batzuk jarri zituzten. Jateko eskasia handia izan zuten. Foruko "Santixene" baserrian egon ziren. Beraien etxe guztiz suntsituta gelditu zen, udaletxea bera ere beraien etxe gainera erori zen. Beraiek sekula ez diote "Artekale" deitu kaleari, "Erdiko kalea" edo "la media calle".

544. "El dibujo" plazan jolasten (GER-034/019)

Anbulatorioko aldatzean "el dibujo" izenez ezaguna zen plaza bat zegoen, bertan eta Erdiko kalean jolasten ziren: "Yo-yo"ra, "al diablo", kaniketan...

545. "Sociedad de Gernika" (GER-034/021)

18 urterekin "Sociedad de Gernika"n hasi zen zerbitzari lanetan; 35 urtez egon zen bertan lanean. Merkurio ondoko BBK gaineko lehenengo solairuan zegoen.

546. Bermeoko kasinoan eta Madalen egunean lanean (GER-034/022)

Bermeoko kasinoan ibili zen 15 urtez ezkontzak-eta zerbitzatzzen. Bitartean lantegian zebilen lanean, baina baimena izaten zuen bestera joateko. Madalen egunean ere Elantxoben zerbitzatzzen ibiltzen zen. Madalen egunez lo egin barik joaten zen lantegira. Beraien gazte denbora txarra izan zela dio: lan asko, gosea... Ezkondu ostean bizimodua hobetu zen.

547. Argatxburuko zineman lanean (GER-034/024)

Argatxburu zinemako gizonak bere emazteari esaten zion: "Caramba caramba, caramba carambola Gervasia la potola". 300 butaka inguru zituen. Umeen sarrerek 30 zentimo balio zituen eta nagusienak 60 zentimo.

548. Karmeldarretan eta Pasealekuan (GER-034/029)

Sei urte gaz karmeldarren ikastetxean ibili zen don Felicianorekin; gero, zortzi urterekin, Pasealekuko eskoletan don Mauro Galanekin eta don Manuelekkin. Bonbardaketa ostean, ez zen eskolara bueltatu. Maisuak erdaldunak ziren, eta ezin zuten euskaraz egin.

549. Soldadutzan ilea motz-motz (GER-034/032)

Soldadutzan ile motz-motz ebaki zioten argazki batean beste kide batek erakutsi behar ez zena erakusteagatik. Gernikako orfeoian kantatzen zuen Rafak.

550. Gernikako orfeoian (GER-034/033)

Gernikako orfeoian kantatzen zuen Rafak don Ricardo Zallo abadearekin. Tabernarik taberna eta Santa Ageda egunez-eta ibiltzen ziren kantatzen. Herritik kanpo ere kantaldi askotan hartzen zuten parte. Erdiko kalean egiten zituzten entseguak.

551. 'Euzkadi' eta 'El Liberal' egunkariak (GER-034/035)

Euzkadi eta El Liberal egunkariak zeuden. Euzkadi egunkaria EAJren aldekoa zen, eta El Liberal, berriz, komunistena. Gernikan komunistak txarto ikusiak ziren, beraien lokala geltoki ondoan zuten.

552. Lehengo mezak (GER-034/045)

Elizara joatea derrigorrezkoa zen. Hainbat aldaketa egon dira: latinez, abadea atzea ematen, ezin edozein arropa jantzi, baraurik... Goizeko 7retan joaten ziren mezara, eskolara orduko.

553. Athleticeko finalak (GER-034/047)

Athletic zale amorratua da. Madrilera final askotara joandakoak dira. Jendeak altzariak eta koltxoiak saltzen zituen gastuak ordaindu ahal izateko. Gernikar asko egon dira bertan jolasten: Gainza, Panizo, Iriondo.

554. Alokairuzko autoan alpargatak saltzen (GER-034/049)

Abarketak baserriz baserri saltzen zituen bere amak, baserri-auzoetako dendetan; dozenak saltzen zituen. Bonbardaketan zaldi-gurdia erre ostean, alokairuzko autoan hasi zen banaketa-lanak egiten. Autoak hainbat tokitan aloka zitezkeen.

555. Alokairuzko bizikletan hondartzara (GER-034/050)

Hainbat lekutan aloka zitezkeen bizikletak: Madariaga, Urtubi... Eguraldi ona zegoenean ez zen bizikletarik libre egoten, hondartzarako erabiltzen zituzten-eta; orduko alokatzen ziren.

556. Gizonezkoek dantzarako ordaindu behar (GER-034/053)

Gizonezkoen ordaindu egin behar izaten zuten soinulariei ordaintzeko; baina banda zegoenean ez zen ordaindu behar. Urriko azken astelehenetako jende piloak ez zaio sekula gustatu.

557. San Juan jaiak; sua eta kantak (GER-034/054)

Soldadutzan zegoela San Juanetan tabernetan lan egiteko etortzen zen. San Juan elizaren aurrean egiten zen sua eta inguruan abesten zuten.

558. "Berori" eta "don"; euskara (GER-034/060)

Abadeari eta medikuari "don" eta "berori" esaten zitzaion. Gainerakoekin zukan egin izan du. Hikan, ostera, ez du egin. "Gaur egungo euskara" ulertzeko zailtasunak.

559. Gernikako ezizenak (GER-034/063)

Gernikan ezizen asko egon dira: Zozoa, Jibiøn, Cordero, Adela buztingorri, Juanita Oatatzuna, Patzarrota.

560. Zartzuelak (GER-034/065)

Zartzuelak: "El manojo de rosas", "La taberna del puerto", "El caserío". Tiloetako zinema-aretoan eta Lizeo antzokian antzeztu ziren.

561. Comadina eta Pepe argazkilariak (GER-034/066)

Comadina argazkilariak atera zion lehen jaunartzeko argazkia, plaza ondoan zuen estudioa. Gerora, Pepek Ocho de enero kalen zabaldu zuen denda.

562. Frantzeskale izenaren jatorria (GER-036/001)

Izen-abizenak. Jaioteguna. Frantzeskalekoa da. Izenaren jatorria aipatzen du.

563. Frantzeskaleko dendak (GER-036/002)

Dendaz beterik zegoen Frantzeskale. Zer zegoen aipatzen du.

564. Pepena dendakoak (GER-036/010)

Hiru neba-arreba izan ziren. Ama Ibarruriko Etxeandikoa zen eta aita Getxokoa, oso gazterik etxekoen lanagatik Gernikara bizitzera etorritakoa. Aita egunkariak saltzen ibiltzen zen umetan eta Serafin ere bai. Denda izan zuten, Pepena.

565. Umetan egunkariak saltzen (GER-036/011)

Umetan egunkariak saltzen zituen eta ordukoak aipatzen ditu. Txakur handi bi edo balio zuten. Orokorrean herritarrek bazekiten irakurtzen. Harpidedunei etxera eramaten zien.

566. Gernikatik ihesi eta osaba Ibarrurin fusilatua (GER-036/013)

Nazionalak Ibarrurira sartu zirenean, hantxe zegoen Serafin. Bonbardaketa izan zenean, Bilbora joan zen beste batzuekin batera eta han senideengatik galdetu ziotenean, Arboledara eraman zuten. Meatzeetan lanean zebilen osaba batekin egon zen. Handik Bilbora joanda, izeko batek Ibarrurira eraman zuten eta izeko Bilbora itzuli zen, oraindik nazionalak sartu gabe zeuden eta. Ibarrurin zegoela, osaba nazionalek eraman zuten eta Oizen fusilatu egin zuten. Eliza lehen non zegoen kontaktzen du.

567. Ibarruriko frontea (GER-036/014)

Nazionalak Ibarrurin sartu zirenean, frontea sortu zen. Non egon zen kontaktzen du.

568. Frontea Ibarrurin hilabetez (GER-036/016)

Bere osaba nazionalek Ibarruriko hilerrira eraman zuten. Frontea non egon zen kontaktzen du. Ibarrurin fronteak hilabete baino gehiago iraun zuela uste du eta han egon zen Serafin senideekin.

569. Partikularretan Don Juan Ansotegirekin (GER-036/017)

Zortzi urterekin hasi zen egunkariak saltzen eta eskolara ere joaten zen. Partikularretan ere ibili zen, Don Juan Ansotegirekin. Elizako organista zen. Partikularra non izaten zuten aipatzen du.

570. Pasealekuko eskola eta irakasleak (GER-036/018)

Pasealekuko eskolak 1927an egin zituzten. Alde batean neskak eta bestean mutilak egoten ziren. Gernikarrez gain, Lumotik ere etortzen ziren baserritarrak. Argazkia eskutan hartuta, bertan agertzen direnak izendatzen ditu. Hiru irakaslee ziren: Don Francisco Miguel, Don Mauro eta Don Manuel.

571. Ostiak egiten (GER-036/019)

Monagiloen arduradunarekin ostiak egitera joaten ziren eta han geratzen zitzaien esnea, azukrea botata jan egiten zuten.

572. Gerraostean irakasleak kalera (GER-036/022)

Gerraostean eskolak kendu egin zituzten eta irakasle batzuri ez zioten klaserik ematen utzi. Karmeldarren eskolara joaten hasi zen beste batzuekin batera.

573. Umetako jolasak eta bainuak (GER-036/023)

Primera Segundaka aritzen ziren olgetan. Soka-dantzan ere ibiltzen ziren. Presara joaten ziren uger egitera. Neskek marradun bainujantziak erabiltzen zituzten. Pilotan non egiten zuten kontatzen du. Xibarekin ere ibiltzen ziren. Pilotari onak zirenak aipatzen ditu.

574. Apostuak (GER-036/024)

Pilota partidetan apostuak egiten ziren. Idi-probak ere izaten ziren; zalea zen Serafin. Jende asko batzen zen. Pilotariak kanpora joaten ziren, Mexikora-eta.

575. Udaletxe azpiko babeslekua (GER-036/025)

Gernikan zebilen bonbardaketa hasi zenean. Udaletxe azpiko babeslekuan egon zen bera; beterik zegoen. Ordu batzuetan egon ziren barruan. Apaizak errezoka aritu ziren.

576. Gernika erreta, Bilbora (GER-036/026)

Babeslekitik irtendakoan, dena sutan eta etxeak botata topatu zituzten. Mojen konbentuetan errepublikarrek koartela jarrita zeukaten aurretik. Serafin Bilbora joan zen, bere senideak ez. Ibarrurin nazionalak sartu ziren gero.

577. Besteen etxeetan bizitzen (GER-036/027)

Gernikara itzulitakoan, baserrietan, hutsik zueden etxeetan... bizi behar izan ziren. Hiru familia elkarrekin bizitzen ziren. Elkartasunez jokatu zuten bizilagunek. Errotetan ehotea debekatu egin zuten.

578. Errazionamendua (GER-036/028)

Errazionamenduko produktuak kanpotik ekartzen zituzten eta banaketa lekuak ezarri zituzten. Bonbardaketa osteko udala Don Sebero Altuberen etxean egon zen. Errekisatu egiten zituzten etxeak.

579. Presoak Gernika berreraikitzen (GER-036/030)

Gernika berreraikitzeko gerrako presoak erabili zituzten. Baserritarrei gurdi eta idiak errekisatu eta kaleak hondakinez hustu zituzten. Gorpuak hilerrira eramaten zituzten. Agustindarretan ospitalea jarri zuten.

580. Ardoa tabernan erosten zen (GER-036/033)

Tabernan norberak bere botila eramanda erosten zuten ardoa. Andrek ere edaten zuten ardoa. Gizonek gehiago edan izan dutela dio; edalontzitik edo porroitik edaten zuten. Lehen gutxi sartzen ziren emakumeak tabernara.

581. Presoak Gernika berreraikitzen (GER-039/001)

Urte eta erdi zuen bonbardaketan. Gero presoak ibili ziren etxeak eraikitzen eta horixe du gogoan.

582. Karmelitetan eta partikularretan (GER-039/003)

Eskolan mojekin ibili zen, karmelitekin. Eskola partikularretan ere ibili zen. Don Pedro apaizak zartakoak ematen zizkien; lehenengo formatu egiten ziren eta gero Cara al Sol abesten zuten. Hermana Maria zen bere irakaslea. Aitak zerrategia zuenez, lau anaiak ibili ziren karmelitetan.

583. Umetan karramarroak batzen etxekeekin (GER-039/005)

Domeka goizetan karramarrotan ibiltzen ziren aita eta amarekin errekarra joanda. Lagunekin futbolekin ibiltzen zen. Udan Nabarnizera joaten ziren eta han aritzen ziren pilotan. Eskolatik etxera eta etxetik eskolara ibiltzen zen.

584. Otazuaneko eskolan (GER-039/006)

Otazuanera joan zirenean, hamaika urte inguru zituen. Hiru urte eman zituen eta neska-mutilak elkarrekin egoten ziren. Eskola non zegoen kontatzen du. Otazuaneko maistrak ematen zituen eskolak. Etxean zerrategia zutenez, hantxe laguntzen aritzen zen.

585. Makalarekin partikularretan (GER-039/007)

Otazuanean bukatuta, Makalanera joaten zen kontabilitatea ikastera. Luis Zabarte "Makala" zen irakaslea. Gerran tenientea izan zen, preso egon zen,artzelona bizi eta etorritakoan eskola jarri zuen. Adin nagusikoagokoak ibiltzen ziren. Neskak ere ibiltzen ziren. Lantegi edo dendetako ugazaben seme-alabak ibiltzen ziren.

586. Zerrategia itxi eta kamioilari (GER-039/008)

Ikasketak bukatuta, zerrategian aritu zen lanean. Ondoren, soldadutza egin zuen bi urtez. Handik etorrira, zerrategia itxi eta kamioia erosi zuten, kamioilari lanetan aritzeko. Ezkondu artean ibili zen lan horretan.

587. Basoan atxurra, aizkora eta trontzarekin (GER-039/010)

Anai zaharrena eta biak aita batekoak baina ama bikoak ziren. Herentzia bat jaso zuen anai zaharrenak eta harekin kamioi bat hartu ahal izan zuenean, zerrategitik joan zen. Basorako pistak atxurrekin egiten zituzten eta aizkora eta trontza izaten ziren mozteko tresnak. Zerrategia alokatu egin zuten eta kamioia erosi. Gero saldu egin zuen.

588. Goizeko bostetan gurasoak sorora lanera (GER-039/012)

Gaztetan zerrategian eta soroan lan egiten zuten. Aitak eta amak soroan lan egiten zuten goizeko bostetan jaikita eta zazpi eta erdietarako etxeratzen ziren. Abereak ere izaten zituzten. Errenteriako errotara eramaten zuten artoa ehoteko. Bost kilo eraman eta lau ekartzen zituzten, hori izaten zen tratua. Taloa eta esnea eta morokila jaten zituzten. Plazan saldu ezineko sagarrak ekartzen zizkien osabak.

589. Errenteriako errota (GER-039/013)

Errenteriako errota non zegoen kontatzen du. Gernikako Zubi Nagusiaren ondoan irtetzen zen erreka.

590. Aste Santua Gernikan (GER-039/014)

Eguen Santu arratsaldean lehenengo Mesedeetara joaten ziren eta ibilbidea egiten zuten. Prozesioa egiten zen Andra Mari Elizatik. Bi anaiak ibiltzen ziren. Ibilbidea aipatzen du. Bariku Santuko eguerdian zazpi hitzen sermoia izaten zen, hiru ordu inguruz irauten zuena. Tabernak, musika... dena debekatua egoten zen.

591. Andra Marin monagilo (GER-039/015)

Monagilo izan zen gaztetan urte askoan Andra Mari elizan. Sei apaiz inguru zeuden Gernikan orduan. Zortzi edo hamar monagilo izaten ziren. Karmelitetan bertan izaten zuten dotrina, bertako kapilauarekin. Errespetua ez, apaizeri beldurra zieten. Dena erdaraz egiten zuten. Hermana Maria zen beraien irakaslea.

592. Monagiloen zereginak eta janzkera (GER-039/016)

Monagiloek meza ematen laguntzen zieten apaizei. Meza latinez eta sermoia gazteleraz ematen zuten. Ez zieten dirurik ematen. Apaiz batzuek gerora propina ematen hasi ziren. Tunika bat janzten zuten, apaizari ondo hitz egin behar izaten zioten eta kanpaiak ondo jo. Apaiz izan ziren Don Secundino, Don Valdomero, Iturraran, Don Jose Luis...

593. Garizuma eta bulak (GER-039/017)

Bezperako gauerditik ezin izaten zuten jan eta edan elizara aurretik. Garizuman barikuetan bijilia eta baraua eta asteazkenetan bijilia egiten ziren. Urte guztian bulak erosten zituzten. Ordaindu ezker, Garizuman libre. Anekdotak bat kontatzen du. Apaizek seme-alabak izaten omen zituzten ezkutuan.

594. Jaietan arratoi lasterketa eta erregeetan opariak (GER-039/019)

Jaietan Bar Brasil zeukan portugaldar batek "La Ratita India" antolatzen zuen, arratzoien lasterketa. Erregeetan opariak jasotzen zituzten Juanita Mugarteren dendatik anaiaren amabitxi eta aitabitxiek ordainduta.

595. Emaztea ezagutu zueneko (GER-039/021)

Emaztea nola ezagutu zuen. Hamazazpi urte ingururekin ezagutu zuen eta zazpi urtez nobio izan ziren. Lauretan zinera joan, gero paseoan ibili, Bar Azulera joan edo Café Lizeora eta etxera.

596. Zinera eta paseoan etxekoen diruarekin (GER-039/022)

Zinean hamazortzi urtetik gorakoentzat ematen zituzten pelikulak. Gero paseatzen ibiltzen ziren denak. Orduan kafetegietan jende asko ibiltzen zen. Dirua etxekoei eskatu behar izaten zien, baita eztei-bidairako ere, etxeko zerrategian lan egiten baitzuen.

597. Etxe ingurua lehen (GER-039/025)

Bere etxe ingurua zelakoa zen kontatzen du.

598. Orduko tren, merkantziaz betea eta motela (GER-039/026)

Zerrategia eduki zutenean, trenbidera errail bat zeukaten bertatik. Merkantzia asko ibiltzen zen Gernikako trenean. Lehenengo lurrunezko tren izaten zen eta 1957 inguruan elektrikoa inauguratu zuten. Trena orduan oso motel ibiltzen zen.

599. Autobusak bi pisukoak (GER-039/027)

Autobusak bi pisukoak izaten ziren. Bermeotik eta Lekeitiotik etortzen ziren. Posta autobusez eramaten zen.

600. Anaiak bizikletaz, aita kotxez (GER-039/028)

Bizikletaz anai guztiak ibiltzen ziren. 1958an lehenengo kotxea erosi zuen aitak, bigarren eskuko bat. Egurrezkoa zen; aurreko zatia bakarrik txapazkoa. Segundok alokatzen zituen bizikletak. Aitak gerra aurrean izan zuen motorra baina gerraostean konfiskatu egin zioten.

601. Laidara eta Gornizera hondartzara urtean behin (GER-039/029)

Urtean behin Laidara joaten ziren hondartzara, San Inazio egunean. Kamioia egokitu eta denak joaten ziren. Eskolatik Gornizko hondartzara joaten ziren urtean behin aurrezki kutxak lagunduta. Zehaztasunez gogoratzen ditu irteera haiek.

602. Gernikako zineak (GER-039/030)

Lehenengo zinea Tiloetakoa izan zen. Non zegoen kontatzen du. Jabearentzat lan egiten zutenez, umeentzako filmetan dohainik sartzten ziren. Hura itxi zutenean eta neska-lagunarekin Lizeora joaten zen. Parrokiako zinea geroagokoa zen.

603. Elizan gizonak eskuman eta emakumeak ezkerrean (GER-039/031)

Elizan ohitura zegoen gizonak eskuman eta emakumeak ezkerrean jartzeko. Familiak batera joandakoan ez zen halakorik egiten. Nabarnizen nabarmena zen eta lbarrurin oraindik ere hala da.

604. Etxeko euskara (GER-039/033)

Gernikako hizkera desberdina iruditzen zaio inguruko herriekiko. Etxeko euskara ikasi zuten eta horixe erabili.

605. Batxilergoa lehenengoz euskaraz (GER-039/034)

Inazioren seme zaharrenaren adinekoak izan ziren batxilergoa euskaraz egiten lehenengo belaunaldia. Guardia Zibila etorri zitzairen behin.

606. Gerragatik Frantziara (GER-040/003)

Hogeita lau urterekin etorri zen Gernikara. Bonbardaketaren ostean, burdinazko gerrikoaren azpikaldean bizi zirenez, alde egitea erabaki zuten. Eusko Jaurlaritzak egindako deialdiaren berri izan zutenean, izena eman zuten eta beste baten izenean joan zen, ordaintzen zutenean zerrendako baten ordean. Hamahiru urterekin joan zen Frantziara. Eskolara joaten zen eta irailean mahatsa batzera joan zen. Mundu Gerra irtendakoan, etxera itzuli zen.

607. Aita gorpuak lurperatzen gerran (GER-040/005)

Umetan baserriko infernu baten bizi omen zen. Ez du aipatu ere egin nahi. Gerrako kontuak: jende asko hil zen burdinazko gerrikoan apurtu zutenean. Bere aitak gorpuak lurperatzen zituen derrigorrean.

608. Habana itsasontzian (GER-040/006)

Nazionalak burdinazko hesia igaro zutenean, Santurtzin zeuden Habana barkuan Juanita eta beste asko. Cervera itsasontziak behin eta berriz eragozten zien bidea. Baionan jeitsi zen Juanita. Agirre lehendakaria beraiekin zihoala uste du. Habana barkua erre egin zuten.

609. Frantziako egonaldia (GER-040/007)

Baionatik Toulousetik gertu zegoen herri batera joan zen. Itsasontzian mila lagun inguru zihoazen. Beti gidariren bat izan zuten batera edo bestera joateko. Ondo ibili zen han ere. Mahatsa biltzen lan egin zuen. Mundu Gerra hasi zenean, etxera itzuli beharra izan zuen.

610. Dotore jantzita etxera (GER-040/008)

Etxekoen berri izaten zuen tarteka Frantziatik eta dirua ere bidali zioten. Jantzi dotoreak erosi zituzten eta haiekin etxeratu ziren. Fika, baina, dena apurtuta zegoen. Izarak tindatu eta haiekin arropak egiten zituzten. Frantsesez agurtzen ikasi zuen, ez besterik.

611. Frantzian dantzalekuetan, etxean lan eta lan (GER-040/009)

Frantzian zeudela, antzerki bat ere egin zuten. Bertako jendeak dantzalekuetara eramaten zituen. Ondo pasatu zuen. Etxera itzultzea izan zen gogorra Juanitarentzat; zortzi senide ziren eta lan asko egin beharra izaten zuen, nagusiena baitzen.

612. Ikasketarik egiten ez zioten utzi (GER-040/010)

Baserriari amorrua hartu zion, lan asko egitea tokatu zitzaion eta. Lagunartean ondo ibiltzen zen baina berak ikasketak egitea nahi zuen eta ez zioten utzi.

613. Bonbardaketa eguna (GER-040/011)

Bonbardaketa eguna. Hegazkinak etortzen zirela dauka gogoan, aitak babeslekua egin ziela eta zuriz edo gorriz ez jazteko agindu zietela. Amamari zauria eragin zion bonba baten metrailak. Tristeia izan zen. 1937ko apirilean joan zen Frantziara eta iraila-urrian itzuli. Frantsesek ondo hartu zituztela du gogoan.

614. Agirre lehendakaria Habanan (GER-040/012)

Agirre lehendakaria Habana itsasontzian joan zela uste du, hala esan ziotelako. Francori buruzko iritzia ematen du.

615. Gernika zenik ere ez (GER-040/013)

Gernikako bonbardaketa izan zenean, orduantxe jakin zuen Gernika zenik ere. Egunkaririk ez zuten izaten etxean.

616. Mungiara saltzera (GER-040/014)

Fikatik Mungiara joaten ziren astoz eta baserriko barazki eta abereak saltzen zituzten, eta handik etxean behar zituztenak ekartzen. Bilbora trenez ere joaten ziren.

617. Botiolako eskola (GER-040/015)

Eskolara Botiola izeneko auzora joaten zen. Euskaraz ezin izaten zuten egin. Bilbon behin zaplazteko bat jaso zuen ezezagun batengandik, euskaraz ari zelako. Maistrak erdaldunak izan zituen. Bazkaria prestatzen zioten maistrari. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Errazionamenduan zer ematen zioten eta etxetik zertzuk jaten zituzten kontatzen du.

618. Eskolako kontuak (GER-040/016)

Botiolako eskolan adin guztietako neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Ez zeukaten libururik. Arbel handia izaten zuten gelan.

619. Diktadura eta gerra aurreko manifestazioak (GER-040/017)

Dena diktadura izan zen beretzat: etxean, eskolan, kalean... denean. Udal-agintariek txapel gorria jantzita erabiltzen zuten. Gerra aurrean, manifestazioak egiten zituzten ikurrinekin eta mendigoizaleak ere han izaten ziren. Beste herri batzuetara ere joaten ziren. Errepublikako bandera gutxi ikusten zen. Elizarena ere diktadura handia izan zen. Espioi lanetan aritzen ziren bizilagun batzuk diktadurarentzat.

620. Errazionamendua tabernetan jasotzen zen (GER-040/018)

Gerra ostean bizi ezinik ibili ziren. Aurretik ere ezer askorik ez zeukaten. Errazionamendua tabernetan jasotzen zuten, hilean behin edo. Estraperloan ere saltzen zen baina garesti. Errenteria auzoan ere batzuk estraperloan ibiltzen zirela gogoan dauka.

621. Mungian Guardia Zibilen andren kontrola (GER-040/020)

Soro asko zituzten etxean. Mungian Guardia Zibilen andrek kontrolatu egiten zituzten eta baserritik ekarritakoak kendu ere egiten zizkieten haiek. Larunbatetan joaten ziren astoz.

622. Etxeko errotari buruzkoak (GER-040/021)

Errota martxan ezagutu zuen baina bera ez zen sartzen. Errotak nola funtzionatzen zuen kontatzen du. Gerora erre egin zen etxea. Baserritarra errotara joaten zen artoa edo gariarekin eta irina ematen zioten, pisatuta. Bere etxeko errota ez zuten itxi gerraostean.

623. Gerraostean goserik ez (GER-040/022)

Estraperloko produktuak errazionamendua banatzen zen tabernetan ere egoten ziren. Taloa, indaba, barazkiak eta frutak etxean beti izaten zituzten. Hirietatik etortzen zitzaizkien etxera irin eske. Beste errotariekin ondo moldatzen zen aita.

624. Burdinazko gerrikoaren inguruko borrokak (GER-040/023)

Burdinazko gerrikoa egiten diru asko gastatu zen, oso luzea izan zen. Traizioa egin zuenak ez zuen zigorrik inoiz jaso. Gizonak irratia entzutera joaten ziren baina irratia ez zuten esaten; batailoi osoak hil arren, ez zuten ezer aipatzen. Osaba eta lehengusua hil zitzaizkion.

625. Bizkargi eguneko erromeria (GER-040/024)

Bizkargi eguna. Mutil batek adarra eramaten zuen eta harekin deia egin. Bidean txakolina edan eta abarketa berriak janzten zituzten. Lagun talde handia joaten ziren. Soinuak eta panderoa izaten ziren.

626. Mutila begiz jota (GER-040/025)

Etxetik irtetzea zen bere ilusioa. Etxekoek mutilak proposatzen zizkioten baina berak bazeukan begiz jota bat. Gurasoak gaizki portatu ziren berarekin kalera bizitzera joan zelako. Nobioarekin ez zen inora joaten, etxe-laguntzera bakarrik.

627. Loiolako gogo-jardunetako gehiegikeriak (GER-040/027)

Loiolara joan zen behin gogo-jardunak egitera. Hango kontuak kontatzen ditu. Jesuitek andrazkoentzat ospe txarra zuten.

628. Gernikatik Belendizera alde egin behar (GER-042/002)

Don Tello kalean bizi zirenez, San Juan Ibarran jolasten zuten, eta karmeldarren ikastetxera joaten ziren. Bonbardaketan etxe barik gelditu ziren eta amaren jaiotetxera Belendizera (Arratzu) joan ziren.

629. Karmeldarretara neskak ezin ziren bizikletaz joan (GER-042/004)

Bere aita Arratzuko Arratzuerrotakoa zen. Umetan errotara irin bila zelan joaten ziren gogoratzen du. Gernikan San Juan Ibarran egiten zituzten olgetak. Bonbardaketa ostean karmeldarretara joaten jarraitu zuten nahiz eta Belendizera egon, bizikleta erosi zioten-eta; baina bizikleta Errenteria auzoan utzi behar izaten zuten, kapilauak ez zuelako ondo ikusten neskak bizikletan ibiltzea. 12-13 urte zituela etorri ziren bere etxekoak Bilbora.

630. Salaketa bat tarteko aita atxilotu (GER-042/007)

Bere aita salaketa bat tarteko atxilotu egin zuten; baina, itsasoan egiten zuenez lan, sekula ez zen politika kontuetan sartuta egon. Isun itzela ordaindu behar izan zuten.

631. Irratian entzunda alde egin zuten Gernikatik; tropak Merzedén (GER-042/010)

Beraien aitek irratia zuen; eta, nazionalak Markinara heldu zirela entzun zutenean, Arratzuranzko bidea hartu zuten. Ez zuten pentsatu ere egin Gernika erre egingo zutenik. Beraien izeko bat Merzedén zegoen moja, eta Gipuzkoako gudari asko zeuden bertan, komentua hustu egin baitzuten tropentzat.

632. Gernikatik Belendizera, Belendiztik Kortezubira (GER-042/011)

Belendizen (Arratzu) zeudela, Kortezubira joan behar izan zuten, Urrienera, Nabarniz aldetik zetozelako tropak. Lehenengo, Gernikako etxea utzi behar izan zuten, eta gero, baita Belendizkoa ere.

633. Soldaduei esnea eman behar (GER-042/013)

Kortezubiko Urriene baserrira joan ziren Belendiztik. Gautegiz- Arteaga aldetik Gernikarantz joan ziren soldaduak Urrienera joaten ziren esne bila, ez zuten sekula ordaintzen. Belendizera bueltatu eta gero, Bilborako bidea hartu zuten.

634. San Juan Ibarra tabaka (GER-042/015)

Karmeldarretan "media pensión"en egon ziren. Kultura orokorra ikasten zuten bertan. Beraien etxetik, Argintxonaren etxetik, San Juan Ibarra ikusten zuten eta bertan aritzen ziren tabaka. Tabak artxoaren (Bildotsa) belauneko hezurrekin egiten zen.

635. Goikoetxeatar fraideek euskara sustatu zuten gazteen artean (GER-042/016)

Aita Juan Jose eta Aita Felipe fraide jesuitak egon ziren Gernikan. Euskara sustatzeko eta erakusteko ahalegina egin zuten. Anbulatorio ondoan zegoen jauregi batean zeuden, eta bertan egiten zituzten umeentzako eta gazteentzako ekintzak, jolasak... betiere euskaraz.

636. Euskarak ematen digu nortasuna (GER-042/018)

Gure nortasuna euskarak ematen digula dio. Gernikan konplexu asko zeuden, "aldeanoen" hizkuntza eta kultura gabekoa zelakoan.

637. Goikoetxeatar fraideekin ikasitakoak; politika egiten zutelakoan kartzelatua (GER-042/020)

Aita Juan Jose Goikoetxea eta Aita Felipe Goikoetxea fraide jesuitek ekarpen handia egin zuten herrian. Jendeak asko maite zituen, goizeko seietako mezara ere gogotsu joaten ziren. Eurak eskolara joan aurretik joaten ziren Andra Mariko elizara. Euskarazko abestiak eta ipuinak jesuita horiekin ikasi zituzten. Aita Juan Jose politika egiten zuela argudiatuta kartzelatu zuten.

638. 10.000 ogerlekoko isuna diru zaharretan (GER-042/022)

Soltxaga jeneralak Arana Kondearen etxe batean zuen bulegoa, eta Maria Luisaren aita bertara eraman zuten atxilotuta. Sasoi hartako 10.000 ogerleko, 50.000 pezetako, isuna jarri zioten. Baina ez zuten diru berriarekin ordaindu behar, zaharrenekin baizik. Sasoi hartan diru-aldaketa egon zen.

639. Gernikan zer erosirik ez zegoeneko (GER-042/025)

Gernikan ez zegoen zer non erosirik. Bere ama Markinaraino joan zen oinez arropa bila. Badaezpada dirua gordeta zuten bere gurasoek; jende gehienak, ostera, ez.

640. Gernikara itzultakoan aurkitu zutena (GER-042/027)

Gernikara bueltatu zirenean zer aurkitu zuten kontatzen du. Errepidea altxatuta zegoen. Dirua zuen jendea Bilbora joaten zen trenez erosketak egitera, herrian ez baitzegoen ezer ere. Beraiek kutxa gotor batean lurperatuta gorde zuten dirua.

641. Bonbardaketako biktimak (GER-042/031)

Beraiek beti egiten zuten euskaraz, baina karmeldarretan ezin zuten. Bere aitaren senitarteko batzuk hil ziren bombardaketan.

642. Gernika garbitzeko, presoak ekarri zituzten (GER-042/032)

Gernika garbitzeko lanetan, "ciudades devastadas"eko bulegoak eta langile-batailoietakako presoak aritu ziren. Errenteria aldea ez zuten erre.

643. Kanpaiak (GER-042/033)

Andra Mariko kanpaiak jotzen hasten zirenean, jendea babeslekuetan sartzen zen, baina beraiek ez ziren sekula joan, amamak ez zuelako gura izaten. Baserrian babes gehiago izango zutelakoan joan ziren Belendizera (Arratzu).

644. Solorik solo kontu handiz (GER-042/035)

Solorik solo joan ziren Arratzurantz. Bera gurasoekin joan zen, bere neba-arrebak lehenago joan ziren amamarekin. Kontu handiz joan behar izaten zen, abioetatik jendea metrailatu egiten zuten-eta.

645. Dendak (GER-042/037)

Boyra botika lehen ere bazegoen. Arrietarren eta Ezkurdiatarren janari-denda. "Cigarrerito" estankoa. Abarketa-dendak: Etxabe, Olaortua...

646. Neskame Eibarren eta Amorebietan (GER-044/003)

Pasealekuko eskolara joan zen eta bombardaketaren ostean mojetara, eskola soldaduz bete baitzen. Eibarren lan egin zuen umezain, kaleko etxe batean. Gose handia pasatu zuen. Amorebietan ere egon zen neskame baserri batean. Jornala hutsa zeukan.

647. Nebak soldadu eta bat kartzelan (GER-044/008)

Hiru neba soldadu ibili ziren gerran. Hiru hildako egon ziren auzoan. Neba bat kartzelan egon zen eta ama bisitan joan zitzaion.

648. Bonbardaketa eguna (GER-044/009)

Hegazkinak etorri zirela eta lehenengo bonba non bota zuten gogoan du. Bonbardaketa izan zenean, Carmen etxean zegoen, aita berriz udaletxe azpiko babeslekuan. Ama soroan zebilen eta bonbak bota zizkieten baina ez ziren lehertu.

649. Lehen jaunartzea erdaraz (GER-044/016)

Lumon euskaraz egin behar izaten zen eta karmeldarretan erdaraz. Lehen jaunartzea ezin izan zuen euskaraz egin, ez baitzekien dotrina euskaraz.

650. Mezetarako ez joateko aitzakiak (GER-044/018)

Meza latinez ematen zuten eta liburutxo bat edukitzen zuten, nahiz eta ezer ez ulertu. Bizkarra emanda ematen zuen meza apaizak. Ez zuen batere arretarik jartzen mezatan. Ez omen zen jende asko joaten. Beti aitzakiaren bat izaten zuten ez joateko.

651. Ameriketara zebilen mutilarekin ezkondu zen (GER-044/019)

Apaizarekin konfesatzera joaten ziren. Bazen apaiz bat neska-mutilen kontuak jakin nahi izaten zituena. Berak nobioa izan zuenean, ordurako ez zegoen konfesatu beharrik. Senarra Ameriketatik etorri zenean, ezkondu egin zen. Auzokoa zuen, Santa Luziakoa. Nola ezagutu zuten elkar kontaktzen du. Ezkondu eta gero ere, senarra Ameriketara egon zen urte luzez. Gutuna bidaltzen zioten elkarri. Senarrak dirua bidaltzen zion.

652. Anaia eta senarra Ameriketara (GER-044/021)

Alabak jaunartzea egin behar zuenean etorri zen senarra Ameriketatik. Mendian lan egiten zuen. Anaia ere joan zen eta bi urtera istripu baten ondorioz hil zen. Badituzte argazkiak.

653. Ahizpak abarketak egiten (GER-044/023)

Tergalezko arropak eta abarketak jantzita joaten ziren erromeriara. Abarketategia egon zen eta bere ahizpek lan egiten zuten han. Etxera ekartzen zituzten bazterrak josteko. Emakume zein gizon aritzen ziren lan hartan. Carmelorena zen abarketategia. Carmenek inoiz ez zuen halako lanik egin.

654. Esnea banatzen (GER-044/024)

Neskame izatetik etxeratuta, etxean egon zen zortzi urtez lanean. Esnea banatzen ibiltzen zen. Astoarekin ibiltzen zen, lau kantin hartuta. Astoa non lotzen zuten kontaktzen du.

655. Militon etxea eta Guardia Zibilen koartela (GER-044/025)

Militon etxea. "Barrio Txino" delakoan Guardia Zibilen koartela egon zen. Hantxe bizi ziren eta urriaren 12an, Pilarika Egunean, erromeriak egiten omen zituzten.

656. Soroko lanak makinarekin (GER-044/026)

Soroan egiten zituen lanak kontatzen ditu. Makina ekartzen zuten; aita bizi zen artean egiten zuten eskuz, gero ez. Garia eta artoa anega bat inguru ematen zuten udaletxean. Nebak eramaten zuten.

657. Aritzako eta Muxikako errotara (GER-044/028)

Aritzako errotara joaten ziren eta Muxikako Selestianorenera. Han lanean aritu zen Carmenen ahizpa bat. Bere neba joaten zen astoa hartuta errotara. Aritzako errotakoa behin guardia zibilek harrapatu zuten.

658. Tabakoa erein eta lehortu (GER-044/029)

Estraperloaz entzun bakarrik egiten zuen. Etxean eta auzoan ez du ezagutu. Carmenen etxean tabakoa zerbait ereiten zuten baina bizilagunek gehiago. Lehortzen non jartzen zituzten kontatzen du.

659. Arropak garbitzera erre kara eskorgarekin (GER-044/031)

Etxe zaharrean bizi ziren. Astelehenero ahizpak arropak garbitzen zituen: xaboa etxean eman eta eskorgarekin erre kara eramaten zituen. Ereinotza erabiltzen zuten arropen usain ona emateko.

660. Lurgorriko emagina (GER-044/033)

Amak gariak lotzen aritu zen arratsalde guztian eta etxeratutakoan azkenengo umea jaio zen. Emagin moduan aritzen zen emakume bat zegoen Lurgorri eta hark lagundu zion. Carmenek klinikan izan zituen alabak. Astelarra izaten zen medikua, muxikarra. Artola medikua.

661. Ezkontza eta opariak (GER-044/034)

Ezkondutzearen lehenengo kontu zenbakia izan zuen bankuan. Amak logela bi eta sukaldea eman zizkion ezkondutzearen. Egongela senarrak erosi zuen. Izarak, toailak eta mudak eman zizkion amak. Begoñan ezkondutzearen. Arropa beltzarekin eta buruan kasketa jarrita ezkondutzearen. Bilbon taberna baten bazkaldu zuten hamaika lagunek.

662. Alaba Lurdesen lehenengo frakak (GER-044/036)

Inoiz ez du frakarik jantzi. Bere alaba Lurdesi frakak erosi zizkionean, auzokoak barrez izan zituen. Beste alabak urte askoan ez zituen jantzi. Ez da inoiz ez depilatu ez makilatu.

663. "Kamiñeruen etxie" (GER-045/002)

Asilo Kalzada kalean jaio zen, Gurutze gorriaren alboan. Beraien etxea Aldundiarena zen, "Kamiñeruen etxie" deiturikoa. Etxeak garajea zuen bere aitak laneko kotxea baitzuen. Bonbardaketara arte bizi izan ziren han, ostean dena galdu zuten.

664. Aita delineatzailea (GER-045/003)

Gurasoak ere gernikarrak zituen, kaletarrak. 4 neba-arreba izan ziren, Xexili hirugarrena. Bere aitak Burgosen ikasi zuen delineatzaile eta Aldundian oposaketa bidez lortu zuen lanpostua, baina gerran dena galdu zuen; hala ere, gorrotorik ezin dela izan irakatsi zieten etxean.

665. Eskola, dotrina, solfeoa...; Jesuitarren ekarpena (GER-045/004)

Pasealekuko eskolan ikasi zuen doña Florenciagaz. Solfeora eta dotrinara ere joaten ziren. Goikoetxeatar anaiek, jesuitarrak, gazteentzako ekintzak antolatzen zituzten euskaraz.

666. Pastelak lehenengo jaunartzean (GER-045/005)

Lehenengo jaunartzea astegunez egin zuen. Egun horretan etxeok egongelan jaten zuten gozo-dendatik ekarritako pastelek. Lamikiz eta Arruti gozo-dendak egon ziren.

667. Bonbardaketa ostean, Larraurira (GER-045/006)

Soldaduekin asko ikaritzen zen; izan ere, eskolatik etxerako bidean, juntetxe inguruan, beti egoten zen liskarren bat. Bonbardaketa egunean, bere aita Larraurin egon zen lanean eta ezin izan zuen etxera hurbildu. Gerora, familia guztia joan zen Larraurira. Aitak aldundirako jarraitu zuen lanean inguru hartan. Etxe barik gelditu zirenek denek egin zuten alde: alde batekoek, Bilbo ingururantz; eta, beste aldekoek, baserrietara.

668. Elai-Alaikoak Gordexuelara (GER-045/007)

Elai-Alaiko kidea izan zen, don Segundo Olaetaren gidaritzapean. Solfeoa eta dantzan ikasten zebiltzanak Gordexolako "Villa Cuba"n batzen ziren, ume guztiak elkartu eta bertan entseatzeko. Handik, Parisko azoka internazional ezagunera joateko asmoa zuen Olaetak.

669. Elai-Alaikoak Santanderrera eta Iparralderantz (GER-045/008)

Bonbardaketa ostean, Elai-Alaiko kideekin Gordexolan batu ziren. Goizaldean, handik alde egin behar izan zuten Santanderrera. Han kargaontzi batean sartu ziren Donibane-Garazirantz.

670. Donibane-Garazitik Parisera (GER-045/009)

Elai-Alaiko kideek Gernika-Lumotik irten eta Donibane Garaziraino egindako bidea gogoratzen du. Donibane-Garaziko La citadelle-n egon ziren 2.000 ume euskaldun. Segundo Olaetari ez zioten utzi pasatzen, eta beranduago heldu zen. Handik Parisera joan ziren penatuta 1937ko urrian. Baionan egin zuten dantza-saioa.

671. Parisko bizipenak (GER-045/010)

Elai-Alaiko kideekin Parisen zegoela, jaso zuen lehen gutuna aitarena izan zen. Militar baten bitartez heldu zitzaien gutuna. Bertan irakurritakoak dakartza gogora. Garai tristeak izan arren, bere gurasoentzat aldea zegoen etxean 4 seme-alaba izan edo 2 izan, bere ahizpa eta bera egon baitziren Parisen. Parisera heldutakoan, liluratu egin ziren hango argiekin, dendekin... Negar asko egin zuten. "Andera" bat (irakaslea) ere bazuten bertan.

672. Elai-Alaiko kideak argazki zaharrea (GER-045/012)

Elai-Alaiko zuzendaria Segundo Olaeta zen; eta Gabino Seijo, haren hurrengoa. Argazki zahar bat du eskuetan eta bertan agertzen diren hainbat pertsona aipatzen ditu.

673. Parisko Verdier kardinala (GER-045/013)

Parisen hotel batean egon ziren. Pertsona asko zirenez, hotel ugaritan egiten zuten lo eta jan. Parisen txarto ikusiak egon ziren; eta, beraien lehen dantza-saioan, bertako Verdier kardinala beraiengana hurreratu zen. Lide Olaetarekin eszenatokira igo zen eta hurrengo egunean egunkari guztietako azalean agertu zen argazkia. Askok lagundu zuten Verdier kardinalak, errespetu asko zion jendeak eta eskertzekoa izan zen laguntza hori.

674. Gernika hondakinez eta bazez (GER-045/014)

Bi urtetara bueltatu ziren Paristik Gernika-Lumora, eta obra-hondakinak eta baza baino ez zegoen kalean.

675. Parisko administrariak, abadea, medikua... (GER-045/015)

Parisen, hasieran hotel batean bizi ziren, baina gerora Paris ondoko Bry sur Marne herriko La Roselle izeneko etxea alokatu zuten. Administrari moduan getxotar batzuk izan zituzten, Agirre lehendakariaren hurbilekoak: don Bitor Lejarzegi, don Dámaso Olaburu, Justo Zabala (Getxoko alkatea) eta Ricardo Maguregi. Ostegunero medikua izaten zuten don Luis Anperio. Abadea don Juan Jose Bastegieta zen. Beraiekin zeuden neska nagusiak abesbatzakoak ziren eta bakoitzak ume baten ardura zuen. Bere arduraduna edo amabitxia Juli Zulueta izan zen.

676. Paristik Gernikarako bidea (GER-045/016)

Parisen bi urte pasatu ostean, beste gerra bat heldu zelakoan-edo, bere aitak erreklamatu egin zituen Xexili eta bere ahizpa; horregatik, lehenago bueltatu ziren etxera. Poliziak lagundu zuten Paristik trenetara. Bere aitak lana zuen garai hartan, baina jende gehienak ez zuten lanik.

677. Paristik Gernikara bueltan, aitona-amonen etxean (GER-045/017)

Paristik Gernikara bueltatu zirenean aitona-amonen etxean egin zuten beraientzako etxebizitza, Erretereriako zubia eta trenbidearen artean.

678. Josteko tailerra eta denda (GER-045/018)

Hiru ahizpek ikasi zuten josten. Dirua aurreratu zutenean, lonja bat erosi zuten San Juan kalean eta bertan jarri zuten tailerra eta denda.

679. San Juanetako abestia (GER-045/022)

San Juanetako abesti bat abesten du: "Nik ikusi nituan San Juan gabian, Txomin eta Bartolo tabernako atian...". Eurak dantzan egiten zuten bitartean.

680. Zornotza eta Zeanuri artean hazia (GER-048/002)

Bere amak Areatzan ematen zituen eskolan, eta ostean, Zornotzara joan zen. Jose Angel bertan jaio eta bizi zen, baina oportetan aitaren familiako baserrira joaten zen, Zeanuriko Altzuste auzora. Euskara bertan ikasi zuela dio eta Arratiako berbetaz aipatzen ditu berba batzuk.

681. Ama Saturraranera, bera Otxandiora eta seminariora (GER-048/003)

Gerra sasoian, ama kartzelan eta aita kanpoan zituela, Otxandiora joan zen osabengana. Handik Laguardia-Biasteriko seminariora joan zen. Ama Saturraranen, seminarioa izandako kartzelan, zegoen bitartean, bera ere seminarioan zegoen. Ama kartzelatik irtendakoan, berak seminarioa utzi zuen.

682. Amak ez zekien euskaraz (GER-048/007)

Bere ama erdalduna zen, baina bera aitarekin hasi zen batzokira joaten. Hala ere, bere ama ez zuten horregatik atxilotu ez baitzebilen politikan sartuta.

683. Ama atxilotu zutenekoa (GER-048/010)

Bere ama Zornotzako udaletxera joan zen eta han esan zioten kartzelan egon behar zuela. Handik bi egunera, etxera joan eta ama preso eraman zuten. Larrinagan, Orue txaletean eta Saturraranen egon zen. Bere amak Larrinagako kartzelan izandako bizipen batzuk kontatzen ditu, jendeak fusilatzea eramaten zutenekoa. Saturraranen eskualdeko hainbat pertsona egon ziren bere amarekin batera. Bere amak ezin izan zuen gehiago andereño bezala lan egin; bizi osorako zigortu zuten.

684. Saturraranera bisitan (GER-048/012)

Bere ama Saturraraneko kartzelan zegoela, bisitan joan zitzaion Jose Angel. Militar bat-edo errukitu egin zen, eta ama agurtzen utzi zion.

685. Kartzelako bizimodua (GER-048/013)

Bere amak ez zion sekula kartzelako egoeraz berbarik egin. Behin Galdakaoko neska bati jarri zioten zigorra kontatu zion amak.

686. Amaren aurkako epaiketako salaketa (GER-048/014)

Bere amaren aurkako autuan irakurritakoa aipatzen da pasarte honetan. Epaitegiko paperetan bere ama "aférrima roja separatista" zela jartzen du. Eskolak zarratzerakoan, bere amak eskola partikularrak ematen zituen; hori dela eta, ikasleak iraultzara bultzatzen zituela jartzen zuen bere aurkako salaketan, arriskutsutzat joz. Bukaeran, maistra bezala, "pena de reclusión perpetua con inhabilitación absoluta" ezarri ziotela irakurtzen da,

687. Saturrarango kartzelari buruzko abestia (GER-048/019)

Saturrarango kartzelari buruzko abestia kantatzen du: "En la hermosa Bizkaia, a la orilla del mar..."

688. Nahiz eta euskaraz jakin ez, ahalegindu (GER-048/020)

Bere amak nahiz eta ez jakin euskaraz berbetan, ahalegintzen zen ahal zuenean hil solteak esateko. Behin Erretereria auzoan "egunon" esan ostean, batek esan ziona kontatzen du.

689. Eskolan neska artean; Espainiako bandera lepoan hartuta (GER-048/025)

Amak ematen zizkionez eskolak, beti egoten zen neskatila artean. Eskolara inspektorea joaten zenean, jai izaten zuen Jose Angelek. Gerra sasoian,

Otxandion egon zen osabarenean, eta han joan zen lehenengo aldiz mutilekin eskolara. Igandero mezara joaten ziren eskolatik; behin, Alfredo Donado maisuak Espainiako bandera eramateko eskatu zion eta zer egiten zuen jakin barik kasu egin zion. Atentzioa deitu zioten eta gerora ez zuen gehiago eraman. Txapel gorriarekin joaten ziren eskolara.

690. Aita albaitaria (GER-048/030)

Gernikako Erreteriarra etorri ziren bizitzen ama kartzelatik irteterakoan. Bere aita albaitari ezaguna zen inguruko baserrietan, intseminazioan zen trebea.

691. Abarketekin Pasealekura (GER-048/036)

Gernikan estratak zeuden eta Erreteriatik Pasealekura abarketekin ibiltzen joaten zen ziren; euria egiten zuenean ortozik.

692. Neskari ezta musurik ere; tabernetan neskarik ez (GER-048/043)

Konfesatzerakoan ez zuten gauza askorik kontatzen ez zutela ezer egiten; neska-lagunari ez zion musurik ere ematen. Andrak ez ziren tabernatarara sartzen.

693. Anarkistak eta sozialistak (GER-048/045)

Amaren aldeko familian, anarkistak zein sozialistak ziren, Bilbo eta Arrigorriagako Abusu (La Peña) auzoa langile-auzoa baitzen.

694. Dendetan zein azokan lapurretan (GER-048/047)

Dendetan zein azokan lapurretan egiten zuten umetan: kanpoan zegoen jeneroa, jatekoa.

695. Kanpandorrea babestuta (GER-048/049)

Gerra sasoiaren Zornotzan egon zen. Bere amak kanpandorrera eramaten zuen bonbak hasten zirenean; handik goitik inguruko guztia ikusten zuten, baita Gernikako bonbardaketa ere. Bere emaztearen familia Jainkora (Arrieta) joan zen; han ikusi zuten azkenekoz aita, desagertu egin baitzen.

696. Barrutiko "cura Puñetas" (GER-049/002)

Barrutiko Torreko "Cura Puñetas": zergatik deitzen zioten horrela azaltzen du: zaldi zuri batez etortzen zen Gernikara meza ematera eta zaldiak korrika egiteko "arre puñetas!" esaten zion. Barrutiko ermitan ematen zuen meza, gerora ez zuten mezarik ematen bertan.

697. Barrutiko jaiak (GER-049/003)

San Zeledonio da Barrutiko jaieguna, oso jai politikak izaten ziren. Edan barik ospatzen zituzten, dantzan.

698. Eskolara gutxi: amari lagundu behar (GER-049/004)

699. Karmeldarretara (GER-049/005)

Karmeldarren ikastetxeko "Hermana Eusebia" ona zen, besteak, ostera, sorginak. Ordu erdiko bidea zuten.

700. Gudariak eta militarrek etxean (GER-049/006)

Etxea gudariz beteta egoten zen, beste etxe asko bezala. Gipuzkoarrak ziren gehienak. Gose ziren eta haiei jaten ematen zieten. Militarrek sartu zirenean, militarrez bete zitzairen etxea; eta, bitarte horretan, beraien aita preso. Amari berdin zitzaion zeini eman jaten, azken batean, gosez baitzeuden denak.

701. Militarrekin hartu-eman ona (GER-049/007)

Militarren kapitaina izan zuten etxean, eta oso ondo portatu zen beraiekin: kapitainari esker, aita salbatu zen; eta bere ahizpa txikia, gaixorik zegoena, egunero Lekeitio ondora medikuarenera eraman zuten.

702. Aita hiltzetik salbatuta (GER-049/008)

Kapitaina etxean zutela, beste agintari batzuk joan ziren aitaren bila; baina, kapitainari eskerrak, ez zuten eraman. Auzoko batzuek salatu zuten bere aita.

703. Aita kartzelan zorriz eta zikinkeriaz beteta (GER-049/009)

Bere aita atxilotu zutenean, luzaro egon ziren hari buruzko ezer jakin barik. Lekeitio, Bilbon eta Pontevedran egon zen. Galiziako kartzela uharte batean zegoen, lepra zuten gaixoen bizilekua zen. Zikinkeria itzela izaten zuten: gutunetan zorriak, handi-handiak, bizirik heltzen ziren.

704. Diru barik; kartzelako gutunak (GER-049/011)

705. Salatari asko (GER-049/013)

Bere aita auzoko batek salatu zuen. Gudariei jaten emateagatik eraman zuten kartzelara. Salatari asko egon zen han sasoiari: ikusiezinagatik salatuak eta horren erruz hildakoak.

706. Bonbardaketa osteko lapurretak (GER-049/017)

Jende asko lapurretan hasi zen, Errenteria auzoko denda askotan ostu zuten bertakoek, aurrez aurre ikusi zituzten lapurretok. Hainbat gauza kalera atera zituzten eta beraiek "baiariñe", belarra altxatzeko tresna bat, eraman zuten etxera, baina bere aitak ordaindu egin zuen. Gero, ordea, beraiei ostu zieten.

707. Bonbardaketako gezurrak (GER-049/020)

Gernika-Lumo Francoren aldekoek erre arren, gorriek suntsitu zutela zabaldu zuten eta hori entzun eta jasan behar izan dute urte askoan. Andonek beti aldarrikatu du hori. Alemaniarrek bonbardatu arren, gernikar batek eman zituen erasorako erabili zituzten planoak.

708. Bonbardaketa eguna (GER-049/021)

Bonbardaketa egunean, bere ama goizetik joan zen Gernikara esnea banatzen. Lehen abioia salataria zen, haren ostean beste hiru eta beste hiru eta beste hiru... etorri baitziren. Bera Oleskoko erreka batean babestu zen neba bigaz batera. Iluntzera arte egon ziren uretan, jende guztia egon zen txilioka eta inguruko etxeak jendez bete ziren.

709. Bonbardaketa ostean, inguruko etxeak beteta (GER-049/022)

Bonbardaketa ostean, inguruko etxean jendez bete ziren. Andoneren etxean andre bat bere sei hilabeteko ume bikiekin egon zen. Umeak gose ziren, baina ez zuten jateko askorik emateko. Auzoko batzuen arkumeen biberoiarekin behi esnea eman zien.

710. Baserrian ez zuten goserik (GER-049/023)

Ez zuten goserik pasatu, baserrian denetarik zuten: labeko sua (ogia) astelehenero egiten zuten aste guztirako; errazionamenduan hartzen zuten ogi-txuskoa, azukrea... 9 urterekin legamiak (lebadurak) egiten egoten zen bere senarraren aitariarekin Oleskoko okindegian.

711. Errotak zarratuta; garia eta artoa entregatu beharra (GER-049/024)

Gerraostean, errota denak zarratu zituzten, baina gauzez tranpa egiten zuten: prezintua kendu eta zabaldu. Arratzura joaten ziren goizaldeko orduetan. Egunez, Lagako errotara joaten ziren astoz. Taloa, morokila eta ogia egiten zuten. Gainera, garia, artoa, patata... herrira entregatu behar izaten zuten.

712. Errazionamendua eta estraperloa (GER-049/025)

Errazionamendua nahiko urria zela dio. Tabakotan Arratzura joan behar izaten zuten, baina bestela errazionamendu bila Gernikara etorri behar izaten ziren. Ilarak oso luzeak izaten ziren, orduetakoak. Estraperloa ere ugaritu zen eta etxe eta terreno asko errekiatu zituzten.

713. Bonbardaketa aurreko Gernika (GER-049/027)

714. Frantseskale (GER-052/004)

Gaur egungo Azokakalen jaio zen, lehen Frantseskale deiturikoa. Kale horretako familia denak erdi-mailakoak ziren, pare bat izan ezik, horietako bat monarkikoa. "Erretxiñeneko" okindegia zuen bere familiak bertan, bere aitaren jaioterriaren izena, Errezil, aintzat hartuz jarritakoa. Udaletxeko plazan ibiltzen ziren umetan.

715. Gerran familia banatuta (GER-052/006)

Bere aita batzokiko presidentea izan zen. Gerraostean bere aita preso eraman zuten. Itziar Sukarrietara joan zen izeko batengana, 3 urte igaro zituen bertan. Bere ama Gernikan gelditu zen.

716. Aita preso (GER-052/011)

Bere aita 3 urtez izan zen batzokiko presidente; gerora ere sekula ez zuen batzokia utzi. Beraien aita kartzelara sartu zuten, lehenengo Bilbon eta gero Asturiasen, 3 urtez-edo egon zen kartzelan. Etxean euskaraz egin arren, kalean erdaraz egiten zuten, gainerako umeek ere horrela egiten zutelako.

717. Gernikako erdialdea (GER-052/022)

Gernikako erdialdea ez dela askorik aldatu dio: Azokakale, Artekale, Barrenkale, Ocho de Enero... Gaur egun dauden Dionisia eta Adela Garteiz arropa-dendak ere bazeuden lehen ere. Bere izeko batek udaletxeko plazan

izan zuen janari-denda. Mutilak neskak baino eskola dotoreago batera joaten ziren.

718. San Pedroak udaletxeko plazan (GER-052/024)

Udaletxeko plazan egoten ziren jolasten, Pasealekura bakarrik jaietan-eta joaten ziren. Mutilek ez zuten beraiekin jolasten. San Pedrotan, San Pedro Lumotik bajatzen zen eta San Pedro egunean udaletxe aurrean jaia egoten zen, dantzaldia. Senarra ere dantzan ezagutu zuen Gernikan soldadu zegoela.

719. Jesuiten ekarpena (GER-052/026)

Anbulatorio ondoko jesuitak ondo ikusiak zeuden herrian. Eskolako kontuez gain, antzerkiak, dantzak... ere egiten zituzten euskaraz.

720. Bonbardaketa basoan babestu ziren (GER-052/028)

Gerra hasi zenean, etxekoa zuen lehengusina bategaz, beraien familiako batzuen baserrira joaten ziren. Bonbardaketa egunean, beste askorekin batera, basora joan ziren eta han egon ziren. Pinu artetik landa aldera joandako andre bat zelan hil zuten ikusi zuen. Handik, lehengusinarekin batera, Sukarrietara joan zen; guztira hiru urte egin zituen bertan.

721. Udaletxean jaio zen (GER-054/004)

1933. urtean jaio zen udaletxean bertan, bere aita bertako ordenantza (bulegaria) baitzen. Gernika-Lumo erre zutenean hura ere suntsitu zutenez eta oso txikia zenez, ez du ezer gogoratzen Josefinak.

722. Bonbardaketa ostean, Eibarrera (GER-054/005)

Gernika-Lumo erre ostean, Eibarrera joan ziren eta Josefina han egon zen 4 urtetatik 7 urtera artean. Lehen jaunartzea egiteko bueltatu zen etxera.

723. Gernika berreraikitzen zeudela, etxe batetik bestera (GER-054/006)

Bonbardaketa ostean Eibarrera joan eta 7 urterekin herrira bueltatu zen Josefina. Hiru familia bizi ziren batera Gernikako "Barrio Chino"n (gaur egungo Saraspe plazatik behera doazen kaleak). Gero Kaixao tabernakoek egindako etxe batera joan ziren Industria kalera. Erdiko kalea eraikitzen zeuden sasoi hartan, "Regiones devastadas"ek zuen horrek ardura. Industria kalean hiru urtez egon ostean, Kaltzada egoitza aurreko etxeetara, estatuko etxeetara, joan ziren osaba-izekoei tokatu zitzaaien-eta.

724. Mari Karmen Onaindiaren solfeo-eskolak (GER-054/008)

Juan Kaltzada kaleko Estatuko etxeetan hiru familia bizi ziren batera. Han ondoan bizi zen Mari Karmen Onaindiak solfeoa eta pianoa irakasten zuen eta bere lehengusina eta bera bertara joaten ziren. Onaindiatarrek okindegia eta zerra zuten bertan.

725. Batxilergoko ikasketak utzi behar lan egiteko (GER-054/014)

Zazpi urtetatik 14 urtera arte karmeldarren ikastetxean egon zen, "cultura general" ikasiz. Beste lagun bategaz batxilergoa ikastea erabaki eta horrako sarbidea lortu zuen. Lehen ikasturtearen ostean utzi egin bejhar izan zuen

amari dendan laguntzeko. Maistra izatea amesa izan zuen. Zazpi urterekin Merzedeen egin zuen lehen jaunartzea. Egun handia izan zen.

726. Izen euskaldunak galarazi (GER-054/016)

Miren izena zuen lagun bati mojak bere izenarekin burla egiten zion. Galarazita zeuden euskara eta zelan ez, baita euskarazko izenak ere. Bere lehengusiña Uguzne zen eta "María Bautista" deitzen zioten; Maitederri "María del Amor hermoso"...

727. Zallobieta zapata-denda (GER-054/017)

Bere amak Ocho de Enero kalean oihal-denda zuen, baina gero zapata-denda jarri zuen. Josefina 15 urte gaz hasi zen bertan lanean eta bertan egon zen erretiratu arte. Mota guztietako oinetakoak zituzten. Herrian zeuden beste zapata-dendak aipatzen ditu.

728. Zapata-konpontzaileak (GER-054/018)

Josefinak Zallobieta zapata-denda zuen, baina beraiek ez zuten konpontzen. Gernika-Lumon zeuden zapata-konpontzaileak zeintzuk ziren azaltzen du: Musatadi anaiak, "Pitxin", Diomedes...

729. Zapata-dendako jeneroa (GER-054/019)

Zallobieta zapata-dendan Iruñeko Lanpreabe lantegitik ekarritako abarkak saltzen zituzten. Azkoitia aldeko abarketak ere saltzen ziren. Baserritarrek abarkak eta bota mota batzuk erosten zituzten. Bota horiek lantegietako beharginek ere erosten zituzten. Bere amak eta izekok lehenago Andra Mari kalean izan zuten denda.

730. Erdaraz ez jakitearen anekdota (GER-054/021)

Bar Azuleko sukaldean lan egiten zuen gizon batek ez zekien ondo gaztelaniaz. Hari gertatutako istorioa kontatzen du: ahalegindu ahalegindu zen behintzat erdaraz egiten. Ez ziren ohikoak horrelakoak, baina gizon hura nagusia zen.

731. Oinetako-modak (GER-054/023)

Mutilek zapata arruntak erabiltzen zituzten. Neskek takoiak beti erabili dituzte, beran Zallobieta zapata-dendan hasi zenean ere. Plataformadunak eta zuekodunak berak 16-17 urte zituenean hasi ziren saltzen.

732. Orrazkera-modak (GER-054/024)

Ileak tupearekin orratzen ziren eta ile gutxi zutenek barrutik ilea sartzen zuten. Josefinak ile asko zuen eta ile-apaindegian "entresakatu" egiten zieten. Permanentea urtean behin egiten zuten, Aste Santuetarako-edo, eguraldia hobetzen zenerako.

733. Janzkerak (GER-054/025)

Martian (martxoan) eguraldi onak hasterakoan janzkera ere aldatzen zuten: galtzerdi txikiak jantzi, mutikoek praka laburrak, neskek gona tolesdunak... Jostunak etxez etxe joaten ziren eta konponketa asko egiten zitzaizkien: norbera hazten zen heinean barrenak luzatuz, 3-4 urtez arropa berdina jantziz.

734. Oihalak erosi behar arropak egiteko (GER-054/026)

Dendetan oihalak erosten ziren, arropak eginda ez baitziren erosten. Adela Garteiz, Txankan, Bareño, Orbe, Ortuzar... dendak zeuden. Jostun asko zeuden orduan.

735. Prakarik janzteia eta tabernara sartzea pentsatu ere ez (GER-054/030)

Prakak ezkondu ostean jantzi zituen lehenengo bider. Tabernetara ere ez ziren sartzen, nahiz eta mutil-lagunak esan.

736. 'Acción Católica' (GER-054/033)

Acción Católica zen Josefina; bere senarra, osterera, JOACekoa (Juventid Obrera Católica). Acción Católicakoen don Jesus Jauregi abadeagaz egiten zituzten batzarrak astero. Taldekideek egiten zutena azaltzen du.

737. Bekatuen beldur ezta musurik ere (GER-054/036)

Acción Católicakoentzat dantza egitea bekatua zen. Gero egindakoak konfesatzean kontatu behar izaten zituzten, astero konfesatzen ziren. Penitentziak zelakoak ziren azaltzen du. Mutil-lagunari eskutik helduta joaterakoan norbait ikusiz gero, eskua askatu egiten zuten. Ezkondu aurretik musurik ere zioten eman elkarri. Bekatu mortala harreman sexualak izatea zen.

738. Prozesioak (GER-054/040)

Prozesioak Dolorosa egunean (Aste Santu aurreko barikua), Bariku eta Eguen Santu egunetan egon ziren. Elizatik irten eta hainbat kaletik pasatzen zen: Erdiko kalea, Don Tello, Ocho de Enero... Bariku Santu egunean, goizez, Erreterria auzotik gurutzeak eramaten zituzten Lumorantz.

739. Elizako abesbatza (GER-054/044)

María Amada Anzorandiak organoa joz elizako abesbatzarekin Ama Birjinaren kanta asko kantatzen zituzten. Jose Antonio Aranak zuzentzen zuen herriko abesbatza.

740. San Raketako abestia (GER-054/046)

San Raketako erdarazko abestia kantatzen du.

741. Kandlerio Eguneko abestia eta ohiturak (GER-054/047)

Kandlerio Egunean kandelak bedeinkatzeaz gain abestu ere egiten zuten. Abestia kantatzen du Josefinak.

742. Banda militarrek; Pasealekua bi zatitan (GER-054/052)

Pasealekuan musika egoten zen jaietan. Banda militarrek etortzen ziren kanpotik. Pasealekuko eskumako aldean jende dotoreagoa egoten zen; ezker aldean, gainerakoan.

743. Lehengusinak gelakide bati esandako gaiztakeria (GER-054/056)

Karmeldarren ikastetxean egunero eguneko santua irakurtzen zuten. Egun batean klaseko lagun bat, Ana María Galán (Pasealekuko eskolako don mauro Galán maisuaren alaba), gona motz batekin etorri zen eta Josefinaren lehengusinak egoeraz eta santuaren egunaz aprobeztatuta txistea egin zuen. Txirene (bromazale) hutsa ei zen lehengusina hori.

744. Xaboa etxean egin eta eskuz garbitu behar (GER-054/060)

Etxean beti ezagutu du argia, baina ez askorik. Arropak aste bitan aldatzen zituzten, eguen eta domeketan. Beraiek etxean garbitzen zituzten arropak, baina kalean bazeuden garbitokiak. Xaboa etxean egiten zuten zeboagaz eta olioagaz.

745. Oztopoak oztopo familia aurrera (GER-054/061)

Bere amak 8 urtegaz eskumuturra ("eskuturre") apurtu zuen eta medikuak nahi barik zain bat ebaki zion; hala ere, oso ondo konpondu zen nahiz eta senarrik ez izan eta familia berak bakarrik atera aurrera.

746. Aita desagertuaren zantzurik barik (GER-054/063)

Aita desagertu egin zen eta sekula ez zuten bere berririk izan. Batetik eta bestetik bere berri jasotzen zuten, baina ez ezer fidagarririk.

747. Arma-lantegira lanera etorritakoak (GER-055/002)

Eibartik 1908. urtean Eibartik ekarri zuten arma-lantegia. Jende asko etorri zen herrira Eibar eta Elorrio aldetik bere aita bezala. Bere aitak 4 pezeta irabazten zituen eta ostatua 2.25 ordaindu. Bere ama Taberna Vascako langilea zen eta han ezagutu zuten elkar.

748. Monagilo beharrak (GER-055/004)

Lehen jaunartzea egin aurretik monagilo lanetan aritzen zen Andra Marian. Latin ikasi ei zuen, baina ulertu ez askorik. Monagilo beharrak zeintzuk izaten ziren azaltzen du. Abadeak txakur handi bat ematen zien ezer ematekotan.

749. Andra Mariko abade okerrak (GER-055/005)

Andra Marian monagilo lanak egiten zituenean, lau abade oker egon ziren. Behin lau abadeekin bakarrik zegoela, ea non konfesatzen zen galdetu zien ez baitzen bertan konfesatzen. Pablok agustinoetara joaten zela esan zien. Zelan konfesatuko zen beraiekin, beraiei egiten baitzien burla Pablok.

750. Monagiloak hiletetan (GER-055/006)

Monagiloek hiletetan lan handia izaten zuten. Katafalkoa egoten zen erdian; hura kendu eta banakako aulkiak jarri behar izaten zituzten.

751. Isopuagaz bedeinkatu (GER-055/010)

Monagiloa zela abadeari bedeinkazioan laguntzen zion isopuarekin. Isopua zelakoa zen azaltzen du.

752. Emakumeak erdian eta gizonak alboetan (GER-055/011)

Andra Maria eliza ez zen gaur egungoa bezalakoa. Emakumezkoak erdian eta gizonak alboetan jesartzen ziren elizan. Umeek aparteko mezak izaten zituzten.

753. Abadeak monagiloari kokotekoa (GER-055/012)

Abadea aldarera begira egoten zen monagiloekin batera. Behin hirugarren mailako hileta batean, monagilo bezala zegoela, abadeak kokotekoa jo zien.

754. Kanpai motak (GER-055/014)

Monagiloen betebehar bat kanpaiak jotzea zen. Kanpandorrera igo behar izaten ziren. Kanpai eta kanpai-hots desberdinak ziren. Hil-kanpainak ere mota desberdinetakoak ziren. Bonbardaketan ere kanpai-hotsak entzun ziren.

755. Olgetan bolanderak begira salto (GER-055/017)

Bost urte zituela, elizako ospakizunetan bolanderak botatzen ziren. Lehertuko bako bolandera bat hartu eta su eman zion; begira saltatu eta begia zauritu zuen. Donostiako mediku batek artatu zuen eta ez zuen begirik galdu.

756. 14 urtegaz pintxe eta praka luzeak jantzi behar (GER-055/023)

Lehen jaunartzea egin arte mojen ikastetxera joan zen. Gero Eskola Publikora joan zen 14 urtegaz lanean hasi arte. Pintxe moduan hasi zen praka laburrekin, baina laster jantzi behar izan zituen luzeak; bera izan zen kuadrillako lehena janzten.

757. Astra arma-lantegian pintxe lanetan (GER-055/026)

Astra arma-lantegian pintxe lanetan hasi zen 14 urtegaz. Zein lan egiten zuen azaltzen du. Lanetik irtendakoan marrazketa ikasten jarraitu zuen, baina ez zuen horrelako lanik egin.

758. Fotokopiak urarekin egiten ziren (GER-055/027)

Astra arma-lantegian zebilela paperak urarekin kopiatzen zituzten, gaur egungo fotokopiak bezala. Pintxe ostean, "aspirante", "auxiliar" eta "oficial" izan zen Astra arma-lantegian.

759. Astrako sasoi onak (GER-055/029)

Astran soldata onak zituzten. Diruz kobratzen zuten; hasieran astero eta gero hamabostero. Behargin asko zeuden, 500 pertsona egon ziren 50. hamarkadako sasoi onenean.

760. Astrako armak munduan zehar (GER-055/031)

Astra arma-lantegiko materiala atzerrira saltzen zen. Behin Madrilera joan zen Pablo lanetik bertako ogasunera dirutza bat kobratzeko.

761. Arma-lantegiko probalekua (GER-055/033)

Astra arma-lantegian bertan zuten probalekua, arman probatzeko probalekua. Gernikan lehen frogia egin ostean Eibarko "banco de pruebas"en ematen zien oniritzia. Guardia Zibilek zuten lantegiko zaintzaren ardura.

762. Astraren itxiera eta Esperantza lantegia (GER-055/040)

Gernika-Lumon jende askori eman zion lana Astrako arma-lantegiak. Politika kontuengatik zarratu zuten lantegia. Markina-Xemeingoko Esperantza lantegiaren bazkide ziren. Gernikan Astra markakoak egiten ziren.

763. Emakumeak arma-lantegian (GER-055/041)

Astra arma-lantegian hasieran emakume bakarra egon zen, Pablo 1941. urtean hasi zen lanean eta bakarra zegoen; gerora dozena erdi egon ziren. Emakumeek gizonen lan bera egiten zuten.

764. Gran Vian Francoren aurrean desfilatu zuten (GER-055/046)

1960. urte inguruan 63 eguneko greba egin zuten Astra arma-lantegian. Pablo Frente de Juventudeseko kidea zen, nahiz eta haren aurkakoa izan; behin Bilboko Gran Viara joan ziren Franco aurrean desfilatzera.

765. 'Frente de Juventudes' (GER-055/047)

Frente de Juventudesek Gernika-Lumon indarra zuen tailerrak kontrolatzen zituzten-eta. UHP sindikatua. Astran sindikatu abertzaleak ziren nagusi.

766. 99 pezeta hilabetean (GER-055/051)

Astra arma-lantegiko ugazaba, Unzeta, egunero joaten zen mezara. 99 pezeta irabazten zituen hilabetean 14 urterekin lanean hasi zenean. Irabazitakoa amari eman behar izaten zion.

767. Teilatuko sutea amatatu zuten bonbardaketan (GER-055/055)

Gernikako bonbardaketa Andra Mariako eskaileretan pasatu zuen. Beraien etxeko teilatua sutan aurkitu zuten, baina amatatzea lortu zuten. Nazionalak sartu zirenean, mairuek etxea kakaztu zien. Bonbardaketako gaua etxean pasatu zutela dio.

768. "Galazota dago euskaraz eittie" (GER-055/057)

Frente de Juventudesen euskaraz berba egitearren atentzioa deitzen zioten. Arkupeetako frontoian euskaraz egitea galarazita zegoela gogoratzen zuen kartela zegoen.

769. Pilotaka eta "a la boda de dos" (GER-055/058)

Lanazko pilotak egiten zituzten amari ostutako lanarekin esku-pilotan aritzeko. Futbolearen aritzeko oinetako onak behar ziren eta ez zituzten izaten. "A la boda de dos" sokasaltoko jolasean ere aritzen ziren.

770. Neskekin ezin ezer egin eta ardoka (GER-055/059)

Neskekin dantzari eginez gero abadeari konfesatu behar izaten zioten. Gaztetan tontoa izan zela dio neska-lagunarekin ez baitzuen ezetakorik ere egin. Egiten zuten bakarra edatea zen, ardoa edaten zuten sasoi hartan.

771. Txikiteoko tabernak (GER-055/060)

Txikiteoa egiterakoan taberna guztiak pasatzen zituen. Banan-banan aipatzen ditu tabernok: Katalinena, Zorrozua, Bar azul, Laguardia, Arrien, Julian... Erreterria auzora ere joaten ziren txikiteoan. Erreal bat balio zuen txikitoak. Edateko ez ei zuten neskarik behar eta ez zuten beraien faltarik.

772. Santa Barbara, armaginen eguna (GER-055/065)

Astra arma-lantegian Santa Barbara eguna, abenduaren 4a, ospatzen zuten. Meza nagusia, txirringularitza-lasterketa, bazkaria, erromeria... izaten zuten enpresaren kontura.

773. Billete-bilduma osatzeko asko gastatu (GER-059/023)

Billete zahar pila bat erakusten ditu. Behin madrildar batzuek bilduma guztia erosi nahi izan zieten eta 350.000 pezeta eskaini zizkieten, baina ez zien saldu. Beste behin amerikar batzuek txanpon bat eskatu zien. Euzkadiko billete bat ere erakusten du, idiak agertzen direna. Euzkadiko lehenengo dirua izan zena erakusten du. 1936-1937 ingurukoak dira gehienak. 50 pezetakoa oso gaitza omen zen aurkitzeko. Sasoi hartan diru asko balio zuten billete horiek, eta Angelek bilduma osatzeko ere diru asko gastatu du. Euzkadiko diruaren balioa gobernuak anulatu zuen eta dirua izan arren balio barik gelditu ziren asko eta asko.

774. 1925. urteko 1.000 pezetako billetea (GER-059/024)

Errepublika aurreko billeteak ditu eskuartean. 10 pezetako billeteak Burgosen egin ziren lehen aldiz. 1925. urteko 1.000 pezetako billete bat ere badu. 1.000 pezetako hori banketxera aldatzera joan zen emakume bati erosi zion, eta baliorik ez zuenez, berak erosi zizkion orduko 1.000 pezetaren truke. 1907. urteko 1.000 pezetako billete bat erakusten du.

775. Bonbardaketaren 50. urteurreneko zigiluak (GER-059/025)

Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenerako zigilu batzuk atera zituzten eta horietako batzuk daude ikusgai

776. Espainiako herrialde ezberdinetako diru zaharrak (GER-059/026)

Espainiako diru zahar pila bat ikusten da irudian. Gerra denboran, herrialde bakoitzak bere dirua egin zuen, Euzkadik egin zuen moduan. Honako hauek daude ikusgai beste gatzuen artean: "Consejo Asturias y León"ekoa, Espainiako bankuan Kuban zuen dirua, "Ajuntament de Barcelona"ko pezeta bateko billetea, CNTren pezeta 1ekoa, Burgosko gobernuarenak, Senecak...

777. 1936-1940 bitarteko dirua (GER-059/027)

1940 inguruko Espainiako bankuko dirua dago ikusgai. Francok atera zuen lehenengo dirua 1936an izan zen, Burgosen atera zuen eta horietako ale bat ere erakusten du Angelek. 1937, 1938, 1940... urteetako beste hainbat billete era ikus daitezke

778. 100 pezetako billete zaharrak (GER-059/029)

Billete zahar batzuk erakusten ditu Angelek, gehienak 100 pezetako billeteak dira.

779. 500 pezetako billete zaharrak (GER-059/030)

Billete zahar batzuk erakusten ditu Angelek, gehienak 500 pezetako billeteak dira. Francoren sasoikoez Francoren ikurra daramate, ostekoek ez.

780. 1.000 pezetako billete zaharrak (GER-059/031)

1.000 pezetako billete zaharrak erakusten ditu.

781. Gerra sasotik 80. hamarkadara arteko billeteak (GER-059/032)

1936. urteko 100 pezetako billetea erakusten du, Santanderrekoa. Franco sasotik hasi eta 80. hamarkadara artekoak ere ikus daitezke. Ekonomiatoko txartel bat ere badago. Banketxekeoi esker lortzen zituen askotan diru zahar hauek.

782. 1906. urteko dirua (GER-059/033)

1906. eta 1927. urteko billete

783. Diru zaharrak tabernatik kentzeko agindua (GER-059/035)

Mundakako kazetari batek Angeli buruz egindako erreportaia bat erakusten du. "Bar-museo de Guernica" izeneko artikulua izan zen, berak diru zaharrak tabernan izaten baitzituen erakusgai. Handik sasoi batera guardia zibil batzuk joan zitzaizkion diru haiek handik kentzeko esaten, badaezpada ere.

784. Txinko dinastia bateko dirua (GER-059/036)

Herralde desberdinetako billeteak erakusten ditu. Behin Txinako dinastia bateko alaba batek beraien dirua eman zion eta horiek ere baditu gordeta Angelek.

785. Mila milioi markotako billetea (GER-059/038)

Mila milioi markotako billete bat du. 1914-1920 bitartean, munduan zehar banatuta egon zen markoa. Eta sasoi hartako bat du Bizkaiko banketxe abalduna.

786. II. Mundu Gerrako amerikarren dirua (GER-059/040)

II. Mundu Gerran amerikarrek mundu guztian zehar erabiltzen zuten dirua erakusten du. Billeteen data lehenagokoa da, baina amerikarrek lehenagokoa atera zuten berriro ere.

787. Nabarnizetik Gernikara (GER-069/003)

Nabarnizen jaio zen, aitita eta amamaren etxean, Goikezta baserrian, Intxaurren auzoan. Aita berriz ezkondu zenean etorri zen Gernikara. Erdaraz ez zekien. Mojetan ikasi zuen. Aroztegia izan zuen aitak.

788. Eskola partikularretan Otazua, Bareño eta Makalarekin (GER-069/005)

Karmeldarretan ikasi zuen. Urte batzuk han eginda, Otazuanera joan zen eskola partikularretara. Handik Bareñorengana joan zen kontabilitatea eta mekanografia ikastera eta ondoren Makalarekin ikasi zuen.

789. Ameriketara artzain (GER-069/007)

Soldadutzatik bueltan, errepideetan kamioiarekin lanean hasi zen. Nekatu egin zen, lo gutxi egiten zutelako. Hura utzi eta Ameriketara joan zen hiru urtez artzain Idahora. 1962ko irailean joan zen eta hiru urtera itzuli zen.

790. Ameriketara artzainaren laguntzaile (GER-069/008)

Ameriketara mendian pasatzen zituen egunak bakarrik. Ardiak zaintzen gutxi baina artzainari laguntzen aritu behar izaten zuen. Udaran mendira igotzen ziren eta neguan herritik gertu geratzen ziren.

791. Ameriketako bizimodua (GER-069/009)

Emazteak Madrilen itxaron zion itzuli zenean. Urtean 100 dolar baino gutxiago gastatzen zituen. Oporrik ere ez zuen izaten. Karrokanpoaren azpian ere egin zuen lo behin. Kanpin dendetan ere pasatzen zuten gaua. Ogia ere egiten zuten; lurrean zulo handi bat eginda egiten zuten. Prozesua azaltzen du.

792. Neguak hotzak Idahon (GER-069/010)

Berotzeko txapa edo ekonomika izaten zuten. Negua oso hotza izaten zen eta jatekoa ere izoztu egiten zitzaien. Arropak astean behin garbitzen zituzten. Ereñoko Etxeandiatarrekin ibili zen.

793. Bonbardaketa eguna (GER-069/011)

Bonbardaketa izan zenean, Nabarnizen zegoen. Dena argia ikusten zen Gernika aldean. Omako kobetan sartzen ziren. Plaza ondoko etxea suntsitu egin zen. Geroago Errenteriarra etorri ziren bizi izatera Santi Leonen etxera.

794. Aitari loteria tokatu zitzaionekoa (GER-069/012)

Bonbardaketaren ostean, loteria tokatu zen Gernikan eta aitari ere tokatu egin zitzaion. Harekin egin zuten aurrera. Errentan joan ziren gero. Pepe izaten zen egunkariak eta loteria saltzen zituena.

795. Txerria ezkutuan hil zutenekoa (GER-069/014)

Egurra nondik ekartzen zuten ez dauka gogoan. Inguruko basoetatik ekartzen zuten. Aita bazkidearengandik banandu eta bakarrik hasi zen zerrategian. Ortua eta soroak izaten zituzten eta txerria ere bai. Txerria ezkutuan hiltzen zuten, debekatuta zegoen eta. Pasadizo barregarri bat kontatzen du. Hiltegia non zegoen kontatzen du. Antzinako kateari buruzko kontuak.

796. Konfesatzerakoan gezurretan (GER-069/018)

Konfesatzera joaten ziren. Paskuetakoa izaten zen derrigorra. Lantzean gezur batzuk esaten zizkion apaizari. Ezkonostean ere jarraitu izan dute konfesatzen. Jainkoarekin norbera konfesatzea nahiko dela dio. Anekdotak bat kontatzen du.

797. Inguruko hizkerekin alde nabarmena (GER-069/022)

Nabarnizetik Gernikara aldea nabaritzen du hizkeran. Nabarnizetik Ereñora ere desberdin da. Emazteak berba egiten du. Gaztela aldean euskarari buruzko kontuak azaltzen zituen.

798. Gernikako euskara aldrebasa (GER-069/023)

Herritik herrira azentua, esakerak... aldatu egiten dira. Euskara batua ez omen du ulertzen. Anekdotak bat kontatzen du, gazte garaikoa.

799. Partikularretan neska-mutilak elkarrekin (GER-069/025)

Otazuanean ibili zirenean, Maria Victoria zen irakaslea eta ahizpak laguntzen zion. Neska eta mutil batera ibiltzen ziren. Pasadizo bat kontatzen du.

800. Aste Santuan eta igandeetan, lan egitea debekatua (GER-069/026)

Jaunartzea karmeldarretan egin zuen. Jantzi dotorearekin egin zuen. Aste Santuan sakristian zaintza egiten zuten fusilarekin, txandaka. Prozesio handiak izaten ziren eta jendeak arropa berria janzten zuen. Lan egitea debekatua zegoen. Igandetan lan egitearren salatu egiten zituzten baserritarrak.

801. Karramarroak harrapatzen errekan (GER-069/027)

Karramarroak harrapatzen ibiltzen zen errekan. Uger egiten ez zuen ikasi. Lagunek bidoia jartzen zuten bizkarrean igerian ikasteko.

802. Gida baimena zela atera zuen (GER-069/028)

Gidabaimena errazagoa zen lortzen. Kamioiaren berrikuspina injenieri batek egiten zuen. Baimena nola atera zuen kontatzen du. Chevrolet markako kamioiarekin ikasi zuen gidatzen. Kamioiaren ezaugarriak aipatzen ditu.

803. Kamioiko gidabaimena eta motoristak (GER-069/030)

Orduko motoristak. Bazen bat aitaren laguna zena eta hari eskerrak isunetatik libratu zen. Kamioiko baimena erraz atera zuen.

804. Umetako Gernika (GER-070/002)

Umetako Gernika. Kaleak, plazak, zezen plaza eta antzokiak nolakoak ziren kontatzen du.

805. Eskola publikoan maisu guztiak kanpotarrak (GER-070/004)

Eskola publikoetan egon zen. Ez zitzaion asko gustatzen eta ez du gauza asko gogoan. Piper egin eta pilotara joaten ziren. Don Feliciano izan zuen maisu. Maisu guztiak kanpotarrak ziren, erdaldunak.

806. Kanean zein etxean erdaraz, gurasoek euskaraz (GER-070/005)

Etxean ere neba-arrebekin erdaraz egiten zuen, aita-amek euskaraz egin arren. Gernikan ez zuen inork euskaraz egiten, zaharrek eta baserritarrek izan ezik. Lagunartean ere erdaraz egiten zuten.

807. Errepublikarren eta karlisten lokalak (GER-070/008)

Altzaridendan egin zuen lan. Gerra aurreaz ez dauka akordurik. "Café Moderno"-n errepublikarrak egoten ziren eta hantxe egoten ziren banderekin apirilaren 14an. Karlisten lokala non zegoen aipatzen du. "La Tradi" esaten zioten, eta azpian "El Norte" zegoen.

808. Batzokia non zegoen (GER-070/009)

Asaltoko guardiak musika banda bidali zuen jotzen ari zen lekutik eta pasealekura joan ziren berriz musika jotzera. Errepublikarrak gutxi ziren gerra aurrean, biztanle gutxi zituen herriak eta. Batzokia non zegoen aipatzen du.

809. Bonbardaketa eguna (GER-070/012)

Bonbardaketan Ajangizen egon zen. Hegazkinak zetozenean, kanpaiak eta sirenak jotzen zituzten.

810. Aita notaritzako behargina (GER-070/013)

Anai-arrebak bakarrik egon ziren Ajangizen. Aitak notaritzan lan egiten zuenez, Gernikan bertan geratu zen. Non lan egiten zuen kontatzen du. Bere anai zaharrena eta gazteena hasi ziren gero aitarekin lanean.

811. Bonbardaketan aita Gernikan zen (GER-070/014)

Bonbardaketa hasi zenean, notaritzako etxean bertan babeslekuan egon zen aita. Ama etxean zegoen eta bonbardaketa hasi aurretik Ajangizera joan zen. Gernika dena garretan ikusten zuten goitik. Hilabete inguru egon zen Gernikatik kanpo. Inguruko herrietatik ekartzen zuten jendea herria garbitzera.

812. Kortezubiko Lendan bizitzen (GER-070/015)

Ajangizetik Kortezubira joan ziren, norabait joan beharra zegoen eta. Lendan bizi izan ziren. Gernikara eskolara etortzen ziren eta etxera bidean sagarrak harrapatu eta jaten zituzten.

813. Arotz lanetan (GER-070/019)

Gonzalezenean lan egin zuen, altzaridendan. Orain leku hartan zer dagoen aipatzen du. Arotza izan zen, Tomas Urionarekin batera. Industrialdean Obieta y compañía lantegia jarri zuen eta gero han lan egin zuen.

814. Egurra nondik ekartzen zuten (GER-070/020)

Denetariko egurra erabiltzen zuten. Bertako egurra gutxi erabiltzen zuten, Morenotik ekartzen zuten eta Guineskoak izaten ziren oholak.

815. Lanerako egurra zela prestatzen zen (GER-070/021)

Lanerako egurra prestatzeko prozesua. Lehenengo enborrak ekartzen ziren, lau edo bost intxaurren adibidez, eta handik zerran oholak egiten zituzten. Oholak lehortzen utzi eta zerra txikiarekin mozten ziren. Teilatua nola egiten den azaltzen du.

816. Egur-mota bakoitzarekin gauza bat (GER-070/022)

Ateak egin egin behar izaten ziren. Pasadizoak kontatzen ditu. Leihoen zatiak ez zituen izenez bereizten. Markoa eta leihoak egiteko gaztainondoa erabiltzen zen. Altzarientzat intxaurrondoa erabiltzen zen. Haritza gutxi erabiltzen zuten. Pagoa bai. Eukalptoarekin zorua egiten zuten.

817. Uribe zaharren hilkutxak (GER-070/023)

Uribe zaharrak egiten zituen hilkutxak. Ohol bigunak erabiltzen zituen. Hilkutxei kanpokaldetik oihal beltz batekin estaltzen zituen.

818. Someran txikiteoan (GER-070/025)

Parranda asko egindakoa izan da eta oraindik jarraitzen du. Someran ibiltzen ziren txikiteoan, taberna asko zeuden eta. Zallo, Madariaga, Foruria, Juanjo, Fronton, Sonsierra... Andrarik ez zen txikiteoan ibiltzen.

819. Pasealekuko dantzaldiak (GER-070/026)

Emaztea pasealekuan ezagutu zuen, dantzan. Neskek hamaika kalabaza ematen zizkien. Lehenengo txistua jotzen zuten. Gero dantza solterako tartea izaten zen. Azkenik musika bandak jotzen zuen.

820. Presan bainatzen (GER-070/028)

Presara joaten ziren bainatzera. Pasadizo bat kontatzen du. Neskarekin egindakoak ez zizkion apaizari esaten. Zinerako sarrerak hartu, futbola ikustera joan eta zazpiretako zinera joaten zen. Ondoren pasealekura joaten ziren dantzara.

821. San Juanetako suak (GER-070/030)

Errekatik zuhaitzen adarrak ekarri, koltxoi zaharrak ipini eta su ematen zioten San Juanetan. Auzo bakoitzak berea egiten zuen eta nork handiagoa egin aritzen ziren. Gero gaineratik salto egiten zuten.

822. Sociedad Guerniquesako dantzaldiak (GER-070/031)

Elkarte gastronomikoetan dantzaldiak antolatzen zituzten garai batean. "Sociedad Guerniquesa". Santa Agedatan kantuz ateratzen ziren laguntaldea.

823. Madrilgo Euskal Etxeko hastapenak (GER-071/003)

Bere senarra izan zen Madrilgo Euskal Etxeko lehen presidentea. Bertako ikastetxe nagusi batean hasi ziren hasieran euskarazko meza ematen, bertan leku desberdinetako euskaldunak batzen ziren. Orduan izan zuten Euskal Etxea sortzeko ideia. Abade oñatiar batek lagundu zien asko legalizatze bidean.

824. Eskaut talde euskalduna (GER-071/005)

Hogei bikote euskaldun eta beraien seme-alabak batu ziren Madrilgo Euskal etxean. Bere alabak bertan eskaut taldea sortu zuen. Senarra gaixotzerakoan bueltatu ziren Gernikara.

825. Alabak Euskal Etxeko lehen irakasleak (GER-071/007)

Bere alabak izan ziren euskarazko lehen irakasleak Madrilgo Euskal Etxean. Hasieran ikasle gutxi zituzten. Eskaut taldean ere dena egiten zuten euskaraz.

826. Jendea ez zen fio; diru-iturri barik (GER-071/008)

Euskal Etxea sortzea Madrilen ez zen erraza izan, hasiera guztiak bezala. Jende askok zalantzan izaten zituen eta ez ziren fio. Bere senarra Madrilgo Euskal Etxeko lehen presidentea izan zen eta lan eta buruko min handiak izan zituen beste askorekin batera. Hasieran ez zuten inongo diru-laguntzarik eta beraien poltsikotik jarri behar izan zuten.

827. 'Kili-Kili' aldizkaria Madrilen saltzen (GER-071/009)

Bere alabek hasieran ez zituzten euskara-eskolak kobratzen. Kontxik Kili-Kili aldizkaria saltzen zuen Madrilen eta euskara-eskoletarako ere erabiltzen zuten. Katekesia ere euskaraz ematen zuten.

828. Madrilen ere katekesia euskaraz (GER-071/011)

Madrilen ere beraiek hasi ziren katekesia eta jaunartzeak euskaraz egiten. Lehenengo abadeak bertan ikasten zeudenak izaten ziren eta beraiek ematen zituzten mezak euskaraz.

829. Franco hil osteko arnas berriak (GER-071/013)

Madrilen bizi arren oporretan beti bueltatzen ziren Gernikara. Franco hil ostean, banketxeek laguntasuna eman zioten Euskal Etxeari eta errazagoa izan zen aurrera egitea. Garaikoetxea lehendakariak inauguratu zuen. Gipuzkoarrak ziren bertan batzen ziren gehienak.

830. Madrilgo jai euskaldunak (GER-071/015)

Madrilen Euskal Herriko jai guztiak ospatzen zituzten: San Sebastianak, Santa Ageda... Auzorik auzo joaten ziren abesten. Iparragirrek "Gernikako arbola" lehenengo bider abestu zuen tabernan bukatzen zuten beti

831. Neba eta osaba bonbardaketan hil zituzten (GER-071/018)

Sei neba-arreba izan ziren, eta neba bat bonbardaketan hil zen. Udetxearen ondoan zegoen estolda batean hil zuten; handik hogeigarren egunera uholdeak izan ziren, eta horregatik atera zen haren gorpua zegoen lekutik. Osaba bat desagertutzat eman zuten, sekula ez baitzen gorpua azaldu. Gorpuzkin asko azaltzen ziren.

832. Bonbardaketa kanpandorrean (GER-071/019)

Bonbardaketa egunean, kanpaiak entzun zituenean, tabaka zebilen jolasten Goienkalean, eta Andra Mariko kanpandorrera joan zen babestera. Handik irteterakoan, etxera joan zen eta ez zuen inor aurkitu. Beraien etxeak, Taberna vasca taberna-jatetxeak, hurrengo egunean hartu zuen su. Gurasoak heldu zirenean, amaren jaiotetxera joan ziren, Ajangizera.

833. Pasealekuko eskolen sorrera (GER-071/021)

Taverna Vasca zabaltzerakoan, zabaldu zituzten Pasealekuko herri-eskolak ere. Primo de Riverak inauguratu zituela uste du Kontxik. Udetxeako seme bat,

Allende Salazar, ministroa izan zen. Montefuerte kondearen seme bat ere "jefe de protocolo" izan zen.

834. Taberna Vasca ezaguna (GER-071/022)

Taberna Vasca taberna-jatetxe ezaguna izan zen Gernikan. Hotela ez zuten bertan. Bonbardaketa. Behargin asko zeuden bertan eta ospakizun handiak egiten ziren. Bertako ezkontzak kategorikoak zirela dio.

835. Taberna Vascako ezkontzetako menua (GER-071/023)

Taberna Vascan ezkontzetan izaten zuten menua azaltzen du. Oilaskoa jai handietan bakarrik jaten zen, baita ezkontzetan ere. Postrea kolitena izan zen, almendrazko pastela. Kontxi ere Taberna Vascan aritu zen lanean.

836. Taberna Vascako "botones"ak (GER-071/024)

Taberna Vascako hoteleko "botones"ak Rioja eta eta Domitilo ziren. Turisten bila joaten ziren geltokira eta maletekin laguntzen ziren.

837. Lau solairu eta behargin asko (GER-071/025)

Taberna Vascak lau solairu zituen: behean, sukaldea, taberna eta jangela bat; bigarrenean, jangela handi bat eta logela; eta, azken bietan, logelak. Behargin asko ziren guztira eta asko ikasten etortzen ziren. Erosketak Bilbon egiten zituzten, amarekin Erriberara joaten zela du gogoan.

838. Hasieran amak agintzen zuen, gero nebak (GER-071/028)

Taberna Vascan hasieran bee amak agintzen zuen. Emakumeek horrelako negozioetan indarra eta garrantzia izaten zuten dio. gerora, bere nebak, Juanitok hartu zuen ardura.

839. Julian Hotela (GER-073/003)

Julian hoteleko alaba da. Oso hotel dotorea zen, oinetako-garbitzailea eta maletazaina ere bazuten. Orduan hiru-lau hotel zeuden herrian. Julian hotelak lau bat solairu zituen Oinetako-garbitzaileari "Limpías" esaten zien "Limpia botas"en laburdura erabiliz. "Limpías" bilbotarra zen eta Manuel maletazaina Burgoskoa.

840. Gernikako hotelak eta kafetegiak (GER-073/004)

Hotel Comercio, Taberna Vasca, Katarronekoa, Café Iruña, Café Norte... aipatzen ditu. Beraien aitaren hotelarekin batera ostatu zerbitzua ematen zuten hainbatek.

841. Etxea milizianoek hartu eta umezainaren etxera (GER-073/008)

Bonbardaketa egunean, Lumo aldera joan ziren ihesi. Erasoak hasi aurretik joan ziren. Normalean kanpaiak jotzen hasten zirenean babeslekura joaten ziren, baina egun hartan ez. Ahizpa biak neskameekin joan ziren Lumo aldera; neba amagaz geratu zen. Gaur egun Garbigunea dagoen tokitik hurbil dagoen zubi baten azpian babestu ziren. Handik Ibarruriko (Muxika) Txakille baserriraino joan ziren, umezaina hangoa zen-eta. Beraien etxea, Julian hotela, milizianoek hartu zuten eta neskameagaz joan ziren ahizpa biak Ibarrurira.

842. Errefuxiatuta bi fronteren artean (GER-073/010)

Bonbardaketa ostean, Ibarrurira (Muxika) joan ziren. Ondoko errota batean giputz batzuk zeudela du gogoan. Bi fronteren artean egon ziren. Gurasoek han zeudela jakin eta bila joan ziren. Gauegiz-Arteagan eta Errigoitin egon ziren gero, batetik bestera jateko eskasia nagusi zela.

843. Bonbardaketa ostean batetik bestera (GER-073/012)

Bonbardaketa eta gero Ibarruriko (Muxika) baserri batean egon ostean, Gauegiz-Arteagan eta Errigoitin egon ziren, gurasoen jaiotetxeetan. Bonbardaketan, ama eta neba arto artean ezkutatu ziren Gernikako Ibarra. Ama eta etxeko zerbitzariak, hotelekoak, denak joan ziren Gauegiz-Arteagara. Handik gero Errigoitira joan ziren berriro ere herrira bueltatu baino lehen. Geltoki plazan jarri zuen atzera ere taberna beraien aitak. Bonbardaketa ostean trenean lan egiten zuen kargudun bati eskerrak zabaldu zuen aitak taberna.

844. Hoteleko gauza asko ostu zizkieten (GER-073/013)

Beraien etxean ez zuten bonbardaketari buruz barbarik egiten. Sasoi hartako ispilu bat dute oraindik. Aurreko plazara bertako gauzak hustutzen zituzten heinean, jendeak lapurtu egiten zituen hoteleko gauzak gurdiak betez.

845. Tren-geltokiko kantina; labaderoa (GER-073/014)

Bonbardaketa ostean, herrira bueltatu eta gero, beraien aitak tren-geltokiko kantina hartu zuen errentan. Jaten ere ematen zuten. Ez zuten bertan behar egin beharrik izan, labadedora (garbitokira) joaten ziren olgetan.

846. Garbitokian ijitoekin olgetan (GER-073/015)

Iparragirre kalean zegoen labaderrora (garbitokira) joaten ziren olgetan. Pilik dio ijitoekin batzen zirela bertan. Hainbat herritar batzen ziren bertan eta abesti batzuk ere ikasi zituzten.

847. Txokolatea osten eta jatetxean dantzan (GER-073/017)

Neba zaharrenak Piliri esaten zion etxean txokolatea lapurtzeko. Izan ere, neba joaten zenean beti harrapatzen zuten; Pili joanez gero, ostera, ez zuten harrapatzen. Jatetxeko mahai gainean ere dantzan aritzen zen.

848. Dantza osteko diru batzea (GER-073/019)

Pili etxean zuten jatetxeko mahai gainetan dantzan aritzen zen. Gero dirua batzen zuen. Astelehenetan jende asko batzen zen tabernan eta horixe zen egun aproposa, tren-geltoki ondoan baitzegoen taberna.

849. Eskolan Francoren aldeko abestiak eta bandera (GER-073/020)

Maria Antoniak Pasealekuko eskola publikoan ikasi zuen; Pilik, ostera, karmeldarren ikastetxean. Eskolan Francoren aldeko abestiak kantatu behar izaten zituzten; herri bat hartzen zuten bakoitzeko abesti berri bat. Eskolako balkoian bandera jarri eta goizero abestu behar izaten zuten.

850. Doña Pia maistra (GER-073/021)

Pasealekuko eskolako maistra doña Pia Obieta izan zen. Euskaraz egitea galarazita zegoen, ezin zuten ezta laguneren artean ere egin. Josten ere ikasi zuten. Maistra gogorra izan arren, ederto erakusten zuen. Eskola-liburu bakarra zuten eta beste batzuekin elkarbanatuta gainera.

851. Karmeldarretan uniforme (GER-073/022)

Karmeldarren ikastetxea eskola publikoa baino dotoreagoa zen. Han, ordaintzen zutenek, uniforme zuten; uniforme zelakoa zen azaltzen dute. Beraiek taberna zuten eta orokorrean oso ondo bizi ziren.

852. Karmeldarretan moja izateko proposamena (GER-073/023)

Karmenaldarren ikastetxeko akordu onak ditu Pilik. Matematikak oso gustuko zituen eta mojak pozik egoten ziren beragaz. Behin moja batek aitarentzako karta bat eman zion. Mojatzat balio zuela esaten zuten gutunean eta moja sartzeko diru kopuru bat eman behar zuela. Aitak ez zuen horrelakorik onartu eta etxean laguntzen hasi zen beharrean.

853. Dotrina eta jaunartzea ikastetxearen arabera (GER-073/025)

Pasealekuko eskolatik Andra Maria elizara joaten ziren dotrinara. Maiatzean, amaren eguna zenerako, lora eta belar bila joaten ziren Cuatrobancos aldera. Jaunartzea ere ez zuten leku berean egin: Pilik karmeldarretan eta Maria Antoniak Andra Marian. Maria Antoniak lehen jaunartzean txokolatea hartu zutela gogoratzen du.

854. Herriko argazkilariak (GER-073/027)

Gernika-Lumon "Komarida" eta "Foto Pepe" argazkilariak egon ziren. "Fotos Martin"en aita kartzelan egon zen gerra garaian, forala izan baitzen.

855. Umetako olgetak eta paseoak (GER-073/030)

Eguen (ostegun) arratsaldetan jai izaten zuten eskolan, baina zapatuetan eskola izaten zuten. Orduko jolas batzuk aipatzen ditu. Batez ere sokadantzan aritzen ziren; abesti bat kantatzen du. Ez zuten bizikletarik. Domeketan Pasealeku azpian paseoan aritzen ziren, Bidaguren gozo-dendatik merkurio iturrira arte.

856. Pasealekuan "upelako erromerixe" (GER-073/032)

Pasealekuan "upelako erromerixe" egoten zela dio. Farra jotzen zutenek mutilei kobratzen zien. Mutilak joaten ziren neskei dantza eske. Behin mutil batzuek ez zuten nahi izan beraiekin dantzarik egin; antza, mutilen iritziz, ez zuten bular nahikorik. Pasealekuko kioskoaren atzealdean aritzen zirenak fitxatuta izaten zituzten. Fruta-saltzaile batek ipurdia ikutzen zien beragaz dantzan egiten zutenei.

857. Haizearen ondorioz, etxea utzi behar (GER-073/033)

1943. urte inguruan, haizeak kalte handik eragin zituen. Etxetik irten behar izan zuten ondoko etxea jausteko arriskua zegoelako. Orduan ere gerran bezala, babeslekura joan behar izan ziren.

858. Gernikarrak eta baserritarrek erromerian banatuta (GER-073/034)

Pasealekuan lauzpabost pertsona egoten ziren farra jotzen. Gernikarrak zirenak mutilen eskola zegoen alderdian egiten zuten dantzan; baserritarrek, ostera, nesken alderdian. Mutilek dantza egitearren ordaindu egin behar izaten zuten. Jantzkeran ez zen igartzen zein zen baserritara eta zein kaletarra.

859. Baltseoan egin ostean, Santa Klarara konfesatzera; jatekoak (GER-073/036)

Baltseoan dantzan egitea bekatu zen. Neska gehienak Santa Klaran zegoen abade batengana joaten ziren konfesatzera, jatorra baitzen. Jateko kontuetan era asko aldatu da bizimodua; gauez ere berdin-berdin jaten zuten lapikokoa.

860. Tabernan lanean (GER-073/037)

Itsasoan ibili zen osaba batek ekarri zien lehen irratia. Tabernan ez zuten irratirik ere. Gazterik hasi ziren tabernan beharrean, batez ere errekaduak egiten. Maria Antonia Don Tello kaleko tabernan hasi zen beharrean barran, arinago ez. Gaur egun ere hor dago Julian taberna.

861. Julian, herriko taberna zaharrenetarikoa (GER-073/038)

Beraien taberna, Julian, Gernika-Lumoko taberna zaharrenetarikoa da. Ondoko lokalean jatetxea zuten. Jantokia zarratu ostean bokatak saltzen zituzten.

862. Txikiteorako ardoa eta lanera joan aurretik koñaka (GER-073/039)

Julian tabernako alabak dira eta bertan aritu izan ziren beharrean. Txikiteoan batez ere ardo beltza edaten zen, baina goizetan ardo zuria. Lanera joan aurretik koñaka anisagaz nahastuta ere hartzen zuen jendeak. Elkano anisa Gipuzkoatik ekartzen zuten. "Anís Elkano para lo amigos el más sano" zioen esaerak. Beste banatzaile batzuk ere aipatzen ditu: Zugazabetiia, Legarra, Gorostiaga, Goitisol... Ardoa Bilbotik ekartzen zien Arratek. Zahagietan egoten zen ardoa. Barran bost zahagi sartzen ziren

863. Emakumezko gutxi tabernan; Julianeko okela-bokatak (GER-073/041)

Julian tabernan etxerako ardoa erosi nahi zuenak berak eroaten zuten botila, zahagitik botila ardoz betetzeko. Emakumezkoak gutxi sartzen ziren tabernara. Behin Bermeoko bost andre egon ziren eta gizon batek arreita deitu zien. Julian tabernan arrautza-irinetan pasatutako okela-bokatak saltzen zituzten eta oso ezagunak ziren. Okela piezatan ekartzen zuten Bilbotik. Aitak ebakitzen zuen okela fin-fin. Zein okel ekartzen zuten esaten dute.

864. Tabernan beti behar eta behar (GER-073/044)

San Rokeetan behar eta behar aritzen ziren tabernan. Ahal zutenean, txandaka betiere, mutil-lagunagaz zinemara joateko tarte bat topatzen zuten. Sukaldean aita eta izekoa egoten ziren eta beste zerbitzari bat ere izan zuten.

865. "Caramba" eta Lizeo zinema-aretoak (GER-073/045)

"Caramba" zinemako gaueko hamarretako saiora joaten ziren. Gaur egun Gonzalez altzari-denda eta Erkoreka supermerkatua dauden tokian egon zen.

Lizeora joaten zirenean, ostera, bikoteei begira egoten ziren, musuak-eta ikusteko.

866. Musua ematea bekatu eta Frantzian konfesatu (GER-073/046)

Mutil-lagunagaz ezer egitea bekatu zen. Pili ezkondu arretik, bekaturen bat-edo zuelakoan, musuren bat-edo antza, Frantziara egindako txango batean konfesatu zen. Bertan entzundakoak eta gero, ez zen inoiz gehiago konfesatu.

867. "Baltsioa baltza" eta bederatziurrenak (GER-073/049)

Baltseoan dantzan egin eta gero, Santa Klarara konfesatzen joaten zirenean, abadeak "baltsioa baltza" esaten zien. Hala ere, bedeinkazioa ematen zien. Elizara askotan joaten ziren. Bederatziurrenetan bederatzi egunetan joan behar izaten zen elizara. Bederatziurren asko ospatzen ziren Gernika-Lumon.

868. Gereziak piperminetan (GER-073/052)

San Juanetan, Julian tabernako atean erramua jartzen zuten eta gainean gereziak. Tabernara sartzen zen jendeak gereziak jaten zituen eta behin hori ez pasatzeko, pipermina eman zien.

869. Erdiko kalean jaioa (GER-074/002)

Boyra botika dagoen tokian jaio zen, Erdiko kalean. Bonbardaketan etxea suntsitu zuten eta handik irten beharra izan zuten. Pasealekuan jolasten ziren umetan.

870. Gerran Santanderrera ebakuatuta (GER-074/003)

Bonbardaketa egunean, Pasealekuan egon ziren jolasten. Handik elizara joan ziren babestera. Gero Santanderrera eroan zituzten. Santanderren Miren Karmele hil zitzairen, urtebeteko ahizpa txikia. Dena bukatu zenean, herrira itzuli ziren, baina ez zegoen ezer ere ez. Errenteria auzoan eta beste hainbat etxe zaharretan egon ziren.

871. Aita kartzelan (GER-074/004)

Gerra Zibilean Santanderrera joan ziren ebakuatuta. Aita, ostera, kartzelara sartu zuten gorria zela-eta. Etxera itzuli zenean ilea moztuta bueltatu zen.

872. Ebakuaziotik bueltan (GER-074/005)

Gerran ebakuatuta egon ziren Santanderren. Han, Auxilio Socialen laguntza izan zuten. Herrira bueltatu ostean, Kortezubiko Bañerara joan ziren jaioterrira bueltatu arte. Gernikan hainbat toki desberdinetan bizi izan ziren. Gernika kanpoko jendeak berreraiki zuen-

873. Izen euskaldunak erdaldundu beharra (GER-074/006)

Beraien etxeko umeek izen euskaldunak izan zituzten: Miren Karmele, Gotzon, Agurtzane, Edurne... Galarazita zeuden eta Edurne uste askoan "Nieves" izan zen. Errepublikara garaietan jaio zenez, berak jaiotzatik du izen euskalduna, garai hartan ez baitzegoen arazorik.

874. Moja gaiztoak (GER-074/009)

Karmenldarren ikastetxean ikasi zuen mojekin. Ez ziren ondo portatu beraiekin aita kartzela izan zuen-eta. Horietako moja batek asko jotzen zuen, bere burua

alfonbra bat zela zirudiela dio, beti jotzen. Hermana Eusebia, ostera, ona zen. Beraien ez zuten dirurik eta debaldeko aldera joaten ziren, beste batzuk "pago" kora joaten ziren. Alde handia zegoen bien artean. Amak bertan jateko emandako jatekoa moja gaiztoak kentzen zien.

875. Mojetan Edurne barik Nieves zen (GER-074/010)

Karmeldarren ikastetxean Nieves zen eta ez Edurne. Bere ahizpa Agurtzane Rosario zen. Moja bat oso gaiztoa zen eta askotan jotzen zuen. Etxekoek ezin zuten egoera salatu aita kartzelan egondakoa baitzen eta beldurra zen nagusi. Jaunartzea egin barik utzi zuen eskola.

876. Jendeak utzitako arropakaz (GER-074/014)

Dantzarako ez zuten aparteko arroparik. Jendeak utzitako arropa erabiltzen zuten ez baitzuten dirurik aita preso zegoen-eta. Oinetakoak behin eta berriro konpontzen zituzten. Bere lehengusua zen zapata-konpontzailea.

877. Mezara kale; soldata etxean eman behar (GER-074/016)

Mezara joatea derrigorra zen, baina askotan ez ziren joatean nahiz eta etxetik horretarako irten. Beharrea irabazten zuen dirua etxean eman behar izaten zuen.

878. Euskara galarazita (GER-074/020)

Kalean euskaraz egitea guztiz galarazita zegoen. Orduko bizipenak kontatzen ditu.

879. Karmeldarren ikastetxean (GER-075/002)

Nahiz eta alaba bakar moduan hazi, ez zitzaion igarri. Karmeldarren ikastetxean ibili zen umetan. Hermana Carmen Abasolo aipatzen du, hainbat ikasgai ematen zizkien. 15 pezeta ordaintzen zuten hilabetean; aparteko ikasgaiek prezioa igotzen zuten. Karmeldarretan uniformeak janzten zuten. Irakasleak oso onak zirela dio, bi baino ez ziren euskaldunak, bermeotarrak hain zuzen ere.

880. Kalean erdaraz, etxean euskaraz (GER-075/003)

Eskolan dena egiten zuten erdaraz baita lagun artean ere. Kalean ere dena egiten zuten erdaraz. Etxean, ostera, dena euskaraz. Nagusitan ere ibili zen euskaltegian.

881. Konfesatzerakoan eta komulgatzerakoan txantela (GER-075/008)

Juntetxe ingurua zelakoa zen azaltzen du. Ortuak eta Montefuerte kondearen etxea baino ez zeuden. Santa Klaran eta Andra Marin monagilo bezala aritu zen gaztetan. Konfesatzen joaten zirenean, txantel bat ematen zieten komulgatu ahal izateko. Komulgatzerakoan ere txantela ematen zieten eta gero abadea etxerik etxe joaten zen txantel bila. Seigarren manamenduak garrantzia asko zuen.

882. Lantegiak eta fraideak eskoletara mutikoen bila (GER-075/009)

Eskolarako liburu bakarria izaten zuten eta bertan izaten zituzten ikasgai guztiak. Pasealekuko eskoletan ibili ostean, Iñaki Bareñorenean hasi zen kontabilitatea ikasten eta 15 urterekin lanean hasi zen "Talleres de Gernika"n. Lanpostu desberdinak izan zituen erretiratu arte bertan ibili baitzen. Lehen lantegietatik eskoletara joaten ziren mutikoen bila lanerako. Fraideak ere horrela ibiltzen ziren. Iñakiren anaia 11 urterekin joan zen fraide.

883. Fraide joaterakoan ahal zena eman behar (GER-075/010)

Fraide joaten zirenek zerbait eman behar izaten zuten, zer eman izanez gero. Eskola asko jasotzen zuten fraide joaten zirenek. Iñakiren atzetik ibili ziren, baina. antza, berak ez zuen bokaziorik. Hala ere, monagilo lanetan aritutakoa da.

884. Monagilo beharrak; kategoria ezberdinetako hiletak (GER-075/011)

Andra Marin eta Santa Klaran monagilo lanetan ibili zen gaztetan. Monagilo lanak zeintzuk ziren azaltzen du. Kategoria ezberdinetako hiletak egoten ziren, bakoitzaren bizi-mailaren arabera: lehen mailakoek katafalko handiagoa zuten eta abade gehiago zituzten; hirugarren mailakoek abade bakarria izaten zuten. Andariak familiakoak izaten ziren, baina Saraspe aldetik Udaleko langileek eramaten zuten.

885. Kanpai motak (GER-075/013)

Umeak hiltzerakoan kutxa zuri batean eramaten zen gorpua. Kanpai mota ezberdinak zeuden. Hil-kanpaiak desberdinak izaten ziren gizonezkoa izan edo emakumezkoa izan hildakoa: gizonak hiru kanpaikada, andrazkoak bi eta umeak "repiketa". Monagiloak zein sakristauak jotzen zituen kanpaiak. Agoniko kanpaiak jotzen ziren, baten bat hiltzear zegoenean. Santa Klaran lan gutxiago egoten zen Andra Marin baino, egunean meza bakarria izaten zuten-eta.

886. Mezako ohiturak eta arauak (GER-075/014)

Meza oso-osorik latinez izaten zen sermoia izan ezik. Gaztelania zen nagusi gizartean. Komunioa ere errespetuz hartu behar izaten zen, abade bakarria arduratzen zen horretaz. Komulgatzeko bezperako goizaldeko 12etatik baraurik egon behar izaten zen.

887. Aste Santuetako prozesioak (GER-075/017)

Aste Santuetan prozesioak egiten ziren. Herritik zehar buelta handia ematen zuen eta denak joaten ziren atzetik. Eguen Santuz, Bariku Santuz eta Erramu Domekaz izaten zen.

888. Domeketan desberdin jantzi behar (GER-075/018)

Erramu Domeka egunean arroparen bat estreinatu behar izaten zen. Lehen aldea egoten zen domeketako eta gainerako egunen artean jantzerako orduan. Bilbora joateko ere dotoreago jantzi behar izaten zen.

889. Konfesioak eta bekatuak (GER-075/020)

Konfesatokian andrazkoak eta gizonak alderdi desberdinetan kokatzen ziren. Konfesatzeko prozesuak atal desberdinak zituen. Bekatu benialak eta mortalak desberdintzen ziren.

890. Dantza egitea bekatu (GER-075/023)

Konfesatzerakoan dena kontatu behar izaten zuten. Neska-mutilak elkarrekin dantza egitea ere bekatu ei zen, abadeek ez baitzuten uzten. Pasealekuan neskek zaplaztekoak ematen zizkieten noizean behin mutilei.

891. 'Acción Católica'ko kideak (GER-075/024)

Rosaritik eta Iñakik betidanik ezagutzen zuten elkar, baina biak ziren Acci&ocute;n Cat&ocute;licako kideak. Acci&ocute;n Cat&ocute;lican zein ekintza egiten zituzten azaltzen dute. Talde desberdinak biltzen ziren: gizon zein emakume helduenak, gazteenak eta umeenak.

892. Umetako jolasak eta denbora-pasak (GER-075/025)

Kalean jolasten zuten umetan ez baitzen autorik egoten. Sokan, kanikaka, txorri-morro-piko-taio-ke, arandelarekin... Pasealekuko eskolako jolas-orduan bertako frontoian ibiltzen ziren pilotaka. "A guardias y ladrones"era ere aritzen ziren. Etxeetan ez zen telebistarik izaten; hori dela-eta, arrosarioa errezatu eta laster joaten ziren ohera. partxisean, dominoan, kartetan... aritzen ziren denbora pasatzeko.

893. Ateak beti zabalik; tostadak (GER-075/026)

Lehen etxeetako ateak zabalik egoten ziren. Etxe batean sartzerakoan "Ave María Purísima" esan behar izaten zen. Karnabaletan ere etxerik etxe joaten ziren tostadak jaten. Tostadak Kontzesio Egunez, Kandelario Egunez, San Blasetan eta Karnabaletan egiten ziren.

894. Kandelario Eguna eta Santa Ageda (GER-075/027)

Kandelario Eguna beti izan da egun handia. Denak joaten ziren mezara kandela bedekatzera eta kalerik kale abesten. Iñakik abesten du Kandelario Eguneko abestia. San Ageda bezperan abesten irten ahal izateko, baimena eskatu behar izaten zuten abestiaren letra erdaraz itzuliz. Gizonezkoak baino ez iren joaten abesten. Iñakik apur bat abesten du. Marijesietan ere mutilak bakarrik irteten ziren.

895. Marijesiak (GER-075/028)

Marijesiak lehen eta orain berdinak direla diote. Baina lehen abesten irteten zirenak lantegietako beharginak izaten ziren, gero lantegira joaten zirenak lanera. Batzen zuten dirua beraientzat izaten zen, gaur egun, ostera, beste ekintza batzuetarako izaten da. Inoiz ez da egon abestu ez den urterik.

896. Andra Mari eta San Roke jaiak (GER-075/030)

Gernikako jaiei hasiera emateko meza osteko salbea eta biribilketa egoten zen. Ama Birjinaren egunean meza nagusia ospatzen zen eta ostean Pasealekuko kioskoan bandaren baten kontzertua izaten zen.

897. Beraien etxeari ez zioten eraso egin (GER-075/031)

Bonbardaketa aurreko akordu gutxi dute. Inakik bonbardaketa egunean bizitakoa kontatzen du. Beraien etxea ez zuten ukitu eta hainbat pertsona joan ziren beraienera gau hartan; gogoan du arroza jan zutela.

898. Etxean kanpoko jendea (GER-075/033)

Rosaritoren etxea guztiz suntsituta gelditu zen bonbardaketaren ondorioz. Beraien etxean Donostiako soldadu batzuk egon ziren eta bere gurasoak haietako baten gurasoengana joan ziren gero Donostiara.

899. Gerraostean goserik ez; errazionamendua (GER-075/034)

Goserik ez zuten pasatu gerraostean. Urdaia, morokila, taloa, baba zaharrak... jaten zituzten. Errazionamendua ere izaten zuten jatekoa hartzeko. Pasealekuko arkupeetan dendak ipini zituzten eta ilara luzeak egoten ziren. Tabakoa ere errazionamenduan ematen zuten. 18 urte betetzerakoan, erretzaile txartela ematen zioten, baina osabari eman zion.

900. Jende asko etxe barik (GER-075/035)

Herritar asko etxe barik gelditu ziren; hori dela-eta, estatuaren etxeak eraiki zituzten. Inakiren etxeok juntetxeko etxea utzi zuten eta Erdiko Kalera joan ziren errentan.

901. Ama haurdun zegoenik jakin ez (GER-079/003)

Frantseskalen (gaur egun Azokakale) jaio ziren 7 neba-arreba, baina gazteena kanposantuan jaio zen. Ez zuten jakin ama haurdun zegoenik, sasoi hartan ez zen horri buruz berba egiten-eta.

902. Aita eta ahizpak gerratik ihesi (GER-079/004)

Bere aitak udaletxean egiten zuen behar, eta bonbardaketa ostean herritik alde egin behar izan zuen Santanderrera. Bere bi ahizpa ere Frantziara joan ziren. Amagaz batera Gernikan gelditu ziren neba-arrebak izeko batzuen etxean egon ziren. Handik Gonzalez altzari-dendakoen baserrira joan ziren, oso ondo portatu zen familia hori eurekin.

903. Kanposantura joan ziren bizitzera (GER-079/005)

Bere aitak eta ahizpa bik gerran garaian alde egin behar izan zuten. Handik bueltan, aita udaletxera joan zen lan eske, lehenago ere bertako behargina zen-eta. Lurperatzaile postua eman zioten eta bertara joan ziren bizitzera. 12 pertsona bizi ziren; ahizpa gazteena bertan jaio zen. Ez zuten goserik izan soloa zuten-eta.

904. 'Txardelo' ezizena (GER-079/009)

Txardelo ezizenez ezagunak dira Beatrizen etxeok. Ezizenaren jatorria baserri batean dagoela azaltzen du. Bere neba errekadista denez, gaur egun jendeak horrela ezagutzen du.

905. Maistrek erregelarekin jotzen zituzten (GER-079/012)

Doña Dolores izan zuen irakasle Pasealekuko eskoletan. Atzokolak jaten zituenari erregelarekin jotzen zioten. Gero doña Pia izan zuen maistra, oso

txarra zen; honek erregela begiratu barik botatzen zuen. Doña Josefina izenekoa jatorragoa zen. Eskolara sartu aurretik eskua altxa eta abesti faxista abestu behar izaten zuten.

906. Lan-ordu askoren ordaina (GER-079/013)

Eskolatik irten eta lanean hasten ziren denak. "Industrias" lantegian astelehenetik zapatara egiten zuen behar Beatrizek: aparteko ordu asko egin ostean, 6.000 pezetako jornalaz zuen, gizon askok ere ez zuten horrenbeste irabazten.

907. Gabonetako opariak (GER-079/018)

Eskolako jolas-ordu garaiko jolasak: "Guardias y ladrones", sokasaltoa... Erregetan arropak jasotzen zituzten opari bezala; bere aita lurperatzailea eta postaria zen eta postetxekeok ematen zizkieten opariak.

908. Jausitako hagina teilatura (GER-079/020)

Hagina jausterakoan teilatura bota eta abesti bat abesten zuten berria irten zedin.

909. "Maritxu Maritxu gozozalea zara zu..." (GER-079/022)

"Maritxu Maritxu gozozalea zara zu..." abestiaren hasiera abesten du.

910. Ura iturritik hartu behar (GER-079/024)

Kanposantuan bizi ziren sasoiak, Gernikako jaietan goizaldeko hiruretan heldu arren, bidean etxerako ura hartzen zuten.

911. Arropak garbitokian garbitu (GER-079/025)

Kanposantura bidean zegoen garbitokian (labaderoa) garbitzen zituzten arropak eskuz. Etxean garbitzen zituzten eta behean xaboia kendu uragaz. Arropa zuriari anila ematen zieten.

912. Lurperatu bako "hildakoa"ren anekdota (GER-079/026)

Beraien aita lurperatzailea zen eta kanposantuan bizi ziren. Behin udaletxetik dei bat jaso zuen, hildako bat ez zuela lurperatu esanez; baina siestan zegoen osaba zen ustez hilda zegoela uste zuten hura.

913. Meza osteko poza (GER-079/029)

Lehen egunero joaten ziren goizeko zortzietako mezara. Domeketan mezara joateko ilusioa izaten zuten, meza ostean arraina eta pastela erosten baitzuten.

914. Umetako Goienkale (GER-081/007)

Goienkale zelakoa zen dakar gogora. Bonbardaketa aurretik, eliza aurrean ibiltzen ziren olgetan. Ondoan jesuitak egon ziren eta beraienean abestu eta antzerkiak egiten zituzten. Dena egiten zuten euskaraz, gaztelania eskolan ikasi zuen, karmeldarretan.

915. Bonbardaketa eguna (GER-081/008)

Bonbardaketan, babeslekuan ezkutatu ziren, "Refugios de Rojo" deritzonengan. Azokatik bueltan zihoan jende asko metrailatuta hil zuten. Arratsaldeko

lauretatik zortziak arte izan zen bonbardaketa. Erian, Pablo Picasso kale ondoan, astoak-eta egoten ziren eta bertan hil zituzten 70 bat. Bonbardaketa hasi orduko, beraien babeslekura joan ziren. Handik, amamaren etxera joan ziren, goizaldean Bilbora ihes egin aurretik.

916. Bonbardaketa ostean Elai-Alaikoekin mugaz beste aldera (GER-081/009)

Bonbardaketa egunean bertan, goizaldeko ordu batean, Bilbo aldera joan ziren osabaren etxera. Han Elai-Alaikoen deia entzun zuten irratiz eta Gordexuelara joan ziren beraiengana. Lau hilabetez egon ziren Donibane-Garazin, Parisera joan aurretik. Hiru urtez egon ziren Parisen.

917. Parisko bizimodua (GER-081/010)

Elai-Alaiko kideekin Parisen egon ziren 3 urteak oso ondo, gustura, igaro zituzten. Bitartean, bertako ikastetxe batean ibili ziren. Hasieran, gogorra egin zitzaion, baina gerora oso ondo. Eusko Jaurlaritzak ordaindu zien bertako egonaldia; hala ere, beraiek ere ateratzen zuten dirua.

918. Elai-Alaikoekin egindako ikuskizunak (GER-081/011)

Segundo Olaetarekin ikuskizun asko prestatzen zituzten. Behin "Amagoia"ren papera bete zuen antzerkian. Luzinak asko abesten zuen bertan. Elai-Alaiko ikuskizunetarako baserritarren arropak ibiltzen zituzten. Tere eta Antonia jostun bilbotarrek egiten zizkieten arropak.

919. Olaetatarren eta Altubereren etxean bizitzen (GER-081/012)

Parisen zeudela, etxekoekin gutun bidez komunikatzen ziren. Bitartean, bere gurasoak Bilbon eta Gernikan egon ziren. Arana "Arane" auzoko Olaetatarren etxean egon ziren bizitzen. Ostean, Seber Altubereren etxean egon ziren.

920. Donostiako Arévalo del Rey dukesaren dontzeila (GER-081/014)

Ingalaterra bizitzen joan aurretik, Donostian egon zen beharrean Arévalo del Rey dukesaren txaletean. 12 neska egon ziren bertan lanean. Handik Ingalaterrara joan zen.

921. Ingalaterrara neskame (GER-081/015)

Bere izeko bat egon zen Ingalaterran eta haren bitartez joan zen hara lanera. Bost urtez egon zen lanean larru-fabrika bateko ugazaben etxean. Handik, Mendatako neska batek propositatuta, beste familia batengana joan zen lanera.

922. Ingalaterran bizimodu berria hasi (GER-081/016)

Ingalaterran jornal ona jasotzen zuen, 3 eta 10 libera artean. Dirua Gernika aldera bidaltzen zuen. Beste hainbat euskaldun ere egon ziren bertan. Urtero bueltatzen zen Gernikara, baita ezkondu ostean ere. Senarra bertakoa zuen. Nekazal eremu batean bizi ziren.

923. Royal Festival Hall-en 13 urtez (GER-081/017)

Londoneko Royal Festival Hall-en egin zuen behar 13 urtez. Piccadilly Hotel-en ere aritu zen. Egiten zuen lana azaltzen du.

924. Kantu-lehiaketan parte hartu zuenekoa (GER-081/022)

Segundo Olaetarekin asko abesten zuen. Behin, Buenos Aires antzokian lehiaketa bat egon zen eta hirugarren postua lortu zuen, 3.000 pezetako saria. Etxean ez zuen ezer esan emakumezkoak taulatura igotzea txarto ikusita baitzegoen. Baina hurrengo egunean egunkarian azaldu zen argazkia. Gernikako orfeoian eta elizan askotan abestu du.

925. Ume-kanta (GER-081/023)

Ume-kanta bat abesten du.

926. "Mesia sarritan" (GER-081/024)

"Mesia sarritan" gabon-kanta abesten du.

927. Gernikako zartzuelak (GER-081/028)

Gernikan egindako hiru zartzuelatan parte hartu zuen Luzinak. Kaltzada egoitzarako dirua ateratzeko egin zuten. "El manojo de rosas", "La alegría de la huerta" eta "El caserío" zartzuelak izan ziren. Lizeo antzokian, frontoian eta San Juan ibarra ondoko zinema-aretoan antzeztu zituzten.

928. 'San Juan gaba' eta 'Meza osteko jaia' antzezlanak (GER-081/030)

Zartzuelak erdaraz egiten zituzten. Elai-Alaikoekin antzeztutako San Juan gaba eta Meza osteko jaia lanak dakartza gogora.

929. 'Meza osteko jaia' antzezlaneko dekorazioa (GER-081/032)

Meza osteko jaia antzezlaneko dekorazioa zelakoa zen azaltzen du. Jende asko joaten zen ikusten.

930. Asilo Kalzadako Saraspe etxekoa (GER-082/003)

Saraspe etxean jaio zen. Kaleak "Asilo Calzada" zuen izena orduan, baina Francok "Señorio de Vizcaya" izena jarri zion; azkenean, "Juan Kaltzada" izena jarri zioten. Juan Kaltzada zein zen kontatzen du.

931. Argentinako Landeta herria aititak sortua (GER-082/004)

Aitita ez zuen ezagutu, 1893an hil zen eta. Kontatu izan diotenez, Bilbotik Txilera joan zen aitita anai eta arreba banarekin. 105 eguneko bidaiara egin ei zuten belaontzi batean. Argentinan lurrak eman zizkioten, produkzioen bat jartzeko baldintzarekin. Ganadutegia ipini zuen. Eraikinak egin eta beharginak hartzen hasi zen. Santa Fetik Rosariora bidean, geltokiari Landeta izena jarri zion. Handik sortu zen Landeta izeneko herria, 3.000 biztanle inguru dituen.

932. 90 lehengusu alde batetik (GER-082/007)

Bere aitaren aldeko aitite Mauma (Ibarruri-Muxika) auzoko Oxinbaltza baserrikoa zen; amama, Zaldibiatik ardiekin etortzen zen artzain baten alaba zen, ordiziarra jaiotzez. Handik lurretara joan ziren okindegia, errota eta argi-zentrala eraikiz. 10 seme-alaba, 10 suhi-errain eta 90 biloba izan zituzten. Julio eta bere arreba dira lehengusu gazteenak.

933. Hiru umealdiko bularra hartu zuen (GER-082/009)

Beraien etxean hiru ume hil ziren eta horien bularreko esnea Juliok edaten zuen, amak bularra soberan baitzuen.

934. Saraspe etxearen erosketa (GER-082/012)

Beraien etxeak Saraspe zuen izena. Aurreko ugazaba Galdos abizendun bat ei zen, "olleria" (lapikogintzako tailerra) zuten bertan. Enkante bidez erosi zuen beraien aitak 7.500 pezeta ordainduz, garai hartan dirutza itzela.

935. 6 anaia indartsu (GER-082/016)

Beraien etxeko anaia guztiak kirolariak izan dira. Indartsuak izatez gain arinak ziren. Etxeko zerrategian gazterik hasten ziren enbor pisutsuak hartzen.

936. Durangoko frontoia berak inauguratu zuen (GER-082/018)

Soldadutzatik bueltatu eta pilotan hasi zen. Profesional moduan hasi zen eta Durangoko frontoia berak eta Gallastegik beste hirurekin batera estreinatu zuten. Partida haren ostean eskuak txikituta izan zituen eta etxeko errotara joan zen lanera. Lau enpresa zeuden "Empresas unidas"en batuta.

937. Tatarrez eta minduta derrigortuta pilotan jokatu behar (GER-082/019)

Lau enpresa zeuden "Empresas unidas"en batuta. Bertako arduraduna zen Bidartek Durangon jokaturako partidu baten ostean Gernikan jokatzeari exijitu zion, nahiz eta eskuak minduta izan. Oso egoera txarrean jokatu zuen Gernikako frontoi zaharrean, irabazi arren tatarrez bukatu zuen. Bigarren partidu bat ere jokarazi zioten. Etxera bueltatu, ohean sartu eta hiru hilabetez egon zen bertan hernia diskalak jota. Ez zuen gehiago jokatu eta 18 aspirina hartzen zituen eguneko.

938. 300 pezeta bi pilota-partidugatik (GER-082/020)

Aurreko pasartean kontatu duen moduan, Gernikan jokaturako bi pilota-partiduren ostean oso txarto bukatu zuen, lesio larri batekin. 300 pezeta jaso zituen egun hartako lanagatik.

939. "Partidos marrones"etako apustuak (GER-082/021)

Berak 14-15 urte zituela, Bermeon jokatzen zuen "Partidos marrones"etan. "Partidos marrones" federaziotik kanpoko lehiei deitzen zitzairen. Bertako partidu batean, pilotari bat aritzen zen apustua egiten, eta hango anekdota kontatzen du.

940. Migel Gallastegi pilotari handia (GER-082/022)

Migel Gallastegi pilotari handiarekin jokatu zuen Juliok Durangoko frontoia inauguratu zuenean. Beste askoren artean pilotari onena zela dio Juliok. Julioren anaiak, Dionik, askotan jokatu zuen bera kontra.

941. Ezerezetik profesionaletara (GER-082/023)

Nafarroan ez zegoen pilotaririk. Bizkaiko eta Gipuzkoako pilotari argi eta abilenak gernikarrak eta azkoitiarrak ziren. San Juan batzuetan, Bidartek ("Empresas unidas"eko arduradunak) pilotari bat falta zuela-eta, barraketatik

hartu eta zuzenean frontoira eroan zuten Dioni, Julioeren anaia. Berak jokatu zuen 18ra arteko partida hura, 18-0 irabaziz. Handik segidan profesionaletarako jauzia egin zuen.

942. Gerra sasoiari, pilotan aritzeko salbokonduktoa (GER-082/025)

14 urte zituela, Gerra Zibilaren sasoiari, pilotan herririk herri aritzeko salbokonduktoa zuen. Agiri hori erakusten du. Behin Donostiara joan zen partidu bat jokatzera, Groseko "La Bonbonera"ra; partidu hartatik joan ziren hoteleko esku-orria ere erakusten du.

943. Donostiako aurrerakuntzekin liluratuta (GER-082/026)

Donostian jokatu zuen pilota-partidu batean bertako hotel batera eraman zuten, "Principe de Saboia" hotelera. Berak 14 urte zituen eta sekula etxetik irten gabekoa zen; hango igogailuekin eta aurrerakuntzekin liluratuta gelditu zen. Salbokonduktuko agiria ere erakusten du.

944. Urruneko durundia entzuten zen Gernikatik (GER-091/005)

Bonbardaketa aurretik, jendeak igartzen zuen zer edo zer. Urruneko durundiak entzuten ziren Gernikatik bertatik, Kalamuako borroak, kasu baterako.

945. Gudariaren egoera tamalgarria (GER-091/006)

Gerra hasieran, aitagaz Mendatarara ogia eroaten joan ziren batean, handik gudariak hartu zituzten autoan Gernikara ekartzeko. Guztiz errendituta zeuden, penagarria zen haien egoera. Egoera hark sortutako beldurrak eraginda, aita ere alde egitea erabaki zuen.

946. Durangora bidean, abiazioaren eraso (GER-091/007)

Gernika bonbardatu zuten egunean, kanpotik zebilen ogia banatzen. Ogia banatu ostean, Durangoranzko bidea hartu zuten, lehengusina batzuei etxeko zeregin batzuetan laguntzeko. Harako bidean, taberna batean gelditu ziren aita eta bera. Taberna hartan zeudela, abiazioaren eraso hasi eta taberna kanpoan zegoen gizon bati tabardatik bala bat sartu zioten. Tabernan zeuden denak lur azpiko pasabide batetik irten eta zubi batean babestu ziren.

947. Durangon Ibaizabalera salto babesteko (GER-091/008)

Gernikako bonbardaketaren egunean, senitarteko batzuen etxera joan ziren Durango aldera, altzari batzuk garraiatzen laguntzeko. Bertara heldu orduko, beraien kontrako tiro-sorta hasi zuten aireplanoetatik. Ibaizabal errekarara salto egin eta haltza batzuetara oratuta babestu ziren.

948. Durangotik bueltan, Zugastietan egin zieten eraso (GER-091/009)

Gernikako bonbardaketaren egun berean, Durangora joan zen aitagaz batera enkargu bat egitera. Handik bueltan, Zugastietara (Muxika) heldu zirenean, aireplano bat tiroka hasi zitzaizen abiadura handian, baina ez zien harrapatu. Gernikarako bidea hartu eta etxera heldu orduko, kanpaiak entzun zituzten, egun beltz hari jarraipena emango zioten kanpai-hotsak, hain zuzen ere.

949. Kanpai-hotsekin batera, babeslekura (GER-091/010)

Gernikako bonbardaketa egunean, aitagaz batera Durangora joan zen. Handik bueltan, etxera heldu eta kanpai-hotsak entzun zituzten. Sekula babesleku batean sartu gabea zen Julio. 7 urteko arreba hartu eta etxe ondoko babeslekura joan ziren. Harea-zaku eta apeekin egindakoa zen. Babeslekua non zegoen azaltzen du. Alboko bi eraikinak erre ziren, baina beraiei ez zitzaien ezer ere gertatu. Beraien etxea ere zutik mantendu zen. Anaia nagusiari etxean bertan babeslekua egitea bururatu zitzaion lehenago, eta gainerako senideak eta besteren batzuk ere han babestu ziren. Etxe ondoko eraikinean, gaur egungo Kaltzada egoitzan, 28 hil zituzten.

950. Bonbardaketako uneko sentipenak (GER-091/011)

Julio eta bere arreba etxe ondoko babesleku batean babestu ziren bonbardaketan. Estu-estua zen, gaur egungo Aterpe tabernako ate ondotik Juan Kaltzada kalera doan tartea. Han Nabeatarren baserria zegoen eta bertakoak oso arduratuta ikusi zituen. Jendearen ezinegona eta besteen baretzeko ahaleginek bat egin zuten momentu latz haietan. Goizean goizetik Durangon jasan zuen lehen eraso Juliok, Gernikakoagaz lau pairatu zituen. Bonbardaketa egunean porru-patatak afaldu zituzten beraien etxean batutakoek. Beraien etxean jende askok hartu zuen aterpe gerora ere, gehienek etxea galdu zuten-eta.

951. Bonbardaketa Saraspén inguruan (GER-091/012)

Lennon dagoen eraikina, "Enplasteruen etxie" , erre egin zuten bonbardaketan. "Enplasterue"k bihotz-koilaratik (besikula) operatzen direnei laguntzen zien. Haren ondoan, "errementeruen etxie" egon zen. Gorago Sangroniz bizi zen, bonbardaketa egunean gaixorik zegoena; Julioaren bi anaiak atera zuten bertatik eta euren errotapean babestu.

952. Erreka zeharkatu ezinik (GER-091/013)

Bonbardaketa gauean, Nabarnizera joan ziren. Baina erreka gurutzatzeko bideak zarratuta zeudenez, bide luzea egin behar izan zuten: Muxika, Zugastieta, Urrutxu, Mendata, Ajangiz, Errenteria, Nabarniz.

953. "Hori zerrie errekieok? Etxie be ein biok, gizona" (GER-091/014)

Bonbardaketa ostean, Nabarnizera joan ziren Julioaren etxeok. Baina, handik hilabete pare batera, ama eta arreba Gernikara bueltatu ziren. Ondasun gehienak errekiatu egin zizkieten. Bere amak etxeko leihotik bertatik entzun zien errekiatzen zebiltzanei, negozioaz gain etxea ere errekiatu egin behar zitzaizela esanez.

954. Anaia atxilotu zuten (GER-091/015)

Bonbardaketa ostean, Nabarnizen egon zen amamagaz batera. Nabarnizen soldadu asko izan zituzten etxean bertan. Burgo menditik erasotzen zeudela, soldadu guztiek utzi zuten etxea. Bitarte horretan, bere anaia haranzko bidean autoan zihoala, atxilotu egin zuten. Apirilaren 28an atxilotu zuten eta 29an sartu ziren Gernikara. Anaia atxilotu eta autoa eta txakurra ostu zizkieten. Gasteizera eroan zuten preso.

955. Preso zegoela, lehengusu erreketegaz topatu (GER-091/016)

Bere anaia zaharrena, Juan, atxilotu eta Gasteizera eroan zuten. Han, preso zegoela, beraien lehengusu bategaz egin zuen topo; lehengusu areatar hori erreketeen kapitaina zen. Hark handik aterako zuela esan zion.

956. "Flechas y Pelayos"en desfilatzera derrigortuta (GER-091/018)

Bonbardaketa ostean, eskolako lagun gehienak desagertu egin ziren herritik alde egin baitzuten. "Flechas y Pelayos"en desfilean parte hartzera derrigortuta egon ziren, baina Julio ez zuten harrapatu, bizkorragoa izan ei zen.

957. "Flechas y Pelayos"en ez parte hartzeko ihesi (GER-091/019)

"Flechas y Pelayos"en desfilean parte hartzera derrigortzen zituzten. Hori dela-eta, domekero Autzaganera, Bizkaigainera, Billakariora, Esperantzara, Jainkora... joaten ziren ihesi ez harrapatzeko.

958. "Piñu" baserria (GER-093/002)

Kontxiren jaiotetxea, "Piñu" baserria, non zegoen azaltzen du: gaur egun gurutze gorriaren aurrean dagoen iturriaren atzeko aldean. Iturri hartan autobusak-eta gelditzen ziren ura hartzeko. Gerraostean bota zieten baserria: lurrekin batera dena kendu eta sindikatuko etxeak eraiki zituzten.

959. Ohean zeudela hasi ziren etxea botatzen 3 familia kalean utziz (GER-093/003)

Gorriak pasatakoak dira. Bere jaiotetxea, "Piñu" baserria, beraiek ohean zeudela hasi ziren botatzen. Lurrak eta baserria kendu eta sindikatuko etxeak eraiki zituzten bertan. "Bigarren ospitalea" deitzen zioten etxeari, gerran eraildako osabaren 5 umeak eta alarguna ere beraienean bizi ziren-eta; guztira 3 familia.

960. Piñu baserri ingurua eta auzoak (GER-093/004)

Piñu baserriaren ezizena etxe aurrean zegoen eta dagoen pinu handitik zetorren. Inguruan zeuden etxebizitzak eta bertako auzoak aipatzen ditu.

961. Kaleko jolasak eta gaiztakeriak (GER-093/007)

Kalean autorik ez zebilenez bertan jolasten zuten, bidean. Auzoko mutikoak trasto hutsak ziren eta broma asko egiten zituzten: adibidez, ate gainean ura jarri zabaltzean jausteko.

962. Neba-arrebak beti kizkan (GER-093/009)

Bere ni nebak beti aritzen ziren "kizkan", matrakan. Behin bere nebari zozpal (astilla) bat bota zion buru gainera eta bertan gelditu zitzaion.

963. Umetako ibilerak (GER-093/012)

Behin Santa Luziako San Lorentzo jaietara auzoko beste birekin joan zen bertara, Xexili eta Lourdesegaz, eta bidean Kontxik dirua topatu zuen. Beste behin Txitxi-burruntzi egunez, Lumorako bidean gora heldu orduko jan zuten jan beharrekoa.

964. "Urtebarri karri" abesten (GER-093/014)

Urtebarri egunez, bere auzoko Xexili eta Lourdesegaz etxerik etxe joaten ziren kantatzen. Dirua, intxaurrak... batzen zituzten. Abestiaren hasiera abesten du.

965. Kantu eskean auzoan eta Lurgorri (GER-093/018)

Umetan auzoko bi lagungaz urtebarri egunez eta Erregenetan kantuan aritzen zen eskean. Jasotakoa hiru lagunen artean banatzen zuten. Ez ziren Gernikara, kalera, bajatzen; Lurgorrira arte joaten ziren eta hura jada urrun zegoelakoan zeuden.

966. Enbeitatarren pikuak osten; piku motak (GER-093/019)

Bere etxearen eta Kaltzada egoitzaren artean Enbeitatarren etxea zegoen. Haien piku horiak zituzten eta horrek euren arreta erakartzen zuen, euren etxeak txapel-ikuak, trapuzarrak eta zuriak ziren eta. Etxean ere izan arren, auzokoarenak gurago zituzten eta ostu egiten zizkieten. Enbeitatarren etxe ondoko hormatik Kaltzada egoitzara begira egoten ziren bertan zegoen mutil gaixo bati barre egiten. Sasoi hartan gaixoak ez ziren kalean ibiltzen eta gauza berria zen eurentzat.

967. Solfeora eta eskolara (GER-093/020)

Gernikara, kalera aldera, eskolara eta solfeora joateko bajatzen ziren. Solfeora eliza ondoan ikasten zuten Segundo Olaetarekin. Bonbardaketan dena utzi behar izan zuten. Eskolan doña Florencia eta doña Dolores izan zituen maistra; gerraostean doña Pia..

968. Erizaintza ikasten (GER-093/021)

15 urte zituela, erizain izateko ikasten aritu zen don Pako Alegria eta don Domingo Alegria medikuekin. Nahiz eta gustukoa izan, mediku hura gaixotu eta ezin izan zuen jarraitu etxean ere lagundu behar zuen-eta.

969. Liburu bakarragaz oso ondo ikasi zuen (GER-093/022)

Gerra aurretik, eskolan koaderno eta lapitza baino ez zuten. Entziklopedia baten zuten ikasi beharreko guztia. Orduan ikasitakoak oso ondo gogoratzen ditu.

970. Mutilekin hartu-emanik ez (GER-093/024)

Beraien adineko mutilak ezagutu ere ez zituzten egiten. Auzoko mutilak eta nebak baino ez zituzten ezagutzen.

971. Kanikaka eta sokasaltoan (GER-093/026)

Umetan sokasaltoan eta kanikaka aritzen ziren. Ez daki ziur kanikak beraienak ete ziren, dirua balio zuten-eta.

972. Panpina bakarria, jostailurik ez (GER-093/028)

Umetako panpina bakarria du gogoan, Gabonetan logela leihoan utzi zioten ama Bilbora joan ostean. Hala ere, ez zuten horrelako jostailurik behar.

973. "Zure aitte aberatsa zan" (GER-093/029)

Bere auzoko batek Kontxiren aita aberatsa zela esan zioen. Gari-joteko egunetan, bere aitak dirua ematen baitzien eta amak bakailoa prestatu.

974. Aita Kuban harakin (GER-093/030)

Bere aitak 14 urte zituela, Kubara joan zen gaztelaniaz berba bat ere jakin barik. Bi hilabeteko bidaia egin zuen. Harakin lanetan aritu zen. 22 urte zituela bueltatu zen eta Taberna Vasca joan zen apopilo; Kubatik bidalitako diruarekin baserria erosi zuten haren gurasoek, baina arreba izenean jarri. Taberna Vascan ezagutu zuen Kontxiren ama eta Piñura joan zen bizitzen.

975. Natilla zelakoan maionesa jan (GER-093/032)

Kontxiren izeko batek Taberna Vascan egiten zuen behar eta Kontxi sarritan joaten zen bertara. Behin, saltsontzi batean atzamarra sartu zuen natilla zelakoan, baina maionesa zen, ozpindutakoa gainera.

976. Dotrina ere erdaraz (GER-093/034)

Dotrinan ez zuten ezer ikasi euskaraz, ezta Aita Gurea ere. Gerraostean euskaraz egitea galarazita zegoen.

977. Osaba hil egin zuten (GER-093/035)

Beraien osabak diputazioan egiten zuen lan. Kontxiren neba batekin batera osabarenera joan ziren bonbardaketa ostean. Osaba preso hartu eta hil egin zuten.

978. "Berba eitten bazuen euskeraz, ointxe errixora" (GER-093/037)

Bere osaba Juan Carlos diputazioko behargina zen eta fusilatu egon zuten. Bilboko Gran Vian Kontxiren amuma eta osabaren ama euskaraz berbetan zeudela, militar batek hauxe esan zien: "Berba eitten bazuen euskeraz, ointxe errixora botakotsuet bixori". Gerraostean ere, etxean beti euskaraz egiten zuten; kanean eta auzokoekin, ostera, erdaraz. "Agur" ere ezin zitekeen esan.

979. Saraspe: euskara eta erdararen arteko muga (GER-093/039)

Onaindiatarren etxetik, Saraspetik, Lurgorrira arte euskara zen nagusi; handik behera, erdara. Gerraostean, ostera, gauzak asko aldatu ziren. Ezin zuten euskaraz egin, berbaera torpetu egin zitzaioela dio; beranduago berreskuratu zuen Estatu Batuetara bizitzen joandakoan.

980. Auzokoek ez zuten alde egin bonbardaketan (GER-093/044)

Beraien auzoko gehienek ez zuten alde egin bonbardaketa ostean. Txikerranekoak bi etxe ziren. Gerraostean eibartar batzuk Juanita Txikerraren lurretan tailer bat jarri zuten trenbide alderantz. Bera Karrantzara arte joan zen, baina beste bonbardaketa bat harrapatu zuten, etxera bueltatu ziren.

981. Amama erreta hil zen bonbardaketan (GER-095/004)

Amama Belendizkoa (Arratzu) zuen. Aitaren aldeko aitita karlistadan parte hartutakoa zen, errementaria. Amama Gernikako bonbardaketan hil zen, etxean erreta, ezin izan baitzen handik irten.

982. Bonbardaketa ostean, hiru urtez Frantzian (GER-095/009)

Saraspe plazako etxe batean jaio zen. Bonbardaketa ostean, dena utzi eta Frantziara joan ziren neba-arrebak, eta hiru urtez egon ziren bertan. Euskara baino ez zekiten, baina erdararen eraginez euskara baztertzen hasi ziren. Errusiara joateko aukera ere izan zuten, baina ez ziren joan.

983. Bonbardaketan amak abortua izan zuen (GER-095/010)

Gernikako bonbardaketa egunean, bere amak abortua izan zuen. Etxe ondoan izan zuten babeslekura joan ziren etxeakoak, baina bere arreba zaharrena arma-lantegiko bunkerrean babestu zen.

984. Bonbardaketatik Frantziara joan arteko uneak (GER-095/011)

Bonbardaketa ostean, etxea galdu zutenez, San Juan Ibarako kondearen etxera joan ziren. Han lau etxe zeuden. Lehen gaua bertan pasatu zuten eta afaltzeko arroz-esnea eman zieten. Hurrengo egunean, Legarreta garraiolariarekin Bilbora joan ziren. Amak abortua izan zuenez, gurasoak Busturiko baserri batean egon ziren. Han, Bilbon, umeak itsasontzi batean sartu zituzten.

985. "En el barco San Mamés vinimos los niños vascos..." abestia (GER-095/012)

Bonbardaketa ostean, Frantziarako itsasontzia hartu zuten. Orduko "En el barco San Mamés vinimos los niños vascos..." abestia kantatzen du.

986. Frantziako bizimodua (GER-095/013)

Bonbardaketa ostean, Frantziara joan ziren. Han ume denak banandu zituzten: txartelaren kolorearen arabera, herrialdeka banatu zituzten. Beraiek 33 gelditu ziren eta azken txartela, kolore horiduna, egokitu zitzairen. Beraiek egon ziren denetatik ondoen. Frantziar sozialisten menpe gelditu ziren. Uda kostaldeko herri batean pasatu ostean, neguan Parisera joaten ziren. Bertako familiek lagundu egiten zieten.

987. Frantziatik bueltan mojek atetik "bota" zituzten (GER-095/014)

Bonbardaketa ostean hiru urtez Frantzian egon ziren. Euskal Herrira bueltatu ostean, mojen ikastetxe batean sartu zituzten; hara joan zitzairen aita bila. Aita heldu orduko atetik "bota" egin zituztela dio.

988. Arana kondearen garajea jarri zuten tailerra (GER-095/015)

Bonbardaketa ostean Frantzian hiru urtez egon ostean, amaren jaiotetxera joan ziren, Ibarrangeluko Merru auzora. Arana kondearen semeak bere aitaren lagunak zirenez, beraien garajea hasi zen aita beharrean, bertan jarri baitzuen errementari-tailerra. Jesus Mari ere bertan hasi zen lanean.

989. Torrezuri jauregian bizi izan ziren (GER-095/016)

Teodoro Arana Torrezuriko ugazaba zen (gaur egun zaharren egoitza dena). Beraiek Sevillan bizi zirenez eta aitaren lagunak zirenez, bertan bizitzeko baimena eman zien bonbardaketan etxea galdu baitzuten. 7-8 urtez egon ziren bertan.

990. Unzetaren txaletean errementari lanetan (GER-095/017)

14 urtegez Unzetaren txaletean (gaur egungo Segundo Olaeta musika-eskolako eraikina) errementari lanetan hasi zen aitari laguntzen. Bertako ateak, balkoiak... beraiek egin zituzten. Ikasten eta lanean aritzen zen Jesus Mari.

991. Saraspeko errementari tailerra (GER-095/018)

Aita errementaria zen eta beraien etxe azpian zabaldu zuen tailerra, Saraspe plazan (gaur egun Dia supermerkatua dagoen tokian). Errementari eta mekanika tailerra jarri zuen bere aitak beste bi bazkidegaz batera. Batez ere errementari bezala aritzen ziren oraindik ez baitzegoen auto askorik. Gurpilak, torlojuak... errazionamenduan ematen zituzten. Horrela parte hartu zuten herriaren berreraikitzean.

992. Soldadutzako destinoa berak aukeratu zuen (GER-095/022)

Soldadutzan Donostiara joan zen, berak nahi zuen tokira. Izan ere, Esperanza arma-lantegiko ugazaba senitartekoa zenez, bere bitartez lortu zuen lekua aukeratu ahal izatea.

993. Esperanza arma-lantegikoekin harremana (GER-095/023)

Esperanza arma-lantegiko ugazaba senitartekoa bere aitaren lehengusua zen. Aitaren errementari-tailererako ere materiala pasatzen zion. Jesus Marik morteroak soldatzen ikasi zuen soldatzen.

994. 17-18 urte zitueneko Marijesiak (GER-095/025)

17-18 urte zituela hasi zen Marijesietan kantatzen. Sasoi hartan nortzuk batzen ziren aipatzen du. Olibaresek kuartelean eta Rojo alkatearen etxe aurrean abesten zuen bakarlari legez, gaztelaniaz gainera. Gernika-Lumo txikia zen eta bi ordutan osatzen zuten eguneko ibilbidea. Urtero egiten zuen elurra.

995. Irratia ezkutuan entzun behar (GER-095/027)

17-18 urte inguru zituela hasi zen Marijesietan abesten eta hogeita bigaz, soldadutzara joan zenean, utzi zion. Hala ere, orfeoian 100dik gora ahots egon ziren. Lehen ez zegoen ez telebistarik ezta irratarik ere. Izatekotan ere, irratia ezkutuan entzun behar izaten zen: Radio París...

996. Operetak eta komediak (GER-095/028)

Gernikako orfeoian ahots ederrak zeuden. Bertakoak zartzuolak pentsatu zuten zartzuolak eta horretan hasi ziren. "El detectibe" komedia eta opereta bat egin zuten. Jesus Mariren aitari ez zitzaion gustatzen eta ez zuen nahi izaten semea ikusi, lotsatu egiten baitzen. Gernikan eta Bilbon egin zuten ikuskizuna.

997. Ezkontzetako abeslari (GER-095/029)

Jesus Marik beti abestu du asko. Ezkontzetan ere abesten zuen. Bertan izandako anekdota bat kontatzen du. Venezuelan bizi zela ere abesten zuen.

998. Marijesietako kideak (GER-095/030)

Marijesietan kantatzen zuenean, Meaza "Walter" zen bakarlaria. Sasoi hartan aritzen ziren denak hilda zeuden Jesus Marik hau kontatu zigunean. Orduko hainbat kide aipatzen ditu. Soldadutzara joan zenean utzi zion Marijesietan kantatzeari eta sekula ez zuen emakumerik ezagutu bertan.

999. Euskal Herriko mendi guztiak igo ditu (GER-095/032)

Euskal Herriko mendi guztiak ezagutu ditu Jesus Marik, 700 eta piku guztira. Euskal Herriko kanpo ere aritu zen. Orduan sortu zuten Goi-zale taldea. Hiru erregeen mahaia da gogorrena eta ez handiena delako, ibilbide luzea duelako baizik.

1.000. Mendiko arropa berezi barik (GER-095/034)

Mendirako ez zuten arropa berezirik erabiltzen. Gizonezkoak praka bakeroekin eta andrak gonekin joaten ziren. Botak ziren horretarako bereziak, besterik ez.

1.001. "Viejo San Juan" abesten zuten mendian (GER-095/035)

Behin Haroko Cune upategira joan ziren eta Donostiako orfeoikoekin batu ziren bertan. Beraiekin ikasi zuen "Viejo San Juan" abestia eta mendirik mendi beti abesten zuten abesti hori.

1.002. "Brisas gerniquesas" aldizkaria (GER-096/002)

"Brisas gerniquesas" aldizkaria Elizak Artekale kalean zuen etxe batean idazten zen. Bera Venezuelan bizi zela bertan ere jasotzen zuen. Aldizkaria erdaraz zen, euskara etxeko hizkuntza zen.

1.003. Euskaraz entzungo ote zieten beldur (GER-096/003)

Errepresioa dela-eta, gerraostean kalean ez zen euskararik egiten. Ondorioz, jende askok erraztasuna galdu zuen. Bera Frantzian egon ostean, gurasoekin berreskuratu zuen euskara. Saraspen gerra aurretik euskara zen nagusi.

1.004. Gerra aurreko Saraspe (GER-096/005)

Gerra aurreko Saraspeko plaza zelako zen azaltzen du, bertako tabernak...

1.005. Etxea sutan eta josteko makina leihotik behera (GER-096/008)

Bonbardaketa egunean etxea sutan hasi zenean, aitik hirugarren solairutik josteko makina bota zuen. Ama jostuna zen eta beharrezkoa zuen lanerako.

Nahiz eta makina inguratzen zuen egurra apurtu, makina bera osorik atera zuten. Jesus Mariren arrebak erabili zian du gerora makina hori. Singer markakoa da.

1.006. Amuma biziri erre zen bonbardaketan (GER-096/009)

Aitaren aldeko amuma bizirik erre zen bonbardaketan. Hirugarren pisuan bizi zen eta ezin izan zuen etxetik irten.

1.007. Gizarte etxeko ikastola zarratzeko agindua (GER-096/016)

Venezuelatik bueltatu eta ikastolara joan ziren bere alabak. Gernika-Lumoko lehen ikastola Andra Maria eliza ondoko etxe batean egon zen. Jesukristoren gurutzea kendu zutela-eta, ikastola zarratzeko agindua jaso zuten. Bere emaztea joan zen alkatearengana berbetan eta arazoa konpondu ahal izan zuen.

1.008. Ikastolaren alde pentsaera desberdinetakoak batu (GER-096/020)

Gernika-Lumok Franco ostean izan zuen lehen alkate abertzaleak, Abaituak, ikastolaren alde egin zuela dio. Abertzale guztiak batzea lortu zuen, EAJ-PNVkoak, HBkoak, EEkoak, komunistak...

1.009. Urdaibai gaztelua Gernikakoa zen (GER-098/004)

1918. urtean jaio zen Urdaibai gazteluan. "Castillo de Perejil" izena ez da jatorrizko izena, Gernikako umeez jarritakoa dela dio. Gernikako herriarena zen eremu hura, gaur egun Foruko herriarena izan arren. Andra Maria elizako lehen sepultura ere beraien etxekoa zen.

1.010. Urdaibai gazteluko sutea (GER-098/007)

Urdaibai gazteluan hiru etxebizitza zeuden. Ondokoei ezkontza gau batean koltxoiak su hartu eta gaztelua erre zen. Eskailera bakarra zuten eta bera mahats artera bota zuten goizaldeko hiruretan; gainerakoak zelan irten ziren ere kontatzen du. Gero Erresteria auzoko osaba baten etxera joan zen. Lehen jaunartzeko arropa erre zitzaion bertan beste gauza guztiekin batera.

1.011. Urdaibai gaztelua zelakoa zen (GER-098/009)

Urdaibaiko gaztelua zelakoa zen ikusteko, koadro bat eta argazki zahar bat erakusten ditu etxearen egitura azalduz.

1.012. Kandela bat lez erre zen, oso arin (GER-098/010)

Bere ahizpa-eta gurdi-sokari helduta atera ziren onik Urdaibai gazteluko sutetik. Oso arin erre zen dena, kandela bat lez.

1.013. Dena erre zitzaien, baita ganadua ere (GER-098/011)

Goizaldean erre zen Urdaibai gaztelua, laguntza eskatzeko aukerarik gabe. Ganadua ere erre zitzaien. Gerora etxe berria egin zuten beherago. Ur bila gaur egun Dia supermerkatua dagoen tokira joan behar izaten ziren. Dena galdu arren beraiek onik atera ziren. Zigarro batek eragin ei zuen dena.

1.014. Artilezko koltxoiak (GER-098/012)

Koltxoiak artilearekin egiten zituzten eta horrelakoa izan zen beraien etxeko sua eragin zuena. Dena hutsitu eta eskuz garbitu behar izaten ziren.

1.015. Gabonetako ilusioa (GER-098/013)

Gabonetan eta San Kristobaletan jateko ilusioa zuen. Gabonetan oilo-aza eta txitxarroa jaten zuten. Erregetan txirringola izaten zuten, gero olgetako balio zuena.

1.016. Txakur amorratuarentzat Gabonetako ogia (GER-098/014)

Gabon gauez ogi berria hasten zuten. Zati bat ebaki eta hurrengo urtera arte gordetzen zuten txakur amorratuari emateko.

1.017. Neskame bidali eta 3 egunetara etxera bueltatu zen (GER-098/017)

Muxikako Ariatza auzoko errota batean neskame lanetan bidali zuten, baina hiru egunetara etxera bueltatu zen.

1.018. Saldutakoarekin eta jendeak emandakoarekin bizi (GER-098/019)

Gernikako plaza astelehen arratsalde izaten zen, denetarik egoten zen. Bere ama bertara joaten zen etxeko jeneroa saltzera. 15 ume zituen andre batek amaren zain zeudela tremesa-eta ematen zien. Jendeak emandako arropekin janzten ziren.

1.019. Nahi zuten eskolara joan zitezkeen (GER-098/020)

Karmeldarren ikastetxera zein Foruko herri-eskolara joaten zen umetan, inork ez zuen kontrolatzen eta nahi zuenean nahi zuenera joaten zen. Foruko eskola non zegoen azaltzen du.

1.020. Abarkak ez zikintzeko ortozik (GER-098/021)

Euria zenean, abarkak ez zikintzeko, ortozik joaten ziren ez zutelako berriak erosteko dirurik.

1.021. Eskolara gutxi baserriko beharrak zirela-eta (GER-098/022)

Eskolara gutxi joan ziren baserriko lanak egin behar izaten zirelako. Bestela neskame edo morroi joaten ziren. Etxean esnea zuten, baina saldu egiten zuten dirua behar zutelako; 3 txakur txikitik saltzen zen. Lehen jaunartzeko egunean ere, behiekin itaurrean ibili zen, ez zuten inolako ospakizunik egiten.

1.022. San Kristolaletako jatordu berezia (GER-098/023)

San Kristobal jaietan jatordua berezia izaten zuten: garbantzua, zopa, gailetak, arroz-esnea, "sol y sombra" pattarra...

1.023. Foruko doña Pompeya eta zigorrak (GER-098/026)

Karmeldarren ikastetxean "Hermana Eusebia" gaz egon zen. Baina nahi zuenean Foruko eskolara joan zitekeen. Foruan doña Pompeya zuten eta hark paluarekin jotzen zituen. Eskolako liburuak eskolakoak ziren, ez etxera eramatekoak. Karmeldarretan behin txori-habia apurtzarren zigortu zuten.

1.024. Egurrezko oinetakoak eta arropak (GER-098/028)

Oinetakoak erosteko diru faltan amak egurrezkoak erosi zizkion Rikardari, merkeak besteko txarrak. Karmeldarren ikastetxean azul marinoz jantzen ziren uniformedunek, baina bera ez.

1.025. Urdaibai baserria gaztelua erre ostekoa (GER-098/031)

Urdaibai baserrian ("Urdeibei" ahoz) hazi zen Rikarda, gaztelua erre ostean. Baina baserria eraiki arte beste etxe batzuetan bizi izan ziren.

1.026. Gernikara zein Forura (GER-098/032)

Gernika oso herri polita zen bere ustez. Eriabarrena astelehenero ganadu-eria egoten zen. Gernikarako jokera handiagoa zuten Forurako baino. Foruan dotrinan karameloak banatzen zituztenean bertara joaten ziren.

1.027. Gaubeilak eta hileta osteko janak (GER-098/034)

Lehen hileta-elizkizunen ostean jatorduak egiten ziren goizez ospatzen zirenetan. Norbait hiltzen zenean gaubeila egiten zen hildakoaren etxean.

1.028. Tokadak (GER-098/035)

Norbait hiltzen zenean tokadak, kanpaiak, jotzen zituzten eta horrela izaten zuten horren berri. Andrazkoari bi kanpai jotzen zizkieten eta gizonari hiru.

1.029. Gorpua andarien lepo gainean (GER-098/036)

Hiletetan Urdaibai gaztelutik Andra Mariara joan behar izaten ziren, nahiko urrun. Gorpua lepoan eramaten zuten andariak. Hauek jatordu berezia izaten zuten. Saraspen aldaketa egiten zuten beste lau andarirekin, bide luzea zen-eta.

1.030. Lau-hortza arbola puntan amarratu (GER-098/038)

Beraien auzoko batzuk behin lau-hortza arbolaren puntan amarratu zuten.

1.031. Erresponentsua (GER-098/041)

Abadea baserrietara joaten zenean hildakoaren bila, txapelera dirua botatzen zien. Erresponentsua. Pedro Agustinek dio andabideak bazaz beteta egoten zirela.

1.032. Txikerra, oso auzo jatorra (GER-101/003)

Oso auzo jatorra zen Errenteriako Txikerra. Ederto konpontzen ziren auzoan. Bost seme-alaba izan zituen. Lagunek mesede asko egin zioten. Auzoan etxeko ateak zabalik egoten ziren beti.

1.033. Aitaren bizitza gorabeheratsua (GER-101/004)

Aita nafarra zen. Bi aldiz ezkonduakoa eta alargun geratutakoa Gernikara etorri orduko. Hogeita bederatzi urte zituen amak aitarekin ezkondu zenean. Garai hartarako ia neskazarra. Lau urteko alaba bat zuen ordurako. Botikan laguntzaile gisa hasi zen. Amak herren bat izan ei zuen pretendiente, "Tarraplan" izenekoa. Aita oso bizia zen.

1.034. Inude aulestiar batekin hazi zen Esther (GER-101/006)

Amaren bularrak ez zuen esnerik eta inude batekin hazi behar izan zuten denek. Umea hil zitzaion Aulestiko emakume bat izan zen berea. Hamabi hilabete ordainduta eta hamahirugarrena doan, hala izan ohi zen tratua. Amari umea itzuli zionean, eguerdiko hamabiak arte lotan egon zedin zelan tratatu kontatu zion.

1.035. Aulestin ikasi zuen euskaraz (GER-101/007)

Inudea izandakoa Gernikako azokara joaten zen astero, eta Esher laguntzera joaten zitzaion. 12 urte zituela, Aulestira bizitzera joan zen inudearen etxera. Han dena euskaraz egiten zen eta orduan ikasi zuen euskara. Gurasoek erdaraz egiten zioten Estherri, aita erdalduna zelako eta amak ez zuelako aitaren aurrean erdaraz egin nahi. Auzoko "maketoak" ei ziren eurak.

1.036. Inudearen amaginarreba erdaraz ikasten, Esther irakasle hartuta (GER-101/008)

Aulestiko inudearen amaginarrebak erdaraz ikasi nahi zuen, eta Esther erabiltzen zuen irakasle. Polito ikasi ei zuen. Pasadizo barregarria kontatzen du, erdara dotoreko esaldia dela medio.

1.037. Euskaraz egitea debekatuta eskolan (GER-101/012)

Eskolan ez zieten uzten euskaraz egiten. Izen euskalduna zutenei aldatu egin zieten. Behin eskolakide batek salatu egin zuen Kristina euskaraz berba egiteagatik, eta maistrak zigortu egin zuen. Gernikarrak ziren bi maistrak. Izenak ematen ditu. Doña Florenciari buruz diote jo ez zuela egiten baina "txitximurke" bai, orratzak bailiran.

1.038. Estherri ez zitzaion eskola gustatzen (GER-101/013)

Eskolatik etxerakoan pregoia jotzen ari baziren, entzuten gelditzen zen Kristina. Gero etxera heldu eta amari esaten zion errazionamendu kartilaz zer hartu zitekeen egun hartan. Baina hala ere pozik bizi ziren. Estherrek pira egiten zuen inoiz eskolatik. Behin perrexil sorta batekin agertu ziren maistrarengana. Honek barre egitea beste erremediorik ez zuen izan. Ez zitzaion eskola batere gustatzen.

1.039. Fabrikako lehen jornala galdu (GER-101/014)

14 urte bete zituenean, amaren lantegian hasi zen Esther. Oso pozik. Pertsona nagusiaren lana egiten zuen. Gustura ibili zen Dalia fabrikan. Lehenengo jornala galdu egin zuen eta amak zakarrontzian bilatzera behartu zuen. Eskerrak aitak ondo hartu zuen. Anaiak, berriz, lehen jornala gozokitan gastatu zuen.

1.040. Ikasgaiak eta eskolako materiala (GER-101/017)

Arratsaldetan aritmetika ikasten zuten. Goizean errezuak eta Espainiako Historia. Ikaskide bihurri bati maistrak erregela bota zionekoa. Gramatika, Geografia, Historia... dena liburu batetik ikasten zen. Liburua, koaderno eta pizarratxoak ziren beren tresnak. Eskolan sartu orduko Cara al Sol kantatzen zuten.

1.041. Zozpal bila eskolatik bueltan (GER-101/020)

Tortolosak, kanikak, tronpa... Asko jolasten ziren denbora zegoenean. Izan ere, ez zuten asti askorik izaten, beren eginkizunak izaten zituztelako izendatuta etxean. Estherrek sutarako zozpal bila joan behar izaten zuen. Hamabi urterekin utzi zion eginkizun horri, tifusa harrapatu zuenean.

1.042. Tifusa harrapatu ur kutsatua edateagatik (GER-101/021)

Ez zuten urik etxean eta kaletik ekarri behar izaten zuten. Agian aurrez arratoi bat ibilitako ura edateagatik harrapatu zuen tifusa. Zer gaitz zen igarri ezinik ibili ziren medikuak hasieran. Bi hilabete egin zituen ospitalean. Kalentura handia izan zuen.

1.043. Amari gutuna gehiago bisitara ez etortzeko esanez (GER-101/022)

Ospitalean zegoela, ama etorri zitzaion behin bisitan. Esther lur jota geratu zen joan zenean. Gutuna idatzi zion esanez ez gehiago etortzeko sendatu arte. Ahizpari asko gustatu zitzaion gutuna eta gorde egin zuen. Ospitaletik irten zenean, telefonoz deitu zuen eta ama pozez zorutzen geratu zen.

1.044. "Sombras chinescas", itzal txinatarrak horman (GER-101/025)

Nagusituta gero ere jolasean ibiltzen ziren Txikerra auzoan. Gauetz autoak pasatzen zirenean "itzal txinatarrak" egiten zituzten argiaz horman. "Pelikulie izetie lez".

1.045. Zinera domeketan (GER-101/026)

Partxisean ere egiten zuten. Zinera domeketan, Lizeora gehienetan, gehiago gustatzen zitzaion-eta "Tilos" baino. Astegunean ere egoten zen zinea baina ez zuten joateko dirurik. Bi pezetako paga izaten zuen Estherrek asteburuetan.

1.046. Gosea pasatu zuten gerraostean (GER-101/027)

Ez dute bizimodu erraza izan. Arrazionamendua ezagutu dute. Esther ogi bila joan eta bidean jaten zuen gehiena. Gose handia pasatakoak dira. Estraperloan dena oso garesti zegoen. Ez zuten baserriko seniderik. Izan ziren estu ibilitako familia baserritarrak ere. Amari irin apur bat ekartzen zioten inoiz taloak egiteko, baina janaria oso urri ibiltzen zen. Sakarina erabiltzen zen azukrearen ordean.

1.047. Purruteneko dendan arrazionamendua (GER-101/028)

Libretatxo batez joaten ziren dendara janari bila. Ezin zuten gura zuten guztia erosi. Erreterian Purruteneko dendan erosten zuen Estherren familiak gehienetan. Zergatik deitzen zitzaion "Purrut". Kristina, berriz, Makazagarenera joaten zen.

1.048. 'Ponpon' eta 'Bake' ezizenak (GER-101/029)

Behin Kristina senararen bila joan zen lantegira. Guardia zibilek egiten zuten atezain lana. Jesus Uriartegatik galdetu eta ez zekiten nor zen. Ponpon esanda, ostera, berehala bilatu zuten. Pertsona batzuen ezizena besterik ez zen jakiten. Osterantzean, ezagutu ere ez. Aitaitak danborra jotzen zuelako zuten Ponpon ezizena. Estherren gizona, berriz, Bake zen, Ajangizkoa. "Hoba bakie" esaten ei zuen aitaitak, eta horrela Bake ezizenaz geratu zen. Seme-alabei ere Bake deitzen diete.

1.049. Bonbardaketatik ihesi (GER-103/002)

Txikitako oroitzapenik ez du. Bonbardaketa izan zenean, lehenengo Olabarrira eta gero Bilbora joan ziren. Handik Santanderrera joan ziren eta handik Frantziara. Urtebete inguru egon ziren Frantzian. Ikterizia gaixotasuna izan zuen han.

1.050. Astra lantegiko babeslekuan (GER-103/005)

Astra lantegiko babeslekuan egon zen bonbardaketan, aldamenean bizi zirelako. Handik gaez kamioi batean Olabarrira joan ziren.

1.051. Juntetxea margotzen (GER-103/014)

Juntetxean berak margotu zuen foruei buruzko aipamena beste batekin batera. Sabaia berak margotu zuen, haritzezko egurraren itxura emanaz. Zaletasunez margotu izan du.

1.052. Eskolara gustora (GER-103/018)

Eskolara gustora joaten zen. Don Mauro Galan eta Manuel Crespo ziren irakasleak. Pilotan edo futboleak aritzen ziren. Ximelako ahizpekin ibiltzen zen. Landaberdetik Estaziora joan zen bizitzera.

1.053. Aita eta aitita musikariak (GER-103/022)

Aitak aititarekin ikasi zuen musika eta Segundo Olaetarekin jotzen zuen bandan. Azkenengo kantua pasodoblea izaten zen eta horren ostean aitarekin etxera joaten zen. Neskenegana zela hurreratzen zen kontatzen du. Mahoizko frakak, alkandora eta abarketak janzten zituen. Traje bakarra ezkontzakoa izan du.

1.054. Ezkon-bazkaria "La Taberna Vasca"n (GER-103/025)

Nobio moduan hiru urte inguru egin zituen eta gero etxea erosi zuen, hipoteka eskatuta. 1957an ezkondu zuen. Gernikan bertan ezkondu ziren. La Taberna Vascan egin zuten bazkaria. Orduko jatetxeak izendatzen ditu. Eztei-bidaia Madrilerara egin zuten.

1.055. Erdaraz asko, orain umeekin euskaraz (GER-103/027)

Denek erdaraz egiten zuten eta orain ere hala egiten dute lagunartean. Umeekin beti euskaraz egiten du. Semeak ez daki euskaraz. Euskara polita dela dio.

1.056. Denean erdaraz (GER-103/029)

Euskara debekatua egon zenean, Guardia Zibilek eta frankistek zaintzen eta salatzen zituzten. Eskolan ere derrigorrean erdaraz egin behar izaten zuten. Irakasle gehienek ez zekiten, bakarra zegoen bazekiena. Etxean ere erdaraz egiten zuten. Elizan ere erdaraz egiten zen.

1.057. Irratia entzutera Ximelanera (GER-103/033)

Irratia dena erdaraz izaten zen. Etxean ez zeukaten. Ximelanera joaten zenean, Espainiako txirrindularitza itzulia entzuten zuten.

1.058. Mutilekin jolasean (GER-104/009)

Mutilekin jolasean aritzen ziren, baserrietako ukuiluetan ere bai, goitik behera zikintzen ziren eta gero etxean errieta egiten zieten. Bonbardaketarekin hori guztia amaitu egin zen.

1.059. Kuadrillan neskak eta mutilak elkarrekin (GER-104/010)

Kuadrillan mutil eta neska, elkarrekin ibili ohi ziren. Mutilak Erreteriarra joaten ziren neskengana.

1.060. Bonbardaketak iraun zuen artean Arratzun I (GER-104/012)

Bonbardaketak iraun zuen artean baserrian egon zen, Arratzun. Antzinako etxe bat erre gabe geratu zen, eta aitak eraberritu zuenean, hara joan ziren. Ez zegoen ezer, zorriak bakarrik. 12 urte zituen Arratzura joan zirenean, familiakoek ez zieten uzten Erreteriarra itzultzen, han hobeto egongo zirelakoan.

1.061. Bonbardaketa osteko gertaerak (GER-104/013)

Gernika bonbardatu zuenatariko bat etorri zen Gernikako plazara, itzultzaile batekin. Esan omen zuen beraiek ez zutela erre Gernika, eta dirua bildu zutela Alemanian Gernikara bidaltzeko. Ez zuten dirurik ikusi Gernikan, agian dena Madrilan geratuko zela dio.

1.062. Bonbardaketak iraun zuen artean Arratzun II (GER-104/014)

Bonbardaketa arratsaldeko hiruretan hasi zen, bazkaldu eta arrapaladan joan ziren baserrira, Arratzura. Zornotzan ere bota zituzten bonbak. Bonbardaketa ostean familien arteko liskarrak hasi ziren: elkar ezin ikusiak, haserreak...

1.063. Medikuri ez Gernikan, gehienak ihesean edo kartzelan (GER-104/016)

Gerran, sSoroetan zuloak egin, eta bertara botatzen zituzten hildakoak. Gezur asko esan ziren garai hartan. Aita bihotzekoak jota hil zen, Gernikan ez zegoen

medikurik ere, ihesean edo kartzelan zeuden ia denak. Zorriak ugari, ez zeukaten beste ezer.

1.064. Etxeko denak onik atera ziren bonbardaketatik (GER-104/017)

Etxeko denak onik atera ziren. Ahizpa klausurako moja zen, eta irten egin behar izan zuen komentutik, "Batallón Loyola" bertan zegoelako. Arratzuko baserrian egon zen familia osoa. Gernikako babesleku baten erdian ere bomba bat erori zen, ia denak hil ziren.

1.065. Erreneriako babeslekua (GER-104/018)

Errenerian babeslekua egin zuten, baina garaiko babeslekuak lau oholekin egiten zituzten. Ama Bilbon egon zen neskame, baina ez zuen gazteleraz ikasi.

1.066. Erreneriako karlistak eta batzokia (GER-104/020)

Erreneria auzoan karlistak gutxi izan ziren, batzuk gerora egin ziren karlista, jateko zerbait izan zezaten. Erreneriako batzokia Ajangizen zegoen, baina jendea Gernikako batzokira joaten zen, Ajangiz urrun gelditzen zitzaielako, eta asko joan ere ez ziren egiten, ez zutelako baliabiderik.

1.067. Erreneriako karlistak eta errezoak (GER-104/022)

Errenerian jende asko kartzelaratu zuten, eta batzuek horregatik aldatu ziren bandoz, kartzelara ez joateagatik. Ama eta aita bizkaitar leialak izan ziren, amak Sabino Arana bera ere ezagutu zuen arrosarioa errezatzen ari zela, Bilbon neskame ibili zen garaian. Gerora ere, emakumeak San Antoniogana joan ohi ziren errezoan.

1.068. Fusilatzeak eta komentuaren eraisketa (GER-104/023)

Erreneria auzoko eta Foruko herritar batzuk fusilatu egin zituzten. Bonbardaketa izan zenean, astoak bakarrik itzultzen ziren etxera Gernikako azokatik, jabeak bertan hil zirelako. Mojarik ez zuten hil, baina komentuko paretak eraitsi egin zituzten.

1.069. Lantegiak konpondu beharra (GER-104/024)

Gernikan lantegi gehienek zutik iraun zuten, bonbardaketa ostean konponketekin hasi ziren, pixkanaka jendea lanean has zedin.

1.070. Bonbardaketa ostean Arratzutik Erreneria auzora (GER-104/025)

Gainontzekoek taloa jaten zuten bitartean, errazionamenduko ogia etxeko gizonentzat izaten zen, lan egin behar izaten zutelako. Erreneria auzoan antzina bizi izan ziren etxe bat ez zuten apurtu, eta bertara itzuli ziren bonbardaketa ostean.

1.071. Senarra musikaria (GER-104/027)

Senarra kanariar irlalara bidali zuten hiru urtez, EAJren jarraitzailea zelako. Musikaria zen, trikitia eta danbolina jotzen zituen. Erromeria batetik etxera bidean ezagutu zuten elkar, gerora Andra Marin ezkondu, eta ospatzeko Bilbon igaro zituzten zortzi egun.

1.072. Sukarrietako errekan (GER-104/031)

Sukarrietako errekararen joaten ziren bainatzera, baina berari ez zitzaion gustatzen, ito egingo zela uste zuen. Semeak Gernikako presan ikasi zuen igerian.

1.073. Prozesioak herri osoan zehar (GER-104/033)

Parrokoak kendu egin zituen prozesioak, arrosarioa errezatzen ari zela jendea elkarrekin hitz egiten aritzen zelako. Gernika osoa zeharkatzen zuen prozesioak.

1.074. Elizara Gernikako Andra Marira (GER-104/036)

Elizara Gernikako Andra Marira joaten ziren, dotrina ere han irakasten zieten. Errenteri auzoko elizan meza bakarrik ematen zieten. Errenteriako jendea San Juanera ere joan ohi zen, baina bonbardaketan goitik behera erre zuten. San Juan eliza, handia omen zen, ederra, bertan bataiatu zutela uste du.

1.075. "Ardoa edanda" kantuan (GER-104/040)

"Ardoa edanda" abestia abesten du.

1.076. Foruen plazan jaioa (GER-105/002)

Udaletxe aurrean zegoen eraikinean jaio zen Hirune, Andra Maria kaleko 6. zenbakia zenean. Frantseskalegaz (gaur egun Azokakale) egiten zuen izkina etxeak, baina etxeak plazara, Foruen plazara, ematen zuen. Inguru hura zelakoa zen azaltzen du. Bonbardaketan giltza baino ez zuten atera etxetik.

1.077. Eskola eta solfeoa (GER-105/006)

Eskolara 4 urtetatik gerratera arte joan zen. Eskola eta solfeoa biak ziren garrantzitsuak eta horretan ematen zuten eguna.

1.078. Euskarazko irakurgaiak (GER-105/007)

Hirunek umetatik irakurri du euskaraz: Xabier euskalduna eta Iñigo... ziren liburu horiek. Gerra aurretik hasi zen euskararen aldeko mugimendua: irakurgaiak, ikastola... Baina gerrak dena lorrindu zuen.

1.079. Sigertatxuko ur deposituan babestuta (GER-105/008)

Bonbardaketa aurretik, kanpai-hotsak entzun zituztenean. Sigertatxuko ur depositura joan ziren. Han Galdakaoko herria erasotu zutela jakin zuten. Orduan, amak, Forurako joateko erabakia hartu zuen, aita hangoa baitzen.

1.080. Bonbardaketa aurretik Forura (GER-105/009)

Antzinako pitxar batean esnea hartu eta Forurako bidea hartu zuten bonbardaketa aurretik. Aita Zimelaneko tabernatik abisatu zuten lantegira deituz. Inguru guztia metrailatu egiten zuten.

1.081. Errepideko azpiko babeslekua (GER-105/010)

Bonbardaketa aurreik Forura joan ziren ihesi. Errepide azpian babeslekua zuten, galipot azpian. Eguna bertan pasatzen zuten, etxerako joan-etorrien artean. Bitartean, ez zekiten oso ondo zer ari zen pasatzen Gernikan.

1.082. Abioiei seinaleak egiten zizkien gizona (GER-105/012)

Bonbardaketa egunean, Forura joan ziren babes bila. Handik behealdean gizon bat ikusi zuten, praka hutsean eta eskuan toalla bat zuela zegoen. Gizon hark bonbardaketarekin zerikusia zuela pentsatu zuen toallagaz seinaleak egin zituen-eta. Handik gutxira beste abioi batzuk etorri ziren. Bonbardaketa amaitu zenean, ez zioten Gernikara sartzen utzi ez baitzioten utzi. Dena galdu zuten bertan.

1.083. Aita Sabino Aranaren hurkoa zen (GER-105/018)

Bere aita politikan sartuta zegoen. Sabino Aranaren hurkoa eta kolaboratzailea zen eta beraien etxean erre ziren Arana Goiriren txartel pertsonalak.

1.084. Foruko fusilamenduak (GER-105/019)

Foruan hiru gizon fusilatu zituzten, tartean sakristaia.

1.085. "Gernike geure herri politte ikusten" joan zirenekoa (GER-105/022)

Gernika erre eta hiru urtetara bueltatu zen herrira, denek deseatzten zuten hori. Mairuek dena lorrindu zuten eta ezin izan zuten etxeetatik ezer jaso. Bilbo hartu eta hurrengo gunean joan ziren lehen aldiz Gernikara, "Gernike geure herri politte ikusten". Foruan leku desberdinetan bizi ostean bueltatu ziren behin betiko; Gernikara hurreratu ahala, pozez zorutzen zirela dio.

1.086. Bonbardaketa aurretik baserria jendez lepo (GER-105/023)

Foruko Jauregizar "Jauzar" baserrian bonbardaketa aurreko egunetan egon ziren. 8 gudari ere egon ziren bertan. Horrenbeste pertsona zeuden etxean, bazkaltzeko 3 mahai jarri behar izaten zituztela. Ostean, beste hiru lekutan egon ziren Foruan bertan, Gernikara bueltatu aurretik.

1.087. Gudariak Gernikan (GER-105/027)

San Klaran Loiola batailoia egon zen. Karmeldarren ikastetxean gurutze gorriko talde bat egon zen eta gero bertan jarri zuten basea. Merzedeen beste batzuk zeuden. Gernikan batailoia hauek egon ziren: Loiola, Itxarkundia, itxasalde...

1.088. 'Cara al Sol' Pasealekuko dantzaldietan (GER-105/029)

Gaztetan, Pasealekura joaten ziren dantzan egitera. Cara al Sol abestu behar zenean bandak musika aldatzen zuen eta beraiek Txorraburu aldera joaten ziren.

1.089. Abarketa-lantegira bizitzen (GER-105/032)

Bere aitak abarketa-lantegian egiten zuen la, eta lana zuenez ez zuten arazorik izan aurrera egiteko. Lantegian bertan egon ziren bizitzen estatuko etxeetara joan arte. Estatuko etxeak aurrez izendatuta egoten ziren askorentzat: Guardia Zibilak, gaixoak... Eskaera egiteko ere beldurra zuten.

1.090. Soldadu batek eman zion koltxoia (GER-105/034)

Bonbardaketa ostean, Foruan egon ziren. Gernikara bueltatu zirenean, Foruko soldadu batek emandako koltxonetan egiten zuen lo, "Catre" batean. Hasiera batean amak ez zuen gura hura hartzerik zikin zegoelako-edo, baia beste ezer baino hobea ei zen. Errekan sartu zuten garbitzeko. "Catre" hori gero beste familia bati eman zion.

1.091. Goserik ez (GER-105/036)

Gerraostean, baserrietako eta dendetako jeneroagaz nahikoa izaten zuten; beraz, ez zuten goserik izan.

1.092. Aita Gernika-Lumoko alderdi sozialistako sortzailea (GER-109/002)

Bere aittitte elizara ortozik sartzen ziren. Aita Gernika-Lumoko alderdi sozialistako sortzailea izan zen, herriko museoa ikus daiteke orduko argazki bat. Pablo Iglesias izan zen Espainiako alderdi sozialista sortu zuena. Gaurko sozialistek ez dute zerikusirik ordukoekin.

1.093. Aita preso buruzagi sozialista izateagatik (GER-109/004)

Aita Gernika-Lumoko alderdi sozialistako sortzailea izan zen. Gerran Valentziara joan ziren eta atxilotu eta kartzelaratu egin zuten: Larrinagan, Karmelon eta Tabakalera egon zen. Heriotza zigorra izan zuen, baina herriko faxista batek lagundu zion; faxista izan arren, pertsona ona zen eta hari eskerrak indultatu zuten.

1.094. Elizarekin lotura barik (GER-109/005)

Aita Gernika-Lumoko alderdi sozialistako sortzailea izan zen eta ez zuen elizagaz hartu-emanik. Mertxe bera ere ez da izan elizara joatekoa, etxean ez zioten horretara bideratu. Ez zuen dotrinara ikasi. Sasoi hartan ez zen batere normala.

1.095. Lehen jaunartzea berandu egin zuen (GER-109/006)

Aita Gernika-Lumoko alderdi sozialistako sortzailea izan zen eta ez zuten elizagaz inongo loturarik. Ez zuen dotrinara ikasi. Hala ere, gerraostean Bilbon bordatzen ikasten zegoela, hango andreak Mertxek lehen jaunartzea egin zezan gura zuen. Orduan, 12 urte zituela, hartu zuen lehen jaunartzea, baina inongo ospakizun eta dotorezia barik. Bere neba-arrebek, osterara, arropa dotoreekin egin zuten. Gerraostean, aldiz, gauzak desberdinak ziren.

1.096. Busturiko tren-geltokian jaio zen (GER-109/008)

Busturiko San Kristobal auzoko tren-geltokian jaio zen, bere aitak eta aititak bertan egiten baitzuten behar. Hori dela-eta, Gernika-Lumora hiru-lau urte zituela etorri aurretik Altamirako eskolan ibili zen.

1.097. "Gernike antortxa bat" (GER-109/010)

Umetan pozik bizi ziren, beti jolasten. Bonbardaketak ikulio guztiak suntsitu zizkien. Une horiek dakartza gogora: lagun bategaz zegoela, esku batek heldu eta kanposantura eroan zituen biak. Esku hori bere nebarena zen. Kanposantuan egon ziren eta handik ikusi zituzten erasoak, "Gernike antortxa bat" dio. Beraien etxeokak denak salbatu ziren: amama Errigoitira joan zen, neba bat errekan ezkutatu zen...

1.098. Denak negarrez (GER-109/012)

Bonbardaketan burura zetorkion galdera bakarra "zergatik?" zen. Bonbardaketa ostean negarra zen nagusi, denak zebiltzan batetik bestera beraien etxeokoen bila. Orduak oso ondo deskribatzen dituen erdarazko esaldi bat aipatzen du.

1.099. Ezer barik, soinekoagaz bakarrik (GER-109/013)

Bonbardaketa egunean, etxea erretan zegoen bitartean denak batzea zen garrantzitsuena. Eibartik heldutako errefuxiatu bat zuten etxean eta ohean egon zen gaixorik, bere aitak atera zuen onik etxetik erretzen zegoen bitartean. Ezer barik, soinekoagaz bakarrik gelditu ziren. Handik Muruetara joan ziren amama osaba baten etxera joateko. Eurak aurrera jarraitu zuten Sollubetik Bilbora joateko.

1.100. Gernikatik Frantziara ezer barik (GER-109/014)

Gernikako herria erre ostean, Bilbotik Santanderrera eta handik Frantziara joan ziren. Ez zuten ezetakorik ere ez. Aitak esne kondentsatu pote bat zuen eta handik jaten zuten denek. Beti dago jende ona leku guztietan eta bidean ere laguntasuna izan zuten. Gero Valentziara joan ziren Bilbora joan arretik. Bilbora heldu zirenean aita atxilotu egin zuten. Bilbotik Santanderreko bidea zelan egin zuten kontatzen du.

1.101. Errefuxiatu Bordelen eta Britainian (GER-109/015)

Gernikako bonbardaketa ostean, Santanderrera joan ziren. Handik, ontzi ingeles batean Bordelera (Frantzia) joan ziren. Bordeletik Britainiaraino joan ziren. Eusko Jaurlearitzaren laguntza izan zuten.

1.102. Valentziara, errepublikazaleen eremura errefuxiatu (GER-109/016)

Gernika bonbardatu eta gero, Frantzia errefuxiatuta egon ostean, Valentziara joan ziren. Valentzia zonalde errepublikazalea zen sasoi hartan, gerraostean okupatu zuten Valentzia. Venezuelara joateko aukera ere izan zuten, baina aitak ez zuen gura izan. Aitak Euskal Herrian zuen lan bera egiten zuen han trenean, eta ondo bizi zirela dio.

1.103. Aitaren atxiloketa (GER-109/017)

Gerran Frantzian eta Valentzian egon ostean, Euskal Herrira bueltatu ziren, Bilbora hain zuzen ere. Aita atxilotu eta amak bost umegaz egon behar izan zuen aurrera. Aita bisitatzen joaten zirenean jatekoa eramaten zien. Presoak leihora irtenez gero, zentinelak (zaintzaile militarrek) tiroka hasten ziren.

1.104. Kartzelako bizipenak (GER-109/019)

Gerraostean aita atxilotu eta preso hartu zuten. Aitak kontatutakoak dakartza gogora: goizero mezara joan behar izaten zuten, zamorar batek bere buruaz beste egin zuen... Mertxeren amak kartzelako arropak egosi egiten zituen zorriak kentzeko. Astean behin aitaren arrebak jatekoa bidaltzen zion, beraiek ez baitzuten ezer bidaltzeko.

1.105. 'El Liberal' egunkaria (GER-109/023)

Beraien etxean egunero irakurtzen zuten El Liberal egunkaria.

1.106. Bonbardaketa aurreko auzoa (GER-109/025)

Mertxe Gernikan gaur egun gurutze gorria dagoen ondoan bizi zen. "Kamiñeru"en etxea, Pinua eta Agirre "Agarre" baserriak eta beraien etxea zeuden. Gorago Txikerra eta Lurgorri zeuden.

1.107. Euskara ez galtzeko ardura (GER-109/031)

Bere aita sozialista zen, Gernikako alderdi sozialistako sortzailea. Mitinetan ere parte hartzen zuen, erdaraz egiten zituen ez baitzekien euskaraz. Hala ere, ahalegin handia egin zuen seme-alabek euskaraz egin zezaten. Amaren aldeko amamak ez zekien gaztelaniaz, baina ondo konpontzen zen suhiarekin.

1.108. Txakurraren agur beroa (GER-109/033)

Gerran errefuxiatuta egon ostean, etxera bueltatu eta Lobik egin zion agurrik beroena, beraien txakurrak. Baserritik geltokira joan zen beraiengana, arrapalan, trotean, joan zen beregana.

1.109. "La Internacional" eta "Si los curas y frailes supieran..." (GER-109/035)

Bere aita sozialista zen eta errepublika garaiko abesti asko kantatzen zituen. Gaztelanizkoak diren "La Internacional" eta "Si los curas y frailes supieran..." abestiak kantatzen ditu Mertxek pasarte honetan.

1.110. Zentsura eta NO-DOa zineman (GER-109/044)

Gernikako zineman ikusi zituen hainbat pelikula aipatzen ditu. Zentsura Francok ezarri zuen, lehenago ez zegoen horrelakorik. NO-DOa hasten zenean altxatu egin behar izaten zuten eta besoa altxatuta abestu. Orduan ere altxatzen ez zirenei begira egoten zirenak ere bazeuden.

1.111. Zartzuelak (GER-109/046)

Bere aitari asko gustatzen zitzaizkion zartzuelak eta Bilbon askotan ikusten zituzten: "Doña Francisquita", "Luis de Aragón"... Gernikan zinemara joaten ziren.

1.112. Jauregi etxean jaioa (GER-127/001)

Bere izen osoa Miren Arantzazu da. Lumoko Santa Luzia auzoko Jauregi etxean (gaur egun desagertuta) jaio zen. Ez zen baserria, baina bazuten soloa, txerria hazteko ohitura...

1.113. Lehengo Santa Luzia (GER-127/002)

Santa Luzia auzoa guztiz aldatuta dago. Ermita eta pare bat etxe baino ez daude sasoi hartakoak. Auzokoen artean harmonia ederra zuten. Beraien etxean lau etxebizitza zeuden eta guztira 16 ume; ez zuten handik irten beharrik ezertarako ere.

1.114. Auzoko Mariaren errietak (GER-127/003)

Eskolara Pasealekura joan behar izaten zuten eta dotrinara Lumora. Ez zuten nahi izaten Lumoko dotrinara joan eskolan dena egiten baitzen gaztelaniaz eta dotrinan dena euskaraz, nahaste handia zen hori eurentzat. Handik pasatzen zen andre batek, Mariak, errieta egiten zien dotrinara eta arrosariora joaten ez zirenean. Maria protagonista izandako kontuak kontatzen ditu.

1.115. Umetako gaiztakeriak (GER-127/004)

Sasi artean hazten ziren masustak harrapatzen aritzen ziren umetan. Auzoko Garratzenekoen sagarrak hartzera joan zirenean, baserriko gizonak gurdiaren sokarekin arbolara lotu zuen Arantzak. Egun horretako txarrena etxerako esne eroan behar zuela izan zen.

1.116. Araneko iturrira ur bila (GER-127/005)

Bere auzoko jaiak San Lorentzoak izaten ziren. Arane auzoko iturrira joan behar izaten zuten ur bila, baina San Lorentzotan bi egunetarako ura hartzen zuten berriro hara joan behar ez izateko jaietan.

1.117. Maistrak gelatik bota eta etxera alde egin (GER-127/006)

Behin, eskolan irakasleak kalera bota eta Arantzak etxera alde egin zuen ur bila. Doña Florencia zen berain maistra, baina doña Josefina beraien auzoan bizi zen. Hala ere, doña Josefinak ez zion amari ezer ere kontatu.

1.118. Pitxer bete piku (GER-127/007)

Behin auzoko baten Makatzeko iturritik ura ekartzeko eskatu zien. Baina pitxerra urez bete barik pikuz bete zuten, pikondotik pikuk botata. Bertako andreak ikusi eta salto egin zuten. Bere ahizpak zaldarra zuen hankak eta Arantzak esan zion etxean gera zedin, baina zauria egin zuen. Orduan ere Arantzak jaso zuen etxeko "tarie".

1.119. Gatzezko tiroekin gaiztakeritan (GER-127/008)

Auzokoekin batera egindako gaiztakeria bat kontatzen du pasarte honetan gatzezko tiroak tarteko.

1.120. Falangista jantzearren zigorra (GER-127/009)

Ajangiz eta Gernika-Lumo bat egin zuten egunean gobernadorea ekarri zuten herrira. Egun horretan falangera eroan zituzten, beraiek ez zekiten zer zen ere ez, eta gustura zeuden. Etxera joateko ordua ere pasa zen eta inork ez ikusteko, etxerako bidea Urremenditik egin zuten Agarretik barik. Amak falangista jantzita ikusi zituenean, astindu ederra eman zien. Goizean jantzitako arropak falangean utzi zituzten eta ez zuten beste arroparik izan jantzeko. Zigorra domekan txokolatea jan barik egotea izan zen.

1.121. Hamarretarako etxean egon behar (GER-127/010)

Mezara edo arrosario errezatu barik egonez gero, zigortu egiten zituzten. Gaueko hamarretarako ere etxean egon behar izaten zituzten. Behin beranduago etxeratu ziren eta orduan ere agiraka egin ziren. Mimenagaz jotzen zieten amak, aitak inoiz ere ez.

1.122. Lore bat ostutearren etxean jipoia (GER-127/011)

Gernikako aldera joaten hasi zirenean, Pasealekuko erromerian pare bat abesti dantzatu eta zinemara joaten ziren. Handik bueltan beste pare bat dantzatzen zituzten etxera joan orduko. Behin, etxera bueltan, beste etxe batetik lore bat bat ostu eta orduan amak ere egurtu egin zuen.

1.123. Gernika-Lumoko falangisten egoitza (GER-127/013)

Falangistak Erdiko kalean egon ziren, Boyra botikaren gainean. Lehenago, gaur egun batzokia dagoen tokian egon ziren. Ikastola dagoen tokian, Secci&ocute;n Fememina jarri zuten, baina ez zuen arrakasta askorik izan. Falangisten arropak zelakoak ziren azaltzen du.

1.124. "Guardia de Asaltos"ak eta Guardia Zibila (GER-127/014)

"Guardias de asaltos"ak ere bazeuden Tiloetatik. Guardia Zibilen kuartela Saraspe ondoan zegoen. Orduko guardia zibilak jatorrak ei ziren, beraiekin hartu-emana izaten zuen jendeak. Kuartelaren alboko etxeetan 'Talleres de Gernika' lantegiko beharginak bizi ziren.

1.125. Makatzeko iturria (GER-127/016)

Makatzeko iturria non dagoen azaltzen du. Bekoerrekatik joaten ziren, Trama baserritik Santa Luzia alderantz. Araneko iturriko ura ez zen edateko eta hara joaten ziren edateko ur bila.

1.126. Txikerraneko erreka (GER-127/017)

Txikerraneko erreka gaur egun tapatuta dago. Nondik norako bidea egiten zuen azaltzen du pasarte honetan Arantzak. Oso ur garbia izaten zuen, agian kanposantuko iturriaren erretoak hartzen zituen.

1.127. Trama erreka (GER-127/018)

Trama errekek Renault zegoen tokira irteten zuen. Gaur egun tapatuta egon arren, bertan egongo da erreka hori.

1.128. Azkarretaren txaleta (GER-127/020)

Azkarretaren txaleta (gaur egun desagertua) non zegoen azaltzen du.

1.129. Juanita Txikerraren etxea (GER-127/022)

Juanita Txikerraren etxea gaur egun desagertuta dago. Barre asko egiten zuten Juanita Txikerrarekin. Berarekin bizi izandako anekdota pare bat kontatzen ditu. Agarre baserria ere gaur egun desagertuta dago.

1.130. Auzoko baserri gehienak botata daude (GER-127/024)

Gaur egun San Frantzisko eliza dagoen tokian landak zeuden. Handik hurbilen zeuden baserriak Urremendi eta Totorikanekoa ziren, gaur egun ere oraindik han daude. Auzoko baserri gehienak, ostera, bota egin dituzte.

1.131. Eskolara bidea estratatik (GER-127/026)

Lurgorritik eta Santa Luziatik Pasealekuko eskolara joan behar izaten ziren. Estratatik joan behar izaten zuten.

1.132. Eskolako jolasak (GER-127/027)

Pasealekuko eskolan ikasi beharrean asko jolasten zutela dio. Zertan jolasten zuten azaltzen du. Behin irakasleak erregela bota zion eta Pasealekuko arbola bat jo zuen.

1.133. Eskolan Espainiako bandera eta "¡Viva Franco!"ka (GER-127/028)

Behin, Pasealekuko eskolan Espainiako bandera balkoian jartzea egokitu zitzaionean, eskegi beharrean lurrera jausten utzi zuen. "¡Arriba Franco!" eta "¡Viva España!" esanda abestu behar izaten zuten.

1.134. Erlijioaren indarra eta eragina (GER-127/029)

Erljioan indar handia zuen eta dotrinara joaten derrigorrezkoa zen. Orduko anekdota bat kontatzen du.

1.135. Neskak auditorioan jolasten eta mutilak Pasealekuan (GER-127/030)

Eskola garaian ez zuten mutilekin jolasten. Neskak gaur egun auditorioa dagoen tokian jolasten zuten (orduan ez zegoen auditoriorik); mutilek, ostera, Pasealekuan bertan. Sokasaltoan kantatzen zutena dakar gogora. Kanikaka eta intxaurrekin ere jolasten ziren.

1.136. Elizan zein eskolan dena erdaraz (GER-127/032)

Eskolan euskaraz egitea galarazita zegoen. Kredoa eta errezatzen ere ezkondu ostean ikasi zituen euskaraz. Lumon dotrina euskaraz ikasteko aukera zuten, baina ez zuten ezer ere ulertzen.

1.137. Dotrina Gernikan eta sepultura Lumon (GER-127/033)

Pasealekuko eskolara joan zenez, Gernikako elizan jaso zuen dotrina eta baita lehen jaunartzea ere eta ez Lumokoan. Ama hil zenean, hurrengo hiru urteetan, domekero joan behar izaten zen Lumora, sepulturara. Sepultura zer den azaltzen du.

1.138. Gernikako azoka (GER-130/003)

Famatua da Gernikako astelehenetako azoka. Astelehena laneguna izaki, jende heldua ibili ohi da gehienbat, baserritarrak... Baina, hala ere, jende asko biltzen du Gernikako azokak. Baserriko produktuez gainera, bestelakoen presentzia geroz eta handiagoa da.

1.139. Azokaren inguruko giroa eta aldaketak (GER-130/006)

Azokak eta inguruak aldaketak jasan dituzte azken urteetan. Aitorrek eta Itsasnek eraikineko beiratea eta larunbatetako "FM diskoteka" aipatzen dituzte.

1.140. Gernikako FM diskoteka, gaztetxoenei bideratua (GER-130/007)

Aitorrek eta Itsasnek ez dute plazako diskotekara joateko ohiturarik, ez eta adinik ere, baina eurak haurrak zirela jada bazela diote. Gaztetxoagoentzat antolatzen du Udalak.

1.141. Bi arkitekto gernikar azokako beirateari begira (GER-130/009)

Arkitektura ikasketak amaitzeko ikasgai gutxi batzuk gainditu faltan elkarrizketatu genituen Aitor eta Itsasne, eta Gernikako azokako beirateari buruzko iritzia eskatu genien.

1.142. Astelehentxutxu (GER-130/011)

Urriko azken astelehena egun seinalatua izaten da Gernikan, azoka egun hortara Euskal Herri osoko baserritarrak batzen baitira. Orain 6 urte inguru, baina, astelehen horren aurreko larunbatean Gernikako gazteek elkarretaratze berezia egiten dute, kuadrillek prestatutako pallekin osatutako otordu handi baten jiran.

1.143. Astelehentxutxu, gazteen arteko harremanak sendotzeko (GER-130/013)

Gazte mugimenduetatik sortutako ekimena da astelehentxutxu, eta, hari esker, gazte kuadrillak lokal eta lonjetan isolatuta egotetik, egun elkarlanean eta harremanetan egotera pasa dira.

1.144. Astelehentxutxu Aitor eta Itsaneren begietatik (GER-130/017)

Oso positiboa da Aitorrek eta Itsasnek Astelehentxutxu ekimenaren gainean egiten duten balorazioa.

1.145. Gernikako Astra (GER-130/019)

Eraikin baten okupaziotik abiatutako proiektua da Astra, autogestioan oinarritua, batik bat.

1.146. Iparragirre Rock Elkarte (GER-130/020)

Gernikako hainbat musika taldetako partaide elkarlanerako batzetik sortu zen Iparragirre Rock Elkarte.

1.147. Gernikako musika taldeak (GER-130/022)

Gernikako musika taldeak aipatzen dituzte Aitorrek eta Itsasnek, txandaka.

1.148. Ingelesezko kanten euskarazko bertsioak (GER-130/024)

Itsasnek kontaktzen du nola eta zergatik egiten zituzten ingelesezko kanten euskarazko bertsioak.

1.149. Arazoak ahotsarekin (GER-130/026)

Gernikako musika eskolan ahots tekniken inguruko ikastaro batean ezagutu zuten elkar hainbat lagunek, eta musika taldea osatzea erabaki zuten, Itsasne abeslari hartuta.

1.150. Perura bidaia (GER-130/028)

Urte oso bat aurrezten eman zuen Aitorrek, gero Perura bidaia egin ahal izateko. Paracas eta Ballesta irlak, Arequipa, Colca, Titikaka ...

1.151. Hilabete Cuscon, boluntario (GER-130/029)

Cusco hiriko auzo batean jardun zuen Aitorrek, boluntario, bertako haurren aisialdian eragiteari begirako proiektu batean. Cuscoko haurren errealitatearen berri ematen du.

1.152. Cuscoko proiektuaren nondik norakoak I (GER-130/030)

Cuscoko proiektuaren nondik norakoak azaltzen ditu Aitorrek, eta baita hainbat bitxikeriaren kontaketa egin ere.

1.153. Cuscoko proiektuaren nondik norakoak II (GER-130/032)

Cuscoko boluntariotza proiektua gauzatzen zuten tokiaren deskribapena eta bertako haur eta gazteei buruzko informazioa (adina, ohiturak ...)

1.154. Bidaiatuz denetariko jandea ezagutu (GER-130/033)

Bakarrik egindako lehen bidaia luzea izan zen Aitorrek Perura egindakoa. Mundu-ikuskera zabaltzeko eta jandea ezagutzeko balio izan dio gehienbat.

1.155. Ikasle-egoitzak (GER-130/035)

Donostiako ikasle-egoitzak aipatzen dituzte.

1.156. Ikasle-egoitzatik ikasle-pisura (GER-130/037)

Ikasle-egoitzatik ikasle-pisura egin zuten Aitorrek eta Itsasnek. Esperientzia horri buruz mintzo dira.

1.157. Ikasle-pisuko elkarbizitzari begirako aholkuak (GER-130/039)

Ikasle-pisuko elkarbizitzari begirako aholkuak ematen dituzte Aitorrek eta Itsasnek, beren esperientzia pertsonalean oinarrituta.

1.158. Ikasle-pisutako pasadizoak (GER-130/041)

Ikasle-pisutan gertatutako hiru pasadizo kontaktzen ditu Itsasnek.

1.159. Gernika eta Donostiako parranda giroa (GER-130/043)

Parrandarako zenbait eremuren aipamena: Bataplan, Donostiako alde zaharra, Ikatz kalea... Tabernetan entzuten den musikari buruzko iritziak.

1.160. Tabernan lan egiteak dakarrena (GER-131/001)

Tabernan lan egiteak alde onak eta txarrak izan ohi ditu.

1.161. Ligatze kontuak (GER-131/002)

Euskaldunak itxiak omen gara ligatzerako orduan, andaluzak baino itxiagoak edo poliki-poliki joaten diren horietakoak garela diote elkarrizketatuek.

1.162. Andaluzen ligatzeko moduak (GER-131/003)

Andaluzek ez omen dute ligatzeko arazorik, hitz jarioaz baliatzen dira.

1.163. Euskararen ahulezia (GER-131/005)

Euskarak hainbat ahulezia izan ditzakeela diote elkarrizketatuek; batez ere haserretzerakoan edota errieta botatzerakoan, kasu horietan erdararako joera aitortzen dute.

1.164. Arkitektura ikastearen ondorioak (GER-131/007)

Arkitektura ikasketak amaitzen ari diren bi ikasle dira Aitor eta Itsasne. Biek diote momentu oro zerbaitek interesa pizten diela, arkitektura bizitzeko era bat dela diote.

1.165. Euskal Herriaren eraikin edo leku esanguratsuak (GER-131/011)

Euskal Herria irudikatzen duen hamar eraikin hautatu dituzte elkarrizketatuek.

1.166. Eraikin polemikoak (GER-131/012)

Guggenheim eraikin polemikoa izan da urteetan zehar, egia da baina gaur egun Bilboko ikonoa bihurtu dela.

1.167. Calatravaren kasua (GER-131/013)

Arkitektura arte gisa ere uler daiteke, alabaina, eraikuntzak ederrak izateaz gain funtzionalak ere izan beharko litezke.

1.168. Ikasle-gela bat izatea lortu zuten (GER-131/015)

Ikasle gela bat izatea lortu zuten orain dela urte batzuk. Horretarako aste beteko greba deia egin zuten.

1.169. Aitor futbolzalea da (GER-131/016)

Añorgako futbol klubean dagoen giroa oso bestelakoa da Gernikako futbol klubarekin aldentuz gero.

1.170. Parranda eta alkohola (GER-131/018)

Gero eta gutxiago dira parrandan alkohola edaten ez dutenak, aitzitik, alkoholik gabeko parrandak ere bota daitezke.

1.171. Drogak eta parranda (GER-131/019)

Gazteek gero eta azkarrago izaten dute kontaktua drogekin.

1.172. Prebentzio neurriak (GER-131/020)

Jai giroan prebentzio neurriak ezin bestekoak direla diote, batez ere, alkohola eta drogen eragina neurtzen dutenak.

1.173. Gernikako euskara ulertzeko zaila belarria egin arte (GER-131/022)

Beste euskalkietan esanguratsuak egin zaizkien esaldiak ere erabiltzen dituzte, batez ere broma gisa. Bestalde, haiei ere tokatu izan zaie Gernikako euskararen inguruan zer edo zer entzutea.

1.174. Txikitatik dantzan (GER-132/002)

Txikitatik izan du dantzarako gogo. Horregatik izan du argi antzerkia ikasi nahi zuela. Ondoren abesteari ere ekin zion.

1.175. "nire bizitzako gauza garrantzitsuenak dira abestea eta antzeztea" (GER-132/004)

Kantugintza eta antzerkia profesio bezala bizi nahi ditu, bere ogibidea izan daitezen.

1.176. Nola bizi izan duzu ezaguna izatea? (GER-132/006)

Bat-batean jendeak ezagutzeak harritu egin zuen. Sare sozialen bitartez jende asko jarri da berekin kontaktuan.

1.177. Ezaguna izatea faltan botako duzu? (GER-132/008)

Kritikak ere jasotzen zituen.

1.178. Famaren arriskuak (GER-132/010)

Esker onez hartzen ditu jarraitzaileek egindako lanak.

1.179. Antzerkiaren eta telebistaren desberdintasunak (GER-132/012)

Telebista eskuragarriagoa da antzerkia baino. Antzezlanean ere ibili da.

1.180. Zer nahiago duzu lanerako, telebista ala antzerkia? (GER-132/014)

Biak gustatzen zaizkiola dio. Telebistak beste bizitasun bat dauka, hala ere

1.181. Zein da aktore lanaren alde txarrena? (GER-132/016)

Lan egin gabeko denbora hori.

1.182. Telebistako lanean zer daramazu okerren? (GER-132/018)

Emozioak adieraztean uneak eta egoerak asko eragiten du. Emozioak adieraztea intimoegia da beretzat.

1.183. Zer esango zenioke aktore lanetan berria den norbaiti? (GER-132/020)

Beldurrik ez edukitzeko esango lioke.

1.184. Fama ez dago aktoreen esku (GER-132/022)

Fama lanaren ondorio da.

1.185. Zein beste zaletasun daukazu? (GER-132/024)

Dantza egitea asko gustatzen zaio, baita musika entzutea ere. Noizean behin idatzi ere egiten du.

1.186. Parrandazalea al zara? (GER-132/025)

Jende asko dagoen parrandak ez zaizkio gustatzen, baina bestela, parranda gustuko du.

1.187. Zein sare sozial, zein hizkuntzatan? (GER-132/027)

Instagrama eta Twittera erabiltzen ditu, normalean, bi hizkuntzatan erabiltzen ditu: euskaraz eta gaztelaniaz.

1.188. Zure denbora libreko harremanak euskaraz ala gaztelaniaz dira? (GER-132/029)

Donostian gehienbat euskaraz egiten du, baina baita gaztelaniaz ere.

1.189. Gazteen arteko euskararen erabilera, nola ikusten duzu? (GER-132/031)

Hizkuntza aldaketa moda eta adin kontua ere badela dio.

1.190. Emakume arraunlarien taldeko kide (GER-133/002)

Arraunean aritzea, irakurtzea eta bidaiatzea gustatzen zaizkio Sarari.

1.191. Lagun euskaldunekin gaztelaniaz (GER-133/008)

Lagunek, euskaldunak badira ere, Sararekin gaztelaniaz hitz egiten dute gehienetan. Batuan egiteko ohiturarik ez dute.

1.192. Erosketetan, tabernetan...euskaraz? (GER-133/010)

Bizitza euskaraz egiten saiatzen da.

1.193. Aisialdian gaztelaniaz (GER-133/014)

Orokorrean lagunekin gaztelaniaz egiteko ohitura du.

1.194. Norekin egiten duzu euskaraz? (GER-133/016)

Ikaskideekin euskaraz egiten du beti, lankideekin ere bai, eta noizean behin, lagunekin.

1.195. Mendizalea eta kirolzalea (GER-133/017)

Zenbait kirolean aritu da Sara. Zinema asko gustatzen zaio, baita irakurtzea, bidaiatzea eta sozializatzea ere.

1.196. Arraun taldean beti euskaraz (GER-133/019)

Arraunari eta arraun taldeari buruz dihardu Sarak.

1.197. Lagunartean euskaraz? (GER-133/021)

Kuadrilan gehienak euskaldunak badira ere, badago euskaraz ez dakien baten bat. Honek kuadrillako hizkuntza ohituretan eragiten du.

1.198. Gazteek euskaraz egiten al dute? (GER-133/023)

Gernikako eta Bilboko egoera desberdinak direla dio. Gernikan giro euskalduna dago eta gazteek euskaraz egiten dute; Bilbon, ordea, ez hainbeste.

1.199. Euskara indartzeko neurriak (GER-133/024)

Instituzioen aldetik euskarari babes eta garrantzi handiagoa eman behar zaiola uste du Sarak.

1.200. Trikiti-koplak (GER-134/001)

Trikiti-koplak kantatzen ditu Florak, panderoarekin lagunduta. Ondoren, "bigarrena" edo porrusalda. Aitzurrean egitea baino nahiago duela kantatzea dio.

1.201. Baserriko beharrak, gogorrak (GER-134/002)

Baserriko beharrak gogorrak direla dio. Laietan egitea.

1.202. Baserrian goserik ez (GER-134/005)

Txerria etxean hiltzen zen garai batean. Zezina etxean egiten zuten. Goserik ez zuten pasatu, baina berak gaur egungoa nahiago duela dio. "Gorri denporan" jende askori eman ziola limosna dio.

1.203. Ezkontza eguneko otordua; mozkorrei laguntzen (GER-134/006)

Bere ezkontza eguneko otordua: sarrerakoak, zopa, txuletak... Antzinako behartsuek ez ei zuten ardorik izaten eta halako egun berezietan edaten zuten. Gero mozkorra. Hiru urte egin zituen taberna batean lanean eta makina bat gizoni lagundu ei zien, mozkortuta zeudelako.

1.204. Trikiti-koplak (GER-134/007)

Trikiti-kopla batzuk abesten ditu, panderoa jota. Ondoren, "bigarrena" edo porrusalda.

1.205. Porrusaldako koplak (GER-134/009)

Panderoa joaz porrusaldako hainbat kopla abesten ditu (aldamenetik laguntzen diote, koplak gogorarazteko).

1.206. Gabonetako kanta: "Maria, Jose, Jesus, Maria..." (GER-134/011)

Gabonetako kanta: "Maria, Jose, Jesus, Maria..."

1.207. San Juanetako kanta (GER-134/014)

San Juanetako kanta.

**1.208. Kandelario eguneko kanta: "Kandelario, lario..."
(GER-134/015)**

Kandelario eguneko kanta: "Kandelario, lario..."

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com